

EUSEBIO ERKIAGA

Batetik Bestera

Moldakuntza eta aurkezlanak: Iñaki Sarriguren



SUTONDOAN

SUTONDOAN deritxon bilduma honetan, Bizkaiak Euskalerriari eskeini deutzazan literatureredu ederrenetarikoak plazaratugura dira.

Gehienbat, hizlaurkoak dira bildumako lanok, nahiz eta genero mueta ezbardinetakoak izan: eleberri, alegi, ipuin, kazaritza, etab.

Obra honeek aspaldi samar idatziak diran kasuetan, idatzi zireaneko moduan azaldu beharrean, gaurko euskerara egokitu ohi dira. Baina oraintsukoak edo gaur-gaurkoak diranetan dagozan modu-moduan agertzen dira.

Eusebio Erkiagaren elebarri hau, hainbat urte dala idatzi zan ezkerero, autorearen baimenaz eta partaidetasunaz, gaurkotu egin da, ortografian eta morfologiako zenbait puntutan, gaurko bizkaiera finkatuaren arauera.

Horrez gainera, beste berezitasun garrantzitsu bat dabe argitalkizunok: obra bakotxak, sarre-ra gisa, aurkezlan edo ikerlan bat daroa, luze-sakona batzuetan, laburragoa beste batzuetan. Oraingo honetan Iñaki Sarriugarte gaztea, Euskal Filologian lizentziatua, izan da, sarrera lanaz, hiztegitxoaz eta gaurkotzeaz arduratu dana.

SUTONDOAN bildumako obrak aukeratu, atondu eta aurkezlanak egitea, Labayru Ikastegiko Hizkuntza Mintegiaren ardurapean ohi da, eta Bizkaiko Aurrezki Kutxaren laguntzari eskerrak ateraten da bilduma bera.

12579



Euskal Biblioteka Labayru



1011620
LITERATURA / N. 1199

EUSEBIO ERKIAGA

Batetik Bestera

Moldakuntza eta aurkezlanak: Iñaki Sarriugarte



LABAYRU IKASTEGIA



© LABAYRU IKASTEGIA - BIZKAIKO AURREZKI KUTXA
Aretxabaleta, 1 - 1.º
48010 BILBAO. Tel.: 443 76 84

ISBN: 84-505-1.811-3

D. Legal: BI-1.440-85

Fotocomposición: IPAR, S.C.L.

Inprimatzailea: Gráficas Ibarsusi, S. A.
Camino de Ibarsusi, s/n
48004 BILBAO



ERKIAGAREN GIROA ETA BERE NOBELAGINTZA

Iñaki Sarriugarte

1. Sarrera

Orain dala denbora gitxi, ez dagoala euskal nobelaz hitzegiterik esaten eban, Bilbaon emoniko hitzaldi baten, hizlari eta irakasle ospetsu batek. Euskalerrian ez ei dira emoten nobelagintzak sortu ahal izateko bete behar dituan baldintzak. Izan ere, nobela giro huritar eta burjesean sortu ohi da, eta euskal gizartean nekez aurkituko dogu holako egoerarik. Horretara, eta euskal mitologiaren beraren jatortasuna zalantzan jartzen dalarik, ba dirudi euskal nobela oraindik ez dala gure gizartearen mitologia eta izakera kolektiboaren adierazpide izatera heldu. Ohizko nobelan, bestalde, protagonista norbanakoa izan da kasurik genienetan. Euskal nobelagintzan ostera, arketipoa dogu nagusi; horretara nobelagintza erroman-tzearen jarraipen besterik ez litzateke izango.

Begoz honaino kritiko eta adituen iritziak, literatur-teoriaren argitan zuzen diratekeenak. Gure eginkizuna, baina, daukaguntxuaz ballatzea dalakoan, egoki ere egoki deritxagu, agortu, ahaztu edo erdi galdurik dagozan nobela, elaberrri, irakurgai edo dana dalakoak barriro argitara ataratzeari. Haatik honako birrargitalpen hau.

Argitalpenaren arrazoiak itaundu ezkerro, ezin esan izango dogu teknikaren aldetikako modernotasunik agertzen jakunik. Ba dagoz, halare, beste balio batzu esku artean daukagun liburuon.

Nobela modernoa abenturaren narrazioa barik, narrazioaren abentura ei da, zan. Honexetan oinarritzen zen 50-ko hamarkadan Frantzian «Editions de Minuit» dalakoaren inguruan sortzen dan «nouveau roman».

Joera horretako ditugu, besteak beste, A. Robbe Grillet, Nathalie Sarraute eta Michel Butor. Baina gaur egun, Ginebrako unibersitatean literaturazko eskolak emoten dituan azken honek dinoskunez, esperientzia ha literaturaren historian itxita dagoan kapitulu bat besterik ez da:

«El «nouveau roman» es hoy un capítulo más de los manuales de historia de la literatura francesa del Siglo XX (...). Fue una experiencia realmente apasionante, pero mucho más individual de lo que se suele creer»¹.

Ikusten dogunez, aldian aldiko moda literarioak pasakorrak ditugu. Bizitzaren legeak agintzen dauanez, sortu, euren emaitza utzi eta aienatu egiten dira. Halan eta guztiz ere, nobelak, beronen krisia sarritan aitutzen dan arren, hor dirau. Eta hor iraungo dau idazleen irudimena agortzen ez dan artean.

Euskal esparruan ere, halakoxe lilura bat sortu zan gure idazle gazteen, Europako literatur korronte barriakana eta asko, euskal literaturari kutsu zabalago bat emon gurarik, ildo horretatik abiatu zen. Zorionez! Zorionez dinogu zeren eta barritze-gogo honek emaitza barri eta oparoak eskeini eutsazan euskal literaturari Saizarbitoria, Txillardegi eta abarren aldetik.

Zenbait kasutan, baina, ba zirudian liburuetan erabilitako hizkuntza murriz, eskas, gatz bakoa zala. Adierazlea, hizkuntza, zelanbait zokoratu-ta ikusten da kasu askotan eta ezin ukatu guztiau liburuaren osotasunaren kaltetan doana.

Burrukan ikusten genduzan idazleak hizkuntzaz (gaur ere halako zer-bait esan daitekeelakoa daukagu) eta burruka horren aztarnak liburuetan euretan nabaritzen ziran. Alde batetik, lan labor samarrak ditugu «uhin berriak» eskeinitakoak. Bestaldetik, sarri askotan irakurgaitz gertatzen ziran. Oraintsu, honelaxe egiten euskun berba Koldo Mitxelena:

«Salbuespenak salbu —eta ez dira gehiegi—, ba dirudi kontatzen ahaztu zaigula. Naturaltasuna da lortu behar dena. Lehen, euskalkien bidez, naturaltasun handiko elkarriketak izaten ziren; horixe da batuan ere lortu behar duguna»².

¹ «El País» 1984.eko Urriak 24. 32 orr.

² HABE, 1984-6-15, 45. zenb., 10. orr.

Ba dirudi, teknika edota mezuaren mesedetan, hizkuntza baldar eta pobrea erabiltzera jo ohi dauala zenbait idazlek. Egia esan, hizkuntzaren jatortasuna zertan datzan esaten, ez dago batere errez. Ez gara ba, hizkuntza horren mugak eta nondik-norakoak definitzen hasiko, ezina jaku eta. Halere, zera esan geinkelakoan gagoz: Ataño, Erkiaga, Etxaide eta abarrengan aurkitzen, somatzen ditugun malgutasun, berezkotasun eta egokitasuna nekez nabarmentzen dirala gaurko liburu askotan.

Hildo beronetatik abiatzen jakun Joxe Lizarralde egunkari batzutan argitaraturiko artikulu batez:

«Argi eta garbi esateko, euskeraz argitaratzen diren liburu asko ezin irakurria sentitzen dut nere baitan. Irakurtzen hasi eta ezin jarraitu.

Zer dala-ta hori? Nire ustez, euskera bera gertatzen zait oztopo eta traba. Ezin dut irentsi zenbait euskera modu eta kito».³

Baten batek esango dau, literaturaren helburua ez dala linguistikoa, arazoiz esan ere. Ezin esango dogu baina, badaezpadako hizkuntza bat erabiliz goi-mailako literaturarik sortu daitekeenik. Ez Euskalerrian ezta munduko ezain tokitan ere.

«Iritzi eske» urten euskun plazara Lizarralde jaunak, eta harrezkero zenbait idazleren iritziak azaldu izan dira HABE aldizkariaren orrialdeetan zehar «Literatura eta euskera ona» izenburupean. Guk Joxe Austin Arrietaren berba batzu aldatuko ditugu hona arazoa ikusi ezeze, itxaropen apur bat ere emoten deusku-eta:

«Hala ere, eta bukatzeko, ez nago, agian, Joxe Lizarralde bezain ezkor gure literaturaren panorama ikusita. Etorkizunera begira nahiko baikor ere banago. Uste dut orain eratzten ari den literaturgile-belaunaldi berriak ez duela, beharbada, gureak zuen adina aurreiritzi, eta, «sasi» (ideologia) guztien gainetik eta «hodei» (snobismo) guztien azpitik, erdietsiko duela helburua: euskeraz ONGI eta SAKON idaztea».⁴

Beteko al dira errenderiar gaztearen hitzak!

³ DEIA, 1984-9-28, 11. orr.

⁴ HABE, 1984 -11-15, 53. zenb., 17. orr.

Sarrera luzetxu honen bidez, «Batetik Bestera» nobela argitaratzeko, zeintzu arrazoi izan ditugun kontutan, azaleratu nahi izan dogu: batetik Eusebio Erkiagak narratzeko, kontatzeko erakusten deuskun maisutasuna; eta bestetik, idazle lekeitiar honek darabilen hizkuntza aberats, bizi eta egokia. Uste dogu, bizkaitarrek ezeze, beste euskaldunek ere, ba dabela zer ikasia eta nora aditua liburu honetan.

2. Gerra osteko giro literarioa

Errepublika garaian euskal literaturak iristen dauan loratze erimea (Lauaxeta, Lizardi, Aitzol, Orixe...) gerrak zimeldu eta antzutu egingo dau, ia ia desagertzeraino bultzatuz. 1949. urtean Salvatore Mitxelenaren «Arantzazu euskal poema» agertzen dan arte, 12 urtetako gerraoste luze, ilun, hits eta garratz bat bizi beharko dau Euskal literaturak. 12 urte luzetan zehar ia mututurik ikusten ditugu barruan, Euskalerrian, geratzen diran idazle bakanak. Gainontzekoak, edo hilik: Lauaxeta, Lizardi, Aitzol, edota atzerrian, erbestean dakusguz: Orixe, Zaitegi, Ibiñagabeitia... 1949. urtera arte egiten dan literatur apurra atzerrian egingo da: T. Monzonen «Urrundik» (Mexico, 1945), J. Zaitegiren «Goldaketan» (Mexico, 1946), J.A. Irazustaren «Joanixio» (B. Aires, 1946) eta bizpahiru obra gehiago.

Bigarren aro baten (1949-1957), ba dirudi nasaitasun amini bat narbaritzen dala euska gizartean. Gerra-hotsak urrundu ala, zelanbaiteko itxaropena sortzen da ilunaren erdian. 1950. urtean EGAN aldizkaria sortzen da Donostian (urte beretsuan «EUZKO GOGOÄ»-ak Guatemalan ikusiko dau argia). Orixe Euskalerriaratu egiten da 1954.ean, eta 1956.ean Euskaltzaindiak bere aldizkaria argitaratzeari ekingo deutso.

Edozein modutan ere, 1957. urtera arteko literatura, formaz eta mamiz gerra aurrekoa bera dogu. Gerra ezagutu ez dabenen belaunaldia etorri arte (Mirande, Peillen, Aresti, Txillardegia...) ez da haustura gertatuko.

2.1. Gerra ondoko euskal nobela

Jesús M.^a Lasagabaster ikerlariak dinoskunez, euskal nobelaren hasiera 1897. urtean kokatu behar geunke; hau da, Txomin Agirrek bere «Añamendiko Lorea» argitaratzen dauan urtean, hain zuzen ere. Arteragokoak: «Peru Abarka» (1802/1888), «Atheke-gaitzeko Oihartzunak» (1890), «Piarres Adame» (1889) eta «Bein da betiko» (1893) ez lirateke

hitzaren zentzu zabalean nobelak izango. Agirrek markaturiko bidea izango da hain zuzen, Txillardegiren «Leturiaren egunkari izkutua» (1957) agertu arte nagusitzen dana, salbuespen formal batzu alde batera utzirik.

Euskalerrian 1937-1957 epean, hiru nobela baino ez dira argitaratzen: Jon Etxaideren «Alos Torrea» (1950) eta «Joanak Joan» (1955), eta J.A. Loidiren «Amabost egun Urgain'en» (1955). Egile biok zelanbaiteko barrikuntza dakartsoe euskal nobelagintzari, batez ere tematikari bagagokioz. Loidik nobela poliziakoaren alorra jorratzen dauan bitartean, Etxaidek, historian kokatutako nobelagintzaz baliaturik, gogo-grinen munduan murgiltzen gaitu.

Txillardegiren nobelaz, aro barri bat zabaltzen da euskal nobelagintzan: idazlego gazteago bat azalduko da plazara; hurian, kalean bizi dana eta Europako literatur-korrontei zabalik dagoana. Batuarenganako kezka ere, momentu honetan sortzen dira bizien. Ideologiaz ere desbardinak, hemengo, horko eta hango ditugu idazle gazteok. «Euskaldun-Federdun» bikote hautsi-ezina, ez da momentu honetatik aurrera, onartu beharreko doguna izango. Zerbait ari da aldatzen euskal gizartean.

1957. urtean Txillardegik zabaltzen dauan epea, Saizarbitoriaren «Egunero hasten delako» liburuaz ixten da 12 urte geroago, hots, 1969. urtean. Epe luzetxu honetan, ezin esan euskal nobelagintzaren emaitza oparoa danik, 15 nobela baino ez dira argintatzen eta⁵. Nobelaok hamai-ka idazleak idazten dituela, bat baino gehiago idazten daberen bakarrak A. Anabitarte: «Poli» (1958), «Aprika'ko basamortuan» (1961); Txillardegik: «Leturiaren egunkari ezkutua» (1957), «Peru Leartzako» (1960); eta Eusebio Erkiaga: «Arranegi» (1958), «Araibar Zalduna» (1962), «Batetik Bestera» (1962) izango dira.

Aro «modernoa» egoteak ez dau esan nahi ohiturazko nobelaren gaiak ahaztuta dagozanik. Halere, tematikari dagokionez, ordura arte ezagutzen ez zan barietate bat ikusi geinke orduko nobeletan: hiri-nobelak (Erkiaga), poliziakoak (M. Izeta, Tx. Peillen), gerrari buruzkoak (S. Salaberria), historikoak (J. Etxaide) eta abar. Aresti polifazetikoak «Mundumunduan» argitaratuko dau 1965ean, nobelagintzan ere bere emaitza utziz. Aitatu barik geratzen jakuzan autoreak J.M. Estomba, J.R. Zubillaga eta M. Itziar ditugu.

Edozelan ere, euskal nobelaren europaritzea, kritikorik gehienek aitortzen dabenez, Saizarbitoriaren lehenengo nobelaz gauzatuko da

⁵ Gogoan hartu, Jon Miranderen «Haur Besoetakoa» 1970. urtean argitaratzen dan arren, idazle paristarrek Txomin Peillen esaten eutsanez («Idazlan hautatuak» 192 orr.) 1959. urteko otsailean amaituta eukan.

1969. urtean, urte bereko Txillardegiren «Elsa Scheelen» nobela, kontateknika mailan ohizko ildotik doakigu-eta.

3. Idazlearen inguruan

Lekeition jaio jakun Eusebio Erkiaga 1912.eko irailaren 4ean, «Antzar egunez» hain zuzen ere, gurasoak Esteban Erkiaga eta Leonarda Alastra natxituarrak zituala. Oinarritzko ikasketak bere herriko eskolan egin zituan gero Merzedarioetan jarraitzeko. Goi-mailako ikasketak, komertzio arlokoak, Bilbon burutuko zituan eta 1936. urtetik hona Bizkaiko huriburuan kokatuko dau bere bizilekua.

Erkiagak berak aitortzen dauanez, ez dau idazte-lanetan maisu jakinik izan. Bere kautatik hasia dogu literatur-bideetan barrena. Halan eta guztiz ere, lana eta ekinaren poderioz goi-mailako idazle izatera heldu jaku idazle oparo eta aspergaitz hau.

Bere lehenengo artikuluxkak 1930. urtean argitaratzen ditu, eta gerra aurrean Lekeitioko barriemole dakusgu «Euzkadi» egunkarian eta «EKIN» astekarian. Poemagintzari lotzen bagaiakoz, hainbat poema argitaratzen ditu, Jon Bilbaoren «Bibliografia Vasca»-n ikusi daitekeenez.

1936. urteko gerratean, Bilbon euskera hutsez argitaratzen zan «Eguna» egunkarian hartuko dau parte, eta gerra ostean euskaltzale batek bultzaturik, prosagileak behar zirala-ta, prosazko lan luzeak egiteari ekiten deutso Erkiagak.

1952. urtean, R.M.^a de Azkue hil barri dagoala, Euskaltzaindira sartzen da Erkiaga «urgazle» edo «laguntzaile» legez. 1963.ean, Oleaga euskaltzaina hil ondoren euskaltzain «oso» edo «aulkidun» aukeratzen dabe, eta 10 urte geroago bere herritarra zan Eusebio M.^a de Azkueri buruz egingo dau sarrera-hitzaldia⁶, Gorostiaga jaunak erantzun eutsola.

Idazle nekagaitza, gure egunotara arte jarraitu izan dau idazten, Literatur-alor guztiak jorratuz: nobela, antzerkia, olerkia, ipuina... Izan ere, 1984. urteko «Bilbo Hiria Ipuin Lehiaketa» beronek irabazi eban «Untzoritxu»⁷ izeneko ipuinaz.

⁶ «Eusebio M.^a de Azkue gizon eta idazle», *EUSKERA*, 1974, XIX, 325-349. orr.

⁷ DEIA, 1984-12-9, 20 orr.

3.1. Eusebio Erkiaga kazetari

Luzeegi joango litzakigu Erkiagak kolaboratu izan dauan aldizkari guztien aipamenak egiten. Edozein modutan ere, ekintza nagusi bi aitatu gura geunkez, besteengandik nabarmen ere nabarmen agertzen jakuz-eta:

a) «Eguna» egunkaria. Berau izan da euskera hutsez argitaratu izan dan egunkari bakarra. Noiz, eta gerra denboran! «Ezina ekinaz egina». Ba daukagu ekintza xume horretan zer ikasia gaurko euskaldunok, batez ere, balizko euskal egunkari baten bideragarritasunaz hainbeste astrapala sortzen ari garan momentuon.

Manu Ziarsolo «Abeletxe» zuzendaria zalarik, honako honeek osatzen eben erredakzio-taldea: Augustin Zubikarai ondarrutarra, erredakzio-buru, eta Eusebio Erkiaga, Joxe Mari Arizmendiarieta eta Alejandro Mendizabal erredaktore modura. Sei bat hilabetez iraun eban egunkari honek, hau da, 1936. urteko Eguberri egunez hasi eta 1937.eko ekainera arte; Bilbo frankisten atzaparretan jausi zan arte. Hara zer dinoen Zubikarai oraintsu eginiko alkarrizketa baten:

«Egun batzutan ibili ginen estu, ezin atereaz, bat ez zela etorri eta bestea gaisorik zegoela, baina halere egunero-egunero atara genuen. Ez dakit gainera zenbat ateratzen zen. 18.000 edo, baina ez zen saltzen zelako, ematen ziren asko frenterako, eta nik uste dut ba zela politika bat euskera ere erakusteko»⁸.

b) *Bizkaiko Bankuaren boletina*. Erderaz «Boletín informativo del Banco de Vizcaya» dalakoa, 60-70 hamarkadetan erbestean egoan maki-na bat euskaldunen herriminen asegari gertatuko zan ezparririk barik. Bole-tin hau, 1964 urtetik 1970.era bitartean argitaratu zan. Harrezkero eten egin zan euskaldunak sorterriaz lotzen zituan hitzezko katea. Aldizkaritxu hau euskera hutsez argitaratzen zan, zuzendaria E. Erkiaga zalarik; baina zuzendaritza ezeze, lanen zamarik astunena ere, lekeitiarrak leporatzen ebala esan behar da. Australia eta Estatu Batuetan egozan euskaldunei bialtzen jaken aldizkari hau eta bataz beste 2.000 ale ataratzen ziran zen-baki bakoitzeko. Iraun eban epean, 16 urtez, 18 ale argitaratu ziran, baina euskaldunen kanporako grina moteldu ala, aldizkaria ere beherantz joan jakun.

⁸ «Augustin Zubikarai; Gerrak sortutako kazetaria», ARGIA, 1985-2-10, 1047. zenb., 27-29 orr.

3.2. Eusebio Erkiaga olerkari

Liburuetan argitaraturik ez dagozan arren, ba daukaz Erkiagak mila lore eder aldizkarietan sakabanaturik: «Euzkerea», «Gernika», «Egan», «Euzko Gogo», «Yakintza», «Olerti», «Gure Herria»... Sariak ere irabazi ditu inoiz mugaz honuntz zein harunzko sariketetan.

Euskerari on egitearren, prosaz idazten dauan lirikoa dogu Erkiaga. Bere baratzeko lore bat aipatzearren, idazleak berak, gogokoen dauana aipatuko geunke: «Illobia izengabea»⁹, Bilbo ondoko Artxanda mendian, gerra denborako hilobi baten aurrean eginiko gogoetak batzen dituana.

Merezi leuke, barreiaturik dagozan poemakaz bilduma modukotxu bat egiteak.

3.3. Eusebio Erkiaga nobelagile

Nobelagintza litzateke, dudarik barik, Erkiagak euskal literaturari eskeini deuson emaitzarik oparoena, beteena. Ezin esan halere, lekeitiarra bide barrietatik abiatzen jakunik. Molde klasikoetan burutu ditu Erkiagak bere obrak, nork bere joerak ditu-eta.

Lau libururen egile dogu Erkiaga, euretarik batzu sarituak izan diranak. Ikus daiguzan banan banan:

a) «Arranegi», Itxaropena (Kuliska Sorta, 19-20) Zarautz, 1958, 197 orr.

Nobela honek «Bizkaiko Kultur Billera»-k emoniko saria jaso eban, argitara urten eta gero. Ikusi daigun zer dinoskun Mitxelenak liburu honi eginiko kritika baten:

«Gaiñerako euskaldunontzat ain berezia duen Bizkai-euskeraz, Lekeitio'ko itz-esaera jatorretan blei (ut dicunt) ageri den euskeraz, azaldu digu bada Erkiaga'k Lekeitio'ren edertasuna. Alde onetatik, ene ustez, eztio batere zorrik Domingo Agirre-ri, eziña badirudi ere, ez jatortasunean, ez aberastasunean»¹⁰.

⁹ «Illobia izengabea», *EGAN*, 1962, XX, 12-15 orr.

¹⁰ Mitxelena, L.: «Arranegi», *EGAN*, 1958, XI, 103 orr.

Hitzok, datozen lekutik datozala, nahiko esanguratsu diralakoan gagoz.

Lekeitio dogu, beraz, pertsonaia nagusia nobelan; garaitekoak: Zurriñe, Arantxa, Jon eta enparaduak, hau da, hazur-mamizkoak, bigarren mailan geratzen dirala.

Liburua idazleak jaioterriari eta hango ohitura, berbeta, arrantzale eta bazter ederrei eginiko kantu amultsu eta bihozkorra da. Egileak dinoskunez (berau dau kultunena Erkiagak nobelen artean), «nobela baino areago, prosa lirikua dalako, neure erriarenganako maite agerpena eta gure arrantzaleen gorralpena».

b) «**ARAIBAR ZALDUNA**», Itxaropena (Kuliska Sorta, 50), Zarautz, 1962, 171. orr.

Nobela honek, Euskaltzaindiak 1958.urtean eraturiko «Domingo de Agirre» nobela-saria irabazi eban. Gipuzkeraz eginda dagoan arren, baten batek autoreari komentatu eutsanez, Erkiagaren bizkaitartasuna nongura agertzen da nobelan.

Edozelan ere, eskertzeoak dira beste euskalkienganako urreratze-ahaleginak. Izan ere, alderantzizko urreratzeak, Orixez aparte, nekez gertatu dira euskal literaturan.

Nahiz eta nobelaren kokalekua Bilbo izan, Lekeitioren presentzia nabilia da liburuan zehar. Egileak, Manu Araitbar zaldun andrazalearen eskutik, huri-giro nahasian sartzan gaitu, gizakien gogo-grinak eta jokabideak azalduz. Amaieran, Agurnegaz ezkontzen dala, seme-alabarik ezin izanak azken moralista bat emongo deutso nobelari.

c) «**BATETIK BESTERA**» (Galdu-gordeko ibillerak), Itxaropena (Kuliska Sorta, 51), Zarautz, 1962, 204 orr.

Berau dogu, «Sutondoan» liburu-sorta honetan birrargaritzen dogun lana. Bizkaieraz egindako nobela honetan Latsetan (Lekeition) bizi dan Nikanor «Zorritzto» izeneko ume baten «galdugordeko ibillerak» azaltzen deuskuz egileak, umearotik abiatu eta Bartzelonan bularrekoak jota hiltzen dan arte. Beste nobeletan legéz ekintza giro urbano, kaletarrean, gertatuko da: Lekeitio, Bilbo, Bartzelona.

Bostgarren puntuan, zehatzago aztertuko dogu liburu honen nondik-norakoa.

d) «**JAIOKO DIRA**», Labayru (Sutondoan, 5), Bilbo, 1984, 172 orr. Liburu honegaz jarraipena damotso Eusebio Erkiagak 1962. urtean etendako produkzioari. Liburuon 1936.eko anal-arteoko gerrateko kontuak dakarskuz lekeitiarrak. Halan eta guztiz ere, ez da tiro-hots handirik entzungo nobelan zehar, ekintzaren zuta-zeharrak frentetik, gudaoinetik aparte ehuntzen dira-eta. Ekintza Lekeition kokatzen da, baina herria Euskaleriko edozein huri koskor izan daitekeelakoan gagoz, garrantzi-

tsuena gerrateak utzitako egoera hits eta kutsatua baita, eta hainbeste gertatzen daneko lekua.

Erkiagak zelanbaiteko osotasuna emon gura izan deutso problemari, alderdi bietako pertsonaien jokabideak galbahe beretik pasatuz. Zintzo eta jatorrak edota zital-doilorrak, han zein hemen agertuko dira. Honetara gerrarekiko ikuspegi barri bat damosku egileak.

Liburua bizkaieraz eginda dago eta Euskaltzaindiak emoniko, aholkatutako, idaztaraudiaren aztarna somatu daiteke idazkeran.

3.4. Gainontzeko lanak

Aitaturiko liburuez gain, ba dauka Erkiagak bostgarren nobela bat aspaldi idatzita, baina argia ikusteko zoririk izan ez dauana. Itzulpenetara jorik, G. Simenon-en nobela baten itzulpenaz, «Aspaldiko Maigret», 1955. urtean Euskaltzaindiak antolaturiko nobela-sariketan 3. saria lortu eban Erkiagak. Bigarren hau ere, argitaratzeke dogu.

Antzerkiari dagokionez lan nagusi bi aipatu daikenez: «Sinisgogorra»¹¹, 1.952an Donostiako Saria irabazi ebana (lapurteraz idatzita), eta «Kanpaien atsekabez»¹² bizkaieraz idatzitako lau unetako teatro lan arina.

Bestelakoetan, aldizkarietan sakabanaturik dagozan ipuinez aparte, honako honeek aipatu geinkez: Euskaltzaindirako sarrera-hitzaldia¹³, eta R.M.^a de Azkueri eskeinitakoa (14). Honez gain, ba daukaz Altuna eta Gavel musikagileei eta Orixe, Aurre, eta abarri eskeinitako lore ederrak.

Amaitzeko eta musikari lotuz, esan daigun, bidenabar bada ere, 1957. urtean aipamen bat lortu ebala Erkiagak ABAO-k eraturitako operagai sariketan, «Usoa de alos» obragaz.

¹¹ Lan honen zati bi 1952. eneko EGAN aldizkarian argitaratu ziran.

¹² *EUSKERA*, 1960, V, 259-272 orr.

¹³ Erantzun hitzaldian, J. Gorostiagak, Erkiagak lekeitiarrei buruz eginitako lanen aipamena, damosku: *EUSKERA*, 1974, XIX, 349-358 orr.

¹⁴ «Resurrección M. de Azkue-z ene oroitzapenak, eta entzunak eta irakurriak», *EGAN*, 1964, XXIII.

4. Erkiagaren nobelagintza

Interesgarri, deritxagu, idaleakberak nobelaz, dauan iritzia bertora ekartzeari. Iritziok berak jalgi barik, «Jaioko Dira» liburuko pertsonaia biren ahotan jarriko ditu:

- «— Eta nobelea zer da, zure aburuz?
- Asmakizuna da, idazlearen lana; bere alorreko soloan erein, jorratu, landu eta bildu ohi dauan jazoera luze ala laburragoa.
- Beraz, hor, asmamena...
- Bai, asmamena dabil nagusi. Halan be, zeharo benetako diran gaiek eta zertzeladek hornidu legie kontakizuna.

(...)

- Ez; baina elebarriko gizonak eta andrak, haetariko bakoitxak gizaseme baten zera emoten deusku, eta guk, irakurleok aintzakotzat esten dogu eta arduraz baina zaletasunez sartzen gara haen barruan, eta besteren pena, atsekabe eta besteen buruhausteeek gure geureak arindu egiten deuskuez. Edo gura badozu, haen lagun eta kide egiten gara, eta okerretan eta zorionetan partaide izatea gustetan jaku. Eta hortxe datza elebarriaren erakarpina, gure jakingurea zuzperturea, irakurte guraria biztutea.» (90-91. orr.)

Zera gehituko dau autoreak Maribel lizentziadunaren hitzetan: elebarrria arte-lana dala, ederbide dala, eta bere legeak dituala; eta denbora emoteko ezeze, ikasteko eta ederbideetan barrena ibiltzeko ere balio dauala.

Horra hor, Erkiagak nobelaz pentsatzen dauana.

Guk, geure aldetik, lekeitiarraren nobelagintzan nabarmentzen diran puntu batzu aitatu gura geunkez.

Idazkerari buruz nonnahi izan dira goraiatuak Erkiagaren idazkeraren birtute eta balioak. Begoz honen frogagarri Mikel Zaratek batzen dituan Mitxelenaren hitzok:

«Erkiagaren izkeraz eta idaz-tankeraz esanak daude sarritan esan bear zirenak oro. Nork eztizkio aitortuko agerian daramazkien doai nabarmenak? Iztun ederra da beti, joria eta aberatsa, eta beste guztiaz gaiñetik jatorra. Jatortasun ori, noski, ain ego-

ki darabilen jatorrizko Bizkaiko euskalkiari zor dio, izkuntza zabalago eta osoago baten oinarri sendoa baizik ezpada ere. Ez-paitu euskalki ori estuegi mugatzen, zenbaitek oi duenez. Orre-la mintzatzen delarik, zuzen ari da bere erritarrentzat, eta argi eta errazki gaiñerako euskaldunentzat.»¹⁵

4.1. Nobela huritarra. Lekeitio ardatz

Erkiagaren nobelak giro huritar, kaletar, urbanoan bilbatzen dira. Ez dago nobelaotan 60-ko hamarkadara arte euskal nobelagintzan nabarmentzen jakun giro idilikorik, ez garo-sundarik, nahiz eta bere lehenengo liburua, «Arranegi», Kresalez blai agertu jakun.

Erkiagaren nobelagintzaren huritartasunaren ardatza, Lekeitio, bere jaioterria izango dogu. Izan ere, idazlearen lau nobelak aztertzen baditugu, bitan behintzat, «Arranegi» eta «Jaioko Dira» obretan, Lekeitio da ekintzen gertalekua. Lino Akesolok zorrotz ohartzen deuskunez, «Arranegi»-n herria itsasoari begira bizi da. Hango ohitura eta bizitza dagoz dantzatan. «Jaioko Dira» liburuan ostera, lehorretik datoz kezkek eta burukomina. Euskalerrri osoarenak dira heritarren nahigabe eta larritasunak.

Beste nobela bietan, ekintzak Lekeitioz gain, beste leku batzutan ere gertatuko dira. «Batetik Bestera» liburuan lehenengo parte osoa (liburu erdia) *Latsetan* gertatzen da eta «Araibar Zalduna»-n *Atxaga* sarritan agertuko da: «Antzarren eguna zen» (130 orr.).

Ikusten dogunez, hiru izenpean mozorrotu gura izan dau Erkiagak bere jaioterria: «Arranegi», «Latxeta» eta «Atxaga». Laugarren nobelan «uria» aipatuko da etengabe orrialdetan zehar, anonimotasun horren azpian, Euskalerrri guztiaren sinboloa bailegoan.

4.2. Gogo-grinak nobelan

Jon Etxaidek 1955. urteko «Joanak Joan» nobelagaz idigitako bidetik abiatzen da Erkiaga; batez ere, «Araibar Zalduna» eta «Batetik Bestera» liburuetan. Hau da, Erkiagak agirian utziko ditu gizon-emakumeen jokerak, grinak, maitasuna, maitakeria, bizi-nahiak eta ezinak. Norbanako eta

¹⁵ Zarate, Mikel: «Bizkaiko Euskal Idazleak», Derioko Seminarioa, Bilbo, 1970, 258. orr.

gizartearen problemak azaleratu nahi ditu idazleak. Honetara, gorrotoa, lizunkeria, emagalduek, gordinkeriak eta abar ez jakuz arrotz egingo autore honen produkzioan. Izan ere, eta idazlearen beraren hitzak aintzatzat harturik, ez legoke nobelarik holakoak erabili ezean. Joera honen lekuko, «Araibar Zalduna» liburuan, 81. orrialdean Manuk eta Lolik daben liskarra izan leiteke. Liburu beronetan, ordurako gogor samarrak izan eitekezan kera honetako esaldiak irakurri daitezke: «Nundiko arraia ote dut (...) argose dagoen urruxuna hau?» (87. orr.), «Larrutik bizi ote zanen bat ote zan?» (88. orr.). Aipaturiko liburu eta neurri apalago baten «Jaioko Dira» liburuko azken partean, honako pertsonaiak, lekuak eta ekintzak ez dira faltako: homosexualak (bestetarikoak, atzelariak, marituak, bizkar-zaleak), emagalduek (neskatilla hegalausiak, emakume hartuerrezak, julisak), dantzalekuak («Arizona», «Pumanieska»...), cabaretak, «Txinu-Auzoa», lapurretak, buruhiltzeak eta abar.

4.3. «Catarsis»-aren bila?

Esandakoak esanda, esan beharra dago, Etxaideri gertatzen jakon gauza bera gertatzen dala Erkiagaren nobela batzutan. Hau da, kutsu didaktiko bat dariela liburuei. Konfliktu eta gatazkak bai, baina irakurleak ekidin daiazan. Azpian dagoan mezua zera litzateke: legez kanpo edota fedearen kontrako gauzak egiteak ondorio txarrak dakar. Orduan, nobelaren agertzen dana da hain zuzen ere egin behar ez doguna. Ikusi daigun «Araibar Zalduna» liburuaren amaieran «Seiko» abadeak esaten di-tuan berbak:

«Zenbat naaspil gutxiago ez litzaken mundu ontan izango, seigarren eta bederatzigarren aginduak zintzoago beteko ba genitu!... Eta zenbat anima ez litzaken zuzenik zeruan sartuko, betiko su garretan ganoragabe ondatu bearrean!...» (171. orr.).

Antzeko zerbait «Batetik Bestera» nobelan. Zerbait okerreria eginda gero, atxilotu egingo dabe osasunez nahiko makal dabilkigun Nikanor «Zorritzto». Hona hemen gaisotegian dagoeneko pasarte baten, lekaiame batek esaten deutsona:

«Nikanor, kristau umetxu aldendua: epaileak esku-arteazauzake. Ba dakizu gizonen zuzentasuna ez dana beti horixe; zuzena, arteza, tamalaren haundiz. Akatsak ditu, oker-ikusteak, erizte argalak, gogorkeria ta bihurri-sundea sarri askotan.» (199. orr.)

4.4. Euskera biziaren eragina

Azpimarratzeko da, dudarik barik, euskera biziak, herri-euskerak, eta herri-literaturak Erkiagarengan daben eragina. Puntu hau «Batetik Bestera» nobela komentatzerakoan luzeago eta sakonago ikusten ahaleginduko gara. Literatura idatziaren ezaguera zabala ere ba daukan arren, ba dirudi ahozko hizkerarenganako atxikimendu berezi bat ikusten dogula idazle honen liburuetan. Hona hemen zelan margotzen deuskun hizkera herrikoa bere azken liburuan:

«Une haretan herri hizkerea, ahozko literatura zelanbait esan, bizi bizi jasoteko aukera paregabea eukan.

Arean bere, eskolau txiker diran gizonen esate-modu giarra, gordina; hitz zorrotzak, berba motelak, esaldi luzeak, berba txorta txit motzak. Batean ozen, hasare; hurrena ixilliro, gozo gozo, apal; samurtasunez, atsekabez. Itxurakeriarik bako berbeta, zuzenezko elederra, gramatikariek menperatu ezinezko hitz uriola, indartsua, sarkorra, betea, durunditsua.» (126. orr.)

4.5. Hizkera poetikoa

Olerkitasuna da Erkiagak bere hitz-lauzko lanetan ezin ezkutatu daikeen ezaugarrietarik bat. Berak ere halan aitortzen eutsan Asier Etxebarriari, Lekeitioko herri-aldizkarirako egindako elkarrizketa baten: — «Zein dozu liburuotatik, atseginena eta ederrena? — Atseginena «Arranegi», nobela baino areago, prosa lirikua dalako...»

Kritikalariak ere iritzi honetako agertu izan dira Erkiagaren lanak komentatzerakoan. Mitxelenak, kasurako, honako hau inoskun «Arranegi» liburuari buruz:

«Argi eta garbi ageri da, edozein orrialdetan, egillearen «olerkitasuna» eta lirikarako ixuria.»¹⁶

«Araibar Zalduna»-ri dagokiola J.A. izenpetzen eban batek kutsu bera antzemoten deutso nobelako zenbait pasarteri: «...el poeta a veces supera al novelista.»¹⁷

¹⁶ Mitxelena, L.: EGAN, 1958, XI, 102. orr.

¹⁷ J.A.: B.R.S.V.A.P., 1962, XVIII, 214, orr.

5. «Batetik bestera»

Oraingo honetan «Sutondora» dakargun liburua 1961. urtean idatzia da eta urte beratan irabazi eban «Domingo Agirre Saria», hurrengo urtean argia ikusten ebala. «Latseta»-n Lekeition kokatzen dau egileak ekintzaren hasiera, liburuaren bigarren partean Bilbo eta Bartzelonara pasatzeko. Egileak berak aitortu euskunez, Nikanor «Zorritzot» pertsonaia nagusia, Lekeition ezagutu eban mutiko baten irudikapena izango litzateke. Halere, ekintzak, egoerak eta bestelako pertsonaiak idazlearen irudimenari zor deusguz.

Liburuak zati bi daukaz, eta zati bakoitzean, hamalauna kapitulutan ikusi daikeguz «Zorritzot»-ren «galdu-gordeko ibilerak.»

Liburuaren banaketa, formaz zehatza izanik, desorekaturik agertzen da ekintzaren desarroiloari dagokionez. Luzeegi otutzen jaku lehenengo zatia, ekintza ez da aurreratzen eta. Zation amaiera bera ikusirik: «...ba joian joan, galdu-gordeko ibileretan jarria, Nikanor, herri batetik bestera.» (106. orr.), ba dirudi nobela, benetan, bigarren zatian hasten dala. Lehenengo 14 kapituluak, mutila eta bere inguruaren aurkezpena egiteko aitzakia baino ez dira; bide batez, egileak, gaurko aurrerapenak dirala-ta maldan-behera doakigun umeen mundu aberats eta atsegina (bere umearoko mundua) erakusten deuskularik.

Ekintzaren garapenean ezeze, idazkeran ere somatu leiteke liburuaren zati bion arteko aldea. Zatiok zelanbait bereiztearren, egileak narrazioan adizki desberdinak erabili izan ditu. Lehenengo zatian, lehen aldiko adizkiz baliatuko da urruntasuna nabarmendu gura baileuan: zan, ziran, eban, eutsan, ziharduan, ekien, egoan... Bigarrenean, ostera, orain aldikoak nagusitzean: da, dira, dau, deutso, dihardu, darabil, datza..., ekintza hurrago sentitzen dogu.

Nikanor ardaztat harturik ume eta nagusien «mundu» desberdinak deskribatzen deuskuz autoreak liburuaren lehenengo zatian. Umeen amets, egitada eta barrabaskeriak; Buffalo-Bill, Carpanta, Nick-Carte; Nikanorren gordeleku «santua»; umeen jokoak: iruntz ala legor, txanpan, parretean, puntura; piztiakaz egindako bihurrikariak: tximeletak, suangilak, euliak, ehiza; sasieskolak eta abar. Alderdi honetatik ikusita, igarotako momentu baten testigantza damosku egileak. Baina koskortu ala, nagusien munduko gorabeherak ezagutu ditu Nikanorrek: jauntxokeria, zekenkeria, azpi-jokoak. Lana zer dan ba daki, egunkari-saltzaile eta bizikleta-konpontzaile ibili da-eta. Maitasun ikutuaren zidarra ere asmatu dau bere baitan, Nekane eta Garbiñe ezagutzean.

Herriko hauteskundeak hurreratzen dirala-ta, talde berezi bi osotzen

dira herrian: batzuak, «eleiza-kolorez ta zintzotasunez» jantzita dagozanak: Peru Lustreputx zapataria, Etxabelar maisua, Ubaldo bizargilea, Dorregarai botikarioa. Besteak «askatasunaren izenean, aurrerapen ezaugarritz» apaintzen dira: Olarratz jauntxoa, Anton Okaran bonberuburua, Mordobiko txiribogina, Kosme Tutulu drogerua, Lukas Letamendi alkatea. Ba dirudi Nikanorrek hareek, honeek baino maiteago dituala.

Ohizko azpi-jokoei esker botoak betikoan alderdira lerratuko dira eta honek sutan jartzen dau mutila. Gogait eraginda dago. Herria itogarri bihurtzen jako. Kanpo-mina sentitzen hasten da. Esan eta egin, nagusiari bizikleta bat ostu, eta hor doakigu «Zorritzto» handi-nahiak bultzatuta bide ezezagunetan barrena.

Liburuaren bigarren zatian, norabide bako zirimol baten sartzen jaku Nikanor. Heriotz eta ondamendira eroango dauan zirimol zoroan hain zuzen. Lau egunetako bidaia eginik «huri nagusira» heltzen da. Hemen «Gabontza» txatarreruarekin hasten da lanean, kobratu barik baina, jantruke. Bilbon Ezekiel sozialista ezagutzean, mundu barri bat zabaltzen jako mutikoari: Marx, gizarte-azua, oporketa nagusiak, mitinak. Bien bitartean, Iruone neska hegalausia eta Zizili neska maratza ezagutzen ditu baina ez dira bere bihotz egarria asetzeko lain izango.

Bere «mundu barri» eta guzti ez da Nikanor gustora bizi. Lapurretari ekingo deutso eta «Gabontza»-ri osturiko dirutzagaz, «huri gorenera», Bartzelona aldera abiatzen da. Hemen anarkismoaz egingo dau topo eta barriro liluratuko jaku. Baina langile zuhur, fina izandakoaren bizimoduak ez dau aurrerantzean nasaitasunik aurkituko. Liburua, azken moralizatzaile bategaz amaituko da.

Pertsonaiei dagokienez, era bitakoak ikusten ditugu, liburuaren zatien arauera. Lehengo zatian, idazleak halakoxe kuadru herrikoi bat margotu gura izan deusku; baina, egia esan, pertsonaiok ez dabe karakterizazio larregirik. Damas, Dorregarai, Lepoker, Txomin Egarrri eta abar ez jakuz erreal begitantzen. Lauegiak ditugu. Gugandik, urrunegi sentitzen ditugu. Onak edo txarak, liberal edo karlista, kristau zintzo edo fedebako. Eta dan-danek diraue eurenean; ez dira ezertan aldatzen. Nikanor litzateke kuadru honetatik nabarmentzen dan bakarra. Psikologia, zelanbait, konplexuagoa dau besteek baino. Onerako edo txarrerako, Nikanorrek bueltaka darabil bere izatearen funtsa.

Bigarren zatiko pertsonaiak, oster, hurrago sentitzen ditugu gugandik, Zizili, Iruone edo Beronike, desberdinak izan arren gure tartekotzat onartzen ditugu. «Gabontza», «Mozolo» eta Ezekiel ez jakuz arrotz egiten. «Mautsa» litzateke, behar bada, mundu barri horretan kabitzen ez dana. Pertsonaia borobilagoak ditugu bataz beste. Nobela errealego egiten dan


neurrian, pertsonaiak ere halaxe begitantzen jakuz; orduko, gizaldi honen lehenengo hereneko gizarte zurrunbilotsuaren ispilu.

Nikanor «Zorrizto»-ren bilakaera, hiru leku nagusitan gertatzen da: Latseta (Lekeitio), «huri handi samar haretan» (38. orr.). Hemendik muti-la Bilbo barruntatzen dogun huri nagusira abiatuko da:

«Mendiska batzuen ostean, etxeak banaka lez agertzen jakoz. Gero tximini luzeak eta keiaren agiri ugariak dagoz ha zetan. Olak, lantegiak, olabeak, trenen arnasa baltzak...» (119. orr.)

Hirugarrenik, Mediterraneo ertzearaino joango jaku gaztea, Bartzelonaraino hain zuzen: «Mediterraneo ertzeko huri haundi, eder, bikaina!» (169. orr.), «kale luze luzeak, etxe zabal jasoak, zugazti ikusgarriak (...) kai ontziz betea.» (170. orr.), «Kolonen irudi jasoari begiratzen deutso noizean behin Nikanorrek» (175. orr.).

Eskema modura emonda honetara gauzatuko litzateke bilakaera:



5.1. Eusebio Erkiaga narratzaile aparta

Ez dogu uste, narratzaile, kontatzaile legez, Erkiagak daukazan balioak aipatzean ezer barririk esango dogunik, gure aurretik makina batek gorai patu izan ditu-eta, lekeitiarraren idaztan keraren aberastasun, bizitasun eta egokitasuna. Halan eta guztiz ere, egileak sozialista eta anarkistek buruz erakusten dauan jarreraren objektibotasun gitxi ikusten dogu, partziala dalakoan gagoz eta bildur gara T. Agirrek «Garoa»-n margotzen deuskun Nerbio ezker alde, edota Eibarko mitina ez ete diran liburuan isladatu.

Liburuko pasarte eredu-garri batzu aipatzeko orduan, ondokoak nabarmenduko geunskioz irakurleari: narrazio pasarteei gagokiezalarik, idiskoaren hilketa (56. orr.) eta suangilak harrapatzen ditueneko zatia (38-39. orr.) aitatu leitekeez, lehenengoan Mogelen aztarna, gure ustez, argi agertzen dala.

Deskripzioei dagokienez, Nikanorri buruz damoskuzan irudiak ere egoki egokitzen hartu geinkez: irudia (24. orr.), karikatura (34. orr.) eta barne irudi edo argazkia (35. orr.). Aitatzekoa era berean, 43. orrialdean egiten dauan Olarratz jauntxoaren baratzaren deskripzioa.

Alkarrizketetan ere, jakin daki, Erkiagak hizkuntzaren baliabide eta errekurtsoak erabiltzen. Honen lekukotasuna Damas ortulaua eta herri-tar zenbaiten arteko autua izan leiteke (100-101. orr.).

Narratzailearen ikuspuntuari dagokionez, narratzailea ekintzatik kanpo dagoan arren, berak mugitzen ditu hari guztiak. Orojakilea izateaz gain, sari askotan parte hartzen dau ekintzetan bere iritzia azalduz: «Hori geroak esatekoa zan» (27. orr.), «Jakina ba!» (35. orr.), «Alderdi bataren buruzagia —hoba ez— Olarratz jauna izango zan» (80. orr.). Batzutan narratzaileak itaundu eta erantzun egingo dau: «Algotzak ete? Bai zera!» (115. orr.), «Lana eskatuko ete deutso? Zergaitik ez ba?» (120. orr.). Beste batzutan, fikzioa kokatzen dan denborako datuak emoten deuskuz: «Aldi haretan, buruz ikaste lanak ziran nagusi» (41. orr.), «Astelehenetan-periodikurik ez zan egoten orduan-hantxe hiltokian...» (50. orr.), «Orduko bideak...» (86. orr.).

Zenbait pasartetan, irakurleak ezagutzen dituan jazoerak azaltzen ahalegintzen dan narratzailea, eta honek, dudarik ez, astuntasuna emoten deutso kontaktari: «Begien bistakoa da honen zergaitia. Mari Asunez gustaturik egoan aurki» (71. orr.), «...lehenago esandako eran» (86. orr.), «baina toki gorenak bi ziran, irakurleak dakianez.» (93. orr.).

Azkenik, ezin utzi alde batera liburuaren azkenetan agertzen dan «catarsisa». Nikanor, bizitza zurrunbilotsua eroan dauan arren, egindakoak damuturik, Jesukristoren magalean hilgo jaku. Orri batzu lehenago, 191. orrialdean hain zuzen, liburuaren halakoxe laburpen bat damosku autoreak, Nikanorren bakarrizketa baillitza, umetako bizipenak eta etxetik urtenaz geroztikakoak erkatuz. Helburua hauxe litzateke: irakurlea, txarto eginak dakarren ondorioaz konturatzea eta okerreko bidetik ibiltzeak gizonari ekari leikion kaltea kontutan hartzea.

5.2. Estiloaz

Ikusi daiguzan Eusebio Erkiagaren estiloaren ezaugarrietarik batzu:

5.2.1. Hizkera poetikoa

Autorearen nobelagintza orokorra komentatzen genduanean, olerki-gintzarako joera zan aitaturiko puntuetarik bat. «Batetik Bestera» hizkera trinkoagoz idatzita dagoan arren, sarri ere sarri azaleratuko da poeta. Hona hemen, kasu baterako Mautsa andra loditonaren menopausia zelan adierazten deuskun: «Zimeldu jako haragia; bizi-iturria agortu. Ta bare-aldi urdina dauka bere inguru, odolaren gorriaz ahazturik», (139. orr.). Ederra benetan! Iluntzea ere era poetikoz emongo deusku: «Iluntzeak, bere izara baltzeranak zabaltzen ziharduan zeru eta lurtean...» (87. orr.). Baita egunsentia ere: «Haize hozkirriak, huriko kaleak goizeko arnasaldi biztugarriaz beteteko bere ipizki ikus-ezina astindu ebanean...» (81. orr.). Begoz adibideok joera honen frogagari.

5.2.2. Ironia

Liburuan zehar ugariak dira ironi handiz deskribatutako jazoerak, gertaerak. Batzutan ironia, pertsonaien ahotan agertuko jaku. Ikus, adibidez, herria suak hartzen dauaneko pasarte hauxe: «Sakristaua ere, lo ete dago ba, kanpairik ez joteko? Ez dozu hori bapere mirari. Ezkonberria da-ta», (10. orr.). Bildur gara, gure euskerak jasaten dauan diglosia dala-ta, zenbaitek ez ete deutson esaldiari leku egokitik oratuko.

Inoiz, ironia, pertsonalek esandakoaren ondorio legez dagerkigu: «Baltxa! Baltxa!! Hona, Baltxa!...» esaten deutso Nekanek, baserritarraren alabatxuak, hiltegitik ihesi doan idiskoari. Eta narratzaileak gehitu: «Ona bai, ona egoan «Baltxa»...» (52. orr.).

Baina ironiazko pasarteak, gehienbaten, narratzaileak egindako baieztapenetan agertu dira. Honen adibidea, 34. orrialdean Nikanorrez egiten dauan karikatura izan leiteke. Olarratz jauntxoaren literatur-zaletasunaz zerau dinosku: «Onduten ei eukazan onduten, bere idazgelako zurezko apal txairoetan; liburu jator asko, ardaia lez egonak eta iraganak ontzen ei ditu-ta». (48. orr.). «Gabontza»-ren bigarren lorako maitakeriaz honela egiten deusku berba: «Ba ekian honek, inoiz edo behin jateko ahozuri ta milingen gogorik izan ezkeru, non zuzendu ta aurkitu, haragi hilen antzean biziak ere...». (138. orr.).

5.2.3. Konparaketak

Maisu honetan ere Erkiaga jauna. Luzeegi joango litzakigu konparaketak egiteko erabiltzen dituan teknika desberdinak aipatzea. Baina punturen bat aipatzekotan, konparaketen plastikotasuna eta berezkotasuna nabarmenduko geunkez. Bestaldetik ezin esan, ohizko baliabideetara mugatzen danik. Ikusi daiguzan ale batzu:

«Entzuten zituanak, isilik beregantzen zituan Nikanorrek, lur egarrituak euri maminaren bezo gozoa atseginez irusten dauan antzera» (84. orr.)

»Talo palea lako arpegi biribilean» (120. orr.)

»Letrak (...) mustur batean agertu, bestean ostu; teilatu ganeko hegaletan zehar, antzez ta egokitasunez ibili ohi diran katu azkarren taiura». (126. orr.)

»Katu amea horrelantxe ibili ohi da bere kumakaz, Nikanor bere poltsa ostuaz dabilen araura». (168. orr.)

5.2.4. Sintagma pareleloak

Mikel Zarete¹⁸ dinoskunez, mendez mende eta literatura guztietan agertzen da teknika hau. Baina 1927.eko belaunaldiko erdal idazleek eta 1964.eko «Uhin Berriko» euskal poetek zelanbaiteko barrikuntza emongo deutsoe. Erkiagak ere, maisutasunez darabil teknika hau, sintagmak era askotara pilatzen dituala.

Kasu batzutan normal antzekoak ditugu:

«batean onerako
hurrengoan txarrerako
inoiz hoberako...» (65. orr.)

Inoiz edo behin, egitura konplikatuagoak erabiltzen ditu:

«hangoak eta hemengoak
erabiltzen dituen joan-etorriak,
sortzen dituen nahasteak,

¹⁸ Zarete, Mikel: «Euskal Literatura II», L. Zugaza, Durango, 1978, (99. orr.).

inori asmauten dituen guzurrak,
 ezarten deutsezan irainak,
 eratuten dituen ziriak,
 lakirioak
 eta saldukeriak,
bai hitzez,
bai esan gaiztoz,
nahiz zemaiez,
nahiz bildurpean;
eta baita diruaren bitartez ere». (68. orr.)

Baina honeez gain, teknika berezi bat erabiltzen dau Erkiagak paralelismo askotan. Hau da, sintagmak papereratu ala, luzatuz joango dira, piramide antzeko zerbait osotuz. Honek, neurri batez, arindu egiten dau paralelismoak izan leikeen astuntasuna:

«eurekin jolasteko;
garramura zolituia asetzeko;
zorra ordaindu ostean, agur esan eta bertan behera ta betiko ahazteko...!» (136. orr.).

Antitesiak ere maisuki darabilz Erkiagak liburu honetan honako adibideotan ikus leitekeenez:

«... edonoiz ta edonon buztartu ta banandu, burrukan jardun ta adiskidetun, irainak alkarri jaurti ta laztan bigunez alkar igutzi ohi diralako, hiru indarrok». (85. orr.)

«Argi ta ilun, poz ta neke, atsegin ta negar, irribarre ta malkoak: munduko bizitzaren irudi bete bete!» (134. orr.)

5.2.5. *Sinonimozale*

Idazkera oparoko idazleek problemak izan ohi ditue euren hiztegi aberatsa orrialdetan barna barreiatzeko. Horrexegatik sortu dira gure artean hainbeste «edozale». Erkiagak arazo honi irtebide hirukoitza emongo deutso, jokabide honen gogaitasuna zelanbait arinduz. Batzutan (*e*) *ta/edo* konjukzioez baliatzen dalarik, besteetan, sinonimoak alkarren ondoan idatziko ditu, koma (,) batez loturik. Ikusi daiguzan aleren batzu:

- a) *(e)ta*: barri ta albista (15. orr.)
galde ta itaune (83. orr.)
zuzenak eta artezak (104. orr.)
- b) *edo*: errotea edo librua (56. orr.)
moldegintza edo irargoa (85. orr.)
garazkidea edo sozioa (158. orr.)
- c) *justaposizioa*: Akuran, alkilerrean (61. orr.)
ezerezean, duban (78. orr.)
notinak, pertsonak (78. orr.)

Batzutan harrigarria da gauza bera izendatzeko erabiltzen dituan era desberdinak. Halere, gorago aipaturiko tekniken bitartez edo testuinguruak lagundurik, irakurleak ez dauka problema handirik adierazle eta adieraziaren arteko erlazioa antzemoteko. *Kotxe* esateko, honako hitzak erabiltzen ditu 44. orrialdean: «automobil», «kankarru», «tarrant», «beribil», «tramankulu», «burdi». *Egunkari* hitzari lotzen bagaiakoz, hona zeintzu berba aurkitu daikeguzan: «eguneroko», «paper», «egunkari», «perioidiku», «izparringi», «albistari». Gauza bera *bizikletari* dagokionez: «bxiringuts», «bxirrinbiko», «bilkin», «bizikleta», «ibilikai», «zoroburdi», «asto».

Ulermena eragozten ez dan bitartean, urtenbide egokia izan daiteke, idazkera itxi eta beti-berarengandik aldentzearren. Halere, erreza da aberaskerian jaustea, liburuko zenbait hitz-zerrendatan ikusi daitekeenez. Ikusi 38. orrialdean agertzen dan txori-izen zerrenda amaigabea.

Txomin Agirrerri jarraituz, luzatu egiten ditu sarri askotan sintagmak. Gaurko joerak, trinkoagoak dirala esan beharrik ez dago. Guztionek klasisotasuna eransten deuto nobelari: «jente menuxa, behargina, langilea, nekazalea; txit ezeukiak ere bai». (13. orr.). 134. orrialdean honetara deskribitzen deusku taberna-giroa: «autu isil, barriketa ozen, barre zoro, iri gangar, hitz gozo, berbetea heze, mozkor-deadar...»

5.3. Euskera biziaren oihartzun zolia

Nobelaren euskerari darion freskotasun eta berezkitasuna azaltzen ahaleginduko gara puntuon. Adibide gramatikal bat erabiltzearren zera esango geunke, Erkiaga eta hizkuntzaren artean ez dagoala justaposizio edo koordinaziorik. Kasuon idazlea dogu perpaus nagusia eta hizkuntza menperatua. Ez dogu jerarkia problemarik ikusten. Ez dirudi Erkiagaren

luma saltoka dabilenik. Ondo dauka bereganatuta hizkuntza, bere euskalkia hatan ere, eta honek, jakina, erreztu baino ez deutso egiten idaztea. Hara 1958. urteko «Domingo Agirre» nobela-saria emotean zelan egiten euskun berba A.P. Mendizabalek:

«Jaunak, Eusebio Erkiaga euskaldun euskalduna dugu ezur eta mami; Eusebio Erkiaga¹⁹ k euskerazko gogoia dauka, euskerazko bizitza, euskerazko anima. Eta orren lur gozotan azitzen dan landareak, mardula eman bear naitaez frutua.»¹⁹

Ikusi daigun, bada, zertan datzan Arantzazuko praileak dinoskun mardultasun hori:

5.3.1. Esaldi modu jatorrak

Koldo Mitxelenak oraintsu salatzen eban euskerak jasaten dauan eraso zitala:

«Kale mailako diglosiari dagokionez, erderazko esaldiak, moduak, hitzak eta abar ari zaizkio euskerari itsasten. Euskerak hizkuntza bezela izugarritzko astindua ari du jasaten. Era askotara egin du gainbehera.»²⁰

Izan ere, hiztegi-mailako diglosia hartu ohi dogu kontutan gehiengotan, eta erdal kutsuzko berbak baztertzeko grina sentitu izan dogu gure kautan behin baino gehiagotan. «Abioi», «dibujo», «papel» gaitsetziko leukezan askok, errez onatuko leuskizuz *ulea hartu*, *Bilborarte edota elkar afaldu eben*. Horra hor arriskua: arimabako hizkuntza sortzea.

Hizkera jatorraren bila dabilenak harrobi galanta dauka idazle honen lanetan. Lokuzio ederrak eunezean topatuko ditugu: «Hor dago untzea», «ahuntzaren gauerdiko eztula», «aho bete haginegaz geratu», «bakoitzak bere opilari su», «eztitan egon», «lepo betena emon», «arteak hartu», «jo ta sua», «berek eta bost», «Jaungoikoak daki», «nireak egin dau». Beste esakune askotan ere, hizkera aberatsaren (naturalaren?) aztarnak dakusguz: «narru gorrian», «inon diran barre karkatxak», «Une harexen atsegi

¹⁹ Mendizabal, A.P.: *EUSKERA*, 1960, V, 422. orr.

²⁰ Mitxelena, Koldo: *DEIA*, 1984-11-7.

na!», «Jaungoikoaren egia? Bai. Jaungoikorako!», «ez deutso ardurarik», «txistik esan barik», «txikitan, dirurik ez eukenetan», «Ez dago kale gorrian, eta tira!», «bost ardura deutso», «Barruko harrak darabil», «Hau gauaren luzea eta inguingarriaren inguingaria!...», «Bildurrarren esan ditu...»

Gaurko «segun eta...» maisuki darabilsku Erkiagak erdal joskerara jo barik: «farol ugardo batean eukiten zituan aukerea zelan zan» (35. orr.), «Zein dan, zenbat denporarako dan» (74. orr.).

Amagabe bihurtuko litzakigun zerrenda hau *ɔ*sotzeko, instrumental kasuaren erabilkera egokia ikusi daikegu: «hasarrearen hasarrez», «urteen urtez», «bustiaren bustiz», «asazkaldiaren haundiz», «emonaren emonaz».

5.3.2. Ahozko hizkeraren aztarna batzu

Erkiagarengan, asko dira izan, ahozko berbetaz zerikusia daben puntuak. Adibidez, honako esaldi honetan: «sua, berez berez, makaldu, alper tu eta etxungi egin zan» (16. orr.); errepikapen adierazkorra, elipsisia eta galdegaiaren erabilera egokia ikusi daikeguz. Baina goazen punturik puntu.

Kontatzeko, narratzeko moduari dagokionez, ugariak dira Erkiagak esaldiak hasteko erabiltzen dituan hitz edo perifrasiak: «Txikiena izan ereta...», «Harako bere osaba batek egin zuana...», «Behinola...», «Heldu zan ba...», «Zana zala...», «Geroago behin batean...», «Halakoren batean...».

Galdegaia jator asko erabilia ikusi daikegu, liburu guztian zehar: «zeregin nagusiagoak euki eukazan-ta», «ba zalako izan», «ba joian joan», «Nik entzun, ez; nik esan dinot».

Esamolde biziak, nongura agertuko jakuz liburua zabaltzen dogun orritik zabaltzen dogula: «hortik hemendik», «horrelakoxe gogoetak», «Zorionekoa zan, izan ere gero», «Ogia, han hor hemen irabazten eban», «Eta zer egingo, zer ez egingo, dapa!», «Esan eta egin», «Bai zera!», «Hori esan ba!», «Bai zera itxi!», «Zera, zegan dituzue txiringutsok?», «Holako mutilik!», «Zuri zer deutsu, ba?», «Jakinal», «Zetan edo hatan», «horko aienea ta hango biracoa!», «gehiagoko barik»...

Errepikapenaren erabilera litzateke ahozko hizkeraren beste ezaugarri nabarmen bat: «Jendea hasi zan batu eta batu», «Gorri gorri eginda etorren», «Sari bai sari», «Lekuan lekuan», «Kendu hadi hortik kendu», «Honetan jo eben jo pataria», «Zati zati egingo zaituet!... Zati zati!...», «eta unean unean, untzeak untze», «ibilian ibilian, polito ziharduan», «gogaitaren gogaitan», «nagi bai nagi», «Batzu batzuek».

Bizkaieraz bizi-bizirik dagozan deklinabideko forma hurbilak, singular eta batez ere pluralaz, txitean pitean dagerkiguz: «Bestelako gau-jagolok»,

«Txanponon orde», «mutiko urtentxuon...», «Hitzok», «okerron harriak», «Geldi, txatxok halakook!», «Barrabasok». Singularrez, nominatibo, ergatibo eta inesiboa agertzen dira nagusi: «Kendu hadi hortik kendu, kirten hori», «Tarrantau hutsik baneroia...», «Errukari hori!», «Hik egin al dok tiro hori, kirten horrek?», «Zapion», «Aspaldion».

Ohiu-hitz edo interjekzioei lotzen bagaiakez egoki deritxagu, Txillardegiren berba batzu hona ekartzeari:

«Erdal giroa nagusitu ala, ahuldu eta odolustu egiten da euskara. Eta makaltze hau interjekzioen mailan ageri da garbienik; orain dela gutxi arte, erderaz ari zirelarik ere, euskarazko interjekzioak erabiltzen zituzten euskaldunek (ene! hau lana!). Orain, berriz, gazteenek batez ere, erderazko interjekzioak (eta hitz zantarrak bereziki!) erabiltzen dituzte (puta! Dios!), baita euskaraz ari direlarik ere»²¹

«Batetik Bestera» liburuan ez dogu horretan eskasirik ohartuko: «arranotan», «Arraioa!», «Errekontxo!!», «Barrabasok!», «Aufa!», «Horra-tiok, O!», «Arranoa!», «Utikan!», «Kontxo!», «Alajainkoa!».

Testuinguruaren arauera hitz iraingarriak ere topa geinkez: «Agura urdea, halakoa!», «Neska barrabana!», «Madarikatu halakoa!», «akerrandi madarikatu hori!», «Aker txarri hori!», «Ardiseme, emaki hori...!».

Puntu hau amaitzeko hots-hitz edo onomatopeiaren batzu dakarguz bertora, ahozko hizkeran garrantzi handiko baliabide adierazkorra dogu-eta. Liburuon eurrez ikusi ahal izango ditugu: «Txipirri-txaparra», «dinbidanba», «dzart», «bol-bolka», «zirti-zarta», «zart», «fli-flu», «pla-pla», «zanga-zanga», «glan-glan», «braun», «danba», «zipli-zapla».

5.4. Herri-literaturaren eragina

Gorago esan dogunez, hau konstante bat dateke Erkiagaren nobelagintzan. Liburuon ere, zenbait bertso eta kanta labor tartekatzen dau autoreak, gehienetan efekto umoretsua lortu gurean. Holakoetan ez dogu ortografia aldatu. Alkarrizketetan testularitzaren teknikara joko dau behin baino gehiagotan: «Zelan? Belan ta kapelan!» (16. orr.)

²¹ Txillardeg: «Euskal Gramatika», Ed. Vascas, Donostia, 1978, 436. orr.

Edozein modutan ere, argiagoa dateke, errefrau edo atsotitzak erabiltzeko dauan ixuria. Batzutan erdal esamoldeak, euskeratu egiten ditu: «garaitzailearen burdian sartu» (102. orr.), «Zahartzaroan nafarrerria» (138. orr.), edo «zer dau nahiagoitsuak, ikustea baino» (174. orr.). Kasuotan sarreratxu bat egingo deustso esaldiari: «esan ohi danez», «Holantxe dino erdal-esaera batek» eta abar. Euskerazko adibideetan, antzeko zerbait egingo deusku egileak kasu askotan; hau da, esaldi, esakuntza, esaera edo errefrau baten aurrean aurkitzen garala ohartu: «harako esaera zaharra gogoan ebala nonbait; «azkordinak osatuteko zerik onena, babearen bigarren lorea». (35. orr.); «Amamak, bere atsotitza aitatu bage, ezin itxi ba: «Han ere, txakurrak ortozik» (114. orr.)

Ikusi daiguzan beste aleren batzu: «Ez sarerik heda, usoak aldegin ostean». (110. orr.), «Lapurri, lapur ta erdi». (112. orr.) «emonak urritzea dauka». (130. orr.), «Kalte dagianak bizarra lepoan» (169. orr.) (kasuon, armari bateko esana dala gogoratzen deusku; Getxoko armarrikoa oker ez bagagoz), «Dagonean, bonbon, ez danean, egon» (170. orr.).

5.5. Lexikoa

5.5.1. Lexiko sorkuntzarako bideak

Ohizko hiru bideez gain, mailegutza, erakarketa eta konposizioa; adierazari dagokiozan beste hirurok aipatzen dira gaur egun: zabalkuntza semantikoa, berrezarpen lexikala eta berrikuntza fonologikoa. Erkiaga eroso dabilkigu seirotan barrena.

Mailegutza eta neologigintza, batzutan, parez pare erabiliko ditu, erdal kutsuzko hitzaren ondortxuan neologismoa, hizperria jartzen deusku-la: «monja/lekaiame», «automobil/beribil». Neologismoak edozelan ere, ugari ere ugari ditugu orrialdeetan zehar: «Laterriz-ganekoa», «laterri-jagolak», «urrutizkina», «ostiko-joko», «ukabilkarien burruketa», «idun-lokariak», «ustari», «ondasun-agerkaiak».

Erakarketari dagokionez, ez da Erkiaga euskalki bakar bateko baliabideakaz konformatzen diranetarikoa. Ez horixe! Handik hortik hemendik bilatuko dau atzizki egokia, baliabide zehatza: zaharkuldu, kolorga, ume-kondo, ikasgu, etzangu, edangu, luzangabxu, erreztu, galanto, zitalkiro, ikuskari aulkino, landuka, sendagailu, ezkongee, zaharkildu, arlotekuntza, neurribaga, etxakide, ugerdo, bideska, gorista, irabazkizun, egingo, are-riotza... Honen bitartez, duarik ez, koloretuago bihurzen jaku narrazioa, kontaketa; hizkuntzari arrotz jakozan espresabideetatik urruntzen garala.

Konposaketaren adibideak, kontaezinak izanik, irakurlea berehala konturatuko da baliabide honen maiztasunaz.

Zabalkuntza semantiko eta berrezarpen lexikalaren adibide bina jar-tzearren honakook aipatu geinkez: «Uradar» (10. orr.), «heste-giltza» (11. orr.) eta «ur-hodiak» (13. orr.), «hodi bikoia» (142. orr.). Lehenengo ka-suan, bizi-bizirik dagoan hitzak beste esparru semantiko bat(zu) hartzen dau(z). Bigarrenean, galtzeaz edo leku konkreturen baten bakarrik erabil-tzen dan berba, geuregandu egiten dogu beste zeregin batzutarako erabi-liz: *hodi*, Azkuek → «caño», «canal»... (Hiztegia, 826. orr.); Erkiagak: «ur-hodiak» (mangueras), «hodi bikoia» (escopeta).

5.5.2. Beste euskalkienganako joera

Bizkaieraren barruan ba dauka ohitura Erkiagak bere jaioterri ta ingu-ruko berbak erabiltzeko, Lekeitio, Ondarru eta Markina aldekoak hain zuzen: «lokatu», «esteria», «manatan», «apapuan», «sostor», «mustau», «bu-rumurri», «loro», «putxik»...²². Baina, Euskalerriko beste puntaraino joa-ten jaku lantzean behin uzta bila: «emuts» (Z), «tarranta» (Z), «konerka» (B.N. Zaraitzu), «sirats» (Z), «adelu» (Z), «hegalausi» (Z, BN)...²³. Bardin beste euskalkietako hitzakaz: «nahi baldin...», «utzi», «halabera», «heltzeaz», «jalki», «hautetsi», «eratxeki», «hertsu», «jardespentak», «elebide»...

5.5.3. Euskera zaharraren zantzua

Hiztegiak gain, aditzean eta joskeran ere ikusi leiteke Erkiagak lehen-go euskerareriko atxikimendua.

Aditzean, sarritan erabiltzen ditu *eroan* aditzaren forma jokatuak, ohi-turazko kutsua emon gurean: «egin eroian» (18. orr.), «susmau daroa» (126. orr.), «esan daroe-ta» (158. orr.). Lantzean behin, *edin* eta *egin* adi-tzetatik eratorritako formak erabiliko ditu, gaur indikatiboko ditugun bal-dinkeren ordeaz: «ager baledi» (162. orr.), «saldu banengiz» (174. orr.). Erazko baldintzetan, *bai* aurrizkidun formak eurrez eta egoki darabilz Er-kiagak: «bai lituan» (17. orr.), «bailitzan» (19. orr.), «bailirauan» (25. orr.), «baileutsoen» (90. orr.).

²² Hau dinogunean, Azkueren esanera makurtzen gara.

²³ Azkueren hiztegian: Z → Zuberoa; BN → Behe-Nafarroa.

Gero aldi arkaikoak noiz edo noiz agertu dakikeguz: «dagoke» (142. orr.), «doake» (168. orr.). Joskerari dagokionean, puntu bi aipatuko ditugu beren berengi, biok zahar-kutsua gordetzen dabe-eta: lehenengo eta behin, indikatiboan erabiltzen dituan partizipio bitxiak: «Goiz-erdian herrira zan» (28. orr.), «banan banan kontau, eta sakelera zituan» (38 orr.), «etxera zanean» (59. orr.). Halere, ba daki testuinguru konkretu horretan -tu atzizkidunak erabiltzen: «lehoratu da» (144 orr.) edota «matraileratu zituanak» (54. orr.).

Bigarrenik, **edin/egin* errodun adizkien erabilkera dogu aipagarri. Adizki bururatuok indikatibozko perpaus subordinatuetan darabilz, baina aditza partizipioz, bizkaieraz nagusitu dan joerari eutsiz. Erabilkera honek, hizkuntzaren egoera arkaiko batera garoaz, nahiz eta literatura idatzian bizitza luzeagoa izan dauan: «etorri daitenean» (92. orr.), «soldautzara joan eitenean» (25. orr.), «inondik inora susmau ez e(g)ian arren» (34. orr.), «aldean euki e(g)iazan lauko eta txanponak» (15. orr.). Egia esan urruntxu geratzen jakuz erabilkerok gaurko hiztunoi. Bestalde, eta oker ez bagagoz, ez dogu uste, Erkiagak oraintsurengo nobelan holakorik sartu dauanik.

Lexikoari begiratzuz, liburuko berba asko, 1956. urteko «Refranes y Sentencias» dalako bilduman agertzen dira: «Sorosi» («Tamal eukok txirori ta sorosi aen opanari», R.S. 78; 489), «iradu» («Iradu noa naira», R.S. 83), «txiribogin» («Neguan hokin, hudan txiribogin», R.S. 181), eta abar luzetxu bat: «txilioga», «jopu», «iñartzi», «anker», «iron»... Joera honek, jakina, zaildu egiten dau irakurketa, irakurlea, sarri, hiztegiaren beharrean aurkitzen da-eta. Haatik liburuari erantsi deutsagun hiztegi-tua.

6. Gure argitalpena

Esanda dagoanez, 1961. urtean argitaratu zan «Sutondora» dakar-gun liburuau. Honek, zelanbaiteko gaurkotasuna suposatzen dau idazkerari bagagokioz. Halere, harrezkero aldaketa garrantzitsuak bizi izan ditu euskera idatziak: 1968. urtean, Euskaltzaindiak Arantzazun ospatzen dauan batzarra, eta 10 urte geroago batuaren prozedura eta hedadura berrikusteko Bergaran egiten dana. Aipatzekoa era berean 1983. urtean Eusko Jaularitzak argitara emoten dauan «Bizkaieraren idatzizko arauak» liburuska.

Gu, egilearen baimenaz, idazkera gaurkotzen ahalegindu gara, pun-

turik inportanteenak idazleagaz beragaz komentatuz. Halan eta guztiz ere okerren bat izan badogu parkatu beigu lehenengoz egileak eta bigarrenik irakurleak. Danok dakigu, jakin, holako moldaketa bat egitea gauza erreza ez dana, eta ezin gertatu daitekeena danon gustuko. Gure lana, hala-koxe oreka bat bilatzea izan da, liburuak bere baitan daukazan balioak galdu ez, eta gaurkotasun amini bat lortu daian. Izan ere, 1984. urteko Durangoko Liburu Azokan aurkeztutako «Jaioko Dira» liburuan, Erkiagak soineko barriz janzen dau bere idazkera.

6.1. Ortografia zeinuak

Puntuaketa eta garaiteko zeinuakaz ez dogu arazo modurik izan, kasurik gehienetan egoki jarrita egon dira-eta. Marratxuaren(-) erabilkerak, ostera, lan handiak emon deuskuz, egileak liburuan zehar era desberdinetara erabiltzen dauan ezkerero.

6.1.1. Izen nagusietan kendu egin dogu marratxua, gaurko joerari eutsiz: «Nikanor-engan», «Marta-k...» > «Nikanorengan», «Martak» ... Izena komila artean doanetan, edo erbestekoa danetan, mantendu egin dogu marratxua: «Gabontza-k», «Marx-ek.»

6.1.2. Atal biko aditzetan, hitzak banatzeari eritzi izan deusagu egokiena: «entzun erazo, agertu-erazo, bakanduerazo, erneazo» formak, «entzun erazo», «agertu erazo», «bakandu erazo» eta «erne erazo» idatzi. Gai-nontzeko kasuetan gauza bera: «igesegiteko» > «iges egiteko», «amoremon» > «amore emon».

6.1.3. Joskerako aurrizki-atzizkietan, honetara jokatu dogu: esaldi kontzesiboetan, «naiz-eta» edo «naita», guk «nahiz eta» eta «nahi ta» aldatu ditugu, gaurko jokerari eutsi nahiean. Esaldi kausaletan, ostera, mantendu egin dogu marratxua edota egon ez danetan gehitu: «deutsozala ta» > «deutsozala-ta». Baldintzazko «ez-pa litzakio» kasuan, guk «ez balitzakio» idatzi dogu, marra kenduz, «jabetu nahirik-edo» > «jabetu nahirik edo» egin dogun modu-moduan.

6.1.4. «Gane», «ondo», «arte» eta gisa honetako partikuladun hitzetan, osogarriak bereiztera jo izan dogu: «astoganean» > «asto ganean», «botika-ondon» > «botika ondoan», «liburu-azpian» > «liburu azpian», «kaltzerdi-barruan» > «kaltzerdi barruan» eta abar.

6.1.5. Zenbait hitz batu, eta beste batzu banandu egin izan ditugu gaurko joerari amor emonaz. Honako kasuetan batzeari erizten izan deusagu aproposena: «min-sor» > «minsor», «behar izana» > «beharrizana», «egun sentia» > «egunsentia», «sasi-eskola» > «sasieskola», «bizi-modua» > «bizimodua», «ez ezaguna» > «ezezaguna», «ez izenak» > «ezizenak»... Beste kasu batzutan bereiztu egin ditugu hitzak: «batedobat» > «bat edo bat», «urre-samar» > «urre samar», «gogaiteraginda» > «gogait-eraginda», «ahozulotik» > «aho-zulotik»...

Atzizkidun errepikapenetan, kendu egin dogu marra: «herririk-herri» > «herririk herri», «eskuz-esku» > «eskuz esku», «buruz-buru» > «buruz buru».

Errepikapen adierazkorretan, duda-mudak izan ditugu-eta, marra bere horretan uztea erabagi dogu idazlearen kasuan kasuko jokabidea errespetatuz: «egoki-egoki» baina «gorri gorri».

Konposaketari buruz jokabide honi eusten ahalegindu gara, Villasanten²⁴ sailkapenari jarraituz:

a) «Dvandva» edo konposaketa kopulatiboetan marra mantendu egin dogu, egon ez daneko kasuetan ipiñiz: «ezker eskoitara» > «ezker-eskoitara», «zuri gorri» > «zuri-gorri».

b) «Bahuvrīhi» edo konposaketa posesiboetan marraren alde jokatu dogu: «esku-bihurria», «mustur-erre» liburuan agertzen dan joera errespetatuz.

c) «Tatpuruṣa» edo dependentziazko konposaketetan ere, marraren aldeko izan gara: «ostikopunteaz» > «ostiko-punteaz», «heriotz sundea» > «heriotz-sundea», «gizarte auzia» > «gizarte-auzia». Halere, «tirotsa» berba, klitxetua danez, bere horretan utzi dogu; «sutanpa-hotsa» ere onartu dogularik.

«zale» hitza, honako era honeetara dagerkigu: «gorde-zale», «bakardade zale», eta «ederzale». Gu azken erabilkerari lotu gaiakoz. «Gai» dala-koagaz, usarioa euki dogu kontutan eta «emaztegai» eta «kobrau-gai» bi biok hartu ditugu aintzakotzat. «Barri» hitzari dagokionez, honelakoxe jokabidea agertuko da: «ikusibarraik», «hasibarraik», baina «ikusi barri ditu», «heldu barri dan...».

²⁴ Villasante, Luis: «Palabras vascas, compuestas y derivadas», Ed. Francisca-na, Oñate, 1981, 3. argit.

6.2. Fonetika

6.2.1. Aspiraketari dagokionez, Euskaltzaindiak²⁵ emoniko arauetara lotu gaiakez oso-osorik: «au» > «hau», «oneek» > «honeek», «ao» > «aho», «zaar» > «zahar» eta abar. Halere, hitz banaka batzu *h*-rik barik utzi ditugu, etimologiak *h* eskatzen eban arren: «izparringi», «ertzain» (baina «herri-zain» ere onartuz, gauza bera ez dira-eta).

6.2.2. Bustiduren esparruan, baturantz jo behar dogulakoan, literaturan nagusi dabilkiguzan idazkerak aukeratu ditugu. Jakina danez hau esatean palatalazio automatikoak bakarrik hartzen ditugu kontutan; adierazkorretan: *ll*, *ñ*, *x*, *tx*, *tt*, *dd* grafemak erabiltzea zilegi jaku-eta. Hori dala-
ta, «itxaso» > «itsaso», «itxusi» > «itsusi» aldatu ditugu.

i- osteko albokariak, bustidurarik barik irudikatu ditugu: «ibillera» > «ibilera», «darabile» > «darabile». Mantendu egin ditugu, halere, erdal kutsuzko bustidura batzu: «silla», «anillu», «grillu»...

Era berean, *i*- bokal sabaikariaren osteko sudurkariak, busti barik irudikatu ditugu: «baifia» > «baina», «goraifio» > «goraino», «diñozu» > «dinozu»...

6.2.3. Frikari albeolareen arteko alternantziak, «Z»/«S» bizkar eta apikariaren artekoak hain zuzen, «gorristea»/«goriztea», «lauskitu»/«lauzkitu», «iskilu»/«izkilu»; edota gaur arrotz egiten jakuzan formak: «naskagarri», «azkatasuna»... gaurko erabilkerara egokitu nahi izan ditugu: «gorristea» «lauskitu», «iskilu», «nazkagarri», «askatasuna»...

6.2.4. *Eta/ta* kasuetan, lehenengo gainbegirada baten, ba zirudian egileak, kontsonante ostean *eta* eta bokale ostean *ta* erabiltzen ebaia. Arazoaren muinera jorik, ostera, ez da hori beti gertatzen, ezta urrik emon ere. Kasuon, idazlearen senak aginduriko joera bere horretan utzi dogu. Izan ere, prosodiaren esparrura eroango gindukez arazo honen azterketa zehatzak.

6.2.5. Armonizazio bokalikoan ere, literatur-tradiziora makurtu gara zenbait aldaketa eginik: *-uo-* > *-oo-*; «asmuok» > «asmook», «aldekook» > «aldekook». Baita *-u* > *-o* kasuan ere: «bezeru» > «bezero», «arazu» > «arazo». Gauza bera honakootan: «nagosi» > «nagusi», «arron-

²⁵ EUSKERA, 1979-2, XXIV, 659-695 orr.

ta» > «arrunta», «burle» > «burla», «errezoiak» > «arrazoiak», «untzia» > «ontzia», «emaztegei» > «emaztegai».

6.2.6. Txistukari ondoko gorketaz $-z + b \rightarrow -z + p$, on eritzi deutzaguz ahozko ohituratik aldendu eta ozena bailitzan idazteari: «ez palitz» > «ez balitz», «ezpa zan bere» > «ez bazan ere», «ez-pa litzakio» > «ez balitzakio»; nahiz eta beharrezko ikusi, irakurtzerakoan gorketa ahozkatzea.

6.2.7. Garaiteko kasuetan, lekuan lekuko aldaketatxuak egin izan ditugu: «ezekian» > «ez ekian», «egiñ» > «egin», «geio» > «gehiago», «eguberdia» > «eguerdi», «gabaz» > «gauaz», «oia» > «ohea».

Zenbait ortografia-huts ere zuzendu ditugu: «ezkuz» > «eskuz», «deutzaz» > deutzaz, «yatsuz» > «jatzuz», «iraganteko» > «iragateko», «arrezkeroko» > «harrezkeroko».

6.2.8. Bizkaieraz era bereziz erabiltzen diran hitz asko euren horretan utzi ditugu, testuak bere bizkaitartasuna galdu ez daian: «bidar», «legor», «iges», «zugatz», «hazur», «ugal», «keia», «moltzo», «ganera», «gatx» (zail), «hezkatx», «moldakatx», «barik», «bage», «bagarik», «asmau», «abiau», «susmau»... Baita, «zarealako», «direala», «lar luzean», «noizean behinean», «honeek zerok» eta abar luze bat.

6.3. Deklinabidea

Arlo honi dagokionez, gainontzekoetan legez, «Bizkaieraren idatzizko arauak»²⁶ liburuan emoten diran aholkuak izan ditugu kontutan. Egia esan, esku artean daukagun liburua, alor honetan, ez da aholkuongandik larregi urruntzen, baina ba dagoz aldaketatxuren bat edo beste.

Erakusleei dagokienez, hirugarren graduko pluraleko formetan egin ditugu ikutuak: «aek», «aen», «aentzat», «aetan», «aetariko», «aei» eta abar, honetara aldatuz: «hareek», «hareen», «hareentzat», «hareetan», «hareetarik», «hareei».

«Orrelan» dalako modala, bere horretan mantendu dogu, hasierako *h*-sartuz. «Antxen» inesiboan, ostera, kendu egin dogu amaierako *-n*, autoreak «(h)antxe» ere, behin baino gehiagotan erabiltzen dau-eta.

Nominatibo kasuan, zenbait *-aa* bikoiztutan idatzkera errezertera jo

²⁶ Askoren artean: «Bizkaieraren idatzizko arauak», Eusko Jaurlaritza, Gasteiz, 1983.

dogu: «minberaa» > «minbera», «egarberaa» > «egarbera». Inoiz, *-a* organikoa jarri beharra izan dogu: «anai bat» > «anaia bat».

Érgatiboan, Erkiagak ez dau liburu honetan *-ak/-ek* bereizketa egiten. Guk dagoan dagoanean utzi dogu sinkretismo hau: *-ak/-ak*.

Datiboan *-i* hartu dogu kontsonante osteko deklinakera mugagabetzat: «Nikanor-eri», «Etxabelar-eri», «norbaiteri», «zerbaiteri»...; era honetara idatziz: «Nikanorri», «Etxabelarri», «norbaiti», «zerbaiti»...

Instrumental kasuari helduz, azpimarratzekoa dogu, mugagabe, mugatu singular eta mugatu pluralaz egiten dauan erabiltze bikaina. Bizpahiru kasutan, *-etaz* pluralaren ordeaz, *-ez* atzizkiakz baliatu izan gara: «teilla-tuetaz gain» > «teillatuez gain».

Soziatiboz, pluralaz, *-ekaz*, *-ekin* atzizkiak darabilz Erkiagak. Guk, bi-biok onartu ditugu, lehengo kasuan *-ekaz* > *-akaz* aldaketa eginez: «begiekaz» > «begiakaz».

Ikutuoz gain, txiki honeek ere egin ditugu: «edozein basetxean» > «edozein basetxetan», «gaztena» > «gazteena».

6.4. Aditza

6.4.1. Nor

Aditz laguntzaileari dagokionean, gurarizko-erako forma bikoitzak: *daiten*, *dedin*, euren horretan utzi ditugu. Lehen aldiko formei bagakioez, gurarizko zein ahal-erako adizkietan, kendu egin ditugu hirugarren pertsonetako hasierako *z-ak*, testuaren oreka gorde gurean; idazleak noiz *eiten*, *eitezan*; noiz *zeiten*, *zeitenean*, *zeitekean*, idazten dau-eta.

«Naiz» eta «aiz» forman orden «naz», «haz» hobetsi ditugu.

6.4.2. Nor-Nori

Aditz sintetikoetan ohizko bikoitzasuna dagerkigu testuan. Hau da, tradizio zaharrari dagokiozan formak: «yoako», «yoiat», «yoiakan», «yatorako»..., eta aspaldion bizkaierazko literaturan nagusituz doakiguzanak: «datorkioz», «dagokio», «dabilkio», «ebilkiolako», «egokionez»... Bere horretan itxi ditugu adizkiok.

Aditz laguntzailean, «yakan», «yaken» formen ordeaz «jakon», «jaken» hobetsi ditugu.

6.4.3. Nor-nork

Lehen aldiko forma trinkoak (3. pertsonakoak), hasierako *z*-rik barik agertzen diran arren: «ekusan», «erabilen», «inoen»..., *jardun* aditzean «ziharduan», «ziharduen» mantendu egin ditugu formaren fonetika bereziak hala eskatuta.

Aditz laguntzaileari buruz, hitz bi: alde batetik, ahal, gurarizko eta aginte eretan *-gi-* > *-i-* aldaketa egin dogu: «negi», «dagigun», «dagian», «legi»...; «nei», «daigun», «daian», «lei»..., idatziz. Bestaldetik zenbait aldiz, nahasturik agertzen dira lehen aldiko baldintza-ondorioak: «eukean», eta lehen aldiko ahal-erako adizkia: «e(g)ikean». Holakoetan kasuan kasukoari emon deutsegu lehenatasuna.

Forma alokutiboetan: «yoadaz», «yok»...; guk «joadaz», «jok»..., idatzi ditugu; gaurko erabilkera aintzat hartuz.

6.4.4. Nor-nori-nork

Hirugarren pertsonako datibo-morfeman *-tsa* > *-tso* aldaketa egin dogu: «dirautsa» > «dirautso», «damotsaz» > «damotsoz», «deutsa» > «deutso». Lehen aldian, ordea, «inotsan», «zihardutsan», «eutsan»..., mantendu ditugu, tradizioari dagokionez. Nor-nork kasuetan legez, kendu egin dogu hasierako *z*: «ziñotsen» > «inotsen».

Laguntzaileetan, «deutse», «eutsen» > «deutsoe», «eutsoen» egin dogu, «deutse/eutsen» datibo pluralerako utziz.

Baldintzetan, «ba zeuskit» > «bazeunst» aldaketa egin dogu, baldintza aurrekoari zor jakonez. Baldintza ondorioan «leuskeo» > «leuskio» bihurtu dogu.

Nor-nork kasuan legez, hemen ere nahasturik agertzen dira zenbait bider «neuskeon», «euskeon» formak eta ahal-erako diran: «ne(g)ikion», «e(g)ikion». Honeek egin aditzetik eratorriak eta hareek **edun*-etik. *-gi-*erroari dagokionez, gorago esandakoak balio leuke kasu honetarako ere, hau da: «legizu» > «leizu», «dagikeo» > «daikeo», «egidazue» > «eidazue»...

6.4.5. Aditz izenak

Hemen *-te/-tze* joera biak agertzen diralarik euren horretan agertuko dira: «eskatzen» (14. orr.), «jokatzea» (18. orr.), «hartzen» (28. orr.); baina «oratutea» (29. orr.), «ospatutea» (39. orr.), «zertutea» (28. orr.).

6.4.6. Hiztegia

Liburuak ez dakarren arren, guk beharrezko ikusi dogu hiztegi xume bat eranstea, irakurleari lagungarri izan dakion. Ahal izan dogunetan behintzat, euskera-euskera emon ditugu hitzak; lantzean behin perifrasis luzeak erabili ez egitearren, erdal ordaina erabili dogu gehiagoko barik.

1985.eko Erramu egunez

LEHENENGO ZATIA



I

Gauaren isiltasuna urratu zan, bapatean. Deadar eta txilioak entzun ziran Latseta aldean, larriak, esturazkoak. Batez bere, emakumeen oihuak ziran, aidean durundu zoli eta samingarria egiten ebenak.

— Sua! Sua dago!...

Gauerdia igarorik zan, nunbait bere, eta kaleetan ez ebilen inor. Aldaba-hotsak hasi ziran gerotxuago eta banaka banaka le-hioak eta balkoietakoteak atek edegiten zituen.

— Nondik nora ete dabiltz gau-jagolak, herriko iserenuak? — galdegin eban Marta, *txiribogin*¹ andreak—. Lehentxuago hermen ikusi ditugu baina... Bestelajo gau-jagolok!

— *Atetaren*² batean egongo dira lo —erantzun eutsan auzokoteak.

— Horreekaitik, eleizea bera bere, ostuta eroango leukie gau- ren batean.

— Astunegia ez balitz.

— Hori esan ba!

— Martarenean oraintsu egon baldin badira...

— Ez da edozelakoa, gero, Martareneko mama gozoa!

Eta gonadunen erretolika hau zelanbait *eragotzi*³ guraz, edo behintzat eten nahirik, baita Martak berak, argi ta garbi esan bere:

— Martak ez daki iserenuen ibileren barririk!

¹ *txiribogin*: tabernari.

² *ateta*: atari, portal.

³ *eragotzi*: eten, gelditu.

Etxe zahar batek ziharduan su ta gar.Ba zituan gitxienez bost jagimaila edo pisu behetik goiraino.

Ez egoan hurian, halako su eta erretura ikaragarririk zegaz *itxungi*¹. Halan bere, ez zan hori okerrena. Etxea, ez zan bakarra; *etxasail*² bateko muturra besterik ez zan. Haren ondoan ba egozan hamasei bat etxe, kaleko guztiak, eskuaren alde aretatik.

Jendea hasi zan batu eta batu, inguruetakoak batez bere.

— Sakristaua bere, lo ete dago ba, kanpairik ez joteko?

— Ez dozu hori bapere mirari. Ezkonbarria da-ta...

— Ez dinozu guzurrik. Ha, oraindiño, lehenengo loaren hasieran egongo da, behar bada.

— Zer darabile eurok! —esan eutsen hasarrez, lehen ezagutu dogun Marta eperdizabalak—. Ezbeharra euki begien aurrean, eta halan ta guzti bere, maliziazko berba nasaiaik aho-mihinetan.

Hasi ziran, ostera, kanpai astunak torre zaharrean eta orduan agertu ziran herriko lagunak kaleak betean, goitik eta behetik, iparraldetik eta hegoetik.

— Nun dago Anton Okaran? —dei egin eban alkateak, orduantxe kafetxetik urtenaz, zigarro galanta ezpanetan ebala.

— Hementxe dabil, alkate jauna —erantzun eutsoen albotik.

— Datorrela neugana.

Eta han joan ziran, arinak arin auzoko gazte bi, Okaranen bila.

Anton Okaran hargina zan, eta horrez ganera, herriko su-iraungileen nagusi zan, bonberuen buru. Ikustekoak izaten ziran, arrisku-aldirik ez zanean eta, noizean noizean plaza inguruan egiten zituen ekinaldi ta aprobak. Uradar ta mangerak zetan egozan jakiteko ta, sartzen zituen lurreko euren zulotxuetan. Toki egokian doi-doi zertu arte, kontuak izaten ziran; zutunik ohi dagoan heste-giltza edegi, giltza itxi. Edegi barriro, eta urik urteten ez. Barriren barri, burdina-taketok euren *tegitik*³ atara, barruko boleari ikutualdiak egin. Lehenengo norbaitek, hurrengo besteak eta azkenez hirugarren batek beste biei ukondoakaz sekulako bul-

¹ *itxungi*: amatatu, itzali.

² *etxasail*: etxe-sail, etxe-multzoz.

³ *tegi*: leku, toki.

tzakadak eginaz, eta honek bere, hantxe *haztamuka*¹ jardunaz. Eta, tira ba, ostera bere, zutunik jarri tentekoa, erroak sendoro ipiniaz, eta horra ba! halakoren batean, hasten zan uraren *borbola*² behean eta azkenen buruan, susmau eitekean busti antza, lurtean zehar.

Egundoko txipirri-txaparra soinuaz hasi ohi zan bai, noiz edo noiz, mangera-puntatik ura urteten. Baina bai zera! Muturreko aho-zulotik baino bere, edozein inguruko zulo ezagiritatik urteten eben irristada eta zipristinak, han begira egon ohi ziran umeak pozaren pozaz jarriaz. Orduan ekien esaten herriko gizon helduak, mangera jatorraren antza barik, angulatan joateko *bahearen*³ antz handiago eukiela herriko uradarrak.

Etxe errean bizi ziran lagunik gehienak kalera ziran itsumustuan. Gizon *zaharkulduren*⁴ bat ei egoan etxe barruan, dana *uatu-ta*⁵ egoana. Eta harexeri eskilaretan behera lagun egiteko ei ebilen gertuen, estu ta larri, Anton Okaran. Horixe inoen, zertzeladak zehatz ekiezala uste ebenak.

Baina alkateak, horri, ez eritxan zuzen. Besteren batek egin eiala hori, Okaranek bere zeregin nagusiagoak euki eukazan-ta.

Heldu ziran enparauko iraungileak bere. Hiru mangera ta eskilara luze bi ekarrezan. Guztitara, bederatziz gizon ziran bonberuok. Lanbide hau ez zan bakarra eurentzat, hain zuzen; bakotxaren ogipide ta jardunak zituen lanburutzat, eta horrezaz ganerakoa zan herrian sortu eitekezan suak itxungitea.

— Etxe zahar horrek ez dauka zer salbaurik! — deadar egin eutsen alkateak—. Albokoak su hartu ez daien egin behar dozue ahalegin. Eta zuek bere bai, gizonok, tentelak lez, hor begira egon bage.

— Horixe da esatekoa, alkate jauna — ebagi eutsan Peru Lustreputx zapataria—. Niri neuri, ba daki ba; umore-minez nabil beti bere-ta, ez jat inundik inora komeni busti-antzik.

¹ *haztamuka*: zer ikutuko, «a tientas».

² *borbola*: hitz onomatopeikoa; urak mugitzean egiten dauan zaratea.

³ *bahe*: «tamiz», «criba».

⁴ *zaharkuldu*: zaharkitu, zahar egin.

⁵ *uatu*: elbarritu.

— Ardauaren bustitasunak ez deutsu ba, agiri danez, larregizko kalte haundirik egiten, *hezoa*¹ izan arren.

Agertu zan Okaran. Gorri gorri eginda etorren, arnasea ezin biraurik.

— Zer da, Anton? — dirautso herriko buruak.

— Laster atarako dabe horko agure zaharra. Zirkinik bere egin ezinik egoan, eta kosta jaku bere zeretik *lokaturea*². Ohearen inguru eukan egoaneko, sua; eta *oharka*³ barrenak garraren hurre samar eukazan.

— Beste etxeok ez daiela su hartu. Hor dago untzea, jazoa jazo.

— Ez al da agertu gure arkitetu... jauna?

— Kanpoan dala uste dot.

— Hemen beti bardin —erantzun eban gazte batek.

— Zer beti bardin, gero? —zertu eutsan alkateak.

— Hutsa! Gehien irabazten dabenak, ezer behar danean... ez dira errez aurkitzekoak izaten.

— Oraingo gazteen lotsabagakeria, nabarmena da; bai behin!

Anton, batera ta bestera begira hasi zan. Hantxe behar zan herriko arkitetua, nunbait bere. Baina han ez egoan Anton baino beste teknikurik. Gizon eta gazte batzuek bere, eskeini zituen euren buruak sua iraungiten lagunduteko asmoz.

Emakumeak, *eurrez*⁴ etozan, bakotxak bere kankarrua edo pendarra, bai eskuetan, bai buruan erakutsirik. Urduri egozan, artega, hainbesteko sua ikusi eta ezer egiteko usteak, txakur-amesak izan eitekezalakoan.

Kanpaiak dinbi danba ziharduen, eta urrun egozanak, herriko teilatuez gain, sekulako argitasuna ikusi eien, gauaren aldera ortzean gorritasun dirdirak ohartuaz.

Etxeetako aterik asko zabal egozan, ziran *ginoan*⁵; herrietan.

¹ *hezo*: heze, «húmedo».

² *lokatu*: mogitu.

³ *oharka*: ohe-arka, «catre».

⁴ *eurrez*: erruz, ugari.

⁵ *ginoan*: neurrian.

horrelako esturetan alkarri laguntzeko agertu ohi dan gogo zintzoa ta bata besteaganako *jaierea*¹.

Etxe doakabea antxinakoa zan, eta bertan bizi ziranak jente *menuxa*², behargina, langilea, nekazalea; txit ezeukiak bere bai. Lagunak onik urten ezkerro, ez egoan balioari begiratuaz, zer galdu haundirik. Nahiz eta, bakotxari egokionez, guztia beharrekoen gauzak, osoro preminagarriak izan.

— Ba dago gure alde zer bat —inotsan Antonek, alkateari.

— Zer, Anton?

— Herriko haizea dagoala, hegoe-haizea, andren haizea.

Egia zan. Etxe-sailaren egoereari begiraturik, haizearen bolada erkin samarrak, garra etxadiaren muturrerantz eroian. Arriskua, beraz, ez zan areago izango, besteak erregai izateko.

— Baina, dana dala —gehitu eutsan alkateak—. Etxeok, zurezko ditugu gehienbat, eta berotasun haundi bage hasiko litzakiguz su ta gar. Hasi ba, lehenbailen, etxe-hormai eta teilatuai ura *paratadan*³ botaten.

Esatea, ez zan gatxa izan. Egitea, ostera...

Burdin-hesteak eta sartu zituen lurreko ur-zuloetan eta teilatu ganetik soka luzeak bota; eta batzuk han, besteak etxeurreko balkoietan, hasi ziran bonberuak euren ur-hodiak eskuetan, uraren zarratzadak nundik zehar jaurtiko, entzuniko aginduen esanera.

— Edegi giltzak aguro! —agindu eban alkateak.

Giltzak edegi zituen edegi. Urik, horraitino, ez zan mutur ziloe-tatik agertzen kanpora nahirik.

— Olakorik! —oihu egin eban Okaranek harriturik—. Iturri-zain alua bere, lo ete dago ba oraindino?

— Doala *nonor*⁴ Txomin Egarriren galde.

— Neu joango naz —*jardetsi*⁵ eban mutiko batek.

— Ba al dakik nun bizi dan? —inotsan alkateak.

— Bai, Lepoker jauna —mutilak txarrik barik.

¹ *jaiera*: jokera.

² *menuxa*: xehe, arrunt.

³ *paratadan*: parastaka, parra-parra.

⁴ *nonor*: nor edo nor, norbait.

⁵ *jardetsi*: erantzun.

— Zeeer? Alkate jaunari ezizenez aitatu berbere pertsonatasuna?

— Ba... jauna, ez dakit nik, ba. Nik beti entzuten dot Lepoker gora, ta Lepoker behera... berorregaitik.

— Zelan dok izena, mutil?

— Nik izena, Nikanor... baina Zorrizto esaten deuste danak.

— Ba, hoa aguro heure eginkizunera. Aurretiaz, ostera, eta behin ta betiko, jakin eik herri honetako alkate, Lukas Letamendi jauna dala.

— Bai, Lepo... mendi jauna.

Bien bitartean, ura bai ura eskatzen eben teilatuganeko bonberuak eta baita balkoietan egozanak bere; ura gizonak, ura emakumeak, ura gazteak... Txomin Egarrri, herriko ur-arduradunak ezik.



II

Biharamonean, goizean goizetik langile ta *emutsak*¹ euren zereginetara abiau ziranean, alpertxuagoak hainbesteko priesa ta *iradumin*² bage urteten eben euren etxe zirkiluetatik eta huriko ar-dandegi goiztarrenean ate-ondoratuak egozan, ganean eben etorkizun baltza ontzat hartu baino lehen, beharreko jaken kemen eta adoreaz jabetu nahirik edo.

Mordobikoren ardandegia, txokorik begikoena zan herri *zeheko*³ gizonentzat. Hantxe batzen zituen eurak herriko kontuen bizar-buztanak, eta bestela baitakoan, Mordobiko gizon mardoak, hantxe garbituten eutsezan egarbera hareei, aldean *euki eiezan*⁴ lauko ta txanponak. Txanponon orde, barri ta albista *ernaminak*⁵ ezagutu erazo ta urdailarentzat berotasuna ta *azku*⁶ eskeintzen eutsen.

— Bart bai ikusgarrizko sua, e?

— Bai, horrelan izan ei zan, seguru bere.

— Ez al zenduan ikusi?

— Ez nik —erantzun eutsan Mordobiko gizenak. Zeuk bai ala?

— Ezta nik bere.

— Orduan kitu gagoz.

¹ *emuts*: alogerean lan egiten dauana; «jornalero».

² *iradu*: prisa.

³ *zehe*: arrunt, normal.

⁴ *euki eiezan*: eukiten ebezan.

⁵ *ernamin*: ernebarri.

⁶ *azku*: kemen, adore.

— Nik bai, barriz — *inotsen*¹ mutiko soster batek.

— Umeak ez dabe nagusien autuetan zetan sarturik. Ospal!

— Eta Txomin Egarriren bila joateko, nori esan eutsan ba...
Lepomendi jaunak?

— Hori dok ona! Noiztik arraio zuzendu deustoe lepoa horri, okerraren truke, mendia ipiniaz?

— Lepomendi edo Letamendi bardin deust — jardetsi eban ausardiz, mutikoak—. Kontua da, egin behar dana egitea, eta ez barriketan jardutea, noiz eta biharamon goizean.

— Gero! Esku artean hartzen ba...

Alperretariko baten esanaldi hori amaitu orduko, Nikanorrek hanka egin eban arandangetik. Izan bere, gauzen bigarren zerari itxaroten tentela lez egon barik, beste toki ta arlo barrietarantz alde egiteko joera urdurikoa zan, mutikoa.

Kalean, mutil taldea aurkitu eban. Honeek gazteak ziran, eta txikizahar baten inguru egozan kontu-entzuten. Etxe zaharrak egin eban berea, huriko uradarrak, behar zan lez, gertu baino lehen. Sua, berez berez, makaldu, alpertu eta itxungi egin zan.

Ba eben, horraitio gazteok, beste zerbait *elebidetzat*².

— Egunsentiak argia ekarri deuskunean, herriko lagunik gehienak nik neuk ezagutzen nituelakoan-ta, hainbat eta hainbat ezagutu ezinik ibili nok — inoan txikizaharrak.

— Zelan?

— Belan ta kapelan! Esango deuat, ba. Gizonezkoak, umeak eta andra eginak, honeek bai, errez zertu joadaz.

— Eta, orduan, nortzuk izan dituk ba, arpegi gatxok?

— Nortzuk? Neskatiletarik asko. Hareek ez hituan bestetakoak.

— Zer ba?

— Jantziak, hortik hemendik, tira ba. Baina hareen begitar-teak...

— Loaren faltaz, aurki.

¹ *inotsen*: esaten eutsen.

² *elebide*: hitz egitekò zio edo arrazoi.

—Baita zera be! Dendako kolore faltaz jegoazan, mutil, ma-traila guztiak zurbil, eta ezpanak tximur ta *kolorga*¹.

—Hik esateko ez dok asko, Burduntzi.

—Nor da Burduntzi? —galdegin eban Nikanorrek, autua entzuten isil-isilik egon ta gero.

—Mustur erre *oskila*² —deadar egin eutsan bertatik, erre erre, txikizaharrak mutikoari—. Umeak etxera, amagana!

—Heu baino umeago nor dok ba, hamalau urte ta erdigaz oraindino ohean txiza egiten dok-eta!...

Oin bizkorrak zituan Nikanorrek, eta eurei esker, bera baino handiagoaren *zemaik*³ ustel urten eian, behingoan aldegin eban handik.

Kale labur eta luzeak iragan ostean, etxe haundi, zabal eta zakar baten aurreraino heldu zan. Atetako atetzar biak edegita egozan, ohi zan lez. Eskolea zan etxe eskerga hori, eta herriko kale bazter eta aldendu batean egoan.

Ba etozan mutikoak banan banan euren ikastelekurantz. Asko, goiztarrak, orduzale zintzoak, barruan egozan ordurako. Azken txoriak ziran unekada haretan agertuten ziranak, nagiak menpean hartuak *bailituan*⁴.

Honeetariko batzuk, Nikanorren hitz erdia, irakaslearen esana baino errezago hartu ohi eben gogoan. Nikanorren agindupean gogozago ekien egoten, maisuaren esanaldi ta jakinbehar ilun eta nekagarriak ausnartu ta eio ezinik, zazpi ahaleginetan jardun baino.

—Liburua asmau ebana, hoba litzateke inpernua balego.

Horixe zan Nikanorren esanetarik bat, bere kide ta gaztetxua-go ziran umekondoentzakoa. Umeentzat, eskolazale ez ziranentzat esan nahi da, gauza biok ziran alkarren antzekoak, biok bildurgarriak: inpernua ta liburua. Hauxe, behar bada, okerrago bestea baino, hurrago ta bertarago eukielako.

¹ *kolorga*: kolorebako.

² *oskila*: balio gitxiko, makal.

³ *zema*: mehatxu, amenazu.

⁴ *bailituan*: balitu hegez.

Begien bistakoa zan mutiko urtentxuon alkar-ikuste ondoko *egitamua*¹, sarri askotan. Lehenengo ta bat, sasieskola egin, piper. Izan bere, hareen nagi ta astuntasuna, hareen larri-usaina, oin eta belaunak lanean jarri beharrez, eskolako mailetan gora joateko!

Egotaldi luzea egiten eben atadian, nora joan erabagi baino lehen. Eguraldi zikina edo bustia baldin bazan, atetan bertan ego-tea bere, tira! Orduan, ez egoan errekreo-unerik, eta eskolako jar-duna egitaldi osokoa izaten zan, bai goizean, bai arratsaldean. Maisuak, behin barrura ezkeru, ez eben urtetan harik eta eskolal-dia zeharo amaitu arte. Une horretan agertzen ziran, etxerantz joateko, umeteri bihurri ta jolasgarria aurretik ebela; umekondo gehienak eskolatik urten ala, alde guztietara begira, txiza urrunerantz egin ondoren.

Arriskua eban, ostera, atadian luzaro egoteak. Herriko *txinele-tarik*² batek ohitura onak maite zituan, eta beste txinel nagiagoak egiten ez ebena, *egin eroian*³. Zera, noizean behin eskoletxeko ateta *enas*⁴ ta maskildu haretara agerraldia egin, ikasle baldar ta piperzaleak hezi ta mendu nahirik. Ez zituan begiko ezelan bere, sasieskola egiteko edonoiz gertu egon ohi ziran neska-mutikoak. Neskatoen ikasgua handik aparte samar egoan, baina zana zala.

Goiz haretan, gehienetan lez, Nikanorren gogoa askatasun-mi-nez egoan. Bakarrik ibiltea gustaten jakon arren, inoizka beste as-moa bere izaten eban; gizartekoia bere, *aldarteka*⁵, ba zalako izan.-Lagunak bilatu nahi zituan, beraz, eta horretarako ondotxu ekian harek, arrainai amuskia eta txoriai zepoko artagaraua nahi *lakirioa-ren*⁶ lurreko harra erakargarri ohi jaken lez, mutikoai bere, zerbait pozgarri, eskintzaria egitea gizaki zuhurraren antzera jokatzea zana.

Gurasoen bildurragaitik baino ez bazan bere, asko ziran, nahi ta berandu izan, eskolako atetaraino behintzat joaten ziranak. Gero, barruna sartzea, hori, bigarren artikulua izan ohi zan. Ikasle atzera honeek zituan Nikanorrek gogoko. Azken unean ipini laki

¹ *egitamu*: asmo, proiektu.

² *txinel*: «alguacil».

³ *egin eroian*: egin ohi eban.

⁴ *enas*: ugerdo, lohi.

⁵ *aldarteka*: noizean behin, batzutan.

⁶ *lakirio*: «lazo».

ria, eta orduantxe, geldi ta bare, bertan behera lotzen ziranak haren esanera.

Batzuetan, opari ta eskain kilikariak eginaz, zirikatu ta limurtu ohi zituan bere jarraitzaile ta menpekogarriak. Zigarro argal eta mehetxu bat; karameluren batzuk; txikot eta lokarri-zatiak; su-harriak; imanen bat... Betun-kutzak, pospolu-atabakak; idazteko luma-muturrak; aizto ta kainubetak; berun-zatiak; erloiuhararren bat, ikusi ta ikutu egiteko bakarrik... Irudidun errebistaren bat, neskak eta ikusteko; tebeo zikin tximurtuak...

Hamaika urte ingururako ez egozan lo.

Eta batez bere, ez asko baina, txanponak, zentimu bikoak, txakurtxiki ta haundiak; inoiz edo behin zidarrezko dirutxuak, erreal biko politak, peseta zuriak. Diruaren dirdaia bai zoragarria! Ez zan ezer, adin haretan, dirua ta askatasuna baino maitagarriagorik. Ez gordeta eukiteko hain zuzen; esku-aldatuz hainbat eta hainbat gauzak jabetuteko erdikaririk egokiena ta errezena zalako izan. Orduan, eta harrezkeru bere!...

Goiz haretan, sozio bi *zuritu*¹ zituan, bere *menera*² jarri. Bata, gogo osoz, eskurakoiagoa zan-ta. Bestea, hortik hemendik, Nikanorrenaganako bildur-usainez. Lehenengoa, Anton Okaranen semea zan, Matxin Zakatz, eskolan azkenengo ibilten zana; eta beste hau, Senentxu, hirurotarik gazteena. Nikanorren argumentuen indarra zala, ala euren ikasteko gogorik eza zala, behingoan jarri ziran haren esanera. Egitamua? Lehenengo ta behin, eguna euren esku hartu, jarei ta libre, buztarri ta loturarik bage. Bigarren, handik alde egin, alde eskolatik.

Herriaren bizkarra bailitzan, herriari *eutsola*³ egoan mendiska batera igon eben. Hantxe eukan Nikanorrek beretzat zerturik gordelekutxu bat, erdi *harpe*⁴, erdi aterpe. Berezi sarratu baten hegal batean, haitz haundi biri txapeltzat ezaririk, gurbiz-adar moltzoa, teilatua bailitzan. Bazter zulo hori eukan babes antzera; hantxe izten zituan bere gauzatxuak, atxaren irrikitu batean.

¹ *zuritu*: konbentzitu.

² *menera*: agintera, azpira, esanera.

³ *eutsola*: «eutsi» aditzaren forma trinçkoa: kontra, atxikirik.

⁴ *harpe*: kobazulo.

Harako Robinson-en entzutea edo, ba eban Nikanorrek; eta bere modua, Diego Montes-en irudiaren errainu-distirak amesetz ezarten zituán, bere asmamen zoranga gaztean.

Barregarriak izan eitekezan *koskondua*¹ edo *aginak bardindua*² zan edonorentzat, Nikanorrek han zokoraturik eukazan zer-txuak. Baina, hamar-hamaika urteko mutikoak, birlora-lainoz ta sorgin-lanbropean ikusi ta irudipetu ohi ditue egunero mila gora-behera, gertakari misteriozko bihurturik.

Lakirio ta zepuak, tiragomak, manopla ugartuak, txakur-hilgarrri zan pistolatxua bere bai... Sinistu eraginda eukazan menpeko mutikoak: Nick Carter eta Buffalo Bill-en jazoerak eta! Indioen to-mahawk zoragarriak bere, berberak egiten zituala, eta han, *egileor*³ haretan gorderik zituala-ta! Anbotoko Damea berbera bere!... Irudidun paper zikindu hareetan irakurriak, eta baita beste lagun zaharrago batzuei entzuniko kontu garratzak eta... Egia. Ta orduko filme izugarriak, hainbeste domekatan amaitu ezinik erakusten zituenak, West-eko *mintz*⁴ baltz, isil, hitzik bakoak, eta beste toki batzuetakoak eta; Karpanta ta, Rokanbole ta... Beti arriskuan eta beti onik atara erazo mutil onak; eta barrio galdu aginean utzi neskatilea, mutil gaiztoaren menpe; ta barriren barri, onak egundoko lepokadea emon gaizto guztiai...

Nikanorren hitzak, horraitio, ez ziran izaten gehienbat ugari, etorri haundikoak eta amaitu ezinak; ez zan barrietsua, *ardaila*⁵.

Baina, berbazko erasoaldi luzeak ainako *iskilu*⁶ eragikorrak eta gertuak zituán. Haren arpegi-zinu ta begi-jokoak, haren eskuen azkartasuna eta aho inguruko zirkinak eta ezpan-tximurtzeak, zarrada haundia eragiten eutsen harako bihotz bigun eta meneko ziran mutiko beratx eta ikaratiai. Ez zan Nikanor, beti burrukan ibili ohi diranetarikoa. Azeriaren jokaerea atseginago jakon, txakur zaunkalariarena baino.

¹ *koskondu*: hazi, egin, «crecido».

² *aginak bardindua*: pertsona helduxeari esan ohi jako.

³ *egileor*: etxola, txabola.

⁴ *mintz*: azal.

⁵ *ardaila*: berbalapiko, barrietsu.

⁶ *iskilu*: arma.

Matxinek ikusirik eukan inoiz Nikanorren isil-txokoa, honek erakutsia, horixe bai. Ez zan *berakautako*¹ zera, bazter itzalgarri ta erdi santu haretara joatea! Nagusiaz batera joan eitekean. Eta inoiz, inoiz, haren baimen berarizkoaz bere bai, baina beste inor laguntzat eroan barik. Baimen bage haraino heltzea, *hoben*² haundia zan, behar bada, parkatu ezinekoa, Nikanorrek berberak izan ezik. *Baltsakoa*³ edo aldrakoa ez zanik hara heltzea, nahi hara hurrerantz baimen bage ahaleginetan inor susmautea, toki gurgarria oin zikinez *iraindu*⁴ ta *lerdez*⁵ *laidostutea*⁶ zan. Hilgarri edo haren batekoa izan eitekean, ausardikeri hori eginbidean jarritako mutiko bihurri ta urtena.

Bere leku zorapenezko haretara eroan baino lehen, Nikanorrek, egun haretan *neofitutzat*⁷ hartu eban Senentxuri, horrelakoxe gogoetak eragin eutsazan; bihotzean, *ezarian ezarian*⁸, halako lastura etenkorra sortu erazoaz. Isil-zokondo haxe, gitxienez Inka ospatsuen altxorraren gordairu edo ez ete zan, sinistuta egoan Senentxu.

Goiago aitaturiko tresna ta iskiluez gain, beste batzuk bere ba ziran han; matrailu, gabi txiki, atxur txiker kirtenik bakoa, burdinanegarrez beteriko artaziak, giltz ingelez aho bakoa... Hainbat eta hainbat erreminta zahar, *mika*^{*} harrapakariaren antzera, Nikanorren esku batzaileak bestela baitakoan, asterik aste haraxe eronak.

Toki hori ikusita gero, entzunikoak entzun ostean, eta gauzarik ugari eskuetan erabili ondoren, egiaz eta benetan ulertzen eban Senentxuk, eskolarako baino gogo haundiago izango ebala Nikanorrek nahi edonok, hantxe mendi bazterrean ibilteko ta

¹ *berakautako*: bere baitako, bere aldetiko.

² *hoben*: pekatu.

³ *Baltsakoa*: talde, alkarte.

⁴ *iraindu*: «injuriar», «agraviar».

⁵ *lerdez*: adur.

⁶ *laidostu*: «ultrajar».

⁷ *neofitu*: hasibari, «neófito».

⁸ *ezarian ezarian*: apurka-apurka, emeki.

⁹ *mika*: hegazti mota bat, «picaza».

egoteko. Etxera... bai, jaten eta lo egiten. Baina osterantzean, hantxe ederto: gauzak hartu, gauzak itxi; eskuetan erabili, sakelean sartu; gero, atara. Bidekurutzera joan, eta handik igaroaz joan eitekean edonori, «geldi hor ta eskuak gora!» dei egiteko gertu pistolatxua eskuan, bestean kutxiloa, ta begiak ezik arpegia bere mozorroz edo sudur-zapiaz estaldurik...

Horrelako zerak entzuteak, Senentxuri, dardara berarizkoaz erne erazoten eutsan burutik oinetara. Hain zuzen aldi haretan arratsaldeko ozkorri legunaren ostean, neskatoak, han plaza inguruan, soka-jokoan *ikotika*¹ ziharduen artean, kantau ohi eben han rako:

«De Zaragoza ha venido
un valiente bandolero,
que se llama Florentino
y se apellida Ballestero.
Ballestero tiene un hijo
que se quiere meter fraile
y su madre le contesta:
Torero, como tu padre...»

Beste gauza baten jabe egiteko asmoa *erabilen*² Nikanorrekin. Asmoa ta gogoia. Herriko zaldun batek baratz ikusgarria eukan. Eta han, etxe txiker bat egoan, solo-lanak egiteko tramankulu ta lanabesak gordeteko. Horrezaz ganera, zaldun ori, Olarratz jauna bere abizenez, ehiztari fina zanez, eskopeta eder bat eta batez bere, makila zoragari baten jabe zan. Makila hori, kanpotik bardingantzekoa zan, goi aldean narruzko azalduna; baina eskuturra edo kirtena zan tokiaren barruan, puñal zorrotz eta mehea ei eukan eta horrelan makila arrunta eritxi batean agiri arren, barruan ezku taurik eukan iskilu horren gurari bizi az ebilen Nikanor Zorritzokutiziatsu, minbera, gogatsu.

Baratz haretan sartzeko gauza, bakarrik bere, ba zala uste

¹ *ikotika*: saltoka; «brincando».

² *erabilen*: erabiltzen eben.

eban Nikanorrek. Laguntzaile batzuk izatea, horraitino, batzuetan kaltegarri ez dala izaten-ta, bere asmook egosten *ziharduan*¹ txapelpean. Horma sendo ta goiti luzeak zituan baratz harek, eta inguruko bidean, bada ezpada, zer gertauko, albomutil erazko ta *aiutuak*² izatea, zuhur jokatzeta zan.

Albomutil edo estaltzaileok, ostera, zintzoak beharko eben izan, eta ez edozein lapikotxiki edo euli. Isilik egoten ekiana. Bildurtia ez zana.

Horretan, egundoko buruausteak izaten zituan Nikanorrek, bera ondo ezagutzen ez ebenak horrelakorik uste izan ez arren.

Inoiz baino sarriago lapurretan ibilia ei zan. Horixe *inoen*³ mihin zitalak. Zeren ginoko edota zein *esteritako*⁴ lapurretak egin ete zituan Zorritzok? Hari berari entzun ezkeru, baina, beste soinu zoli ta garbia entzun eitekean haren ahotik: erabilten zituan gauzatu guztiak... aurkituak izaten ziran!

Zorionekoa zan, izan bere gero, Nikanor, edonoiz ta edonun pitxi, iskilu ta erreminta politak, eta baita dirua bere, sarri bai sarri topauten ebalako.

Horra, Senentxuren buruera sakona...

¹ *ziharduan*: jarduten eban.

² *aiutu*: sendo, mardo.

³ *inoen*: esaten eben.

⁴ *esteria*: neurri.



III

Bizi zan herri haretan ez zan jaio. Erbestetik heldu zan Nikanor, bederatzi urtekoa zala. Alarguna zan haren ama; beste anaia bat bere, ba eban mutikoak, etxetik antzina aldegina, eta aspaldian ez eben haren barririk. Atzerrira, estranjeri aldera joana ete zan; baina beste aztarrenik eta argitasunik bage egozan ama-semeak.

Umezurtza zan ba aitaren aldetik, eta ume bakarra lez zan bere amarentzat. Andra honi Zenone eritxan. Andra behartsua edozein esanguratan. Buruz arina, zentzun haundibakoa; gogoa ta kemena, guztia beharrekoak; ondasunetan, ezeukia; gorputzez, itsusi samarra, eta bizitzaldiko gorabeheretan, *dohakabea*¹. Ogia, han hor hemen irabazten eban; beretzat eta semetxuarentzat, gosea zuritu eta *ibituteko*² lain batzen eban, erdi lanean, erdi eskean.

Ama baino argiago zan, ardura barik, Nikanor gaztetxua. Begiak ez zituan ederrak, eta arpegi zurbilaren ganealdean ule gorristea. Sudurra zapal samarra eukan, eta heuretako ziloak agertu nahirik lez, matraila pekatsu bien erdian.

Pelotaka, *leberra*³ ta azkarra zan, bere adinean gitxi lakoa. Joakoaldi laburrak egitea gustauten jakon, ostera, eta ahal izanik, beste inor begira ez egoala. Eztabaidetan-eta, inoren laguntasuna arerioaren alde makurtzeko arriskurik gertau ez eiten.

Diru-jokoan bere, ez zan azkena. *Txanpan*⁴ eta *parreetan*⁵,

¹ *dohakabe*: zoritxarreko.

² *ibitu*: baretu, lasaitu.

³ *leber*: azkar, bizkor.

⁴ *Txanpan*: ume-jokoa, «jugando a chapas».

⁵ *parrat*: ume-jokoa, «juego de la raya».

*puntura*¹ eta arpegi-gurutzetara jakituri haundiz jarduten eban; eta lauko maminak —guztira bere, zenbat ba?— *errezto*² bereganduten zituan. Baina, bera baino gazteagoekin jokatzten eban gustoren, hasarrera ezkerero, burrukazale ziranekin alkar-joten eta muturka ibiltea, haren gogoko ez zan-ta.

Lagun artera agerraldiak eta ezkutaldiak, tximistearen antze-koak izaten zituan sarri askotan. Aldikadetan, egunak egun iragaten eben Nikanorren irudiaren gerizerik ikusi barik haren lagun-txuak eta eskola-maisuak.

Jokaera horri ez *eritxan*³ egoki ta erazkoa Etxabelar maisu jau-nak, eta haren amari esanak esan eta deiak dei egitea alperrekoa zala igaririk, Auzoetxean jakin erazo eban, sasieskolakoen artean, Nikanor Zumala puntarengotzat ezarriaz.

Alkateari ez eutsan bapere begia argitu bere menpekoen se-meak eskolara zale ez zirala jakiteak. Hortik ba, maitabidea ta aholku bigunen eraso deusezak diranean, jagoleen arreta ta ar-dura zolia astindu ta erne behar zala otu jakon agintari nagusiar. Eta horra ba, nundik nora herriko *almameru*⁴ zaharra ebilen gei-hago bere, gertu ta begi zorrotz, Nikanor eta haren antzekoen atzean.

Noizean behin, ostera, *onu*⁵ ta esan gomutagarriren bat adie-razoten eutsan amak. Gatz haundi bage, egia esan. Eskolea ikas-tea ta, kartak egiteko ta, soldautzara joan eitenean amari idazteko ta... Guztiz itzala zala eskolarik ez jakitea.

Nikanorrek horraitino, gudari-aroaren gorabeherarik bat ba-karra baino ez eukan gogoan. Harako bere osaba batek egin eba-na, soldau ez joatearren. Hori egin ezkereroan, berak bere... ez eukean, ziur asko, letrarik ikasi beharrean zetan jardun, larregian behintzat, eta hain zuzen soldautzea zala ta ez zala.

Haren osaba hori, mutiko zanean, okerra baino okerragoa

¹ *puntura*: ume-jokoa.

² *errezto*: errezki, errez.

³ *eritxan*: eristen eutsan.

⁴ *almameru*: txinel; «alguacil».

⁵ *onu*: aholku, kontseju.

izan zan. Txikiena izan be-ta, *uzkarrumeak*¹ gehienetan ondu ta gozartu ohi dituen bigunkeria ta parkatute ugariegi ezagutu zitu-
tuan. Behin baino sarriago, etxeakoak euren zereginetan zihardue-
larik, goiz erdian nahi goiz beranduan, etxeo sukaldera heltzen
zan, amaren alde-unadak zelatean zainduaz. Eta orduan, lapi-
koan egon eitekean ongarrria atara —okela, urdai, makilau eta
abar—, eta zatitxu mardoak bere aho gozagarriztat behingoan ur-
daileratuaz, barriro isil-isilik eta ardura haundiz utzi ohi zituan, la-
pikoen eta enparaukoen estalkiak, barruko janarien batzar usain-
tsuak bake-baketan *bailirauan*². Amaren begietn, batzuetan, jaki
ongarriok murrizak eta mehaztuak zirudien, baina suaren lanak
eginiko urritzea izango zalakoan egoten zan.

*Gazunaskako*³ haragia, zezina, horixe jakon atseginen Nika-
norren osabeari. Behinola, lobeak osabeari berari entzuna, zezin-
zati batzuk jan ostean, hareen ordezeko ta truké, berak apartean
gerturiko zezin-aizuna edo sasi-zezina, merkeago beti bere, sartu
ei eban lapikoan, eta ezetariko kezkarik bage, egin bere: sagua,
aurretiaz hil eta narru gorrian gatz emonda jarria.

Osaba haren bizitza-lerroaren zati honeexek, lorratz sakona
egin eutsan bihotzean eta kolkoaren hondarretan, eta haren bu-
ruak argiro gorde ohi eban, batez bere, umezaroko urte-sail lu-
zean. Hauxe zan: soldau joan beharreko ordua heldu jakon osaba
hari, artean euskaldunak hareen laterriko lege nagusi horren az-
pian buztarripetu barriak izan ziralako. Bizimodu noraezeko ho-
rren zaletasun *erbatzik*⁴ bere, ez izan, ba, haren osaba zuhurak!
Bildurra eutsan aldikada hari, gosez hornidua gehienbat, garbita-
sunez eskasa, etxetik urrundua, amaren gonapetik *asago*⁵ aldegin
behar mingotsa.

Eta zer egingo, zer ez egingo, dapa!! erabagi zehatz eta susta-
rrekoa hartu eban.

¹ *uzkarrume*: sein, neba-arrebarik gazteena.

² *bailirauan*: iraungo baleu legez.

³ *gasunaska*: okela gatzetan ipintzeko erabili ohi dan kaxa.

⁴ *erbatz*: txint, arean.

⁵ *asago*: urrun.

Mingarria izango zan, arean. *Itxuspera*¹ jarri beharra izango eban, aurki... Erabagi gogor eta errea zan: hortz-aginak, guztiak *tutarrez*² atara, bat bakarra bere, *ohietan*³ egonean utzi barik. Eta esan, eta egin. Hogetabat urte mugara heldu zanean, agintarien mezu ta deia jasoteko unea orduko, eta lasterrekoa zan, haren ahoak egundoko sarraskia izan eban; eta aginak eta hortzak banan banan eta hurrengorik hurrengo *erauziaz*⁴, egun gitxiren buruan haren matraila-hazurretako ohiak, patata ereiteko gertu dagoan soloaren itxurea hartu eban, lerroz-lerro zuloz edo potxiz beterik.

Osabearen jazoera garai hori, Nikanorrek hamaika bidar kon-tatua bere adiskide ta jarraitzailetzu bakartiai, honeek aho zabalik, isil eta konkortuta egozalarik!...

Ez zan, horraitio, osoro ez jakina Nikanor. Bederatzi-hamar urte zituanean eskolara zintzoago ibili zanez, ta berez argi samarra bere bai, aurrerakada ezagun ezaguna egin eban, eta bai horixe abertidu bere, Etxabelar irakasle errimeak. Hori zala-ta, *garbaiz*⁵ ta errukiz ikusten eban maisuak, mutikoaren zabarkeria, berezko doai aitoren jabe izanik.

Mutikoaren gogoa ta maisuaren ustea, ez etozan bat, beraz.

Beste zerbait egoan burutan hartua, alargunaren seme txike-rra. Zera, eskolarik nahikoa ei ekian. Zetarako gehiago? Etxean, ostera, liburuen orriak baino diru-txanponak preminazkoago ziran, eta... Nikanorren aparteko sakelean, zer esan bere ez.

Eta agertu eutsan agertu, bere burubidea amari. Letrak bu-ruan larregian sartzen jardun baino, handik aurrerantzean hortik hemendik *lauko*⁶ batzuk nundik irabazi, onuragarriago izan eite-keala ama-semeentzat. Ama buruzaleak, aintzat eta ontzat hartu eban semearen asmo argia.

Handik gora...

-
- ¹ *Itxuspera*: itsusi samar, itsusituxe.
 - ² *tutarrez*: errotik, arrastorik itxi barik.
 - ³ *ohi*: «encia».
 - ⁴ *erauzi*: atara.
 - ⁵ *garbai*: damutasun.
 - ⁶ *lauko*: txanpon, sos, diru.

Handik gora, egunkari-saltzaile izango zan goizetan. Amak, goizero orraztuko eutsan burua harrezkero; eta anartean, *bartzen*¹ toki, zorri-habia ta noiznahi *zahiez*² betea izaniko buru horrek, sekulako aldakuntza ikusgarria izan eukean, segurua. Arrastian, ogipideren bat izango eban ikasgai: zapatari, bizarregile edo... Hori, geroak esatekoa zan.

Eskolea, ganera, ez zan blauts! bertan behera utziko eban arloa. Gabeko eskolara joan eitekean... neguan, mutil nagusiagoe-kin batean.

Horrelan, langile arduratsu ta behargina izango zan. Etxera, egunero bere alogera zintzo eroango ebana, gosea ibituteko, preminak *emendiauteko*,³ amari laguntzeko. Horra semeak amari goza-gozaro *idaroki*⁴ eutsana.

Eta ganera, gabeko eskolara joango zan, eta ikasle errime izango zan, geroago ta gehiago jakiteko, amurru ta *arreta*⁵ haundiz liburuai ekiteko... zinera edo beste nunbaitera ez joianetan.

¹ *bartz*: «liendre».

² *zahi*: alearen kanpoko azala; «salvado».

³ *emendiau*: gixitu, urritu.

⁴ *idaroki*: iradoki, inspiratu.

⁵ *arreta*: kontu, ardura.



IV

Goiz-erdian herrira zan, egunero ohi eban lez, bidai-beribila, korreua ekarren *tarranta*¹, zaldi-burdien lehenengo jarraitzaile ta ordeazkoa. Harek ekarten zituan hurira lagunak, euren lotura eta maletak; jan-edaneko gai batzuk, eta korreu-sakel narruzkoa, zikina bera, ta baita eguneroko paperen zorro lodi ta latza bere. Herri haretaraino heltzen ziran egunkariak, eskualdeko huriburukoak soilik, hona hemen: «Albistari Barria», «Bakarrekkoa», «Barrien ekarlea».

Egun horretan zan hasteko, bere lanpide barrian, Nikanor esku bizkorra. Periodiku-saltzaile izango zan, eta harek salduko ebana, «Bakarrekkoa» izango zan.

Paper horren arduraduna herrian, eta haren izenean heltzen zan «Bakarrekkoa»-ren pakete biribila, Kosme Tutulu zan, drogerua berau. Drogeruaren dendan saltzen ziran banaka batzuk azken orduan; baina ahal izanik, goizean goiz, heldu ala, beste egunkariekin *norgehiagokan*² jardutea, saltzeko bideak zertutea, horixe zan kontua. Azkar ibiltzen ekianak, beraz, horrexek eukan garaipearen ezaugarria, ta irabazia gehituteko aukera berebizikoa. Asmo onak ala gurari bihurriak herritarren artean zabaltzea, hori ez zan saltzailearen barruari egokiona. Zenbat eta gehiago saldu, eskuarte gizenago.

Izan bere, batzu batzuk euren opinino-aldeko paperak hartu

¹ *tarranta*: auto, kotxe.

² *norgehiagoka*: lehiaketa.

ohi zituen zintzoro eta eutsi estuan. Beste askok, ostera, *eskuar*¹ lehenengo topauten ebena erosten eben.

«Bakarrekoa» bere izenak dinona zan, *iraizean*² begiratu ezke-ro. Bere kabuz ta *jaref*³, inoren buztarpe jardun bage, asmo askatuen eta buruera zorrotzen jabe zana. Liberalak eta, hartzen ebena. Liberal hitz horrek, hain zuzen, esangurarik ugari eban, emakumeak mila *maratila*⁴ ohi dituen antzera.

Heldu zan ba, autobus *eskerga*⁵ ta astuna. Korreu-etxeko atadira eben egunkarien zorro latza. Norbaitek, atadian bertan edegi eban sakutzarra. Jente pilotxua egoan pardel *gilbortsuon*⁶ begira. Letra galantez izentaurik etozan pardelok. Bat-batean, Nikanorrek, katu *azarriak*⁷ saltu egin ohi dauan antzera zapart eginik, hartu eutsan edota kendu eutsan ataratzailari, hari berari egokion pardel biribila. Begira egozanen artean zalaparta apurra sortu zan, uste-uste bagako zerak ikusirik. Bati oina zapaldu eutsan; beste bati ukondoaz min egin eutsan buzkantz aldean. Beste bati, botoiaren haria urratu bere jake *melgeran*⁸, eta, hasarrearen hasarez, zarataka hasi zan.

Mutilak bere eginbidea ondotxu erabagita eukan: azkar ibili, zarata egin, paperaren izena goraki aitatuaz. Alboan egozanak ez ekien nobedade horren barririk, ostera. Eta mutiko esku-bihurria paper-piloa harturik, hara honaka igesi lez joiala norbaiti begitandu, eta ahots gogorra entzun zan:

—Kontu horregaz! Ostu egin dau-ta!

Eta Nikanorrek, bere kontrarako ziran deadar hareen sustrairik ez ondorenik susmau orduko, sekulako *kankarrekod*⁹ hartu

¹ *eskuar*: lortzeko moduan, eskura.

² *iraizean*: azaletik; «superficialmente».

³ *jarei*: aske, libre.

⁴ *maratila*: aitzaki.

⁵ *eskerga*: haundi.

⁶ *gilbor*: zilbot.

⁷ *azarri*: itzarri, zerbait egin gurarik dagoanari esan ohi jako.

⁸ *melgera*: arrunt, merke, itxurabako.

⁹ *kankarrekod*: golpe.

eban, besotik oratutea lortu ez eban txinel gizon mardo batek, *burrundadaz*¹ emona.

Han jausi zan luze, zan ginoan, lurrera Nikanor gizajoa. Lurrari gozaro mun egin ete eutsan galdetu eutsoen, han inguruan gertatu ziranetariko gazte mustur-erre batek zitalkiro barre algaraka ziharduala. Gizonak, mutilaren alde jarri ez jarri, zalantzan egozan, baina hango emakume bakarrak egundoko txilio ta oihuak egin zituan mutilaren alde.

—Zer tratamendu era da hori? Umekondo bat jo ta lurrera erastea? Bai esku modu biguna bere!

—Ostuta igesi joian.

—Zer ostuta? Egunkari-pardelak horrelan ostuten al dira, ba? Mundu guztiaren aurrean saldu behar dan gauzea, horrelan ostu? Baita zera bere! Ez al dakizue, mutil hori gaurtik, «Bakarrekoa»-ren saltzaile barria dana? Ba... ez badakizue, jakin.

—Horra ba! —erantzun eutsan nasai ta begia erdi itxirik Txomin Egarrik—. Hemendik gora, heurea izango dok «Bakarrekoa». Baina gaur bertan, lehenengo saritzat, hori bere izan dok, Nikanor: Takarrekoa! Aja, ja, ja, ja, ja!...

Lurretik jagi ala, begirakune zital eta amurruz beteak egin zituan Nikanorrek, bere ondoan eukazanai hasarrea ta gorrotoa agertu nairik. Emakume bakar hari, oster, eskerrak emon eutsazan, murriz eta labur. Gerotxuago, belaun zikinduak zerbait garbitu ostean, Txomini burutik behatzetara begiratu, eta astiro astiro, hortzak alkar joka, bai esan bere:

—Heure amari esaiozak horrelako tentelkeriak, alper madarikatu horrek!

—Alperra neu —jardetsi eutsan Egarriz ezizenekoak—. Esku artean hartzen ba haut hartu!...

—Alperra neu...!

—Ez be! Oraintsurengoan bere, harako etxe zaharrak su hartu ebanean, neu ez al nintzoan ibili heure bila gauaz, batera bestera, alper alperrik?

¹ *burrundada*: durundio, «estrépito».

— Ta, ganera, hika diharduk neugaz?

— Ez, zera! Berorika jardun behar izango dogu, hain zuzen bere, zaraigiaren zeregina egoki egiten baino ez dakian jaun zaldunaren tratamentuan...!

Han egozanak, inun diran barre karkaixak egin zituen, uste-uste bagako gertaliski haxe ikusita.

Nikanor, kankarrekoaz berehala ahaztu zan, zirudianez, eta hasi zan bere ogipide barriaren lehenengo urratsak egiten. Pake-tearen azal lodia behingoan urratu, eta banakoak lekuan bertan etxunik, hasi zan honi ta hari egunkaria eskeintzen deadar egina.

— «Bakarrekoa!»! «Bakarrekoa!»!... Herri honetan saltzen danik onena! Egunkari oso ta betea! —bere nausi Kosme Tutuluk agindu eutsan araura.

Beste saltzaille zaharragoak ez eben ohiturarik, albista-paperak oihuka agertzeko, ta jazo zana ikusita gero, han egozanik askok Nikanorri erosi eutsoen egun haretako albistaria.

Takarrekoa gorabehera, lehenengo ekitaldi hori *merketariz*¹ ugaria izan zan mutikoarentzat, eta garapentxu horren sariaren epeltasuna susmauz, aho gozagarri jakon Nikanorri goiz haretako lanbidea.

Inguruan egozanai emon eutsen bakoxtari bere egunkaria, eta han saldu ahal zituanak banandu ostean, kalerik kale joan zan, bizkor joan bere, behin eta barriro argi ta garbi esanaz egunkari ospatsuaren izena. Herriaren inguruketan, behingoan jardun eban ekinalean saltzen. Mutiko txikiagoak, haren ondorik joiazan. Gauza ikusgarria zan eurentzat, herrian lehenengoz entzutea, halako asmoaren agerbiderik.

— Aiba! Paperaren izena esaten dau deadarka!

— Ta ganera, Nikanor da!

— Zorritzot?

— Bai. Goiazan, goiazan haren atzetik! Barre egingo dogu sendo!

Mutikotxuak barre egingo eben eskolatik urtekeran, eta Nika-

¹ *merketari*: bezero; «cliente».

norren ibilera barriak euren adimenak erdi ulerturik izango zituan. Baina, Nikanorrek pozik hartuko eban hareek uste barik, emongo eutsoen ospe ta entzutea jentearen aurrean; halako laguntzaile mordoa bere ondorik erabilirik, herrikoak mutiko erneari begira jarriko ziralako. Eskola mutilen artean bere *entzuteduna*¹ baldin bazan, harrezkero Nikanor mutikoentzako zerago, haundiago izango zan, herrira halako era barri ta erakargarriak zertu zituhalako. Ez ekien asko mutikoak, Tutulu drogeruak erabagiriko saldu-modua zanik haxe, huri haundietan ohartuta eukanez. Honek eta Nikanorrek laukoak jasoteko, ta liberalen gurari ta asmoak jentearen artean esku ta bihotz zabal ereiteko.

Eguerdi alde baina lehen, pozik egoan Tutulu dendaria, Nikanor dendara agertu jakonean, besapea hutsik eta patrikeran diru-pixua ebal, saldutakoaren *garbitasuna*² egiteko. Egunean eguneango garbitasuna egingo eben. Traturako lehenengo berbak egikeran, horixe erakutsi eutsan Kosmek.

Dendariak, irribarrea egiteko gogotxua ba eukan euki, baina ez nahi ba agertu mutilaren aurrean, euren garaipen hori, mutilari eskerrak izan zanik. *Benaz*³ eta erdi *betozkoz*⁴ egoan Tutulu, azeri zaharraren antza, artean galdurik ez ebalako. Azeria beti azeri, uleak *ulduta*⁵ gero bere...

Lapitz lodi bat eskuan, sudur ganean antiparra bere moduko batzuk ezarri zituan, eta paper zikin bat harturik, haren mutur koipeztu batean, zenbakiak zirriborraten hasi zan.

—Tira! —esan eutsan mutikoari, isilaldiaren ostean.

—Zer? Txarto ala? —zirautsan Nikanorrek, arnasea bularrean erdi geldirik.

—Ez. Gaur, polito saldu dituzu paperak. Inoiz gehiago saldu izan dot. Bihartik, geroago ta gehiago entzun?

—Zegaitik, jauna? —erantzun eutsan mutikoak—. Niretzat

¹ *entzutedun*: ospetsu.

² *garbitasuna*: kasuon «kontua» esan nahi leuke.

³ *Benaz*: seriotasunez.

⁴ *betozkoz*: «con el ceño fruncido».

⁵ *uldu*: kendu.

aukeratu dituzunak, guztiak zabaldu ditut. Hemen gelditu diranak *dakustaz*¹ nik hor geldi, saldu barik.

—E... bai ba. Horixe esan nahi neutsun. Bihar, «Bakarreko» guztiak salduko ditugula.

˘ —Ikusiko dogu.

˘ —Nahi ta nahi ez. Ta orduan, gehiago eskatuko gendukez —inoan, hitzak neurturik eta Nikanorri bestela baitakoan, burua makur ebala, betaurrekoen ganetik begiratuaz.

—Eta, laster eskatu bere —gehitu eban dendariak berak—. Telefonoz *hatan bere*². Ta zenbat eta gehiago saldu, gehiago irabazi.

—Zuk bai. Baina niretzako irabazia, urrituaz ipini dozu, ta hori ez dot ontzat hartuko. Paper saldu bakotzeko, honenbestekoa izan beharko da niretzat bere.

—Zagoz isilik, mutiko. Zure adinean, ea nok irabazi leian horrenbeste diru, eta hain errez. Ganera, guzti hori, ez ahaztu neugaitik izan dana.

—Ba!... Zu denda barruan zagozan artean, Nikanorrek egin behar dituan ibiliak eta deadarrak, eta urratu behar dituan zapata-azpiak, ez dituzu gogoan asko.

—Txotxo! Zuk neuk baino gehiago jakitea, ez da bapere onurakorra izango, gero!

Agureak barre gaiztoa egin ondoren, mutilak eroaniko diruak zehatz kontau, papereko argitasunakaz batera ete egozan begitu, diruok mostradoreko azpi-kutxan sartu, mutilari egokiona erabagi eta halakoren batean, *manatan*³ eta bare-bare, emon eutsazan txanpon baltz batzuk, han urduri ta egon ezinik jarri eban Nikanorri.

Honek, bere izerdiz lorturiko txanponak ikusi ta ikertu, banan banan kontau, eta *sakelera*⁴ zituan. Ezpanak estutu, sudur-puntea graziaz okertu, eta eskuak burlazarrean igurtziaz:

¹ *dakustaz*: ikusten ditut.

² *hatan ere*: hain zuzen ere.

³ *mana*: patxada, lasaitasun.

⁴ *sakelera*: sakeleratu.

—Bihar arte!

Hitzok esan, eta txistuka urten eban Nikanorrek, nagusi bariaren dendarik. Honek jakituria ta azeri entzutea baldin baezan, irakasle onak ikasle ohea ez ebala faltauko, bere kolkorako esanaz.



V

Zaletasun artean, euki-nahia zan sakonena ta minena Nikanorengan. Ez zan bakarra, egia esan, horretan; hurrengorik hurrengo gizakien ardurarik zoliena, gehienbat, horixe da-ta, izan bere.

Nikanorrek, etxe hutsa ezagutu eban, seiná ta umetxua izan zanean, adin haretan zer horren sustarra ta arrazoia inondik inora *susmau ez eian*¹ arren. Lau horma zahar zikin izango zituan, aurki, mutikoa txikitán bizi izan zan etxeak. Beste askok, ugaritasuna ta zer gura ta haxe izan ohi eben aroan, premina ta behar gorria sarri bai sarri bular-bizkar, jasan eta iragan zituan. Aita zuhur ta langilearen hutsunea, ez eban ez egokiro bete haren ama nagiak, eta bai *apapuan*², *aloxuan*³.

Gosea ta egarria, txikitako premina nagusi ta buruak, zelan edo halan zuritu ta arinduaz, emon zituan umetako urteak. Gorputzean ez eban, zinez, garbitasun lar ezagutu. Haren hatzazalak sarri askotan hileta-soinekoz erakutsi ohi zituan, eta eskuko azal enparauak langile esku latzak areago zirudien, mutiko *alazokorenak*⁴ baino.

Nikanorrek, udan izaten eban adiskide uraren hezotasuna, erreka sakonean ala itsas aldean. Neguan, osterá, ez jakon atsegin ez semeári ta ezta amári bere, bustia betitsu hotza ohi dala-ta edo.

Belarri ostean, patata-solo ondo ongarritua eukala, eskolara hasi baizen laster esan eutsoenean, lotsabaga-seta taiuaren azta-

¹ *susmau ez eian*: susmatzen ez zuen.

² *apapuan*: estutasunez bizi.

³ *aloxuan*: «débilmente».

⁴ *alazoko*: bikain, maratz.

renak igarri zituan, gizon eta *idekoen*¹ artean. Haren buruko uleak —ez zan guzurra— bien bitartean, ez eben egundaino orraziagaz alkarregazko tratu edo itunerik egin, esatekorik behintzat. Kirikioaren laztasuna ez baeban bere, haren buruko uleak hartzarena zirudian, auzoko andra barritsuak esaten ekienez.

Jantzietan ez eukan inoz bere, ezetariko apaingarririk. Biloztasuna zelanbait estaldu, ta udako eginbearra hornidurik eukan. Soinekoen urratu eta tarratadak, gorputzeko narruak haizea hartzeko leiho askatuak izan ohi zituan. Epel-aroa heltzen danean, txiroak eta landerrak zeru txiki baten pozkaria izaten dabe, atsoaguren antzera.

Neguak ditu alderdi itsusiak, aldikada baltzak, aste zatarrak, egunetz dala, gauaz dala. Edateko uraren bila etxetik asago urten bearra izaten eben arren, neguko gau ilunbezueta eskatu bagako ura eskeintzen eutsen oparo zeruak, itoin-irristada ta itusur-tantakaden itxura lorrinduan.

Ezagutu zituan inoiz, abendua baino lehen hasi ta udabarrirarte, hatzamar minduak, azalak astindurik haragi gorrian jarten eutsoezan *azkordinak*² zirala-ta. Zorioneko *ospelak*³ Ama ez eban, antza, *azturu*⁴ edo sorgin osatzaileen taldekoa; esku minduentzako osagarrien bila inoiz ez inoiz hasi ez zalako. Buruak emon bere ez horrelako auzolanetan jardun behar ebanik, harako esaera zaharra gogoan ebala, nunbait: «azkordinak osatuteko zerrik onena, babearren bigarren lorea». Jakina bal ordurako, udabarriko egun epelberak helduak izaten diralako.

Barruko gauzak baino hormaz kanpoko zerak, izadiaren eguteren egozan gauzak gurago zituan Nikanorrek, ikusle-entzule askok, etxe barruko filmeak baino *lekore*⁵-gaidunak gogokoago dituen antzera.

Udabarriak eskeintzen eutsazan bere erakarpen eta enkantu

¹ *ideko*: kide, norberaren moduko.

² *azkordin*: «sabañón».

³ *ospel*: oinetan sortu ohi dan azkordina.

⁴ *azturu*: aztzi; «adivino».

⁵ *lekore*: kanpo.

pozgarriak. *Mitxirrika*¹ ta *inguma*² *ilaun*³ ta arinak hartzea, zeregin kutuna jakon. Horretarako, Nikanorrek bai topau bere, laguntzat, adiskide nahi ezagun artean, mutiko meneko ta eskurakoiak. Bakartade zale zan arren, sarri askotan bakartade soila ez jakon *txit*⁴ atsegin. Bakartia zan, bere erara. Bakartiaren senak, gorabehera guztiak norberaren menpe ta barrukotasunean jarten ditu, barruti estuan, hesipean, gorderik, besterengandik isilpean.

Nikanorrek entzutearen *imurtxia*⁵ eukan bihozpean. Kili-kili egiten eutsan haragian, bere ospe ta izena mutikoen aho-mihinetan ezarri nahiak.

Haren ustez nahikoa haundia zan jakituria haxe, bere baitan, bere kolkoan gordeta isilik euki ezker, izan bere, nok ezagutu eikean, nok aintzat hartu ta goratu Nikanorren sena, azkartasuna? Zerbait agertu beharreko daukenak, lekukoak izatea nahi izan ohi dabe. Izadiko bizidunen ezaguerea eban Nikanorrek, eta beragaz eroaten zituan mutikoai, irakasten eutsezan gorabeherak, eta begien aurren ipini, pizti baktokaren zertzeladak bizi-biziro. Inguma ta pinpilinpauxen artean, mueta batzuk ziran nabarmen ta jakinak. Zuriak, Ama Birginea eukan izentzat. Kolore nabarrekoai, San Roque eritxen. Ta mueta potolo biribilak, ibilkeran hegada burrundaratsua egiten ebenak, alanbrezkoak ziran...

Kirikirri ta kilkerak batzea bere, lan aintzagarria izan ohi zan. Euren etxazulo biribilean gorde ezker, inoiz igespide erazkoa izaten eben, piztitxu kantariok. Buruz aurrera sartu ezker, horraitio, gogorpide makal, kilkerrentzat. Orduan inguruan eskuar egoan bedar liraina eten, eta ziri berebizikoa horixe, han ezkutau zanari ziri-ziri egiteko. Denpora luzea baino lehen, han agertuko zan atzekoz aurrera grillu baltza, bedar mehearen ikutu *gilberak*⁶ jasan ezinik. Bere zilora atzez atze sartu izan balitz, oster, ez zan ahun-

¹ *Mitxirrika*: tximelet, pinpilinpaua.

² *inguma*: tximeleta, pinpilinpaua.

³ *ilaun*: pasakor, igarokor.

⁴ *txit*: oso.

⁵ *imurtxi*: tximurtxi, txatxamurkada.

⁶ *gilbera*: kilbera.

tzaren gauerdiko eztula, kilkerra begien bistara agertu erazotea. Ta holakoetan, urez edo *garnuz*¹ beteten zituen zulotxuak, eta baita inoiz, hasarrez, ostikopean zapaldu ta urteerea lorrindu bere, lurrezko *ataka*² hauskorra itsutu ta *lauskituaz*³.

*Suangilak*⁴ eskuratzea izaten zan beste joku polit bat. Eguerdiko kirola, eskolatik urten orduan, udabarrian, eleiz-torreko kanpai astunen durundua entzun arte... Eguzki begitan, horma zaharretan, batzuetan batera bestera, gehienetan nagi ta bagi, beroa irun-tsi beharrez egoten ziran *suangilak udalehenean*⁵. Nikanor azkar-rak, *suangilok*, eskuaz hartzen zituan, antze ta arreta haundiz, ta *bapere iguinik*⁶ bage. Zeregin jolaskoi horretan, baldin haren lagunetariko batek edo bestek narda ta enpagua izan ezkerro, orduan ta zitalkiroago jarten zituan lanbide hori ikasten, bere abilitadearen oinarriak adierazoaz. Ausardia ta erabagi-senaren preminarik bazan, hantxe egoan Nikanor, ezikasiai inguingarri jakena, jolas gustagarri bihurtu arteraino. Nazka hori, egia esan, berehala baztertua izan ohi zan, ta ikasle barriok eratuten zituan, eskola-maisuak ohi dituan baino errezago.

Txoriak bere, guztiz gogoko zituan Nikanorrek. Txori haundien kontu ikaragarriak edonoiz esaten eutsezkan mutikotxuak; hori, baina, ikasia eban, ez berak ikusia. Ehiztari jator batengan eukan bere jakituri iturburua. Ehiztari hau, egunero edo, bizartegi batera joan ohi zan, Ubaldoren bizartegira, ta iluntzetako bilera baketsu haretan, kursillu arin baina onuratsuak egiten zituan, beraz, Nikanor *zirinak*⁷.

Eskolako irudi, hitz-erro ta zenbakariak baino kontu gehiago esaten eutsoen barruan ta buru-argitasunean, gizon helduen hitz sakonak, *atindunen*⁸ berba biziz beteak.

¹ *garnu*: txiz.

² *ataka*: zulo, irteera.

³ Falta nota.

⁴ *suangila*: sugandila.

⁵ *udalehen*: udabarri.

⁶ *iguin*: nazka.

⁷ *zirin*: urduri, artega, mugikor.

⁸ *atinduna*: ohitua, ibilia.

Han harturiko jakituri horrezaz baliau egiten zan, horraitio, beste gaztexu buru-zentzun samurrago batzuk iratzartuteko.

Ez zan, ba, guztia gordezale. Bizitzako gertakizunen ta jazoe-ren barri, hurrengoai irakastea, atsegin jakon; bitartekotasun ar-loaz jarduteak ez eutsan kalterik egiten.

Baina txori txikerren zertzeladak, burutik buztanera ekizan. Mueten izen, kolore, neurri; noiz ta nun egiten zituen euren ha-biak; toki berezienak, janari *litxarrenak*¹. Horren barri, ondo baino hobeto ekian, haren adiskidexuen berba goresmengarriak sinistu ezkeru, behintzat. Aho zabalik egoten jakozan entzuten lagun kos-korak. Herrikoak, huri haundi samar haretan jαιο ta haziriko mu-tiko gehienak, gauza harrigarritzat hartzen zituen Nikanorrek esa-nikoak. Izadiazko liburutxu irudiz beteak baino gehiago irakasten eutsen argi ta garbi, sakon ta labur, Nikanorren ezpan arterik jaso-ten zituen berba zoragarriak.

Biregarro, zozo ta etxetxoriak; txirta, pintxon, zertzetak eta ira-txoriak; ipedikara, ingor ta txepetak; txio, tarin, kalandresak; urretxindor, pardil, papargorri erukiorrak eta kardantxiloak; ena-ra ta kirrizkaro zatatatsuak; okil, basoilar, kurlo ta hegaberak; kuku ta amilotx lotsabagak; mozolo ta gauontz itsusiak, eta ganeti-ko txori zatarragoak, erroi, mika eskilaso, gabiloi ta saiarre gaiz-toak...

Erretolika luzean jarduten eban guztion izen; aztarren, *hazbe-gi*² ta enparauko gorabeherak jarraian azalduaz. *Umezaroan*³, edonor bere, konkortuta eta harriturik, adurretan ezarteko gai bi-kain miresgarriak!

Harri zaharrezko horma antxinakoetan, erdi lo edota igesika atzemoniko suangilak, ez zituan gero bertan behera jarei ta aske izten. Sarritan, buztan-zatia urratu ondoren hara honaka muti-koen esku artean eta inoiz lurrean bere bai, inguruan jagoleen esku-oinak zituela, euren iges egiteko gogoia jasan behar izaten

¹ *litxar*: gozo.

² *hazbegi*: «facciones».

³ *umezaroan*: umetan, txikitan.

eben *patariok*¹. Beste batzuetan, sugelandarok bihurri ta *hezkatxak*² zirala-ta gehiagoko barik, Nikanorrek, agintari zeatz ta esku sendorra bailitzan, heriotzara epaituak izan ohi ziran, eta hantxe, guztien aurrean eta guztiak *borreru*³ izanik, eskuetan harriak hartu ta gertu egoten ziran mutikook, nagusiaren esanera, harek berba gogorra esan ala zinu aginpideduna egin eianean, guztiak harrika erasoteko. Eta piztiok, nahi aukera kaxkarrenaz baliauta, zuloren batean edo sasilarren artean estaldu eien euren burua, nahi hantxe jausiko ziran esku zirtzil ta bihotz zital hareen odol-egarripean hilda, begira egokiezanok oraindino bere, piztien azken arnasak, pozik eta berba gangar ta barre zorangaz ospatuten zituela.

Beste suangila batzuek, ez eben behingo behingoan izaten heriotz-epairik, ez iges-leku erruki bakorik. Honeek, presondegira joan behar eben. Askatasuna galtzen eben lehenengo ta behin, ta gero, ez jakin zer. Honeek, eurentzat *berengi berengiz*⁴ eginiko kartzelak izaten zituen; baina argiz beteak, egunez behinipehin. Ez eben harako kantariaren *ziega*⁵ baltz bildurgarriaz, senidetason erdia baino:

«Egunez argi gutxi,
gauean illun;
niretzat gozotasunik
ez dago inñun...»

Nikanorrek suangilentzat gertuten zituan ziegak, ez ziran sakon-hondarrak izaten. Lur-azalean, leku landu bagean, esaterako mota aldean nahi lur gogorrean bere bai, zulogunetxua egin, ta koxka hareetan sartzen zituan patari zeheok, bakotxa bere

¹ *patari*: pizti.

² *hezkatx*: hezi-gaitz.

³ *borreru*: «verdugo».

⁴ *berengi berengiz*: berariaz, bereziki.

⁵ *ziega*: espetxe, kartzela.

*tegian*¹, eta ganean, teilatu gardenak² ezarri, kristal-zati luzanga ta biribil antzekoak, lehiu zaharretan harturiko zatiak.

Horrelan, argiaren maite dan piztia, Nikanorrek eta haren jarraitzaile odol-egarberak, iluntasunik bako kartzelan ipinten eben.

Kartzela txikerrok, ostera, iraupen laburreko ziega *leiarrezko*² izaten ziran. Inguruak ondo landu ta lurrez beterik jarri arren, gaur preso sarturiko suangilea, biharamonean iges egina izaten zan. Jakina. Borondatezko ilundegi ta hesiak maite ohi ditue neguko losorro lar luzean, piztiok; inok ezarririko kate ta eragozpenak, horraitino, ez hainbeste, gizonak begiko ez dituan hainbatean.

Ta horrenbeste ezkeru, euliai, batez bere, eskolako ordu gogaikarrietan egiten eutsezan *ankerkeriak*³... Lehenengo hego bat kendu, gero, bestea urratu; hurrengo, tutuan paper-zati biribildu luzetxuak sartu, ea idiak probalekuan jarduten daben antzean, euli mengel ta buztarri mingaridunok unteak unte egiten ete dituen, eskolako mai ganean marrak eta lerroak lapizez nahi igeltsu zuriz markauaz. Bapatean, maisua urreratzea izaten bazan, eskuartean edota liburu azpian zapalduta, han geratzen ziran gogortuta, euli bigun hazurbako hareek. Bestetan, hegalak urratu ostean, zezen txikerrak bailiran, mutikoak eskuetan orratz zorrotzak harturik, siki ta dzast, erraminta mutur hareen sastakadetan aurkitzen eben euren amaia. Inoiz, eulien buruak moztuten zituena, ta liburu ala paper-orriak, azpildu; eta bitartean, euli-buruok gogor zapaldurik, euren odol apurraz, irudi edo zirriborroak agertzen ziran orrialdeetan, eta hori, umekondo hareek, kalkomania merketzat *esten*⁴ eben.

Txoriak, ostera, heriotz ondoan, gorapen haundiagoa bere, izan ohi eben. Lehenengo, bihurrikeria izaten zan. Lakirioz, *biskaz*⁵, zepoz edota tiragomaz izango ziran harrapauak. Inoiz, uztai zurezkoa estalduaz, sarepean bere bai, makilatxu bati soka luzeaz

¹ *Falta nota.*

² *leiar*: kristal.

³ *ankerkeria*: barrabaskeria.

⁴ *etsi*: hatakotzat hartu, jo.

⁵ *bizka*: txoriak harrapatzeko erabilji ohi dan goma itsaskorra; «liga».

tira eginik. Txori atxilotuok, kaiola zaharren batean, nahi sare artean, kaltzerdi barruan ala farol ugerdo batean eukiten zituan, aukerea zelan zan.

Heriotz-ordua heldu ostean, barriz, herritik legoa erdi bidean, muinotxuan, bide ondoko karraskila edo txoriegur moltzo baten inguru, hatx artean egoan lur-atal garbian eukan hegazti-hilerria atondurik. *Odoldi*¹ bigun ta aratza lurraren gain. Hantxe jarten zituau, hurrengorik hurrengo, bere menpean hildako txori guztiak. Inoiz, *Domuru santuru*² egunez, arratsaldean, han hor hemen jasoriko kandela-ondakinak isiotuta ipini bere bai, txoritxuen hazurak *zetzazen*³ lur ganean...

Erbitan, ehiztari bizardunak lagun zituala joatea, horixe zan haren buruera atseginezko bat, aldi haretan. Ehizaketan, artean zaleak ziranak ikustea, euren ibiliak ikastea, lorratzaren susmoa, toki ta inguruen esangurea, gerora bere esku ta bere kabuz ibili eiten, jakituriaz, ohiturapean. Horretarako nahi zituan, zehatz go-goan hartu, bizartegiko barriketa gozoak.

¹ *Odoldi*: goroldio.

² *Domuru santuru*: Domu Santu; «todos los santos».

³ *zetzazen*: «etzan» aditzaren lehen-aldiko forma trinkoa, egozan.



VI

Irakasle zaharrak, behinola, asperturik eukan-ta, etxera bialdu eban Nikanor. Cogait eraginda eukan halako ikasle txarrak. Ganera, amuru gehien ta damu gehien emoten eutsana Etxabelarri Nikanorrez, hau inozoa ta buru tentelekoa ez izan, eta mutilak, eukan baino ganora handiago ez izatea, horixe zan. Penagarria edozein modutan bere; ostera, ezin ba, egonaria neurririk bakoa izan.

Nikanorrek bere aldetik, damu apurra izan eban. Etxabelarren eskolaldia atsegin jakon noizean behin joatekotan. Gizon ha, zaharra zanez, ez ebilen bere sasoirik oneneko aldian lez, jakina ba. Ta mutiko guztiaj batean jaramon egokia egin ezinik, eskolan zituan aurrenengo hiru-lau gaztetxuak, honeek jarten zituan txikiagoen maisu txikertzat, bakoxtak bere inguruan, aldra biribilduak ezarriaz, eskoletxeko bazterretan.

Aldi haretan, buruz ikaste lanak ziran nagusi. Inoiz edo behin prolema gatx nahi gramatikako ikertzeren bat, zitala bera, egiten eben; baina ganerakoan, hainbeste ta hainbeste esanaldi ta beremoduko hitz arrotz ta arimabakoak buruan sartu ta gogoan hartu ezinik, sekulako *lor*¹ ta *elorrío*² izan ohi zan umekondo hareentzat.

Zaletasun-iturria, beste *zer* batzuetan egoan, Nikanorren eskolara noizean behin joateko guraria. Maisuak, eskola-gaiez ganera, beste gauzatxu batzuk, ugari samar hatan bere, izan ohi zituan bere kutxetan. Esaterako, tabaku-zorrotxuak, mistu-kajak dozena-

¹ *lor*: pena, atsekabe.

² *elorrío*: lor, pena, atsekabe.

ka, puru txikiak, suarri ta metxa zatiak, imanak, burdinakaz ta gal-
tzeruakaz olgetan ibilteko; labur esan, estanku txiki bat zan ha,
mutikoen eretxian. Eta Nikanorrek ez eban, arranotan, tabaku-
orria arerio. Baina batez bere, hartzea, eukitea, topautea..., hori
zan, mutiko horren gogoa ta zaletasuna. Nikanor ainako zoridu-
nik ez zan, inortxu, aldi haretan!

Aspaldian buruan erabilen asmoa beteteko aukera baten begi-
ra egoan.

Goiz *arre*¹ ta baltzeran haretan joan zan joan, beste egunetan
lez, bere zeregin barrira. Elastiku ilun bat soinean, ganekotzat. Pra-
ka nabar batzuk, belaunak baino beheratuago, *zankabea*² estal-
duaz eta barrenaldean zuzen eta polito egon barik, oker ta kako
antzean *jita*³ eukienak. Herriko mutiko ederzaleagoak, globodun
galtzak eukazala burla egiten eutsoen, baina... urrunetik. Oineta-
koak, egin zituenean izan ziran garbiak; harrezkeroko guztian ez
eben hareek betunik ezagutu, nahi ta Peru Lustreputx izenekoa
harengandik ez urrun egon.

Olarratz jaunaren baratzean ibilteko gogoa, horixe zan haren
buru-gunetan irakiten ibiltzen zan guraria. Eta, uste uste barik, sar-
ritan ohi dan lez, *abagune*⁴ bitxia heldu jakon. Zaldun jaun haren
etxera joan zan, beste batzuetan lez, bere eguneroko papera eroa-
ten. Hara heldu baizen laster, neskameak, arren, ortura eroan eio-
la ugazabari, Olarratz jaunari, eskatu eutsan. Beste egunen ba-
tean, ez eban, behar ba da, ontzat hartuko mutikoak, egunkari bat
izteko hainbeste neke ta ibilaldi bikorrik. Neskameak galdetu bere
bai, horraitino, baratza nun egoan ete ekian.

— Bai, bai; baietz ba —erantzun eutsan mutiko saltzaileak.

Ez ekian asko etxeko serbitzari eme harek, mutikoaren asmo-
lapikoan egosi nahirik eukana. Haren zaldunaren ortura sartzeko
aukera mamina! Ez zan ahuntzaren gauerdiko eztula, harek ikusi
gurarik eukana, bapatean, *otoz otoan*⁵ ikusi ahal izatea.

¹ *arre*: nabar, ilun.

² *zankabe*: belaunaren atzeko partea.

³ *jita*: jokera.

⁴ *abagune*: aldarte, une, tertzio.

⁵ *otoz otoan*: sorpresaz, pentsatu barik.

Olarratz zaldunaren baratza, hormaz inguratua egoan luz zati apainkiro landua zan. Ate bakarra eukan, gorri ilunez pintaua, bide erreal edo kaminu zabal nagusiaren hegalean. Ezker-eskuma, beste ortu batzuk zituan, sarratuak honeek bere; harresiak, hormak inguruetan. Aspaldietan era bardinean egozan, karamasa ta harri zatiz, manposteria merkez horniduak, eta urteen urteez, zelan edo halan alkarri atxikiak eta lotuak.

Zerbait apainagoa zan, hain zuzen auzokoak baino, Olarratz jaunarena. Albokoen hormak baino beteagoak, zirrikitu gitxiagoak, leunago ta bardinagoak ziran zaldunaren baratzekoak. Atearen ertzetan *harlandu*¹ ederrak zituan, ta egunak joan egunak etorri, harako urre kolore txanbelinez jantziak agiri ziran.

Horma-bedarrak, inguma-lorak eta orio-bedarrak halan bere, zital ta burugin ta bizinahi izanik, lekuan lekuan erne ta hormetan euretan erro bigunak sakonduaz, politasuna ta bizitzako ederberatasuna ezarten eutseen hesi *gotor*² ta itsusi samar hareei.

Baratz horren hormak, eguzki begitan egozan egon bere-ta, hantxe sarritan ibilia zan Nikanor, bere suangilak hartzen. Ondo ekian bai, nun egoan eta zein zan, Olarratzen ortu txairoa. Ez eban gitxitan entzun solo hesitu horren alabantza ta goresmenik!... Edozer ei egoan ortu haretan, harako frantsesaren ortuan lez, aurki.

Eguneroko paper-txortea besapean ebala, gehienak saldu ostean, goiz haretan, euria goitik behera ordurako, buruan txapel zuloduna, bustiaren bustiz, ur tantakada maminak sorbaldeetan behera isurtzen eutsazala; iduneko solapak gorantz igonda, behar bada bere samondo zikina uraren igurtzi gozoak garbiegi utzi ez eion edo, ba joian joan aguro ta pozik, Olarratz jaunaren neska-me lirainak agindu eutsanez, zaldun ha, bere baratz landuan idorroteko asmoz.

Bide zabalean gora, errenka ta puzka, «Faun» automobil gil-

¹ *harlandu*: harri landu.

² *gotor*: sendo, mardul.

bortsu biribila etorren, lagunez erdi beterik, atzeko ate bakarra ondo itxi bage, dingilizka ta dantzari eroiala.

Nikanor, bide erditatik joan bere-ta, txoperrak, umore ez onez, sekulako txaranbel durundua entzun erazo eutsan, gomazko mardari antzeko zera esku artean behin eta barriro estutuaz ta erdi bihurtuaz.

—Kankarru zahar hori baino aguroago ez al noa ba ni neu, zuk hainbeste arrantza ta zaparrada egiteko, zeure txaranbel motel horregaz? —deadar egin eutsan, harro harro, Nikanorrek txoperrari.

—Kendu hadi hortik kendu, kirten hori, zapaldu ez haidan —erantzun bere, erabiltzaileak.

—Errementariak izango ditu txokoren batean zer hobeak...!

—Tarrantau hutsik baneroia, oraintxe bertan lurrera salto egin, ta belarondoko ederra barrurako heunkek, ba!

Gidariak esaten ziharduana, ez zan egin ezineko autu edo bari-ketea. Aldapa haretan, ta aldi haretan, inoiz gertatu izan zan, txoperra martxan lurreratzea. Ta motorrari ziri edo ikuturen bat edo beste eginik, barriro bere tokira igon ta beribil haundi astuna, tipirri taparra, beste nobedade barik, bere bidean artez ta nasai, Jaungoikoa ba! aurrera joatea.

Ez zan ausartu orduan gidaria, hori egiten. Eta bere bideari ekin eutsan, tramankulu haundiaren motorrak puzka ta arnases-tuka ziharduan bitartean. Damu izan eban, mutiko lotsabageari matrailondoko guri bat emon eza, baina haren asmoa zelanbait, egiztau egin zan. Eta izan bere, artean burlazar egitearren haren paretik aurrerantz joan barri zala, tarrant urdin baltzari atzealdean ukutu egin gura eutsanean, uste ez eban *isopo-arrada*¹ zikina har-tu eban Nikanorrek arpegi-arpegian.

Orduko automobilen burpilak aterpe ekasa euken ba, lupe-tzearen gordegarri, ta atzekaldean jarri zan mutiko zuhurrari, bu-ruak ez emon orduan basaz beteteko arriskurik ebanik.

¹ *isopo-arrada*: txorrotada.

Esku-ganeaz, igurtzi eban arpegia, lupetza zikina zelanbait kentzeko, ta lohi moltzo gehiena arindu ebanean, jakearen be soaz, elastiku garratzagaz *marruskatu*¹ ta *erakori*² eban, arpegiko azalean kiri ta ikutuera minbera sentiduaz.

— Zikina ta zaratea besterik ez daukan burdi astun horretan joan baino, hoba da asto ganean joan bere.

Eta kontuak kontu, *anartean*³, Nikanor ordurarte ez zan behin bere inora joan automobilean, ibili zan lekuetan oinez ibili izan zalako.

Bere arazora bihurtuaz, Olarratzeneko baratzaren ate gorriraino heldu zan. Zer egingo? Deadar? Ez eritxan Nikanorrek, egoki, zaldun jaun bati, deadarrez deitutea. Ukabila estutu, eta hatzamarren konkorakaz kax-kax jo eban ate gorria. Une haretan bertan, atearen aztarrenak ikusten eta ikertzen hasi zan. Ate harek ez eukan orduan gehienak euken lako serraila-zulo haundirik. Horrezkero, giltz haundirik bere, ez eban eukiko, ta lapur-giltzik erabiltea alperrik izango zan ate haregaz.

Bigarrenez jo eban atea.

— Nor da? —entzun eban halako batean, barru aldean.

— Nor? Neu, neu naz!

— Baita neu bere, neu nok! —erantzun eutsan horma ganetik, ahots lodidun gizonezko batek.

Ez zan nunbait, Olarratz jauna, honen ahotsa biguna ta doto-rea zalako. Beste norbait zan. Hain zuzen, Damas *ortalaua*⁴. Olarratz jaunagaz ziharduan honek, haren esanera madari-landara batzuk sartzen, eta horregaitik egoan han.

Beheko bidetik, hormea, luzea ta jagia zan; baina baratz barruan ez zan hainbestekoa, eta horregaitik, atea edegiteko harmaila batzuk jatsi behar izan zituan Damas ortulauak.

— Olarratz jaunarentzat, beronen neskamearen izenean dakatsat gaurko egunkari hau. Ez al dago bera hemen?

¹ *marruskatu*: igurtzi.

² *erakori*: eraikori, igurtzi, marruskatu.

³ *anartean*: bitartean.

⁴ *ortulau*: ortuzain.

— Bai, hor dago baratz-*guenean*¹.

— Orduan... igongo dot beraganaino?

— Ez daukazu zetan igon. Neuk eroan neio. Ordaindu egin behar al deutsu?

— Ez, baina...

Nikanorren «ez baina» honek, esangura sakona eukan haren-tzat. Hala ta bere, ezin ba garbi esan. Barruko bideak, hormen neurriak, baratzeko etxetxu ospatsuaren ate-leihoak, han barruko armario ta gordailuak: erabat esan, lapurretan ganoraz egiteko zertzelada ta hazbegiak eratsu ta aurretiaz jakiteko ahaleginak egi-tea. Horra ba, orduan behineko eginkizuna.

Eskutik eskura hartu gura izan eutsan ba, Damas ortulauak al-bistaria, ta ate ondoko ikustaldiari gitxi eritxirik, Nikanor buru-tsuak bere garunak eio nahi zituan, ea atxaki edo akiakularen bat asmauten eban, ortulauaren setakeria gorabehera, Olarratz jauna-ganaino heltzeko eretia izan eian.

— Zaldun jaunarentzat beste mandatu bat bere, ba neban ba...

— Emotekoa al da?

— Ez ba; hau ez da emotekoa, esatekoa da.

— Hori bere egin neio: esan.

— Bai; eta erantzuna? Barriro etorri behar izango zenduke mailtan behera.

— Kontre! Isileko konturen bat al da?

— Neure *garatz*² eta irabazpideari dagokiona da-ta...

Eta Damas zaharra aurretik, Nikanor atzetik, biok joan joiazan harmailtan gora, eta gero, bidetxu erditatik ortuaren goenera, Olarratz jauna hantxe egoan-eta.

Etxetxua ostera, ez egoan alde haretan. Nikanorren gogoa, hango nagusia etxola barruan egon eta hango zehetasunak bere-ganduteko aukera ederra izatea zan. Baina, zirudianez, honen go-gara osoz ez zan gertatuko, antza.

Eskuratu eutsan Olarratzi egunerokoa. Orduan zan *eretia*³

¹ *guen*: ertz, mutur.

² *garatz*: negozio.

³ *ereti*: abagune, aldarte, tertzio.

jaun hari berba egiteko, ta Damas ortulaua irakiten egoan, jakin-gura zirina kolkooan irakiten *ebilkiolako*¹.

— Jauna, nik berorri mesedetxu bat eskatuko neuskio ba...

— Mesedea? Egingarria balitz, zegaitik egingo ez deuat ba?

— Ba, jauna... Berorrek txakur gaztea daukana ba dakit. Eta nik neuk, ordu batzuetan erabili nei neure ardurapean hara ta hona, txarto ez ba deritxa berorrek, behintzat; hor gehienez lotuta eukiteke...

Irribarreka hartu eban zaldunak, mutiko zuhurraren esaerea. Egia zan txakur gaztea eukana, erbitxakurra bera. Olarratzen zeregin bat, arazo atsedentsuen artean, ehizan ibiltea zan. Zorionez, ez eukan egunero lan egin beharrik, gurasoak utziriko *ondaretik*² bizi zalako, gehienbat. Lurralde batzuk zituan Araba ta Naparroako landetan. Horrez ganera *ondasun-agerkai*³ jabe zan, ta bankuetxeetan eukazan gorderik agerkaioak. Hor eukien iturria haren etorri aitorrak.

Gizon Ederra zan, bizkarrez ondo betea. Ez zan *gartxua*³, jatuna baino. Halan ta guzti bere, ibiltauna zan, eta herritarrak inoenez, suezitarren araura gorputz-zirkin azkar ta neurtuak egiten ei zituan goizero, ohetik jagiterakoan. Sarri askotan, ostera, etxetik urten barik egoten zan orduetan eta orduetan, liburu zaharretan ta antzinako paperetan, iraganiko denporetako jazokun-hariak ehunduten. Idazlerako jaio ei zan, baina orriak orri tinta baltzez ta gorriz bete izan arren, harek ez eban artean, libururik, argitaratu ez inok irakurri haren orririk. Onduten ei eukazan onduten, bere idazgelako zurezko apal txairoetan; liburu jator asko, ardua lez, egonak eta urte iraganak ontzen ei ditu-ta.

— Orduan, txakurraren maisu izan nahi al dok?

— Bai, jauna; lehen bere, baserriko txakurrak erabili izan ditut sarri neugaz.

— Eta, noiz erabiliko dok ba?

— Goizean goizean, jauna, jai ta aste. Oraintxe lez, egunkariak

¹ *ondare*: seniparte; «herencia».

² *ondasun-agerkai*: «acción de Bolsa».

³ *gartecu*: jakan, mizkin.

saltzen nabilen bitartean neugaz kalerik kale erabili nei, ta gero, inoiz astirik dodanean, mendira ta, basora ta, txori-habiatan joaten naizenetan.

— Zenbat urte dituk?

— Hamalau.

— Ta eskolara, noiz joaten haz?

— Eskolara... arratsaldetan eta gauekora, neguan. Egia esan, ez deutsat guzurrik agertuko, baina, liburuak eta nekatu-eta buruko mina egiten deuste-ta.

Barreari eutsi ezinik egoan Olarratz jauna.

— Zer deritxazu zuk, Damas, horrek dinoanari?

— Zer esan? Nik neuk bere, eskolarik ez neban ikasi-ta. Fir-mauten ozta ozta.

— Tira ba! Txakurrari «Lipar» deritxa, bizkorra ta arina dalako. Goizetan erabiliko dok. Ta, hik heuk, zelan dok izena?

— Niri Nikanor deritxat, berorri serbiduteko.

— Ederto ba. Damas ortulau haxe nun bizi dan jakingo dok, ezta? Ba, beroni eskatu giltza goizero ta geroago, bihurtu. Eta ea ehiza-susmuan nahi bazterrak ezagutzen irakasten deuan hik «Lipar»-i. Hurrengorarte ba.

— Bai, jauna.



VII

Olarraz jaunak ez eban inoiz mutiko harezaz buruketan jardun. Ez eban ezagutzen, beraz, Damas ortulauak hainbatean. Egia esan, honek bere, ez eban osoro ezagutzen; eta hori, behar bada, ezta haren ama zanak bere.

«Lipar»-ek goizero itxaroten eutsan bere bide-erakusleari, ta pozik egin bere, hara ta hona askatasunez ibilteko.

Haren tegira hurreratu orduko, bidez bide etorrelarik, oles egi-ten eutsan Nikanorrek, aho-ezpanez txistu eginaz. Txakurra adi adi geratzen zan, belarriak zutunik, buru-begiak hara-honaka; eta intzirika asten jakon; pozezko intziriak, edozelan bere.

Txakurraren bila joan baino lehen saltzen zituan eguneroko paper batzuk bezeru goiztarrai, betiro bidera urteten eutsoenai, barrien eta albisten egarriz bizi ziranai. Anartean, gitxi ziran herrian radioaren bitartez azkenengo gorabeheren jakitun izaten ziranak. «Lipar» lagun ebala joaten zan geroago apurtxu bat urrunago bizi ziranai edo euren lantokiak edo dendak asago zituenai egunkaria emoteko.

Ibilpidean, euren saldu-arloari ekin ala, ba eben toki bat txakur-
rrak atseginez ikusi ohi ebana. Egunkariak *saldu-hurren*¹ zitua-
nean, herriaren urteieran egoan abereen hiltokirantz joan ohi zi-
ran, eta hantxe, mataderu haretan hazur bat edo beste lortzen
eutsan Nikanorrek bere menpean erabilen erbitxakur gazteari.
Hazurrok *duban*² izaten zituan, han lanean ziharduen harakinak
bere, batzuek behintzat, mutikoaren bezeruak ziran-eta.

¹ *saldu-hurren*: saltzear, ia ia saldurik.

² *duban*: dohan, debalde.

Harakinaren lanaz sarri askotan gogotsu egoten zan Nikanor, begira ta begira. Astelehenetan —periodikurik ez zan egoten orduan—, hantxe, hiltokian emoten zituan goizean pare bat ordu.

Egun horretan, hango lanen joan-etorri ta *azi-orraziak*¹ ikusi bage ez zan egoten. Txakurra, noizean behin, ate haundi haretatik iges egiteko amurruz lez egoten zan; baina laster hasi zan hango lanaren maila ta jarraipena egonarriz eroaten, azken-aldera hazur bat edo besteren jabe egiteko eretia izan eian-eta.

Baserritarrak agertuten ziran, zekor, bigantxa edo inoiz behi zahar nahi idi argalen bat ekarrela; adarretarik edota sudur-*mintzetatik*² lotuta; aurretik mutikoren bat edo neskatoren bat, sokea eskuan ebala eta atzetik haren aita, aitita, osaba nahi auzoko mutil sendoa. Heriotz-lekura euren oinez etxe-abere zintzo ta ondasuntsuak, eta ez harrezkero lez, kamioi zabal eta galantetan!

Baserritarrok heldubarritan, aberetxeko horman bertan *estekatzen*³ zituen abereok, horman egozan estun eta burdina-ka-koetan, eta hantxe izten zituen zutunik hilgarri errubakoak. Batzuetan, kortan sartzen zituen, ikuilu ilun haretan, bideko nekeak arindu eiezan. Ez ekien asko, atsedean labur haren ondoren, gizon hil-jaleak euretz egingo zituen *sarrakio*⁴ ta odol-hustuteak. Abereok, gehienik, apal eta otzanak ohi ziran.

Egun hatan bere, hantxe egoan Nikanor bere txakurra lagun ebala. Idisko baltz mardo bat ekarren. Uzkur ta urduri etorren, antza. Kasta gogorrekoa zirudian eta sokamuturrerako edota han zezen-plazan jokoan ibilteko, behar bada, ez zan makala izango. *Epapetua*⁵ egoan, ostera, aurretiaz; baldin bizirik iraun erazoteko, norbaitek, haragitarako baino diru gehiago eskeini ezik. Jabea, baserritar txiki samarra zan, txaparra. Semea ta alabea ekarzan biderako laguntzaile.

Idiskoa haragiz bete-betea zan, gehiena baltza, kolorez. Buruan

¹ *azi-orraziak*: gorabeherak.

² *mintz*: «membrana», «cartilago».

³ *estekatu*: lotu, amarratu.

⁴ *sarrakio*: bildur handi.

⁵ *epapetua*: juzkatua.

eta atzeko iztar aldean zituan zuriune batzuk. Baltza zan, beraz, txapel eta galtza zuriakaz. Aita-semeak txandaka aldatuten zituen eskurik eskura sokak eta akuluak. Hamaika *zikilada*¹ egin bere bai, bidean, idisko *inuskeari*², min emonaren emonaz arrazoipean jarri nahi baileben. Akulu-ganak atara egin zituen azkenerako; ez jakin bidean urten eutsen ala aberearen narru-maminetan trintze sartuta itxi. Lepondo guri biribilean, ule baltzen artean, odol-isuri gorriak dirdira egiten eben eguzkitan. Atzeratuago etorren alabea, hau bere, akulu ta guzti.

Aita-semeak, biak ekarren idiskoa lotuta, *txikot*³ bigaz, ta batak ezkerraldera tiratu, besteak eskumaldera, *teinkadaz*⁴ erdi-erdian arteztuten eben aurrera ta aurrera. Aldika, burukada ta astinaldiak egiten zituan patariak, iges egiteko gertuaz, ala geldi-aldi zitalean bertan gozo egiteko zinu ta gogorkerietan jardunaz.

Orduan, baserritarrok, egundoko herri-letaina luzean hasten ziran, ez gizonetzkoak bakarrik; baita neskatila kolore-gorria bere.

Ikuskari hori ikusgarria bazan bere, ta halantxe zan, Nikanorrek idiskoaren erremuskada, murrusa ta astinkadak baino beste zerbait erakargarriago eukan aurrean, nunbait.

Zerbait hori, norbait zan, neskato sento *gurbilla*⁵. Gizonezkoak arraioka hasten ziranean, haren *pariztai*⁶ ta zinuai ohartzen jaken Nikanor. Baina baserritar neskatoaren begiak eta begiak ez ziranak bere, deigarri ta ikusgarri zituan.

Ondo kostauta, sartu eben idiskoa hiletxera, haren jabe ta gidariak. Han, gehiagoko begiramen bagarik, heriotz-bazterrean lotu eben, lurrari eutsoela, egozan anillu sendo batzuetan orapilo ta *txibiztin*⁷ nahasteak eginaz.

Ez egoan han usain atsegingarririk. Kortetan bere, harako

¹ *zikilada*: akulukada.

² *inuska*: «huraño».

³ *txikot*: soka.

⁴ *teinkada*: tirakada.

⁵ *gurbil*: maratz, otzan, zintzo.

⁶ *parizta*: keinu.

⁷ *txibiztin*: «lozada».

usain erakarkorrak barik nazkagarri ta iguinak egoten diran arren, hangoa apartekoa zan. Ta txahalak hango zera ezezaguna ba eban bere, laster susmau eban zantzu onekoa ez zan zeozer, egoe-ra larri haretan. Odol-usaina zan, heriotz-sundea, hilurren ta hil ondoko kirats zakarra. Eta etsi ta bertan behera epaia ontzat har-tzeari, ez eritxan bidezko idisko errubageak.

Han inguruan zintzilik eukazan ordurako, begien aurrean, beste hiru edo lau, *endakoak*¹. Narrua kenduta —biloizik baino txarrago, zer esan bakoa—, buskantz ta haren lekuak hustuta, hanka biak goian zabal, han eta hemen burdinazko kakotxa bieta-rik dindilizka, goian soka luzea etxe-sabairaino. Behean, harri lau-za zabalak etxearen alderen alde, ta lau aldeetatik erdiko zulora joiazan erretan eta odol-bideak, aldapatxu antzera ezarriak.

Harakinak eskuetan eukan *gabiaz*² buru-buruan, garunetan takarreko galanta emon eion baino lehen, idiskoak, dartada izu-garrizkoa eginaz, sokak eten eta zabal zabalik ikusi eban ate-unean zehar, sekulako hanka-jokoari emon eutsan.

Aurrean topau eban agure bat jo buruaz, eta han botau eban bazter batean eperdiz gora. Arinak arin soltau ziran baserritar aita-seeak euren ganadu ausart odolberoaren atzetik, deika ta zara-taz:

— Baltxa! Baltxa! Ona, Baltxa!...

Ona bai, ona egoan «Baltxa» barriren barri hareen gurari an-ker ta erukibakoai jaramon egiteko. Ordurako gorriak ikusi ez ba-litu ere!...

Nikanorrek aspaldiko barre karkaixaz hartu eban *jazokun*³ bi-txi ta *azkortua*⁴. Apur bat aurrerago joan eta botauten ziharduen etxe zahar baten horma ganera igonik, han egon zan unadatu batean urrunean ikusi ta entzun eitekeanari adi, idiskoak sortu zi-tuan nahasteak jakiten.

Idiskoak, oinak libre zituan-ta, bideak bere holantxe aurkitzen

¹ *enda*: arraza, kasta.

² *gabi*: mailutzar.

³ *jazokun*: jazoera, gertaera.

⁴ *azkortu*: animatu.

zituari. Nok oratuko eutsan patariari? Eta nundik? Halako «sokamutur» lotu bakorik ez eben herritarrak inoiz ikusi.

Sokorru-deiak entzun ala, jenteak lehenengo egiten ebana, atetan ezkutau nahi kalean zehar iges egin, horixe zan, arrazoiak. Nok gura eukean idisko gazte odoldun baten adarkadarik hartu, gorputzaren erregalu guri antzean? Bai zera!

Ez ekian inok histori polit eta bildurgarri hori zetan amaituko zan. Bapatean, bere senera zan Nikanor zuhurra. Idiskoak ez eutsan burukominik emoten. Haren ugazabandrea *ekusan*¹ han bertan bakarrik eta artega. Honexeri lagun egitea *otu*² jakon. Ez ekian zegaitik, baina neskatoari hitzegin gura, ta bapatean mingain bizkorra, trabauta lez susmauten eban Nikanorrek. Zelan hasi neskatoari berba egiten? Hau bere, lotsatuta egoan, gertatu zanaz erdi bildurturik edo. Behar bada, lotsorra zan, izan bere. Ala, herrira, kalera gitxitan etorria.

—Zu! Zeuena al da ganadu hori? —esan eutsan halakoren batean, Nikanorrek.

— Bai, geurea da idisko hori.

— Okerra, e?

— Beti da izan *uzkurra*³ ta inoiz erabatera izuturik jarten dana. Eta hor kale artean bat edo bat hilgo dau-ta... gure aitari ta gure nebeari...

Eta hori esanaz, *inkesaka*⁴, negar gurea lez etorkion neskakxa mardoari. Gari helduaren kolorekoa zan haren ulea, ta txorta eder bana euken haren sorbaldak, erakusgarri.

— Neska, horregaitik ez da negarrik egin behar.

— Ta orain, zer egingo dot nik hemen bakarrik? Ez dot huri honetan inor ezagutzen.

— Agertuko dira barriro baserritarrak eta...

— Gure aita ta...?

— Bai; nora joango dira ba, zu hemen itxita?

¹ *ekusan*: ikusten eban.

² *otu*: bururatu, gogoratu.

³ *uzkur*: isil, mantso.

⁴ *inkesaka*: esfortzuak eginaz.

— Hori bere, egia da.

— Bestela, geure etxera etorri.

Orduan galdetu izan bageuntsa mutikoari, etxera inor eroateko baimenik ala ohiturarik ete ebanentz, ez eukean jakingo, ziur asko, zer erantzun. Esan ebana, esan eban... barruan sortu izan jakon sentipena izan zalako. Neskato mazal harek ikutua egin eutsan bihozpean, ordurartean inoiz ez inoiz sentidu ez eban zarrada edo ikutua.

Neskatilatxuak, zorabiatuta baino bere, zeharo lotsaturik:

— Eskerrik asko, mutil —erantzun eutsan ahopean, ozta entzuteko bestean.

Abere-hiltokiaren horma ondora joan zan neskatoa, ta hantxe geratu zan gogortuta lez, bizkarra hormearen kontra ebal. Atzera samar ta erdi nagi, mutikoa bere, hurreratu jakon, ta astiro ta gozaro itandu bere bai:

— Zelan jatzu izena?

— Nekane.

— Izen polita... Eta ez zara inoiz hona etorri?

— Ez. Gaur lehenengo aldiz.

— Orduan, ez dozu gomuta makala izango.

— Hori esan ba.

— Ba, nik, gomuta ona izango dot beti.

— Zegaitik?

— Zeu ikusi zaitudalako.

Udabarriko egunetan, azken aldera, kerixa askok ez dabe kolore hain gorriarik izango, neskatoak matrailetaratu zituanak baino.

— Ene! —*hots egin*¹ eban neskatoak.

— Nire izena jakin nahi al zenduke... Nekane?

Honek sorbaldak jaso zituan, ta begiak lurrerantz bihurtu. Mutikoak, makilatxu bat eskuan hartu, eta lurrean, hare-hauts artean lerroak eta marrak egiten ziharduan. Behera begira egoan hau bere, baina noizean behin, bestela baitakoan, bestearen arpegiari so-aldi ederrik egiten eutsan.

¹ *hots egin*: deadar egin, dei egin.

Honelan iragan jakezan *lipar*¹ gozo, isil ta bihozkoiak. Une ha-
rexen atseginal! Bai batak eta bai besteak, aldia nare ta bare luza-
roan gelditu izan balitz, nahiago izango eukeen.

Baina munduko egitasunak euren lehenengo ames-aro samu-
rretik erruki bage, barriren barri munduko bizi nahastaura eratorri
zitian.

Zurumurru ta zaratea susmau eben euregandik hurrean, ta
izan bere, ba etozan lagun batzuk hiltegirantz. Burdia etorren
euren ondorik, ta etozan laguneren artean, aita ta nebea ikusi zituan
Nekaneke. Poza ta atsekabea batera sentidu zituan neskato maita-
garriak. Izen-ondo hau Nikanor minbereak neurtu eian bere *kai-
zu*² ta *esteria*³ egokian.

Aita eta nebea han agertzean zertu zan arren, ezagutu barri
ebanagaz autua ta egote gozoa urratuteari, mingots erexi eutsan.

Burdian ekarrena «Baltxa» zan. Lotuaz ganera, zauriturik eka-
rren. Ehiztari bat izan zan bitarteko, bazterrak baketu eitezan. Idis-
koari, jabearen ta harakinaren erebiz, dzart! tiro arteza bota
eutsan aurreko oinetara, eta baita! aberea minduta gelditu zan.
Orduan, bertatik oratu eutsoen ta sokeaz estu loturik, han lehe-
nengo topau eben burdian sartu eben. Ondamendira ekarren os-
tera bere, noraezean idisko gizarajo haundia.

—Oraingoan ez daukazu iges egiterik —inotsan harakinak
abelgorri *bezatuari*⁴.

Ta holantxe zan. Behingoan *eratsi*⁵ eben burditik. Hiltoki erdi-
rantz eroan eben, ta esku ta oin loturik, eta adarretatik beste soka
bi, egundoko takatekoa emon eutsan harakinak. Lurrera zan, as-
tun, abere gaixoa. Berehala kutxillo luze handia sartu eutsan sa-
matik, eta odol gorri baltza hasi zan erion bizian urteten, bol-bolka.
Ostikada bat edo beste, eta handik lasterrean, gehiago zirkinik egi-
teke, gogortuta gelditu zan idisko sendoa. Beheko harriak eta ber-

¹ *lipar*: une, momentu.

² *kaizu*: «talle».

³ *esteria*: «estatua».

⁴ *bezatu*: hezi.

⁵ *eratsi*: jaitsi, bajatu.

bere narrua bere, zikindu zituan bere odolaz. Odol-hustea aguroa-go egiteko, harakinaren laguntzaileak atzeko hanka batetik oratu eutsan idiskoari, ta hara hona eragin ta erabili, odolak kanporako bideak lehenbailen eiezan.

Handik lasterrera, azkenengo tantakadak zirala antzemotean, txahalaren narrua ahalik garbien urratu erazoa izan zan, haragi ta koipeetarik bananduaz. Lau hanken azken zatiak, euren giltzeta-rik auzi, ebagi ta erauzi eutsazan harakinak. Narrua, lurrean jarri eban zabal zabal; hurrengo, politico politico batu eta tolestu eban, narru-olaetara bialtzeko gertu ipiniaz.

Ondoren, aberearen barruak urratzea izan zan. Biriak, eztarri ta hesteak, errotea edo librua; bihotza, guntzurrunak, gibela... Gibela, baserritarrak eurak hartu eben, ohi zan lez, eta baita bihotza bere. Aitak, zapi bat atara eban sakeletik, eta *zapion*¹ sartu zituan buzkantz-zatiok, lau muturrak alkarri, binan lotuaz, orapilo lodiz.

Burdina eta kataiak gertu zituen txahalaren pisua jakiteko. Han jarri eben esegita atzeko iztarretarik. *Erraldetan*² izaten zan aberearen astuntasuna neurtzea. Gero, gelatxu batean sartu ziran, kontuak zurituteko, nunbait. Diru-paperak eta zidarrezko hogerleko zabalak jaso zituan baserritarrak, han uzten eban idiskoaren saria. Zeregina amaiturik eukien nekazariok, gehienbat, eta erdi egozan handik aldegiteko; ez ostera herritik, lehenengo ta behin, eguerdiko bazkari-legea herriko jatetxeren batean egin bage.

—Nekane! —deitu eutsan aitak, han ate ondoan barruko lanari baino kale aldeko zerbaiti jaramon haundiago eginaz egoanari.

Zer galdua ete eukan ba, kanpoan, barruko zeregina amaiturik egoan ezkerok? Mutikoak, artean emakumeentzat itxirik eukan leiho barrukoan, argi-izpiak dizdizka nabaritu zituan, ziur asko. Baina, han ez zan agiri Nikanor. Txahala barriri ekarri ebenean, euren arteko egoera samurtasunez betea, bertan behera eten izan zan. Zer zala-ta? Damuaren damuz aldegin eban mutikoak, Neka-

¹ *zapion*: zapi honetan.

² *erralde*: pisu-neurria (bost kilo).

neren albotik. Zerbait bururatu jakon; puntuan bertan estutu ta joan zan. Nun egoan «Lipar», bere ardurapean eukan txakurra, haundikiaren txakur gaztea?

Idiskoaren igesaldian, zaparrada ta iskanbila itzela sortu zanean, gizonezkoak batzuk harantz, besteak horrantz, «Lipar» bere nonbaitera joan zan. Izututa, ikaraturik, alderdi haretatik hanka egin eban, ordurako hazur biribil bat hagin artean nasai lauskitu ostein. Eta ez jagoleak harezaz ardurarik hartu, eta ez txakurak harengana bihurtzerik egin, «Lipar» kale artean aldendu zan.

Mutiko errukiorrak izaten dira inoiz huriko kaleetan; baina...

«Lipar», kale zahar batean zehar joiala, mutiko batzuek ziharduena lurrean egoan hare-harri batean aiztotxua zorrotzen.

— Aiko! Begiratu: han txakur bat doa bakarrik, jaberik bage!

— Ez al dago harririk emen?

— Bai, han dagoz harriak.

Eta mutikuok, tximistea baino azkarrago, gertu egozan harriak hartu ala, txakurrari jaurtiteko.

— Zuek biok, handiko aldetik, eta guk, hemendik harrika egin behar deusagu, gustora ganera!

— Ta gaiztoa baldin bada?

— Tentel alua! Ez al dozu ikusten erbitxakurra dana?

— Orduan, itxi deiogun baketan.

— Nori baketan itxi, zelako *tinua*¹ daukagun ikusi bage?

Eta holantxe hasi zan goiz baketsu haretan, txakur bakar ta apal haren kalteko *jazarpena*².

— Hasi harrika!

Eta zirti zarta, han joiazan okerron harriak abere otzanaren kontra. Txakur gaztetxuak zaunka makal batzuk egin zituan, baina harrikada artean ez ekian zer egin, atzerantz ala aurrerantz. Hone-tan, jo eben jo pataria, ta errukizko ausiak eta intziriak egin zituan.

Mutikoen *errai*³ zital doilorrak ez ziran bapere minberak, eta ez eben atertu euren harri-jaurtitea. Azkena izango ete eban «Lipar» gaixoak, ezetariko erru bagarik, arerio zirtzil hareen esku?

¹ *tinu*: punteria.

² *jazarpén*: persekuzio, eraso.

³ *errai*: «entraña».

Horraitino, kale artean zehar zaldun bat agertu zan, eta begi aurrean eukana *ekusala*¹, deadar egin eutsen:

— Geldi, txatxuok halakook!

Eta laster hobeto konturatuaz, besoak jaso, ukabilak estutu ta mutilenganantz arineketan hasi zan:

— Barrabasok! Ta neure txakurrari ganera? Zati zati egingo zaituet!... Zati zati!

Mutikoak, ostera, besoak baizen arinak zituen oinak bere, ta behingoan aldegin eben zaldunaren begien bistatik.

Laztankiro dei egin eutsan «Lipar»-i, ta honek jabearen ahots biguna entzunik, ezagutu ta arin joan jakon, Olarratz jaunari esker onez ta maitetasunez, eskuak igurtzi ta miazkau guraz jardunik.

— Nun dagoala, baina, zure jagolea? —galdetuten eutsan, erantzuna emon ezin eion txakur apalari.

Txakur-jagolarik ez zan artean agertu. Beranduegi konturatu zan Nikanor. Ta honek topauteko aukerarik izan orduko, txakurra bere tegian egoan, jabeak eroana. Mutikoa ez zan ausartu Damasengana haren galdez joaten. Zabarkeriak jo eban bapatean, eta «hor-konpon» esanaz, etxerantz abiau zan.

¹ *ekusan*: ikusten eban.



VIII

Damutuko ete jakon, ostera, Nikanorri, txakurraren bila ahalegin haundiagoarik ez egina ta haren azkenengo barria jakiteko urratsik egin eza?

Ettxera zanean, haren amak ez eukan ezer berorik gertaurik, semearentzat ez beretzat. Hango *subil*¹-ondoak ez ekian sua egunero ta ordu jakinetan ikusten. Sarri askotan ogia ta jaki apurren bat, eta gero, sagarren bat edota intxaur pare bat edo, izaten zituan mutilak janari gozatsuak. Porru-saldea nahi berakatz-sopea egoanean, orduan, ama-semeen urdailak sutatik harako gaiaz berotzen ziran. Askotan, arda apurra nahi pitxar bete sagardau eroan ohi eban amak, gorputzari zerbait piztugarri emon nahirik.

Egun haretako bazkariaz, zer kontau handirik ez eban izan Nikanorrek. Baina honek, bitartean, opil gozoa ta txistor-muturra erosi ta jan zituan, hamaiketako bailitza. Honek, harako Mari, Peruren emazte zuhurraren antzeko mainak zituan hartuak, nunbait. *Matordua*² helduko ez helduko begira egon barik, bitartean zerbait gozagarriz barau arina horniduta ipini.

Bazkal-ostean, haize fina ebilen kaleetan zehar. Nikanorrek lehenbailen bizartegirako asmoa hartu eban. Bere bidean joiala, beti itxita egoten zan denda edo gorape bat zabalik egoala ikusi eban. Zer ete zan hori egiteko *zio*³? Ikusguratxua izan bere-ta, han joan zan bertaraino. Barruan ez egoan ezer, lau hormak izan ezik. Baina beingoan agertu ziran gizonetzko batzuk, ohol zabalak eta, eka-rezala.

¹ *subil*: beheko suan erre ohi dan enborra.

² *Matordu*: jatordu, otordu.

³ *zio*: arrazoi.

Han nagusi lez agiri zana, Pero Lustreputxen seme Moises zan, errementaria berau. Heldu barri ziran gizonai berba egin eutsen eta honeek behingoan hasi ziran euren lana egiten. Mutikoa, zer eginik bere ez-ta, han egoan begira ta begira.

Ohol zabal luzeok zetarako ziran, laster antzemon eutsan. Etxabe haretan mahai luze bat, sendoa bera, ipini gura eben. Gizonen autuari adi adi egon zan. Entzun ebanez, tornu bi jarriko zituen mahai horretan, eta zerbait gehiago bere bai. Beste aldean, oholak han bere, hormearen kontra, eta unean unean, untzeak untze.

Ezin ba, Nikanor luzaroagoan isilik egon, eta itandu eutsan arotzari:

— Gizona, zetarako dira horreek zerok?

— Ardurea al jak ba, hiri?

— Bai, jauna; ardurea jat. Niri atsegin jataz erremintak eta holako gauzak.

— Ba... bihar jakingo dok. Hor daukak, bestela, toki honen jabetan. Horren aita, Peru zapataria dok.

— Lustreputx?

— Berbera.

— Bai, baina... harek ez deust niri egunerokorik erosten.

— Ez, e? —jardetsi eutsan lantegi-jabeak. Zein saltzen dok ba hik, eta zein erosten ete jok ba, gure aitak?

— Nik «Bakarrekoa» saltzen dot. Zera... zer ipiniko dozu hemen?

— Hemen? Herrian orainarte ez daukaguzanak.

— Zertzuk?

— Bizikletak. Akuran, alkilerrean, edonok ikasteko ta erabilteko.

Eta holantxe zan, izan bere. Bien bitartean, ez egoan huri haretan, inguruko beste askotan lez, mende honen lehenengo laurenean, bizikletarik saltzen ez diru-truke erabilterik bere. Indianu baten semeak eta udan agertzen zan dendari haundi baten semeak zituen bakarrik txiringutsak herrian. Olarratz jaunak bere bai, egia esateko, erosibarria eukan. Aitaturiko horreezaz ganera, edonok ez eukan halako aukerarik.

Nikanorrek bere bizitzaldian izango zituan bihotz-zaztada edo ikutuetarik bat hauxe izan zan. Txirrinbikoak herrian, edonor ibil-

teko, edonok ikasteko... Berak bere, laster arin ikasiko eban ibilten. Bai horixe!

— Mutilik behar bazendu hemen egoteko ta, neure burua eskeintzen deusut... goizetan egunerokoa behin saldu ezkerol!

— Ez da txarto esana —erantzun eutsan errementariak—. Orduan, bihar eguberdi aurrean hemen ikusiko al haut?

— Bai, jauna.

Bizimodu barriaren joan-etorria argiro ekusan mutikoak. Bizikletan ibiltzen ikastea... herritik aldentuteko era bat zan. Dirua esku artean erabiltea, barriren barri, berea ala inorena. Ta ganera, gaiak, gauzak, erremintak.

Hurrengo goizean, bestetan lez, periodiku-loturea hartuta, han agiri ziran irakurleai egunerokoa bananduten hasi baizen laster, noiz nasaien eta alaien egoanean, haren eper-*txuntxurak*¹ sekulako mina hartu eben. Nikanorrek, izparringiak lurrera bota eta atzerantz begiratu eban, ostikada zolia nok emon ete eutsan.

Han, jentearen aurrean ostiko-muturraz atzekaldea mindu eutsana, ez zan besterik Olarratz jauna baino.

— Hurrengoan, inoren txakurra hobeto zaintzen ikasi daiaian!...

Horixe esan, irribarre gaizto ta *destainezkoa*² egin eta aldegin eban handik zaldun aberatsak.

Gorri-gorri jarri zan behingoan mutikoa, baina handik lasterre-ra zuri-berde aldatu jakon arpegiko narrua. Ingurukoak irribarre-txua egin, eta ezetariko azalpenik eskatu bage, bakoetak bere egunkaria hartu, haren saria ordaindu, eta euren bideari ekiten utsoen.

Matxin eta Senentxu, egun haretan bere, sasieskola eginda-koak, hantxe, bere ondoan agertu jakozan.

— Jo egin zaitu gizon horrek, eta zegaitik?

— Lehengo egunean, berari zainduten neutsan txakurra, ez dakizu «Lipar», aldendu egin jatalako, eta...

— Nora joan zan ba?

¹ eper-*txuntxur*: eperdi-gailur.

² *destaina*: mespretxu.

— Ez dakit nik... Ez neintela txakur-bila gehiago joan, esan eustan ortulauak. Hasarratu egin ei jakon Olarratz jaunari... baina ostiko-punteaz leku «santu» honetan jotea! Ez da zorra nik emon bage itxiko deusadana. Komai!

— Jaungoikoaren egia?

— Bai, Jaungoikorako!

Ekin eutsan lanean betiko antzean; ta bai Senentxuk eta bai Matxinek lagundu eutsoen goiz haretan, etxe batzuetara ta ardan-degi ta dendetara paperak eroaten. Laster arin egin eban herri osoan ibilaldia. Olarratzenera eroan ebanean, hango neskameak bai esan bere, gehiagorik ez eroateko eurenera «Bakarrekoa» paperik.

— Zegaitik?

— Tutuluk berak bialduko deuskulako.

Barruan barruan zerbait pentsauten hasi zan Nikanor. Zirudiaz, Olarratzek Tutulu drogeruari zerbait esan izango eutsan horrezaz, nunbait bere. Kezka errenkuratsuaren eztenak zulatu ta zulatu *zihardutsan*¹ hari barruan, bere sentimentu mintzetan. Tutulu eta Olarratz zalduna alderdi batekoak zirañ, eta Olarratz, herriko jauntxua zan. Kendu erazoko ete eutsan irabazpidea, mutikoari? Entzutea zanez, «Olarratzen asmoa, bete beharrekoa» izaten ei zan. Eta Nikanorrek susmo txarraren usaina jaso eban, aldunaren otseinaren berbetatik.

Heldu zan, mutikoak lagun zituala, Kosme Tutuluren dendara. Besapean, bizpahiru egunkari besterik ez zituan.

— Abe Maria!

Sartu ziran, baina hango jauna ez zan agiri. Eskuan eukazan txanpon-ertzakaz hotsegin eban mostrador ganean.

Barru aldeko atea *ertzedegi*² egoan, eta osorik zabalduaz agertu zana ez zan Tutulu, haren alaba lodia baino. Neskato honek, Nikanorrek baino urte gehiago zituan, eta inoiz alkarreaz berbetan egonak ziran, orduko.

¹ *zihardutsan*: jarduten entsan.

² *ertzedegi*: zeharo zabaldu barik.

— Aita ez dago orain etxean.
 — Nun dago ba?
 — Erbestera joan da, baina...
 — Bainak udan.
 — Neuri esan deust gaurko kontua egiteko, eta aurreran-tzean... ikusiko dauala berak, nok salduko dauan «Bakarrekoa».
 — Zelan?
 — Entzun dozuna. Aita, zugaz ez ei dago konforme.
 — Orain arte egon da, ba.
 — Ez dakit besterik ezer.
 — Ondo da. Ba dakit nik, hemen nor dabilen bazterrak na-hastauten. Damutuko jako, barriz!
 Tutuluren alaba gizenak egin zituan diru-kontuak, eta emon eutsazan *egokiozan*¹ laukoak.
 — Bihar, orduan, hemen egongo al da zuen aita?

— ...

— Bihar ikusiko dogu, ba.

Handik urten eben, ta mutiko lagunak kokilduta ikusirik, bai Nikanorrek gehitu bere:

— Ez dot behar nik, ez Tutuluren laukorik eta ezta Olarratzen erbitxakurrik bere. Goiazan beste egunkariak saltzen dituanagana. Hari eskeiniko natxako. Peru Lustreputxi, haren semea bere, neure adiskidea da-ta. Nahiago ganera! Horrelan, Perugaz ta haren semeagaz konponduko naz hobeto. Ba dakit neuk!...

Zer ekiala Nikanorrek? Laguntxuak aho bete aginegaz geratu ziran, harek ezer agertu ez-ta.

*Txiringutsen*² toki barrira bai joan zan, eta han jardun eban egun haretan, isilik, *ibilkinon*³ zertzeladak eta zatiak ikusten.

Biharamonean, goiz berandu baino lehen, egunkariak herrira ziranaz batera, Tutulu dendaria Nikanorren zain egoan, Bidari

¹ *egokiozan*: zor jakozan.

² *Txiringuts*: bizikleta.

³ *ibilkin*: «vehículo».

etxe ondoan. Nikanorren saltzaitletzea baztertera egiteko asmoa izan ebari behingoan, baina, goiz haretan behintzat, mutikoak egunkari asko saldu eiala, horixe gura eban dendariak. Izan bere, barri jakingarria, albista benetakoa ekarren egunkariak.

Tutulu ez egoan, beraz, tontomonto lo. Flaren nagusiak adierazo eutsan, garaiz adierazo bere. Nikanor kenduko eban laster asko, saltzaitletzatik, nagusiaren esana egitearren. Tutuluren nagusia, politikan, ez zan besterik Olarratz zaldun jauna baino.

Euren sareak, polito-polito zabaldu ta zertu behar zituen, sarritan lez.

Zer zala-ta?

Goizeko egunkariak, letra haundiz agertzen eben eguneko albista azkor ta ernagarria, eta eskuetan hartu baizen aguro hasia zan Nikanor, barri zirikalaria ahots zaratatsuz ta ozenkiro jakin erazoten.

—Hauteskundeak! Laster ditugu boto-egunak!...

Batzuentzat, barri ardurabakoa izan zan. Ez ostera gehiagorentzat. Herriak bake ta bare irauten daben arren; luzaroan azaletik eta guztien agirian gauzarik asko estaldu ta okerreri ugari gorderik edo erdi isilik iraun erazoak izan arren, hauteskundeak, batean onerako, hurrengoan txarrerako, inoiz hoberako... euren barruko gar, indar eta eragina, guztiz bereziak, azalean eta bor-bor ibiltzen dira herri ta baserrietan gorabeherarik nahikoa argituteko, ta zuzenbagekeri franku mordoka ta eskudaka herritarren aurrean astinduteko ta haizatuteko.

Ta orduan bere, izan eitekean aitaturiko esamesen bat osagari izatea herrikoen aurrean.

—Hauteskundeak!

—Ostera bere? —jardetsi eutsan bakezale batek, ustez.

—Ostera bere dinozu? —gehitu eutsan aurrean eukan beste norbaitek, lehenengo erosleari—. Sasoi da honezkeroko, goian dagozan lapur zantarrak *eratsi*¹ daiguzan!...

Eta izan bere, askoren eretxian, sarri askotan goian dagoza-

¹ *eratsi*: bota, kanporatu.

nak, beti izan ohi dira lapurrak, zekenak, zakarrak, jauntxuak eta bihurriak. Herriaren senak, ostera, inoiz huts emon arren, betiro ez dau ustel egiten...

Eguneroko diru garbiketea egitean, Tutulu azeritzarrak, esan bere bai Nikanorri:

— Gaurtik, zu, lanbide horretatik bialtzekotan egon naz; baina langilea zarealako euki egingo zaitut.

— Eta, zer dala-ta bialduko ninduzun etxera...? Ez al dot ziur, egoki ta azkar egiten neure lan hau?

— Hori bai, baina...

— Orduan, zer? Lanbide hau, oraindino bere aloger eskasagoz egin behar izango ete neuke?

— Ez da, egia esan, horregaitik.

— Nahi ba dozu...

— Ez, ez. Ez daukat gehiago azalpenik zuri zetan emon. Zuk... Olarratz jaunari ganorabako zeren bat egin deutzazu, eta ia erbi-txakur gaztea bage gelditu izan da.

— Bestelako ehiza-txakurra, oindino txakurkume otzana besterik ez dana. Ta hori dala-ta egin nahi izan al da nigaz horrelako kakazkeria?

— Nahikoa da berbarik ume batentzat.

— Umea... diru eskas ta aloger motxa emoteko; baina ez ostera, lanbidea labur ta bizkor egiteko. Ondo dago. Bakotxak bere onari begiratu ohi deutsa... ta jakin eizu Nikanor ez dagoala, gero, inoren komenentziak bakarrik egiteko.

— Aukeran ordaindurik zagoz, ta ez daukazu zetan *erostarik jo*¹.

Arrastian bizikleta-tokian, orduak hartzen, koipeztauten, fre-nuai oinetako barriak eta jarten jardun ostean, iluntze haretan Nikanorrek, sarritan ohi eban lez, Ubaldoren bizartegira jo ebanean, hanga tertulizaleak ba eben zer esanik eta agerturik.

Hauteskundeak etozan herrikoentzat. Eta ez zan lo egoteko

¹ *erosta jo*: negarrari emon.

aldia. Alderdi bakotzak bere opilari egingo eutsan su, seguru bere. Buruzagiak laster hasiko ziran hara ta hona, menpeko ta azeri la-
guntzaileen bila. Betikoa zan.

Nortzuk ziran herriko nagusituak? Nortzuk, gehienbat, asmo-
ren bat edo gurariren bat, besteenen gain ezarri nahi ebenak?
Nortzuk, batzuk haragirako daben *garramura*¹ lez, agintarigoa
maite dabenak? Noiznahi bere, jauntxu-odola eurengan ebenak?

Bizartegian batu ziraniak bere, ba ekien goizeko egunkarietan
agertu zana baino gehiago. Egun horretan, han eta hemen, hone-
gandik eta harengandik entzun zituen herriko alderditarren gurari
ta asmoai buruzko esamesak.

Letamendik ez ei eukan bere alkatetzea izteko gogorik. Bai
zera itxi! Artean herriak jasan baldin baeban, aurrerantzean bere,
jasan beharko eban. Eta ganera, nor egoan egon bere, kargu hori
hobeto bete eikeanik? Hori esan ba! Hitzok, ostera, ez ziran herri-
koseme ta biztanle guztienak. Berbok, Letamendik berberak esa-
nak ei ziran, egun haretan bertan hain zuzen.

—Orainartekoa bere ez ete da izan nahikoa, Letamendi ta
baltzuk jasan beharra? —inoan bizartegiko taldetar batek.

—Zuk hori dinozu, baina diruak, beti egin ohi ditu, gero, bide
luzeak laburtu; eta motzak zorroztu.

—Noren diruak? —itandu eban isilik ta apalkiro Nikanorrek.

—Hi gaztea izan oraindino, mutil —erantzun eutsan orduan
Ubaldo bizargileak—. Hemen, gure herrion behin baino sariago
ikusi ditugu hogerleko zabalak eskurik eskura, botua saltzearen
truke.

—Botua saldu, e?

—Bai, ta batzuk merke ganera. Bazkari bategaitik, hogerleko
batzukaitik, edota makilau pilo a nahi txarrikumearen «jan tro-
pea»-gaitik bere bai inoiz.

—Eta orain bere, zerbait erabiliko dabe beste aldekokook —ge-
hitu eban norbaitek.

—Zeintzuk dira ba, beste aldekokook?

¹ *garramura*: grifia, jokera.

— Ez al dakik oraindino? Hemen batzen gareanok, ez gaituk zorionez bata bere, «Lepoker»-en aldekoak.

— Barrerik egin barik!... Behin «Lepoker» esan neutsalako, ez eustan *erremuskada*¹ makala egin alkateak.

— Eta heuk bere, «Lepoker» esango heuntsan ba?

— Ta zer esan neikion, haren izena holantxe zala nengoan-ta?

Hori entzutean, egundoko barre-algarak egin zituen bizartegian egozanak, eta gozaro egin bere.

Geroago, diruen etorbidea ta iturburua nuntarra ete zan jakiteko aukera izan eban Nikanorrek.

Artean, bere adina zala-ta, ez eban inoiz jakin ez entzun, ekiala behintzat, hauteskundeetako gorabeherarik. Hainbat gitxiago susmau ta ikusi, aldi horretan hangoak eta hemengoak erabilten dituen joan-etorriak, sortzen dituen nahasteak, asmauten dituen guzurak, inori ezarten deutsoezan irainak, arerioen kaltez eratu-ten dituen ziriak, lakirioak ta saldukeriak, bai hitzez, bai esan gaiztoz, nahi zemaiez, nahi bildurpean; eta baita buruenik, diruaren herdoi zikin baina kutsu pozgarriaren bitartez bere.

Nikanorrek ordurarte ez ekizan zehetasun ta zertzeladarik ugari!

Beste aldekoen nagusi, dirudun jauntxua erabat esan, Olaratz jauna izan ohi zan.

¹ *erremuskada*: murruskada, purrustada.



IX

Egunkari-saltzaile egoki-egokia ei zan Nikanor. Hori, ondo ekian Tutuluk. Eta horregaitik, damu haundia emoten eutsan emon bere, jazoriko huskeriategaitik, mutiko hain azkarraren lanaz aurrerantzean bere, ez baliautea.

Tutulu, dirua kutxan sartzen gustora ibiltzen zan gizona izan bere-ta, bere jauntxu nagusiari mesede bat eskatu behar eutsala erabagita egoan. Guztien onerako mesedera, ganera. Hobeto esan, euren alderdiarentzat. Mutiko hori, elementu ona izango jaken euren alde egonaz.

Hurrengo egunean Nikanorrek, barriketa isil luzean ikusten eban Tutulu etxaurrean, dendako ate ondorik igaroten zan gizonetzko askogaz.

Nikanorrek laster saldu zituan, deadar itzelak eginaz, egun hartako albistariak.

«Bakarrekkoa» gobernuaren alde agertzen zan. Hauteskundeak egitea, onuragarria ei zan beti bere, herriarentzat. Eta goian dagozanentzat beste hainbeste, batez bere, hauteskundeak, goikoaren beraren eskuz ta gogara egin ezkeru...

«Bakarrekkoa»-ren taldekoak, Tutulu ta zirana, Nikanorrek lehenago jakin izan ez baleu bere, aurreko iluntzean bizartegian jaso eban txostenaren ganerako, Tutuluren dendan bertan ikusi eban zerbaitek adierazo eutsan hobeto.

Tutuluk etxaurrean barriketan ziharduan bitartean, egun harentan bere, haren alaba totoloa izan zan, paper-salduketak kontuak garbitu eutsazana. Mari-Asun eban izena, ta neskatila egina egoan ordurako. Nikanorrek baino urte gehitxuago zituan. Hiru bat edo... Hori gorabehera, ez zan mutikoa gorri gorri ginda jarriko

haren aurrean, inoiz holakorik gertau izan arren. Bizimoduko zerak, gero ta gehiago ekizan. Mari-Asun txikia zanean, ume dindiritsu izan zan, mokotia, ta adurra *eriola*¹ ibiltzen zana. Eta «Mari-Adur» behin baino sarriago entzuna zan nunbait, herrietan ezizenak asmauteko, jentea gertu egon ohi da-ta.

Mari-Asun, dendako barrukaldean egoan tokian, garbitasun haundietan topau eban Nikanorrek.

— Mari-Asuntxu, zetarako dituzu astinaldi ta garbitasunok?

— Zerbaiterako izango dira. Ezagun da gaztea zareana.

— Bai, zu baino, behintzat.

— Nahi izango zenduke zuk ni lako bat, daukagun aldea gora-behera.

— Bai, hori bai. Ez zagoz txarto bere.

— Lotsabagea!

— *Lausengu*² egin deusut itsusia ez zarealako, ta horra ba! Esanak esan, *entzuizu*³: Nikanorrenzat edozein neska ez dala egokia. Neuk dakit ondo, nor gustauten jatan.

— Nor? Jakin *nei*⁴?

— Ez, ezin *zine*⁵ jakin. Horreek horrelan dirala, ba dakit nik, gauza askotarako dirua behar dana, ta andrea erosteko bere bai. Baina... nahikoa da *auturik*⁴. Eutsi gaurko diruok, eta emon eida-zu niri dagokidana.

Atara eban neskatoak kuadernu *maiztu*⁵ bat, eta hartu eban Nikanorregandik diru guztia, eta pakete-azaleko paper lodiarene zatia, egun haretan bialduriko kopurua iragarten ebana.

— Bihartik, numeru gehiago ekarriko ditu aitak, zeuk saldu daizuzan.

— Gehiago oindino bere?

— Bai, Nikanor. Ez al dakizu ba, orain zabalkunde ta eztenke-ta gogorrean jardun behar doguna, hauteskundeak irabazteko?

¹ *eriola*: «dariola» (lehen aldian).

² *lausengu*: losintxa, koipe; «halago».

³ *entzuizu*: entzu(n)(e)lizu.

⁴ *autu*: hizketa, barriketa.

⁵ *maiztu*: «raido».

— Nik ez daukat zer irabazirik ez zer galdurik horretan.
 — Bai zuk bere, zerbait. Zenbat eta gehiago saldu...
 — Zuen aitaren teoriak dira horreek.
 — Elezinoiak irabazteak, ardura haundiago emoten deusku.
 — Ogia merkatuteko, ala?
 — Ez zaitetz kirtena izan, txotxo. Besteok aginduten jarriko ba-
 lira jarri, herri honetan bertan, bestelako aldakuntzak izango gen-
 dukeez!

— Besteak nortzuk dira, ba?
 — Hau dago ona! Besteak... ba, besteak. Egun gitxiren buruan
 jakingo dituzu hainbat gorabehera.

Kontuak egin ala, autuan ziharduela, ondo jantziriko gazte bat
 sartu zan dendan. Bestela baitakoan begiratuten eutsan neskati-
 leari, honek Nikanorreri txanponak emon bitartean.

— Ederki, giputzak holakoari! —esan eutsan mutikoak Mari-
 Asuni, diruak eskura zituanean—. Bihar arte, laztana, eta ez lan
 larregirik egin, alperrik galdu ez zaitезan.

Hori esan, irribarretxua egin, eskuak *patrikeretan*¹ sartu, eta
 surra astinduaz urten eban Nikanorrek dendatik.

Sartu barri zan gazteari ez eutsan grazi haundirik egin «lazta-
 na» hitz horrek. Begien bistakoa da horren zegaitia. Maria-Asunez
 gustaurik egoan, *aurki*².

Kalean bertan, Nikanorren belarriak eratorri eben hurrengo
 alkar-berbeta hau:

— Ta? Noiz dira ba zerok?
 — Noiz? Gaurko paperak dakar, adiskidea.
 — Baina nik ez jakin irakurten! Ta, zertzuk egin behar dira?
 — Lehenengo, herrietako *zinegotziak*³, eta geroago, *ahaldu-
 nak*⁴. Azkenez, huriburu nagusirakoak, antza.
 — Ta, nok irabaziko ete dau herrian?
 — Lan, gehien egin *daianak*⁵. Eta (hau, belarri-ertzera) batez

¹ *patrikera*: sakel, poltsiko.

² *aurki*: seguru asko.

³ *zinegotzi*: kontzejal.

⁴ *ahaldun*: diputatu.

⁵ *egin daianak*: egiten dauenak.

bere, ziri gehiago sartzen jardun daienak. Lakirio ederrak gertu zituena azkenengo aldia bere. Oraingo alkate hau, ba dakigu, arrantotan, zelan egina izan zan. Oraingoan, ikusi egin beharko. Ez eizu ahaztu, horraitino, Olarratzek, bai herrian bai auzoan daukan ahalmen handia. Nik ez dinot ezer, baina, daukala gura ba dau!

— Zeuk dinozu ba, guztia.

— Oraingoan... aurrekaldean aurkituko dau merezi izan dauan saria.

— Entzuten dozu?

— Nik entzun, ez; nik, esan dinot.

— Egia horixe bere.

— Asmau bai, zeozer egingo dau: bidebarriren bat eskeini; ala urak ekarte; edota harako trena gure herritik pasautea edo.

— Bestelako berba koipea dauka, orduan, zaldun horrek.

— Horrek? Koipea, ta beste zer asko bere bai.

— Ez dakizu zuk gitxi, gero!

— Urteak, adiskide; urteak bizkarrean...



X

Egia zan Nikanorrek, ekiala behintzat, hauteskunderik ikusi ez ebana. Baina, aukera ta ereti *txanbelina*¹ etorkion ganera. Bizitzako egoera ta jardunaldietan ohi dan amarrukeria ta jakituri nabarra ikasteko, ikasten hasteko, hobeto esan, sekulako egunak etozan gazteentzat.

Alderdi batekoak eta besteoak nortzuk ziran jakiteko gogo bizi bizia sortu jakon bere barruan Nikanor gaztetxuari.

Eguneko jardun bikotxa amaitu ostean, han, bizartegian albita zirikagarriak entzuteko urduri ta *geraka*² ebilen arrastiko lanean. Bizikletan erakusten bere, ekiten eutsan, lehenengoz «asto» ganean jarri gura ebanari, silinaren atzetik oraturik, pausukada bizkorrak eginaz. Nikanorrek berak laster arin ikasi eban ibilten.

Aldatzean gora ta behera, txiringuts-etxe aurreko bide zabal haretan ibilten ziran gaztetxuak eta nagusiagoak bere bai. Aldatz makal haretan gora, han zeharka, hemen zeharka, hasibarritan zanbulu ta zanbulu, begira egozanen barregarri ta alaibide izan ohi ziran.

Zaparradea, zaratea ta estularria, beherazkoan izaten zan. Orduan, pedalai apurtxu bat eragitea nahikoa izaten zan izan, aldaz-beheran abiadea behingoan hartzeko, ta geroago ta burrundara handiagoan, ez frenu ta ez zuhertasun, lantegi-olabe aurrean zehar, tximistea baino arinago iragateko.

¹ *txanbelin*: egoki, aproposa.

² *geraka*: urduri, artega.

—Kontuz! —hots egin ohi eutsoen orduan Nikanorrek, nahiz errementariak—. Kontuz! *Emon galgea*¹! Arraioa!...

Ta bakan eta barregarria izaten zan bezeru batzuei, bizikleta-jabeak ezarten eutsoen galen edo zigorra:

—Aldazbeheran, pedalai eragiten joan, eta gero, zart! bat-batean *balaztatu*²?... Hori egin dozulako, erabili dozun orduerdiari dagokionaz ganera, zigorra ordaindu behar deustazu. Beste erreale bi! Holantxe ondatuten deustazuez, frenuen «oinetako» guztiak!... Errekotxo!

Izan bere, haren txiringutsak ibiltzen ikasteko ziran, polito polito, ezer hausi barik, ta erreminta ta ganerakoak, ganorarik ezagaitik, bertan behera *lorrindu*³ *bage*⁴.

Ikasten hasibarriak ba ekien ba: frenukada latzak zerga berezia eben. Balazten gomatuak erre-usaina sortzen ebenaz batera, ikaslearen sakelean bere, zigorraren errea ta zauri-igurtzi minbera izan ohi zan. Zana zala, han inguruetan ziran gazterik gehienak «zoroburdi» arinen ganean euren saio ta ahaleginak egiten estu ta larri, ikaraka, zambuluka ta bildurrez ikustea, barrebide ta jostagarria izaten zan, ezetariko zalantzarik bage.

Mutikoai atzetik oratuta laguntzea baino atseginago izaten ja-kon Nikanorri, besterikoai lagun egitea. Gonadunai, labur esan.

Hareetariko egun batean, neskatilatxu gazte dotore ta pertxenta bat heldu zan, apainkiro jantzia ta orraztua, ta usain gozo ta guztikoa. Hamalau urte eginak izango zituana, antza. Begi argiak, ule ederra, matraila legunak, azal guria; taiu txairoa, ertz nabariak, udabarriko lora goiztarra.

Neskato hori Garbiñe zan. Ez zan herritarra, baina senidearen etxean egoan. Haren osabea, Olarratz jauna zan.

Ez erorian herrian egun askorik, baina Nikanorrek ezagutzen eban arpegiz. Aukerako ikaslea bizikletan ibilteko, beronek lagun-durik ibili nahi baldin baeban.

¹ *galga*: balazta; «freno».

² *balaztatu*: galgea emon; «frenar».

³ *lorrindu*: lauskitu, alperrik galdu.

⁴ *bage*: gabe, barik.

Ez zirudian, neskatxak bere, lotsorra. Eragina zirudian, eta bakarrik izan arren, bereantzora ta eskura ibilteko modukoa. Oraingo neskatila kirolzaleak ohi diranetarikoa, gertua, ausarta, bipila, edozertarakoa.

— Zera, zegan dituzue txirringutsok?

— Zein dan, zenbat denporarako dan. Esaterako, nesken bizikletak, apurtxu bat karuago ditugu.

— Eta zegaitik hori?

— A! Zer esan bakoa! Barriago diralako; dotoreago bere bai.

— Tira ba; orduan, hauxe aukeratzen dot. Balazta onak al ditu?

— Bai. Eta zera, ba al dakizu zeuk jakin, ibilten? — itandu eutsan lantegi-jabeak Garbiñeri.

Han egoan albo batean isilik Nikanor; tornilluan, gurpilaren radio batzuk zuzenduten ziharduan, ta bestela baitakoan, neskatxa galantari begira.

— Ez dakit ba, ondo; ta horregaitik jakin nahi dot balazta onak dituanentz.

— Orduan... nahi baldin badozu, ta bada eypadan, mutiko honak lagundu leizu, jesarlekitik oratuaz.

— A, bai. Ederto. Hoba izango dot.

Zer dau nahiagoitsuak, ikustea baino? — esan ohi danez. Nikanorrek agin artean txistu-oska hasteko eretia ta gogoia agertu eban.

Ugazabak, txirringutsa eskegita egoan tokitik eratsi eban, ta neskatoaren aurrean egin eutsazan bizikleteari ikutu batzuk, zuzen-kirtenetik esku biakaz heldurik azkenean, ibilpidea bere, artez goala ziurtu nahirik.

— Ikusten? Balazta geldigarriak egoki daukaz.

Artean, Nikanorrek, uragaz arpegia ta buruko uleak busti zituan, ta dirdiraz jarri eban burua, lehenago legor ta erdi nahastaurik eukazan buruko uleai orraztu antza emonaz.

Urten eban olabe haretatik Garbiñek, mutikoa atzetik ebala. Nikanorrek eroian burpibikoa, kirten-adarretik eutsita. Bide zabalaren erdira heldu ziranean, beribil astunen bat ala idi-buztarriren bat ete etorren begiratu ostean, iragarri eutsan Nikanorrek:

— Nahi ba dozu, jarri zein tekez ganean. Jesarri, esan gura dot,

jesarleku *sostor*¹ honetan. Nahi al dozu apurtxu batean... silinetik heldu daiodan?

— Ez...; ba dakit, moldakatx bada bere.

— Bai gero? Nahi dozun lez. Jausi *bazeintez*², ostera...

— Min hartuko neuke, ezta?

— Bai, zeuk; ez nik. Ta lastimea izango litzateke...

— Zer?

— Zu lako aingerutxu bat... belaunetatik odoletan ikustea.

Neskatileak irribarre egin eban, eta ausartu zan tramankulu haren ganean jarten.

Iztar bat, ezkerrekoa, iragan eban katalineaz gain, eta alde horretako oina ezarri eban egokion oinpekoari *eutsala*³; jaso eban gurpiltxu horrerri bira eraginaz, pedala, goialdera. Geroago, zutundu zan haren gain indar eginaz, ta eskuiko oina beronen aldeko oinpekoan ipini nahi izan eban. Jesarri bere, egin zan, eta baita bidean gorantz lehenengo bultzadea egin bere, abiadea hartzeko erabagi sendoaz. Zuzen joan eitekean, jakina! Baina ez zan holarik *jazo*⁴.

Eskumako oinak bere zera topau ez topau ibili ostean, bizikletea *konerka*⁵ ta *gupika*⁶ hasi zan, eta bidertzeko erretenean frenupe geratu zan Garbiñe, jausteko arriskuaz ozta garaiturik.

Mutikoaren arpegian gaizto-irria sortu zan. Berbarik egin barik, begira egokion neskato haundikiari. Honek, barriren barri egin eban bigarren ahalegina, ibilten hasteko. Lehengoaren antzeko ekinaldia ostera bere. Beste aldeko bidertzerantz abiau zan. Hornea jota gelditu zan, eta esku ganeko azala urratu eban zer-txubait.

— Urrunera begitu behar dozu, ta ez beherantz —bururatu utsan gozaro, paper-saltzaileak.

¹ *sostor*: txiki.

² *jausi bazeintez*: jausten bazara.

³ *Falta nota*.

³ *jazo*: gertatu, pasatu.

⁴ *konerka*: «marchar en diagonal».

⁵ *gupi*: «curva».

Hirugarren saioa egin arren, ez eban gorarik egiten neskatoak. Mutilak itxaron.

— Gaur ez dakit zer jazoten jatan —esan eutsan emakumeak. Ibili naz ba ni, orain baino lehenago. Mesedez, apurtxu baten, aulkiñotik oratu baziñei.

— Jesarleku azpitik, ezta?

Neskatoak, baietz adierazo eutsan buruaz.

Ta Garbiñe ganean, mutikoa oiñez, zelan edo halan jardun eban aldikadatuan bidean gorantz. Batean lerden, hurrengoan *zanbuluka*¹, neskatoak jauste-arriskuak izaten zituan, eta Nikanorren esku sendoak, gogor eusten eutsan silinetik; eta inoiz *mokor*²-aldean eta saihets-ondoan bere, ezarten eutsan eskua gozaro, jaustea eragotzi nahirik.

Aldapatxua iraganik, bide lauagoa egoan. Haraino lagundu eutsan mutikoak. Garbiñe, leku haretan aisago ta egokiroago ibiltzen hasi zalako, pozik baldin baegoan, Nikanor areago halako laguntxuaz jolas nekagarri baino atsegingarriagoan ebilelako.

Erria ez zan agiri bideune haretatik. Ikaslea ta laguntzailea, beste inor lekukorik bage ebiltzan lanbide barrian.

Ibilian ibilian, polito ziharduan neskatoak bere kabuz ta kontura, bestek oratu bagarik. Noizean behin, bakar bakarrik uzten eban jagoleak eta albotxutik jarraituaz, zuhur zaindu. Okerka hasten zaneke, han egokion oratuteko gertu, mutil bipila.

Garbiñe bakarrik ebilen batean, haize bolada batek gonak apur bat jaso eutsazan belaunez gain nabarmen, eta Nikanorrek iztar lodi hareetako galtzerdi-amarrak ikusi eutsazan, *lizun-irritsaren*³ ikutua susmauz. Harek, bapatean frenuak estutu, ta ia alborantz jausi zan.

Asaldau samar ta erdi kezka, esan eban orduan neskatoak:

— Ze ordu ete da honezkero? Ordain-neurria bete izango neban, aurki.

¹ *zanbuluka*: zabuka, balantzaka.

² *mokor*: eperdi.

³ *lizun-irrits*: «placer sensual».

Mutilak, damu antzez, baina barruko garramura-haizea erakutsi nahi ezik, erantzun bere bai:

— Gura izan ezker, joan geintek ez herrirantz.

Ta neskea txirringutsean hobeto ta egokiroago jarrita, eta besteak inoiz oratu, inoiz jareiz utzi, joan joiazan bideak behera, herrirantz, olabe alderantz.

— Laster ikasiko dozu zuk, bakarrik bere — inotsan adiguritsu.

— Ba leiteke. Eskerrik asko.

Txirringutsa bere tegian utzi, zor ebana ordaindu, soinekoai gertualdia egin, errementariari agur esan eta Nikanorri iri samurra agertuaz, aguro ta txairo joan zan etxerantz Olarratz jaunaren loba atsegingarria.

Mutikoaren barruan, laino artean dabilen hegaztiaren oreka zalantzazkoaren antzera ebiltzan lilurak sorbarri, narrugorrian egoanaren hego beroen gora-nahiko bultzada ta zirkin makalak...



XI

Nikanor *etxera zanean*¹, gurari barrien kili-kilia kolkoan eballa, zerbait esan beharrean edo, egoan.

—Ama: aldean daukadazan soinekoak, zahar samarrak dagoz.

Goitik behera begitu eutsan amak.

—Erabatera zahartu ete jatzuz ba?

Ez egoan soinekoa erabatera, goizetik gabera maiztuterik. Hori, ba ekian Zenonek, mutikoaren amak. Andratxu honek ez ekiana, —seme-alabai buruz gurasoai hainbat bidar gertatua—, bere semea, seme gazteena, gizartean sartzen hasia egoala zan.

Gizartean sartzea, gizaseme ta emakume artean sartzea da, umeen taldetik aldeginik.

Eta egia zan. Nikanorrek utzirik eukan ordurako gehienbat, txikiago zanean hain maite eban mendi-bizkarreko etxetxu ta bazter zoragarria, ganerako beste zerakaz batean. Senentxu bere adiskide txikerrari emon eutsan, ezerezean, duban. Harrezkeroko traspasu mamintsurik orduan ez zan ezagutzen.

Lehenagoko atx, arbola ta bide bakartiak ordurarte esangura maitagarria baldin baeben, egunak joan, egunak etorri, bide bakarti, arbola eta atxak gauza hotz eta animabakotzat jotzen zituan Nikanorrek, eta hareen ordezt, gauza biziak eta bizigarriak egiten outsoen oles eta dei, bihozpean.

Notinak, pertsonak batetik. Eta bestetik, beti nahien izan eba-

¹ *etxera zanean*: *etxeratu zanean*.

na: dirua. Zaletasun biok joiazan *koskonduten*¹ eta *mardotuten*² haren barruan. Bakartadeak utziaz, inuska ta izutia izateari *uka eginaz*³, Nikanor gizartean erabagi sendoz ta urrats astunez barruratzzen zala, esan eitekean.

Bere buruaren apainduriari egokion. Hobeto azaldu beharra, soineko purtzil eta jantzi baldarrak utziaz, beretzat erropa erakusgarri ta dezenteak izateari, zuzen eritxan mutiko *errimeak*⁴.

— Ene! Gure mutil hau *burugin*⁵ bihurtu ete jaku, bihurtu? —jaurti eutsan arpegira amak, esanaldi ozpinbera ta destaineko.

Baina, mutikoa ez isilik geratu.

— Zeure seme kutuna, zeure eguzkia, edozelan eta ganora bage ikusi nahi al zenduke?

Ama, *gantz*⁶ haundikoa ez bazan bere, ama zan-ta, minbera jarri zan, semetxuaren hiletak entzunik.

— Tira, ba. Zeuk agertuko deustazu zer nahi zendukean. Ba dakizu dendan eskatzea erreza dana. *Ezkurra** behar, ostera, esku-artekoa, ene seme hori.

— Zorioneko dirua! Orain, ba dakizu egunean baino egunean gehiago ekarten deustudana.

— Bai, ez da guzurra berba hori.

Bizartegian, iluntzean, ohi zan bilera egin eben, ezagutzen ditugun batzuk. Gai ernagarri ta bero-beroa eukien aho-mihinetan. Herritar gehienak, hauteskunde azken-asterarte lo nasaian eta manatan egon ohi diran arren; gai horrek zeregin egikorra ta ausarta eskatzen dauanez, norbaitzuek adionez ta aurretiaz has-ten dira arloan, lanean, lehenengo zertzeladak atonduten.

¹ *koskondu*: koskortu, haunditu.

² *mardotu*: sendotu.

³ *uka egin*: uko egin, ukatu.

⁴ *errime*: trebe, abil.

⁵ *burugin*: bizi-nahi; «vividor».

⁶ *gantz*: suster, ganora.

⁷ *ezkur*: diru

Ubaldo bizargilea, bitarteko onuratsua ei zan elezinoietan. Ardatz ibilkoia; gizon erakargarria; pieza jatorra, erabat esan. Hartuemon ugariko gizona zan, tratu haundikoa, gizonezkoen artean, eta... bestelakoen artean bere, ez zan txoria makala!

Txomin Egarrri, iturri-zain nagia bere, hantxe egoan. Markos, ehiztari azkarra, herriko *zadorlaria*¹, egun askotan Olarratzegaz batean, sekulako erbi-mordoa, edota, eper-saila etxeratzen ebana. Haraxe agertu zan geroago beste gazte bat bere; harako batean, Tutuluren dendan sartzen ikusi genduana, haren alaba mardoari zerbait adierazo beharrez edo. Gazte hau, azkarra zan garatzetan.

Nikanorren jakituria, mundu-jakituria, gizarte honetan *elikutu*² ta *joritu*³ ohi zan, apurka apurka janari-edari onuragarriak bereganduaz. Hantxe jakin eban hauteskundeak zirala ta ez zirala, antzeko eretietan sortu ohi ziran lez, herrian zeintzuk alderdi atondu, mamindu ta gorpuztu zituen.

Alderdi bataren buruzagi —hoba ez—, Olarratz jauna izango zan. Eta, bestearen aurrerengo ta *hotsemoile*⁴, Dorregarai botikaria.

Bakotxaren gertaleku ta habiak bere, hasterakoan behintzat, alkarrizkatu ta oinarriak ipinteko, baztertxu bi, denda bi, ziurrago esateko: lehenengoena, Tutuluren dendako barrukaldea; eta besteena, Dorregarai, bere botika alboan erdi hutsik eukiten eban leku zabal eta egokia.

Ubaldoren bizartegian batzen ziranak bere, Dorregarairen aldekoak ziran, gehienik. Lehen aitaturikoez gain, beste lagun bi ziran eragin eta indar haundikoak alde honetan: Peru Lustreputx zapataria eta Etxabelar maisua. Irakasle jator hau, herrian hainbeste ta hainbeste ikasle izanikoa, herriko seme askok maitatua ta arretaz entzuna izan ohi zan.

Beste sailerantz jo ezkerero, hangoak dira Olarratzen diruaren

¹ *zadorlari*: nonzebarri; «correveidile».

² *elikutu*: «nutrirse».

³ *joritu*: aberastu.

⁴ *hotsemoile*: barriemolle.

soinuak eta indarrak dantza-dantzari bildurikoak: Letamendi alka-tea, herriak ezin bestean aintzat hartzen ebana; Mordobiko, herrian ardaurik gehien saltzen eban txiribogin morroskoa; Anton Okaran, hargina eta bonberuen buru zana, eta Kosme Tutulu, botikarioak herrian eukanik lehiakiderik zitalena, konpetentziakorik txarrena, estuena.

Herrian, *garaitiko*¹ jenteak, ordua heltzen zanean, gehienbat honen ala haren emoten ekian botua. Osterantzean, zaldun nahi erdi-egoerako gizonik asko, nare ta bare bizi ohi ziran euren zereginai lotuak nahi eta hauteskunde-aroa ganean izan.

Emakumeak bere, izaten ziran geroago, guzur-botuak eta indar-tratuak, honen nahi haren alde eraturten ta moldauten ibiltzen ekienak.

*Gau-lehenean*² bertan, bizartegitik etxerako bidean jarri zanean, Nikanor, Tutuluren dendarantz hurreratu zan, han zer ikusten ete eban.

Atea, itxita egoan arren, barruko argiak, han txoriak ba zirala adierazoten eutsoen. Zerbait entzun guraz, ateko oholari belarria eutsola jarri zan. Alperrik, ostera. Gizonezkoen zurrumurrua ta noizean behingo eztulen bat entzun eitekean, baina ez ezer ulertu.

Bere esperientzia aberastu ta joritu nahirik, hurrengo, Dorregarairen botika ondorantz joan zan; eta une haretan bertan, haruntz joiazan hiru gizonak ezagutu zituan. Botikan sartu ziran hirurok. Bizartegian lehentxuago egon ziranak, hain zuzen: Markos, Ubaldo eta harako gaztea.

Txomin Egarri, gau haretan, sarritan lez, Mordobikoren ardan-degi txeratsura joan zan, eztarri legorriaren egunaren amaitzat hezotasuna ta busti-antz gozagarria eskiniatz batean, bestela baitakoan barriketak entzunaz ta herritarren esamesak batuaz, azpiak jaten, sator-lanean jarduteko asmoz.

* * *

¹ *garaitiko*: enparau, gainontzeko.

² *Gau-lehen*: gauerdirtarteko gaua.

Haize hozkirriak, huriko kaleak goizeko arnasaldi biztugarriaz beteteko bere *ipizki*¹ ikus-ezina astindu ebanean, han ebilen Nikanor, geroago ta nekagarriago egiten jakon lanbidean: goizeko egunkariak bananduten eta saltzen. Noizean behin, deadar bat edo beste egiten eban, baina ez zeregin hori hartu ebanean lez. Hasibarritako garrak makaltzen eta ahultzen joakiozan.

Iparraldeko lorategi ta arboladian zehar joiala, txakur bat ikusi eban, zugatz batean alboan, bere autorkuntza sarri barriztaua egiten...

Nikanor geldi *lotu*² zan txakurrari begira. Eta baita txistu egin bere, behingoan. Txistu, eta gero, haren izena aitatuaz, oles egin.

—«Lipar»!

Eta txakurra, aspaldiko laguntzarraz gomutau, ta arineketan hurreratu jakon, ikotika ta jauzika, usainka eta igurtzi guraz; arpegia bere, mizkatuteko ahaleginak eginaz.

Mutilak, bizkar, sama eta buruan, eta saihets-aldeetan sekulako joak eta igurtziak egiten eutsazan, samur esanaz:

—«Lipar»! «Lipartxu»!... Hire jabe zitala baino hobea haz hi, mundua mundu. Harek banatuak gaituk, harek alkar-urrunduak, «Lipartxu»...

Honetan, zugaztian emakume ahotsa entzungarri egin zan; txakurrari dei egiten eutsan; honen bila etorren.

Olarratz jauna ez zala igarri eban Nikanorrek, baina besterik ez ekian. Iges egiteko gertu jarri zan, baldin haren irudia agertzea eitekean gauzea zan-eta.

—«Lipar»!

Emakume deia zan, argi ta garbi.

Txakurraren galde etorrena, ez zan besterik Garbiñe baino. Mutilaren alboan pataria saltoka ikusi ebanean, bigunago deitu eutsan txakurrari.

—Aldenduko ete dan bildurrez jardun izan dot horri deika. Dirudianez, ezagutzen zaitu.

—Ezagutu ez, ostera? Ez da atzo goizeko adiskidetasuna.

¹ *ipizki*: labak garbitzeko erabili ohi dan erratza, eskoba

² *lotu*: geratu.

Zure osaba jaunak ekarribarria zanean, neugaz ibiltzen zan goizetan kalerik kale.

— ...?

— Geroago, behin batean, abereen hiltokira eroan nebanean... sarritan lez, hango hazur gozoak beroni jaten emotearren... idisko bat, izututa, igesi joan zan hurian zehar; zaparrada ta iskanbila artean, aldendu egin jatan ba, txakurra; ta gero jakin nebanez, mutil oker batzuek harrika eraso eutsoenean hain zuzen, zuen osabeak intzirika topau eban, neu, zaintzaile nintzan hau bage; eta hurrengo batean, ostikadea emon eustan uzkian Olarratz jaunak, kalean, mundu osoaren aurrean.

— Eta... txiringutsen lekuan, noiz egoten zara?

— Arratsaldetan.



XII

Dorregarai botikarioak alaba bi zituan. Ezkongei eukazan biak. Gazteenaren ondorik, ba ei ebilen norbait, ikusi ei ebenak esana zan ezker. Alaba zaharrenak bere, norbaitengandik zaletasuna ebala jakin zan herrian; egun hareetan hain zuzen. Honen *uzian*¹ ebilena, aspaldi batean kanpoan egona zan, baina harrezkeroko urteetan hantxe, ta moduetan ganera, bizi zana.

Nikanorrek lehenengoz entzun ebanean, zurrumurru hori egia izan ete eitekean, bere buruari galde ta itaune ibili zan.

Hauteskundeetako gertakizunak aurrera joiazan, alde bako-txetik, eta egunak iragan, aitaturiko epe hori, askok urduritasunez itxaroten ebena, bertarago egoan, hurreago.

Gau batean, bizartegian entzun eban, liberalen aldetik nor izango zan alkate-gei.

Hain zuzen, lehengoa bera; Letamendi.

Herria, haregaz poz larregian ez baegoan bere; herritarrai, ka-tilukada hori gozagarri ez bajaken bere, katilu ta erdi edan beha-rean egozan, baldin ostera bere, Olarratzarrak nagusi urten ezke-ro.

Olarratz bera zegaitik ez zan alkate, galdetu eban behin, han bizartegian, Nikanorrek.

—A, kankailua! —erantzun eutsoen—. Ez al dakizu, horrek, herritxu bateko alkate izateari gitxi deritxana? Ganera hori, hu-rrengoetarako gertauten dabil; ahaldun izateko, diputau.

—Eta ahaldunak, zetarako behar dira ba?

¹ *uzian*: lortu gurean.

—Ahaldunak ahal dabena egiteko, euren arloetan. Herritxu bateko alkateak, indar urri dauka. Ahaldunak, oster, inguragi haundiagoa, barruti zabalagoa, eremu hedatuagoa hartzen dau. Ahaldunak dira, herri-aldeetan; eta beste ahaldun batzuek, huri-buru gorenean, korteetan, legegintza-tokietan.

Entzuten zituanak isilik beregantzen zituan Nikanorrek, lur egarrituak euri maminaren hezo gozoa atseginez *irusten*¹ dauan antzera.

Ta halantxe zan. Norbere jaioterra nahi bizi zan huritxuaren mugaz haruntz, beste herri, beste eskualde ta atzerriak egozan, urteetan Nikanorrek bere buru-irudimenean aintzat bere hartu ez zituanak.

Beste eragin eta zartada barria nabaritu ta sentidu eban bere kolkoan.

Beste aldetik, *aurtemein*² entzuniko zurrumurrua ez zan atetako haizearen *intziri*³ hutsa. Dorregarairen alabeaz jabetu nahirik ebilena, alaba zaharrenaz esan nahi da, ez zan besterik «Lepoker» baino, Letamendi alkate jaun berbera.

Eta Dorregarai botikario zintzo ta gizon jatorrak, zer egin behar ete eban alaba zaharrenaz? *Galerazo*⁴, *etxetik egotzi*⁵, ala *amore emon*⁶ harek eukan maite-eskariari?

Letamendi, Argentinan egona zan urte luzeetan, eta herrira bihurtu zanetik, *moldegintza*⁷ edo irargoa jarri eban, eta ba zituan hiru gizon lan horretan jarduten ebenak jarraian.

Nahaste ta saltsa artean ibilteko beti gertu egoten zanaz, hare-zaz ederto baliauten zan Olarratz herri haretan, bere esaneko taiututeko; beste herrietan ganerantzeko buztan-gizon eta menpekoak horniduten zituan antzera.

¹ *irusten*: iruntsi → irunsten.

² *aurtemein*: oraintsu, lehentxuago.

³ *intziri*: zarata, hots.

⁴ *Galerazo*: debekatu.

⁵ *egotzi*: bota, jaurti.

⁶ *amore emon*: etsi, errenditu; «ceder».

⁷ *moldegintza*: moldiztegi, inprenta.

Dirudunak, gehienbat, politika goitarra egiten eben; goitar hitz horrek sarri askotan, zerutar kutsu urri baino izan ez arren.

Diruaren, maitetasunaren eta politikearen arteko zerikusia eta osterakoa, noiz ta zelako jokabidez *maneauten*¹ diran, ez ekian ziur Nikanorrek. Eta ez zan harritzekoa haren adinean horrelako zerak ez ulertutea; geroago bere, edonoiz ta edonun, buztartu ta banandu, burrukan jardun eta adikidetu, irainak alkarri jaurti ta laztan bigunez alkar igurtzi ibili ohi diralako, hiru indarrok.

Besteen aldetik, eztabaida askoren ondorenik, *hautetsi*² eben azkenen buruan, euren alkate-geia. Nor, eta Ubaldo bizargilea, beste inok nahi ez ebalako edo...

Txirringutsen tokian egoala, aldi pozgarria izan eben Nikanorren begi-bihotzak. Merkatari berebizikoa agertu zan ateondora, bizikleta baten eske. Garbiñe zan.

Egoanik dotoreena aukeratu eutsan mutikoak, neskatilea ederri. Lantegiko mahaiaren apal ganean egoan erloiu zaharrari begitu eutsan, eta *ohol-baltzean*³, egokion lerroan idatzi eban bezeruak ibilkaia hartzen eban ordua.

Hartu eban neskatileak «zoroburdia». Ganean jarri ta abiau zan polito, bidean gorantz. Nikanor begira ta begira egokion, eta halakoren batean, ugazabaren baimenaz, haren jarraian urten eban beste txirringuts batean.

Laster heldu zan neskatilearen parera, baina haren atzetxutik joatea erabagi eban, haren maisutzat ta jagoletzat etsirik bere burua.

Garbiñek aurrerapen haundia egin eban txirringutsean ibiltzen. Sugearen antzeko zanzbuluak egiten zituan noizean behinean, baina osterantzean egoki joian pedalai azkar samar eraginaz, ta gorputza lerdan asko eukiaz.

Aldapearen goenera heldu ziran eta han egoan lautada eza-gunean gero ta aguroago joiazan, lehenago esandako eran.

¹ *maneau*: manelatu, erabili.

² *hautetsi*: aukeratu, izendatu.

³ *ohol-baltz*: arbel; «pizarra».

Garbiñek ez zirudian hasarre. Ta Nikanor, harro ta *eztitan*¹ egoan, neskatila ederrari txirringutsean ibilten berberak irakatsi eutsala-ta.

Orduko bideak, harri koskorrez beteak egozan. Bitartean, ez eben hemengo bide ta kaminu zahar ez barriak asfalturik inoiz ez inoiz ezagutu, bizikletak eurak bere, tubularrik oindino ez eukien ainean.

Harrikoskor hareetan gain, saltu ta urtika, noiztik noizera, ail *txilio egiten*² eban neskatoak, *ikoti*³ hareek mokorpean egiten eutsoen atximurkaden samina agertuaz. Orduan, Nikanorrek, barre egiten eban gogoz.

Hainbat bidar egin zituen lautada hareetako bide zatian, atzera ta aurrerako osterak. Behin, kataiak urten eutsan neskearen txirringutsari eta haxe konpontzeko, katalinan ezarteko, jatsi zan Nikanor bere. Honen begiak ez egozan lo. Aurrean eukan irudi sotilak, arnasea eten ala *bakandu*⁴ erazoten eutsan mutilari.

Kataia bere lekura ebanean, eskuak koipe baltzez lohiturik eukazan.

—Eskuak zikundu dozuz.

—Ez deutsa ardurarik. Barriro bere, lohituko nituke, holako usain gozoa hartzearren.

—Kolonía-lo ur arrunta da —jardetsi eutsan Garbiñek.

Mutilak praka barrenean igurtzi zituan eskuak, garbitu nahirik. Hurrengo, tabakua sakeletik atara, ta zigarroa egiten hasi zan, egoera bakartian baretasuna agertu erazoteko.

Honetan egozala, «Fiat» txiker bat etorren bidean behera herrirantz, eta ohi zalako⁵ soinu durunditsua jo eban, harako go-mazko puxika biribilari, gidariak marruskaldi latza eginaz.

Gazteak bide ertzera ziran, alkarren ondoan. Mutilak *isiotu*⁶ eban bere erregaia, ezpanetan jarria.

¹ *eztitan*: bitsetan, pozez gainezka.

² *txilio egin*: ohiu egin.

³ *ikoti*: salto; «brinco».

⁴ *bakandu*: urritu, eskastu.

⁵ *ohi zalako*: ohi dalako, handi.

⁶ *isiotu*: piztu.

Madari madaria! Burdinots zakarra entzun erazo ostean, euren paretik igarota ahal eban baizen aguro, gelditu egin zan automobil tartaina.

Iluntzeak, bere izara baltzeranak zabaltzen ziharduan zeru ta lurrean, eta gazteak, beribilean joiazanak ezagutu ez arren, hareatik kanpora urten eban gizonezkoaren ahotsa ezagutu eben, laster eta damuz, gazteok, hain zakarkiro agertua hatan bere:

—Garbiñe! Etxera geure aurretik!!

Neskatilea, agurrik esateko astirik ez adorerik bage, bizikleta ganera igon eta bideak behera ezkutau zan beribil kankarruaren aurretik joanaz.

Nikanor bakarrik geratu zan, eta apal ta hasarre, herrira zan. Barriren barri, Olarratz jauntxua zan haren zoritxarren ekarle.

*Artizara*¹ zeruan kinukari agiri zan, artean; mutilak haginak eta hortzak estutu, ta gizasemeen artean egozan traba eta alde bardindu ezinak ikusten zituan, etorkizunaren oztopo bakar ta sakonak lez.

Kolonia-ko urak eukan doaia ala emakumearen berezko usaina, bata nahi bestea edota biak batean, usain egingarri ta sentigarri zirala uste eban Nikanorrek buru-belarri.

Noiz izango ete eban barriro eretia Garbiñeren ondoan egoteko, haregaz berbetan, hari erion usain atsegin ta erakarkorra susmauten? Biharamonean, *ausaz*², harako lorategiko arboladi gerizpetsuan?

¹ *Artizara*: Goizeko Izarra.

² *ausaz*: menturaz, behar bada.



XIII

Huriburuko goizeko egunkariak heldu orduko, beste albista bat, eta ez bapere pozgarria, bala bala ebilen herrian, *ahoz aho*¹. Hauteskunde atzetik ala aurretiaz sarri askotan agertu ohi dan *alorta*² edo emoia.

Harako gazte apaina, Markos ta Ubaldo lagun, Dorregarairenera gau haretan joaten ikusia, Bolinaga bere izenez, kalean aurkitu ebela gau-jagolak, zaurituta, sekulako zartadakoa barruna ondoren. Konorta erdi galdurik ei egoan. Zirudianez, beste alderkikoak —hiru ei ziran— emon eutsoen *lepo betena*³, eta han utzi eben, kale bazter ilunean etzanda, luze.

Txinel burua ta osatzailea eroan ei zituen eguna argitu zaneke haren etxera, eta honeetatik bakotxak bere eretxia argiro azaldu gura ez geroago. Barri tamalgarri hau zabal ebilen herrian.

Osatzailea ez zan ez bataren ez bestearen aldeko, eta txinelburua bera bere, zuhurra izanik berba ta esanetan, ez zan «belarria» inori erakusteko zale. Herri osoagaz bizi behar eben, ta beste batzuek ohi eben kemen ta burrukarako odol-giro berorik ez eben agertzen. Zauria egin eutsoen Bolinaga gazteari arpegi-arpegian. Eskuaz egina zan ala ez, zeresan haundiak ebiltzan jente artean. Hauteskundeetako lehenengo *giz-oparia*⁴, ta bizia ganera, ba ekien nor zan. Baina opari horrek, gehienen burutapenez, bere

¹ *ahoz aho*: ahorik aho.

² *alorta*: uzta, frutu, emoi.

³ *lepo betena*: astinaldi, jipoi.

⁴ *giz-opari*: giza-opari; «ofrenda humana».

ordaina eskatzen eban, zorra zuritua izan eiten. Beste aldeko norbaitetik barruna beharko eban haren tertzioko lepokadea. Eskubide bardina egoan alde bientzat.

Aspaldiko alkar-hartuemonetako itsaso barean, urak irakiten hasiak egozan eta lehendabiziko *baga*¹ gogorrek, bere itxura ankerraren muturra azalduarik eukan.

Nikanorrek, horra ba nundik nora ekusan beste jazoera barria, labatik harakoa, gizarteko gorabeheren artean.

Elementu barriez konturatu zan. Maitetasuna, ahalmena, indarra, dirua. Honeezaz ba ekian zerbait. Gorrotoa, izterbegia, odola...

Ez zan bizimodua, benetan bere, olgetan eta txantxetan ibilteko zera. Bideak ez egozan aske; edonuz egozan mugarriak, loturak, eragozpenak. Huri baketsuan, goizetik gabera, talde bik ziharduen ikaragarriro alkarren kontra, paperen bitarteko gudua gertauten; baina paperez ganera, *goganbeharra*² ta *edena*³ sortu ohi dauan ezinikusi ta *matazea*⁴.

Tutuluren dendara zanean, Nikanorrek barruan *mustaurik*⁵ eroian beazunaren mingotsa. Saldu zituan egunkarien diru-garbitaketa egin orduko ikusi ebanak, atsekabea ta egonezina sortu eutsan bihotzean.

Txirringutsen olabera joan zanz batera urten eban herritik bidai-beribilak, eta hantxe barruan joiala ikusi eban Garbiñe. Geroago, kalean, Olarratzen neskamearen zain egon zan, dendaren batera joan eitekeala-ta. Izan bere, kalean ikusi eban otsein bat. Garbiñe, herrian egotekotan zan, luzaroago bere, baina haren osabeak gauaz agindu eutsan biharamonean bertan joan eiteala etxera, bere herrira. Nikanorregaitik ete zan erabagi zorrotz hori,

¹ *baga*: uhin, olatu.

² *goganbehar*: egoezin, susmo txar.

³ *eden*: pozoin; «veneno».

⁴ *mataza*: istilu, korapilo, nahaste-borraste.

⁵ *mustau*: dastatu, probatu.

han iluntzean, bidean, alkarregaz eskuz esku edo buruz buru ikusi zitalako?

Olarratzen izenaz ta izanaz birao zikinak jaurti zituan mutikoak, mihina *galanto*¹ astinduaz. Sugearen eztena zirudian une haretan.

Dorregarairen taldekoak, behar zan zigorra ta beroaldia emoteko gauza ez baldin baziran; odol-zartada haxe, modu egokian *apenduteko*² bizarrik ez baeben, nahikoa zala Nikanor bera, uste eban, Olarratz jauntxuaren kaltean okerreriaren bat egiteko. Ez eutsan ostera, inortxuri esango, bere samina apartekoa ta berezia zalako.

Egun hareetako orduak, bere eskuz zuzentasun-egarria asezteko era aukerakoa asmauten emongo zituan. Damutuko jakon bai, jauntxu zitalari, gura ebana egiten ohitua egotea.

Beste enparauak ez ete eben eskubide hainbatekoa, nahiz eta gazteago izan ala txiroago, zer askotan norberak gura ebana egiteko?

Luze eretxi eutsen, gogaitaren gogaitan, egun hareetako orduai. Txirringutsen arazoak nekagarri izan jakozan. Pinoe batzuk garbitu, frenuak estutu, erradioak barriztau...

Noizean behin, mutiko bat, gazte bat etorren bizikleta eske, ibiltalditxua egiteko. Inoiz, neskatilaren bat edo beste bere bai. Ostera, ez egoan Garbiñe han ikusterik. Eta zegaitik?

Iluntzean, bizartegirakoan, ikusi zituan han, atzeko gelan hirulau gizon lanean, elezinoetako izenkadak ikusten ta ikasten. Beste egunetan bai, baina orduan ez egoan han, Bolinaga, buruan takarreko gozoa emon eutsoena. Nikanorren buruak ez eban atsedenik nahi. Kanean ibili zan, baterik bestera, haizetan, halako gogoe-tak berotasun larregi egin baileutsoen. Ez eban, horraitino, inok jakingo haren asmorik aurretiaz. Nahikoa ta larregi zan bera soilik, erabagiak hartzeko ta beteteko.

¹ *galanto*: polito, ederto.

² *apendu*: mendekatu.

Mendi bizkarretan eguzkiak, goiztar laztan epelak sakabanatu-
ten zituanean, Nikanorrek, bere egitekoari azken zertzelala ta ze-
hetasunak *eratxekiten*¹ ziharduan.

Tutulureneko dendara sartu zan, bipil ta eragin. Agertu-*olesa*²
egin eban, baina, isiltasuna besterik ez egoan han. Ez egoan inor.
Alde guztietara begira jardun, eta denda osteko atea zabalik ikusi
ta haraxe joan zan. Armario haundi bat egoan, goitik beheraino-
koa. Erdian, mahai ilun bat, eta inguru, lau silla, egin ziranetik ba-
rriztau bakoak.

Mahai ganean, *zamau*³ gorri-ilun bat, irudiz ta loraz betea. Eta
mahaiaren *albertxioan*⁴ karpeta baltza, buzkantz lodikoa, *izorra*⁵
bailegoan. Zer ete egoan han? Tutuluren irabazien paperak? Ni-
kanorrek berak egunkariak saldu, eta harek jasoten zituan koipe
ta giharrak?

Jakingurea zolitu jakon, eta hortik, ikusgurea. Karpetearen
azala jaso eban *malgukiro*⁶. Paper-piloa ikusi eban. Batzuk alkarri
josiak, eskudak, txortak, ertzetan marra gorriz eta urdinez beteak.

Ezagutzen zituan Nikanorrek paper hareek. Hauteskunde
izenkada-paperak ziran. Itsumustuan hartu eban josiriko mordo
bat, azpikoa. Ta kolkoan sartu eban, *elastikupean*⁷. Beste halako
asko geratzen ziran karpeta koipeztuan.

Arinak arin bihurtu zan denda ostetik dendara. Barriro hots
egin eban. Nun arraio ete egozan Tutulu ta honen alabea? Emaz-
tea nunbait, goian, etxeko sukaldean.

Orduan, kalera zan mutikoa, behingoan. Eta nora joango? Ta
bere ugazabaren aitaren dendarantz joan zan, Peru zapatariaga-
nantz. Hau, bere tegian egoan. Zinu bat egin eutsan mutikoak

¹ *eratxeki*: itsatsi; «adherir».

² *oles*: dei.

³ *zamau*: mantel.

⁴ *albertxio*: erdi.

⁵ *izorra*: ernari, umedun.

⁶ *malgukiro*: bigunkiro, legunkiro.

⁷ *elastiku*: jertse.

Lustreputxi buru-begiakaz, barru aldera joan nahi leukeala adierazoz.

Barruko gelan, isilik, agirian jarri eutsan elastikupean eroiana.

—Ez da egia izango?... Baita! Holako mutilik!! Txori finon lumak ederto onduko ditugu.

Paper-txorteari ikustaldi batzuk egiteko, betaurrekoak jarri zituan zapatari maltzurak. Hauteskundeetarako kolegio diralakoan lista guztiak egozan alkarrri josiak. Marka urdinez ertzaturik egozan izenak, liberalen alderakoak ziran, nunbait. Marra gorritz ikutuak, ostera hareen areriotzakoan. Hantxe egoan Peruren izena bere, lorratz gorriez apaindua. Eta ezetariko seinale barik agiri ziranak... ez urdin ez gorri... zalantzan jarriak. Marka bageak ziran erosi, irabazi ta lortu behar ziran... tentelak. Labankeriz ala indarrez, ezkurrez ala zemaiez. Langile eske egozan alor *landukak*¹; haize indartsu ala zirinenak narras eroango zituan orbel ibiltaunak...

Eta zergaitik ez esan? Harako «*bolillak*²» sartzeko egokienak. Horrelantxe bere, agertu ohi da alde nagusiaren asmoa, indarra ta gogoia, bakotzak ahal dauan lapikokoa gantz, *sain*³ nahi koipez gehituta maneau ostean.

Pozik gorde zituan paperok giltzapean, zapatariak. Kanporantz urten eben biak. Mutilak, zaharraren eskerrak jaso zituan, eta joan zan bere bidean.

Nikanor, barriren barri, Tutuluren dendara sartu zan. Haren emaztea egoan orduan.

—Ez al dago Kosme jauna?

Ez egoan etxean, ez herrian. Auzoetara, erbestera joana zan, Olarratz jaunagaz, botu-solo ta lurraldeak aurretiaz goldatu, atxur-tu, saratu ta ongarritu beharrez.

—Ba, andrea... ezin nei nik gehiago egunerokorik saldu.

—Zer ba...?

—Han, lantegian lehen baino lan haundiago dogu; eta, horregaitik da.

¹ *landuka*: landubako, landugabe.

² «*bolillak*»: inoren ordeztu botoa emon.

³ *sain*: arrain-koipe.

—Tira bal Esango deusat gure gizonari *etorri daitenean*¹.

Tutuluren emaztea, andra nasaia zan, eroan haundikoa, inoren zereginak ardura esatekorik emoten ez eutsoenetarikoa. Zer ekian harek politika-konturik? Herrien gogoia baino bere, jauntxuen guraria papel baltziturikoetan agertzea zetarako zanik?

Ta goiz haretan, bidaia heldu ostean, han gelditu zan «Bakarrekkoa»-ren pardela jabe bage, lurrean etzunda. Beste egunkariaren saltzaileak aguro jardun eben euren paperak saltzen eta zabaltzen.

«Bakarrekkoa»-ren erosleak galdez ta errenkuraz ebiltzan. Baina arduradunik agertu ez, ta batzuk euren kontura banakoak hartu, eta besteak hara hona aldendu ta joan ziran, ezer jaso bage. Egun haretan, hainbat eta hainbat aldaki hantxe geratu ziran...

Hori ete zan Nikanorren jokaera guztia, jauntxuaren kaltez?

Ilunabarrean, Tutulu herrira zanean eta karteruak paketea ia osorik han eukala jakin erazo eutsanean, goiak eta beheak hausi beharrean hasi zan, emazteari ta alabeari gora goraka. Ta nun arraio ebilela Nikanor mutur-zikina? Erbestean lan eta lan jardun, eta horra, herrian bertan, soloak landa eta alorrak larre...

Edonor sututekoa zan. Eta Tutulu, arrazoi haundiagoz.

Nikanorrek egingo zituan barreak, Tutuluri ezezik, Olarratz jaunari berari bere sartu eutsan ziri bikotxagaitik...!

¹ *etorri daitenean*: datorrenean.



XIV

Hauteskundeetako gogo-aroa susmauten zan herrian, geroago ta erreago. Alde batekoak eta bestekoak gauero batzen ziran han hor hemen, baina toki gorenak bi ziran, irakurleak dakianez: batzuk, Tutuluren denda osteko gelan eukien bilkura-lekua; besteak, Ubaldoren bizartegian, Peru zapatariaren denda ostean nahi Dorregarairen botika ondoan.

Egunkarietan agertu zituen agertu, herrietako aukerageiak, kandidatuen izenak, eta hori jakinik, bai batekoak eta bai besteak, bakotzak bere opilari su egiten ahaleginduten ziran.

Eliza-kolorez, santubidetasunez ta zintzotasunez jazten zituen batzuek euren asmoak, eta euren gizon hautageiak birtute horreekaz hornidurik egozala autortu. Inoiz euki eben *zirkulu*¹ edo zirkulua, Mogel-ek esan eukeanez, batzanduteko baztertxu egoki lez; baina diruz heldu ezinik ibili ba beti, eta kontserjetasunaren ardurea duban inok hartu nahi ez-ta, porrot egiten eban txitean pitean batzar-leku berezia izate horrek.

Askatasunaren izenean, aurrerapenen ezaugarritz harako «laissez faire» ... ahal dauanari, horixe zan besteen egitamua. Erregerik izan ala ez, horretarik urrun ebiltzan artalde bietarikorik ugari.

Koxka ta untzea, agindutea zan. Askorentzat gustagarria dan egitada indarduna. Horixe zan kontua.

Bataren eta bestearen irudipean, hamaika aldeko ta kontrako lagun izan ohi zan jentartean. Lehengoan bateriko ziranak, hurrengo berez-aldietan, gitxi ala asko, bestera jotzen eban. Barruko

¹ *zirkulu*: bazter, txoko.

arrazoiez, bihotzeko eraginez ala sakelaren komenentziaz zihardu euren urratsetan.

Ezinikusiaten menpe bere, eurrez sortzen dira arerioak. Honeen artean egoan Nikanor. Okotzeraino beteta eukan Olarratzek. Ezin eitekezan ba, alkarrekin joan mutiko ta zalduna. Betiko hasarrea erne jakon Nikanorri bularrean, haren ezeppenak eta erdeinuak zirala-ta.

Baztarren barragarri jarri nahi eban Olarratz. Eta horretarako zerbait kalte egingo eutsan egin, aberats hari. Elezinoiak baino bederatzi egun lehenago, zapatu gauean, inori ezertxu bere adierazo bage, gerturik eukan zer egin.

Afari *iskia*¹ jan ostean, ama, ondoezaz egoala-ta, ohera goizetik joan zan. Nikanor, gauaren ganera, Olarratz jaunaren baratz ingurura heldu zan. Begira ta begira jardun eban, eta ortu horren hormeari, bidebarri aldeko hormeari, gora samarra eretxi eutsan; eta erasoaldia, albotik, saihetsetik egitea erabagi eban. Auzoko ortuko horma zaharretan zehar sartu zan. Han, madari-ondo luzera igonik, Olarratzen ortuko horma ganera heldu zan. Gero, saltu bizkorra egin, ta han egoan ortu barruan.

Isiltasun haundia. Zaporen batek edo bestek fli-flu... soinu bakar ta nekagarria entzun erazoten eban. Iretargiak ez eukan indar esatekorik, bere izpi ta distira larrietan. Zana zala, agiri zan zeozer, eta mutikoa abiau zan aguro, txakurra egon ohi zan *okuilurantz*². Honek, zaunka egiteko gertu egoala, berbere izena ez eban entzun ba?

—«Lipar»!

Patariak, hots ezaguna entzunik, intziri samurra egin eban. *Ohi dalako*³ hazur-zati ederra eskeini eutsan mutikoak, eta txakurrak laster ekin eutsan hagin-jokoan.

Hurrengo, etxola nagusira joan zan. Atea gogor samar egoan hertsita. Ate zaharrari, burdina luzangatxu baten bitartez, saka ta

¹ *iski*: urri, eskas.

² *okuilu*: korta.

³ *Ohi dalako*: handi, nagusi.

saka jardunaz, amore emon eragin eutsan. Orduan, Nikanorrek, sakeletatik *bildura*¹ koskor batzuk atara zituan. Batean, gari-uruna eukan, urun zuria. Han hurrean egoan *morko*² zabal batean eskuak busti zituan, eta behean *marruskauaz*³, lurrez zikindu zituan hatzamarra. Hurrengo, urun zuriz jantzi zituan hatzapar loditubariak.

Gero, oiloen tegiraino sartu zan, eta beste paketetxuan hareentzat eroian janaria zabaldu eban oiloen jan-ontzietan eta lurrean bere bai, parrastadan botauaz. Oparo eukien hegazti otzainok gozagarri barria; ez zan, hain zuzen, arto-*ore*⁴ *onurakorra*⁵, eden zitala baino.

Hantxe egoan areto *tatan*⁶ politean *arasa*⁷ txukuna, Olarrazek eskopetak eta, gordetzen zituan tokia. Hantxe egongo zan, ausaz, harako esku-makila dotorea bere; umekondo zanean hamaika bidar haxe ostuteko gogoa izan ebana: makila narruz jantzia, barruan sastakai fina eukana.

Baina aldi hareek joanak ziran. Ez eban nahi orduan Nikanorrek ezetan lapur agertu. Kalte egin gura eutsan, isilik. Eta iraindu bere bai, zaldunaren harrokeri ta ahalmen neurribakoari, zama ta urratu agiria ezarriaz.

Ta horretarako, esandakoa egin ostean, lotsa galdukoaren egitadea bururatu jakon. Salatxuaren erdi erdian, *asazkaldiaren*⁸ haundiz, galtzak eratsi eta... korotz morrosko baltza utzi eban, gaizkile ezezagunaren errubrika totolo ezezagunagoa bailitzan.

Galtzak euren tokiratu, eta «Lipar» apalak hazurrari azkenengo aginkadak egiten eutsazan bitartean, ateari, bere lekuan sartzeko bultzakada batzuk egin, bere burdinatxua gorde, ta etorri zan bidetik joan zan.

¹ *bildura*: pakete.

² *morko*: ontzi.

³ *marruskatu*: igurtzi.

⁴ *ore*: «masa».

⁵ *onura*: probetxu.

⁶ *tatan*: txiki (Lekeitio eta Markina → «uzkarrume», «neba-arrebarik gazteena»).

⁷ *arasa*: armairu txiki.

⁸ *sastakai*: «puñal».

Horman gora barrero igoteko, esku-eskilara bat ezarri eban egoki, harresiari eutsala. Goienera zanean, beste ortuko madari-arbolea begiztau eban, ta horma ganean jesarrita, oinakaz aztamuka ziharduan, adar *ironetan*¹ bere gorputza ipinteko. Zutundu zan, adar ganean.

*Sirats*² bihurria, ostera, aurka egon nunbait, eta adarrak, grakada latza egin eban. «Beiak behera»³ asi zan Nikanor, eta eskuaz adar-mutur singleari oratu ezinik. Behingoan geratu zan; min hartzen eban, barriz. Mutila, zintzilik geratu zan, esegita, zankoloka. Iztar artean sarturik eukan adar hausiaren punta zorrotz zozpalduna. Haragian sarturik eukala iruditu jakon, prakak urratu ondoren. Toki minberan, hain zuzen.

Ez zan, izan bere, egoera gustagarria, ta ahal izan eban baizen laster, beso ta eskuen indarrez jagi ahal izan zan apur bat. Adar hausia katigaturik eukan *lotsari*⁴-zorroan, *kozkoilean*. Askatu, eta adarrak adar jatsi zan, saminez. Ikutu eban alde mindua, eta odolak busti eutsazan esku lehen-zikinduak.

Lurrean jesarri zan apur batean. Mina, ezagunean ibitu jakon, eta jagi, ta hasi zan ibilten, errenka ta bildurrez. Erreten eukan, bero bero, zauri eginbarria. Hurrengo ortuko horma apalagoaren ganetik zehar igarotea, nekez egin eban.

Lehenbailehen, ahal eban ginoan, etxeratzea erabagi eban. Hurreratu zan herrirantz, ta kanpo aldetiko kalean zehar, okerreko bidea hartu eban, baina *beraizik*⁵ eta jakinez. Plaza aldera agertu orde, bide luzeagoari ekin eutsan, itxurakerizkoagoa izan eiten.

Etxerako mailetan gora joiala, neke ta min haundiago susmauten eban Nikanorrek. Zauriak hoztuago ta... Isilik sartu zan etxera. Eskuak garbitu zituan lehenengo, amak kaleko iturritik

¹ *iron*: egoki.

² *Sirats*: adu; «suerte».

³ «Beiak behera»: beheruntz (Lekeitioko esaera).

⁴ *lotsari*: «partes pudendas» (Azkue).

⁵ *beraizik*: berariaz, beren berengiz.

ekarririko ura, *pedarrean*¹ harturik. Galtzak eratsi, —barrukorik ez eukan— eta lotsari aldeko azpiko azala urraturik eukala ikusi eban bere begiz. Odola, zorionez, gelditurik egoan, gogortuta, baina ez osoro. Minbera eukan, zauria. Han, *komada*² zaharreko mantar artean, aurkitu eban trapu zuritxu bat, eta bere toki minduan polito polito ezarri.

Min ondoko makaltasunez ta eginiko ibilera makurraren nekez ohean sartu zana, bat, loak hartu eban.

* * *

Lehenengo itzartu zanean, min sentiduten eban. Egoeraz aldatu gorputza, ta barriren barri lo.

Amaren deiak uxatu erazo eutsan lo hasibarria. Oinazez egoan ama, alboko minez. *Alborengo*³ ete eukan? Medikuaen bila joan eiteala, eguna argitu baizen laster, erregu egin eutsan.

Osatzailearen bila kaleak kale inorentzat, sendagailu preminaz berbera egon-ta!... Hala ta bere, nagi bai nagi, jagi zan ta minaren errealdia, zauriaren alea *minsor*⁴ ebalarik, haginak estututen zituan, nekeari eutsi nahirik.

Zana zala, medikua etxera joango jakon, eta horrelan, bere biziko aukerea izango eban, bere iztar arteko mina erakusteko.

Etxean aurkitu eban osatzailea. Nikanor, aspaldi ezaguna eban. Alkarregaz abiau ziran geisoarenganantz. Nikanor, hanka zabalik ebilen, eta astiro.

—Zer daukak hik, horrelan ibilteko? Bizikletan larregi ibili al haiz, ala zer? *Egosturik*⁵ hagoala, dirudi.

—Bai, jauna, holakoren bat. Etxean esango deusat isilean, berorri... abadearen antzekoa da-ta.

Osatzaileak irribarez erantzun eutsan.

¹ *pedar*: ontzi; «cántaro».

² *komada*: armairu; «cómoda».

³ *alborengo*: «pulmonía».

⁴ *minsor*: minberatuta, minduta.

⁵ *Egostu*: «escocer».

—Orain ez dok «Bakarrekoa» saltzen, ezta?

—Ba!... Tutuluk zentimu gitxi emoten eustan, eta aspertu nintzan erdi-hutsean lan egiten.

Ama ikertu eban medikuak. Eskuturreko *tintina*¹ neurtu eutsan. Arpegira begiratu eutsan eta begietara bere bai.

—Nogaz bizi zaree?

—Ama ta biok, soilik.

—Orduan... geisoetxera eroan beharko dogu. Biriak hartuak ditu; biak ganera. Alborengo dauka.

*Sueterantz*² eroan eban mutilak, osatzaillea. Eta hantxe, galtzak erantsi ta erakutsi eutsan bere sarrastakoa, haragi bizi eukana. Ez zan gauza haundia, zorionez, minbera izan arren. Botika nabar bat erosi eiala, *sakia*³ igurtzi bigunean jagoteko. Esan bere bai, mutilak, isil isilik, gau haretako ibilera galdu-gordekoa.

Medikua barreari eutsi ezinik egoan.

—Ondo egina!

Nikanorren barrua errime nasaitu zan. Ba ekian entzulea, Olarutzen aldekoa ez zana, ta ezta gizon txalua bere. Biak bietara gordeko ebela isileko hori, mundua mundu, izan zan hareen eguinea.

Domeka egun haretan bertan, geisoetxera eroan eutsoen ama, Nikanorri. Barkartadea, sarri horren zale izan arren, ez eban egundaino ezagutu ordurarte, bere hazurruts eta gabezian. Auzoko andrea eskeini jakon, jaten emoteko ta garbitasuna egiteko.

Izta arteko zauria bigarrenez *txautu*⁴ eban, eta *osakai*⁵ barriaz gantzaturiko *ehun-txaplata*⁶ bat ezarri eutsan, Dorregarairen dendan erosi ostean. Sendabidean joiakon ezagun ezagunean, eta kalera joan zan arratsaldean, herriko guzurmendietan ea ezer albista barririk entzuten ebanentz.

Martareneko ardandegian egon zan. Geroago, Mordobikoren

¹ *tintin*: pulsu; «pulso».

² *suete*: sukalde.

³ *saki*: zauri.

⁴ *txautu*: garbitu.

⁵ *osakai*: botika, medizin.

⁶ *ehun-txaplata*: «venda».

taskan bere bai. Hementxe ekian egoten jaiegunetan Damas ortulauak, eta ziur ekian Nikanorrek ezbeharraren errastua ta aztarrena harek agertuko ebana. Ez egoan han, horraitino.

Harik hurrengo, kalera zan, eta *berperten*¹ ugazaba aurkitu eban, bizikleta jabea. Mutilak, bere haragia minsor minsor eukanta, arpegi larriaz egoan. Amari jazo jakona adierazo eutsan hari; pasautako gau txarra, geisotegirako amaren joakerea. Ez eukan, beraz, nekea ta oinazea baino. Arduraz entzun eutsan ugazabak.

Bere bakartadean, oker eginaren kezkea bere ba eban-ta, egun larri ta pozik bakoa eukan aurrean. Gero, aldi bateko bere jarraitzaile Matxin eta Senentxuren bila jardun eban, eta amaren ezbeharra jakinerazo eutsen. Lorik ez ebala egin, eskas baino; goizetik jagi behar izan ebala... Sendagilearen bila ibili; amaren joan-etorriak atondu...

—Ta, mezea noiz entzun dozu, ba? —itandu eutsan Senentxuk.

—Mezea...?

Lagunok utzi zituan, eta geisoetxera agerraldi bat egin eban. Baina, ordua ez zala-ta, ez eutsoen sarpiderik emon.

Erromeri lekutik iragan ostean, barriro bere, Mordobikoren arandegira jo eban. Eta zuzen! Hantxe egoan Damas ortulaua, jentea alde guztietatik ebala, berba ta berba. Lagunak, haren ondortu, gelditu, entzun, eta batzuk behingoan alde, besteak inguruan jarri, behin eta barriro entzuten eben gizonaren azalpena.

Esamesa ta zurrumurrua zabal zan han, zabal. Tabaku-bedarren keia, gizonen barbaroa, argi motelak; horra edaritegi haretako gaiak. Gizarte jatorra zan, eta emakumerik bakar bat bere han agiri ez zan arren, hitza ta pitza, autua ta barriketea, eztula ta barbaroa ez zan falta. Gizonezkoen iturri-aldea!!...

Batzu batzuek arpegi alaiez, barre zabalak egiten zituen. Barre egitekoa zan-ta!... Olarratzen aldekoa izan ezik, jakina.

Beste batzuek betozkoz egozan, betondo ilunez. Honeen artean, Mordobiko bera. Eta arda baltza ontzitzuetan banandu ala,

¹ *berperten*: ber-bertan, bertantxe.

edalea eurentarra baldin bazan, txiriboginaren ahotik entzun eik-
kean zaldun jaunaren oilategian egindako sarraskia ta triskan-
tzea.

—... eta oilorik gehienak, guztiak ez esatearren, gogortuta
topau ditu Damas ortulauak.

—Nok hil ete ditu, ba?

—Nok hil!... Eden zitalak, berenuak.

—Eta zelan ba?

—Zelan? Gauaz sartu dira ortuan, gauaz; eta oiloentzako jate-
koa utzi, baina jateko pozoitsua, *lupua*¹ bera bere, hilteko modu-
koa.

—Eta ba ete dago gaizkinen lorratzik?

—Batek ba bakil! Eskuak, zuriak erabili ei ditue. Aztarren eta
markak itxi ditue atean, urun zuriaren *lorratzak*².

—Ba, orduan, gauaz eta urun zuria eskuetan... okinak izan
izango ziran.

—Ez dakit nik. Eta ganerako, ba dakizu zer? urun zuria ez
dana bere, utzi dabe han, etxetxu garbiaren erdi erdian.

—Zer, gero?

—Zeeer? Mokordo baltz haundia.

—Ja, ja, ja, ja!... Gizarajoak, estutasuna bere erabili dau, horre-
tara ezkeru.

—Estutasuna emongo neuskio nik, esku artean ba neuka...!

—Zuri zer deutsu, ba?

—Niri zer? Niri neuri... ezer bere ez. Ta, ezta Olarratz jaunari
bere oilo batzuk gorabehera. Egitadea da; egitada *doilorra*³. Ma-
kurkeria horrek, ostera, ez dau ezer lortuko. Hauteskundeak,
geuk irabaziko ditugu.

—Hori esan ba.

—Eta hori egin dabenak bere, laster harrapauko ditu Leta-
mendiren zigorrak.

¹ *lupua*: «escorpión», «alacrán» (Lekettio, Markina eta Gernikan konparakete-
tan erabili ohi dan hitza dogu).

² *lorratz*: arrasto, aztarna.

³ *doilor*: maltzur, zital.

—Zenbat lagun izan dira ba?

—...

Gehiago entzuteko gogorik ez betarik ez eban izan Nikanorrek. Handik bizkor urten eta etxeratu zan, auzoko emakumeak aparria emoten ete eutsan. Hurrengo domekan izango ziran hau-teskundeak.

Asteari luze eretxirik egoan Nikanor. Herritarrak urduri ta bariitsu ebiltzan; honeek honen alde; besteak haren alde, eta garaitikoak, betiko neutralak, irabazi egianarenganatz *zanbulu egiteko*¹ gertu, garaitzailearen burdian sartzeko *irrikitzen*², esan ohi danez.

Ama, bere geisoaren bederatzi egun halabeharrekoak iragan arte, ez egoan ez aurrera, ez atzera. Nikanor ohituten egoan, geroago ta burukoiago, bakartade latzera.

Letamendik eta txinelak, hurian egozan beste ertzainak orobat, egin zituen galde ta azterketak, *arnes*³ maltzurak aurkitu nahirik. Ez eben argitasunik ez oker-esanik ez guzurrik jaso panaderuakandik.

Bere lantegian egoala, sarritan *tripalak*⁴ izaten zituan Nikanorrek, harako txapelokerren bat ala txinelaren gerizarik susmau ez kero.

Adu onekoa izan horretan, nunbait, eta asteko azken egunak txiritxara joiazan. Inok ez eban susmau okerreriaren egilea nor zanik, eta iluntzero egiten zituen batzar, mitin eta hitzaldietan, herrikoak ba eben nahikoa zetan jostatu eta zetan arduratu.

Azken alderantz, dirua bere ibili zan parra-parra, behartsuen gogo bako gogoia erosteko.

Maizterrak eta errenteruak, bakotxaren esan ona lehenengo, ta ohar ta agindu antzekoa geroago, entzun ohi eben ugazaben

¹ *zanbulu egin*: lerratu, alde batetik bestera pasatu.

² *irrikitu*: antsiatu.

³ *arnes*: gaizto, pikaro.

⁴ *tripala*: tripako min

aldetik. Langile ta menpekoak, nagusien eretxia, olajaunen gogoa argiro igarteko, *ereti*¹ izan eben aurrez ta eurrez.

Politena, baserri-auzo batekoa izan zan. Txarri haundi bat hil eben Olarratzen aginduz, ta auzune edo kofradia haretako base-ritarren artean banaduko zituen txarrikiak, euren botuaren truke.

Txarri ederra odol husturik, buzkantzez gora egoala, auzune-ko tabernari zimelaren seme maltzurak, bai bertsu txanbelina asmau bere. Aitak, isilik egon eiteala agindu arren, kantau harek ba-pere lotsa bagarik:

«Txarritxu liberala,
botuaren sari,
gogoa merke saltzen
dabenen janari.
Txarritxu liberala
askoren pozgarri,
amaika tentel ba jauk
aoa zabalik.
Olarratz jaunak zuen
aldean ba jakik...!»

Heldu zan egun burrukaduna. Zauria osatu jakon gehienbat Nikanorri. Ez eukan minik, sendaroan ohi dan azkurea besterik. Ama ikusten joateko gogotan egoan, baina ezin ba egunero *baiduririk*² lortu, eta jai egunean izango eban aukera hori, arratsaldean.

Kaleetan eta baserrietan hara ta hona ebiltzan arduradunak, bitartekoak, hauteskunde-eragileak. Aurreko egunetan, bizartegian ez eban egiten egotaldi luzerik. Ez eban lehenagoko girorik edo zerik igarten. Hareen aldekoa zan arren, ez ekian zer jazoten jakon. Amaren geisoaz baliauten zan, etxera aguroago joateko.

Harako oiloen heriotzeak zeresan handiak sortu zituan jazo-

¹ *ereti*: abagune, aldarte, tertzio.

² *baiduria*: baimen.

barritan; baina geroago, egun *gerakak*¹ izan bere-ta, bertanbehera isildu ziran *esamesak*². Eta hori, mutikoarentzat pozgarri izan arren, beste aldetik, halako mingostasuna edo hutsa sentiduten eban barruan; zera, berak eginiko amarrukeriak alperreko, ta batez bere, ezer ondorenik edo irabazirik bakoak izango ete ziran beretzat.

Bai. Ubaldo ta honen ezpalekoak, Lustreputx eta jarraitzaileak berari, Nikanorri, isilean eginiko azpilanaren sari ez ezaugarririk ezer emoten ez-ta, hareekaz aspertuten hasita lez egoan.

Izan bere, nok aintzat hartuko eban hamasei urteko mutiko bat ezetarako? Horraitio, zapatu arratsaldean esan eutsoen, boto-paperak zabaltzen eta emoten ibili gura ebanentz, domekan kaletan.

Ez jakon komeni, ostera, bizizalea zanez guztien aurrean buru agertzen ibilterik. Gauzak, argi barik, geroago ta lausoago ikusten zituan. Eta paperok bananduten ibilteko ardurarik ez eban leporatu. «Bolillak» sartzen ibilteko, barriz, gazteegia zala esan eutsoen. Lustreputxek, bere kabuz, emon eikion eskupeko dezentea, hauteskundeetan garai urten ezkerroan, baina...

Botu-etxe batzuetan izan ziran errieta ta eztabaidak. Ziriak sartu zituen galanto, zuzenak eta artezak, balzak eta zuriak; han, kristalezko lapikoak esango eben... egia, arratsaldeko lauretatik gora.

Arteetan, mahaiko egozanak, eguerdian, hantxe, leiarrezko ontzien aurrean bertan egin eben bazkaria. Horregaitik, egun horretan, gosekil batzuek sekulako *buzkantzaldi*³ egin eben, eta zati baterako gosea arindu. Buruan zer pentsau haundirik ez eben izango, baina zilbotai betekadarik gozoena eskeini bai.

Letamendi ta, baterik bestera urduri ta artega ebiltzan. Tutulureneco dendan, atzeko atetik sartu-urtena ba ebilen, atsoak arima fielen egunean elizan ohi daben antzera.

Arratsaldeko hiru ta erdietan, Latseta aldeko botu-etxean, ma-

¹ *geraka*: geldi, bare.

² *esames*: esan, esateko.

³ *buzkantzaldi*: betekada, tripakada.

haikoak erdi zerbeldurik¹ egozanean, norbaitek kristal-murkua makila bategaz jo ta hausiaz batera, kandidatura-mordoa sakabatu eban, barruan egozanakaz nahaste jarririk. Hango erabateko zaparradea!... Protestak eta jardespenak egin zituen, arrapaladan heldu ziran ahalmendunak².

Dorregarairen inguru batu ziran honen asmoetakoak eta ba-kotxaren komenentziako jarraitzaile ez hain zintzoak. Lehendabiziko lanak, beste alderdikoak baino hobeto egin ei zituen eurak. Baina, arratsalde urduri haretan, handik eta hemendik jasoten zituen zertzelada ta zehetasunak, ostera, Olarratzen aldeko usaina ezarten eutsoen burrukeari.

Tutulureneko dendatik urteten ebenak, halan beharrez, arpegiak argi, buruak gora, harrokeriazko barreak egiten zituen.

Ta horixe susmauten ziharduan Nikanorrek.

—Galdu egin ete joek ba, neuk paper guztiak eskura emonda gero? Olarratz okitu³ horren kaltean, eta ez neure onean, egin nebana egin arren?

Halako batean, Tutuluk berak, kalera urten, eta bota zituan gorantz suziri batzuk, pla-pla!... pla-pla!

Ez egoan norarik. Eurak irabazi eben.

Etxabelar maisua gertau zan hantxe, kalean, norbaitegaz autuan, eta Nikanorrek entzun eutsan bere maisu izanikoari:

—Barrero bere, irabazi jok diru zikinak.

Eta bestearen erantzuna:

—Diru, ez diru, goian dagoana erastea, inoiz bere ez dok izan lan erreza.

Nikanor, Tutuluren dendarantz hurreratu zan, eta egundoko erdeinuz ta isekaz, txistua jaurti eutsan kristal haundiari.

Egun izentauak ez eban, beraz, ezer gorabehera barririk hurira ekarri. Nikanorren azpilanak, ez eban nahi zan ainako emoirik burutu.

¹ zerbeldu: edariaz berotu.

² ahalmendun: ahalmen dauana; «apoderado».

³ okitu: asazkatu, bete.

Alperreko lana egin, barruan bildurraren kezkea sortu. Horra, *obari*¹ bagako neke ta ahalegina.

Eta herrian, barriro Olarratz jauntxu; Letamendi alkate, eta abar, eta abar.

Ta ganera, Dorregarai santu-jalearen alabarik zaharrena, Letamendi alargunagaz ezkontzen ete zaneko zurrumurrua. Eta Olarratz bera, eta Ubaldoren arreba ezkongea...

Nikanor itoten hasi zan bere egoterrian. Gogaita, iguina, asper-usaina susmaten eban baztarretan. Ez gehiago ordurarteko notinak soilik. Ez gehiago zer bardin ta jazoera gogaikarririk.

Porru-landarak saltzen etorri ohi zan gizonagaz, haren *tilburian*² herritik urrunduteko gogoa emon eutsan *zanak*³.

Baina, ez. Inor lekuko eukiteari nazkagarri eretxi eutsan. Amari laztan gozo bat egin, eta haren ahizta batengana edo, erbestera, ama makal *egokean*⁴ bitartean, izekoarenera joango zala jakin erazo eutsan. Osatu zedila polito polito, eta... idatziko eutsala.

Arrats berandu batean, bizikleta zahar bat hartu nahi ostu; haren aulkixuan barruko jantzi aldagarri bat —eukan bakarra— lotu, eta soltau zan, auzoari ez besteri txistik esan barik, inortxuri agurrik egiteke.

Han joian, joan, mundu zabaleko haize osasuntsuagoen pozean.

Aldapan gora, bideko okerrune batetik begiztau eban azkenengoz —maitetasuna eta erabagi zehatza burruka gorrian zituela— bere egoterri aspaldikoa.

Begiak lausotu jakozan eta arnasea bakandu, mehaztu. Malakoak ez urtengo, bai urtengo, nabari izan zituan. Baina negar-anpuluak urten orduko, hurrengo aldatz beheran eroian abiadeaz, haize gogorrek errukizko esku legunez legortu eutsazan.

Zerbait ikasia zan, artean, hamasei urteko mutila. Alde bitariko

¹ *obari*: irabazi, etekin.

² *tilburi*: gurbil biko zaldi-burdia.

³ *zanak emon*: «dar la vena».

⁴ *egokean*: egon eitekean.

lagunak ezagutu zituala uste eban, eta ez egoan, arean, alde
haundirik batzuekandik besteengana.

Baina eskualde guztiak ez ziran, ausaz, bardinak izango.

Ta birlora baten *uzian*¹ ba joian, joan, galdu-gordeko ibile-
retan jarria, Nikanor, herri batetik bestera.

¹ uzi: irrika, asmo.

BIGARREN ZATIA



I

Txikitan, dirurik ez eukenetan, mutikoak arpegi ala gurutze egitearen orde, harri koskor bat hartu, zapal samarra, eta txu eginaz, ahoko txistuaz hezotuaz, «*iruntz ala legor*»¹ esan ohi ebela, gogoan darabil Nikanorrek, eta beretzat oraingoan, beharbada, «*legor*» urten ete dauan-eta dago.

Baiña ez dau atzera egiteko erabagirik zertuko. Gaua, osoro baltz bihurtu baino lehen, helduko al da lehenengo dagoan herrixura. Zeruetao dirdai urdin zidarrezkoak isilik dihardue keinuka.

Ostatu iski batean eskatu dau gauerako tokia. Halako ohe zuririk ez dau mutilak aspaldi luzean ikusi. Hormetan dagozan irudiak ez deutsoe ezer adierazoten. Bizikletea, logelaraino jaso dau; etxe kaskarraren lehenengo bizitzan datza. Leiho txiker bat kanporantz, kristalak arrakalaz beterik, eta paper horituak adabaki antzean ezarriak. Aulki single bat, eta komada zaharra, bazterrean. Kandela argia, eskuan eroiana, gau-mahai kolorga baten ganean ipini dau.

Oinetakoak kendu, soin-ganekoak erantzi eta sartu da ohera. Oharkeak grakada ozena egin dau, mutilak pisu haundirik izan ez arren. Putz egin eta iraungi dau kandela-argia.

Ilunak esegi ditu bere oihalak inguruko hormetan. Lehenengoan, Nikanorrek, ba darabil zirkinik nahikoa, jira batera, ta bira bestera. *Lastai*² haren biguntasuna larregizkoa da harentzat,

¹ «*iruntz ala legor*»: «cara o cruz».

² *Lastai*: koltxoi.

*ohi eza*¹, bere etxeoaz *osteangoa*². Garbi-usaina daukie izarak, eta hango haize-aroi arrotza ta bestelakoa deritxa. Amaren gomutea jatorko burura.

Halakoren batean, loak hartu dau.

Bere bizitzan lehenengo aldiz, ez ezagun ta ez senide diranen teilatupean datza, gaueko atsedean legea bete nahirik.

Eguna zabaldu danean, argi zirrinta motel eta hitsak sartu dira haren gelaraino, leiho kaskarretik. Txorien kanta goiztarrak entzun ditu, eta jagiteko nagirik inoiz izan ez dauanez, jagi da.

Lehiora da, ta zero aldera begiratzen dau. Ozkarbi dago, goietan hodei ilaun zirin batzuk baino ez dira agiri.

Aurrera jarraitu behar dau, ez atzera. Atzerantz begira dagoana galduta dago. Ez sarerik *heda*³, usoak aldegin ostean.

Jatsi da gelatik ardanegi aretoraino. Han dihardu etxekandreak sua isiotuteko gertakizunak egiten. Kafesnea edango ete leuke mutilak? Bai, ba; ogi zati bat jan dau eta beste zatia, *zehetu*⁴ ta katiluratu dau. Kafesne mehe ta baltza edan dau. Amak, behar bada, ez deutso kafe lodirik inoiz emon izango, baina esne zuri gizenagoa bai.

Zenbat ete dan galdetu dauanean, *konkortuta*⁵ geratu da mutila. Aldean diru-mordoa eukalakoan-eta, andra harek eskatu deutsona emon ondoren, sakela errime zimeldu dala konturatu da.

Ordaindu ostean, ahotik urten deutso, urten bere:

—Lapur txarria!...

Ekin deutso bere bideari, «zoroburdia»-ren ganean. Hego-hai-ze zorangea dabil eta bideko hautsa edertotxu astinduten dau. Mutilari aho-begietara jatorkoz haize parrastadak ezezik, baita harri kiskirriak bere. Beroak zigortuko ditu lur-azal, zugatz, abere ta kristinauak, batez bere bidaztiak. Nekea ta egarria ditu lagun bere bakartadean.

¹ *ohi eza*: ohitura eza.

² *osteango*: alderantzizko, desbardin.

³ *heda*: heda(tu), zabaldu.

⁴ *zehetu*: txikitu; harritu.

⁵ *konkortu*: okertu, bihurtu.

Joan doala, bidetik hurre hurre, *osin*¹ zabal bat ikusi dau. Geratu da, ta lurrean etzun, zelaitxuan, atsedean apurra eginaz. Osin berde haren azaleko bakeak damua, *bekatxa*² emoten deutso, ta harritxuak harturik, uretara jaurtiten ditu. *Urmaelean*³ *ozkak*⁴ sortu, ta haundituaz ta zabalduaz doaz. Zeruko argi nagusiaren izpiak dirdiraka dabiltz osin haretan, eta zapaburuak, *birinboluak*⁵ egundoko arrapaladak *dagiez*⁶. Ez dago bide harritsuan toki hoberik aintzira ondoan baino. Han egonak, ostera, ez dakartso Nikanorri onurarik.

—Han al dabil honezkero herrian gure ugazaba, Lustreputz gaztea, nire galdez? Leku onean dago! Eta bizikleta zahar hau falta jakona, susmauko ete dau? Harek beribila ekarri eianean, txoper ibilteko nintzan ni. Bail ez dakit noiz...

Bakarrizketa labur hau amaitu, osin alboko egoera atsegingarria urratu, ta han doa barriren barri bere bidean. Orduak aurrera doaz, eta urdaila gurgur hasi jako. Hutsaren ezaugarria... ta aldean, eskuarte eskas.

Basetxe zuriak ikusten ditu han hor hemen. Lur landuak, zelai eta motak, larrak, basoak... Han, urrunago, etxe mordoa lakoa. Gero ta etxe gehiago. Herri nahikoa hasia dirudi. Hantxe zerbait eskatuko dau, dituan azken-txanponen orde.

Herri haretan sartu da. Etxe zahar eta barriak, haundi ta txiakiak; kale estuak ugari samar.

*Txiologa*⁷ bat hemen berton, lau kaleen kantoian. Sartu da, bizikletea kanpoan, horma-kontran ipinirik.

Salda apur bat eta ogia ta gaztaia jan ditu. Ura zanga-zanga edan dau, eta dagoan lekuan bertan, beso ta ukondoak ezarri, mahaia euskarrizat dabela, burua ezkerralderantz besaganean

¹ *osin*: putzu.

² *bekatx*: bekaitz, inbiri.

³ *Urmael*: osin, putzu; «estranque».

⁴ *ozka*: onda; «ondulación».

⁵ *birinbolu*: zapaburu.

⁶ *dagiez*: egiten ditue.

⁷ *Txiologa*: taberna.

etzun, eta lo sumatxua egin dau. Nekez dagoalako, ala loaren loaz buruaustea ta *durduzia*¹ uxatutearren?

Baina handik lasterrera, bere aulkitik jagi, zorra garbitu, ta ba doa kanporantz.

Begira batera, begitu bestera, utzi dauan tokian ez ingurumarian ez da agiri zoroburdia. Tabernariari agertzen deutso bere sumin eta haserrea. Ezer al dakie, ostera, txiriboginak kanpoaldekorik, baldin mahiaren bat edo, han euki ezik?

Lapur gehiago munduan. Pobreaki bere, ostu egiten deutsoe... Txirrinbiko gaisoa, hainbeste urtetan eskuz esku ibili ondoren, zaharkildua ta ugerrez betea egon arren, azkenengo jabeagandik indarrez banandua!...

Esakune gogorak mindu deutsoz belarriko mintz eta zuloa: «Lapurri, lapur ta erdi...».

Alperreko berbak, alperreko erantzunak, alperreko begiradak. Txirrinbikoa garbitu deutsoe, ta han ez da agiri ez lapurrik, ez inungo bizikleta aztarrenik bere; ez lehengorik ez besterik.

Zer egingo? Aurrera egin behar. Huri haundian izango ditu dirututeko aukera ta eretiak.

Oinez egin beharko handik aurrerakoa.

Bidazti bakarra ez da orain, horraitino. Txorrotzaile bategaz tope egin dau. Ibiltaldia joera bardinean dabe, oraingo. Gizon sa-soikoa da, bibote luzea, hankak luzeago. Alkarregaz doaz, bakar-tadea hausteko.

Goietan, hodei biribilak gero ta lodiago, trumon-buruak. Euri-usaina susmau dau zorrotzaileak. Hurrengo baserriko elizaldera heldu gura dau. Mutilak ez daukaz txakurrandi batzuk baino. Hori entzunik, bide-lagunak artez dinotso Nikanorri:

—Hemengo edozein basetxetan utziko deutsue *sabai*² lo egiten.

Mutilari begiak poztu jakoz, eta haren esana egingo dau. Alkari agur egin orduko, zorrotzaileak bai esan bere:

¹ *durduzia*: «vértigo».

² *sabai*: lastategi, mandio, ganlara.

—Nora zoazan eta zetan jardungo dozun jakiteke, aldegin al dozu zeure herritik?

Horrelantxe da, arean.

Iluntzea da, ta bide zabal idorraren hurrean dagoan basetxe batera jo dau, ta gaberako ostatua eskatu.

Baserri-jentea, gehienez baketsua, sarritan goganbehartsu ta errezeluz betea, sabaiko galtzu bedartzea eskeintzeko gertu agertu jako. Ez hori bakarrik. Itxura txarrekoa ez eritxi-ta, afari iskia bere izango dauala, ba, baldin nahi baleu. Ez nahi izan, egun osoan *jan-zahar*¹ ta nekaturik egonik? Zer da, ba, hamasei urteko mutilarentzat egun osoan urdaileratu dauana, janurritasuna ezik?

Suete zabalean, petroliu-argia dago isioturik, suburuaren koska ganean. Mahai luzangearen inguru batu dira etxeakoak. Amama zaharra, etxeke jauna, emaztea, seme bi ta hiru alaba. Emakumeak heldu jakoz lehenengo mutilari bere ondora, ta begira daukaz. Etxekandreak zumitzezko jesarlekua eskeini deutso. Eta itauneak bere, egingo deutsoez egin, amak eta amamak. Neskati-lak barre egiten dabe, mutilaren berbaldi bakotxean. Ezin ulertu dabe baserritarrak, etxetik igesi doanaren esana. Nora doala? Zetan? Eta norengana? Arlotekuntzeari ez deritxoe hareek ondo, nunbait.

Gizonezkoak, *abelgorriari*² eguneko azken janaria emoten dihardue. Besada bedar gizena, asto ganean ekarribarria. *Murrusak*³ makaltzen doaz eta isilduko dira laster.

Arto-sopea izan da han mahai txaparroan erdi-erdian ipini dabena, morko zabal eta tunturrean. Mutilari katilukadea eskeini deutsoe. Bai gozaro ta aguro barruna bere!

Morrore geratu nahi izango ete leukean galdetzen deutsoe. Neskatoak begi-begira daukaz ostera bere. Mutilak ezetz, herri haundirako asmoak dituala, han dirua errezago irabazten ei dalata.

Amamak, bere atsotitza aitatu bage, ezin itxi ba: «Han bere,

¹ *jan-zahar*: jan barik luzero egon dana.

² *abelgorri*: ganadu.

³ *Murrusa*: behiek eta idiek egiten daben hotsa.

txakurrak ortozik». Bai baina, baserrian ez dagoan askatasuna han herri haundian...

Afal-ostean, Andra Mariari otoi luzea opatu deutsoe baserritarak, astiro ta neurribaga.

Sabaiko ateraino lagundu deutso etxeko mutil nagusiak, eta zerbait adierazo deutso. Zera, sabaian beste ostatari bat izango dauala lagun. Eskeko agure bat, bizar-zikin, ule-luze, ugerdo-koi-patsu bat, *txitean pitean*¹ hara heltzen jakena.

Lo gozoan dago ordurako sabaiko laguna, eskale zaharra. Mutila sabaian bere tegian etzun dan arte, eskilaretan euki dau etxekoak esku-argia. Jakina! Ez dago sabaian surik erabilterik, farol egoki sarratua izan ezik. Harrezkero, ilun dago, ilun eta isil. Agura eskaleak egiten dituan zurrustadak bakarrik entzungarri.

Bigarren gaua, etxetik aldeginik. Zenbat aldakuntza ordu laburretan! Eta geroago ta urrunago, eta geroago ta txiroago. Goian zerua, behean lurra... Inguruko barriak egunero; arpegiz ezagutu, eurekaz berba egin labur zurrean, eta...

Loak hartu dau Nikanor ohe neurribage ta itxurabako haretan. Ez buruko ez *lastamarraga*², ez izara ez oharka, dana bardina.

Askatasun zelai ederretan bizi da, amesetan. Eguzkiaren epe-lak gozaten eta berotzen deutsoz gorputzeko atalak, samea, lepondoa...

Itzartu da. *Iduna*³ eskuaz igurtzi, ta gauza bigunak, labanak aurkitu ditu, kili-kili edo egiten deutsoenak. *Algotzak*⁴ ete? Bai zera! Agurearen emoiak, esku-erakutsiak dira: zorriak ditu hatzamar artean, eskekoak aldean dituan maizterretarik batzuk, zorri gizenduak, zorri mardoak. Aspaldian ahazturik izan dituan zorriak...

Iguinez lehertu ditu hatzapar artean.

Agura urdea, halakoa!

Askatasunezko txakur-amesak: buztarri guztien igesi, jaun-txuengandik urrun... eskuarte bage, ondasunez eskas, etorkizuna murriz, eta zorriak ganera, bizi-laguntzat!

¹ *txitean pitean*: sarritan, askotan.

² *lastamarraga*: etzaleku; «jergón».

³ *Idun*: sama.

⁴ *algotz*: gari-alearen azala, zahi.

Eskalearen jauntasunak ba dauka, arean bere, akatsik eta *lazeriarik*¹ lar.

Ez dau begirik itxi harrezkero, Nikanorrek. Inoiz ba zituan etxakide ta barruko, zorri zuri-baltzak, baina aspaldian hori baino garbitasun haundiagoz bizi izan da.

Egun barriak dakarren argitasun apurra igarri dauaneko, ger-tu ta urduri dago jagiteko. Etxeko gizonezkoak, behiai esnea eras-teko zereginetan hasi dira. Han doa Nikanor sabaiko aterantz, agura ugerdoari birao bat botauaz.

Etxekoai eskerrak emoten dihardu, eta ba doala.

—Ohea gogorregia al egoan?

—Sabaia ez dago gogorra, baina agura horren zorriak, bigu-negiak, nire odolak ase daizan.

Egun barria dauka aurkez aurke. Bart euria egin dau, ta bidea bustita dago. Basetxetik aldeginaz batera, lokatza ta basea ugari. Harbidean abarketak busti jakoz, ta guztiz bizarturik daukaz. Ibili ta ibili, oinab egostu jakoz, eta oinpeetan *urbatuak*² ditu, maskui-luak. Aspaldian ohitu bageko ibiltaunari ohi jakona.

Arpegian ohi ez lako berotasuna susmauten dau. Sukarra ete? Lau eguneko bizarra, bai. Ta erreteko gogoa bere, zorroztu-rik. Nun aurkituko tabaku-orririk?

Hurrengo dagoan herritxuan geldituko da. Baserritar batzuk ikusten ditu herrirantz, jaieguneko jantzita. Izan bere! Domekea da-ta...

Sabelean, gose-egarria. *Zarpan*³, zuloa ba leu hainbat: *lauzuri-ko*⁴, *lamarikorik*⁵ ez. Hartu ala eskatu, zein burubideri amore emon?

Zegaitik eskean jardun ez, eske dezentean? Sarri entzunik eukan bere amari, baserriko alabea zan-ta: «Etxe errearen eskea».

¹ *lazeria*: miseri, urritasun.

² *urbatu*: maskuilu; «ampolla».

³ *Zarpa*: patrikera, sakela.

⁴ *lauzuriko*: aintzinako moneda («maravedis» bi).

⁵ *lamariko*: aintzinako moneda (lau «maravedis»).

Helburu horrezaz, ta zoritxarraren menpe, ba da ohiturea basetxe-koak herririk herri ta baserriz baserri ibilteko; lepoganeraturiko ez-beharrak zelanbait arinduteko, sorosi¹ ta laguntza bila ibiltea.

Horixe esanik, ez eben euskaldunak begi makurrez ikusiko, ausaz. Ta eskabide hori, ez da inoiz izan lotsagarri.

Etxerik etxe ibiliko da; ateta batetik urten, hurrengoan sartu. Kalerik luzeenean dihardu horixe egiten. Ate askotan oles egin. Batzuek, ukarra emongo deutsoe; beste askok, uka, «Jaungoikoa lagun» esan, eta atea itxi. Eskale larregi ezagutzen dituan herria ez ete da?

Bazkaritarako lain eta gehiago bere, eskebatu dau. Jai arratsaldetan ibiltzen al da eskalerik?

Jatetxe zurkulu batera sartu da eskeko gaztea. Zokondo batean jesarri da ta lapikokoa eskatu dau. Laster daroatso neska luze batek. Mutilaren jateko gogoa! Arduaua bere, eskatu dau. Emakume batzuk sartu dira, ostera, ardandegian eta mutil eskalea ikusi dabe ta baita ezagutu bere, eskale lez.

—Eskean dabil, eta arduaua bere edan gura al dau?

—Batu egingo eban, eta, inoren diruz...

Hauxe dok ederra! Gose-egarri danak, ez ete jok jan behar eta edan behar?

¹ sorosi: «socorro».



II

Ez dauka urrun huri nagusia. Baserriren batean lo egin lei, dituan txanpon urriai iraun eragitearren. Lapikoko gozoa ta edaniko ardaa ordaindu ostean, ogi zati haundi bat eta gaztai apurra erosi ditu tabernan bertan. Horra hor mutil arlotekumearen afari gartxua.

Aterpea nunbaiten idoroko al dau. Arrasti erdian, bideak aurrera doalarik, herriko plaza txikerrean, tanbolin-soinua *dantzuz*¹. Bere herrian lez, gazteak dantzan egingo dabe; neska-mutilak alkarren ederra egin gurarik ibiliko dira, alai ta zoranga, gaue-rako aterpearen ardurarik eta kezkarik bage. Eta Nikanor, barriz...

Tuntunaren doinuak belarrietarantz dakartso kopla zaharra:

«Andra Maria, ave!
Txakurrak jan bear nabe.
Goiazan beste errira;
an bere, txakurrak dira...».

Mundua zabal samarra da, aukeran. Baina gizonaren ahalmena motxa, sarri askotan.

Begien aurrean, lau bide dakusaz Nikanorrek. Eskean ibili? Lapurretan jardun? Lanean nunbait hasi? Ala... herrira bihurtu, gehiago aurrerantz ekiteke?

Bide ertzean, zelai txiker batean, zalpurdi bi agiri dira; ijito-semeen etxe ibiltariak. Eurei loturik, txakur mardo bana. Zaldiak,

¹ *dantzu*: entzuten dau.

han hor bedarra jaten. *Motzailak*¹, gizonak lo. Emakumeak, lurrean jesarrita, erdian sua dabela; *anpor*² zatiak, mukur estuak, *arbasta*³ eta zabar erdi igarrak. Bai dantzan, bai birinbolaka, umeteri zikina; batzuk gona luzez jantziak; mutiko bat edo beste, narru gorrian.

Askatasun osoko gizasemeak, lege ta antzeko bageak, herririk bakoak, alkaterik ezagutu ez dabenak, jauntxurik jasan ezinekoak. Eureka ndik ez hurre, ez urrun, geratu da Nikanor.

Eguzkiak alde dau mendi osteetara, ta arrats-behera betean haize makala dabil orriak gozaro astinduten. Emakume baltzeran hareek jateko zerbait prestauten dihardue. Nikanorrek begiratzen deutse ta hareen bizimoduaz egin nahi ditu gogoeta labur batzuk.

Gero, aurrerantz doa, eta aldean daukazan ogi-zatia eta gaztai apurra —katuaren mihina lako—, iruntsiko ditu, gosearen aringarri.

Alde batera ta bestera begira, gabeko lauso ilunak artean ikusgarri dana, bere menpean ezereztu orduko, harezti baten barrualdean teilatua dirudiana ikusi dau. Bide nagusitik aldegin, eta bedar ta basarteko zidorrean behera, heldu da bertaraino. Txabola bat da, erdi hutsik dagoana; alde batean lur gorria, bestean, ira piloa dago. Errentarik ez ostaturik ordaindu behar izan ezik, nun beste horrelako habiarik aurkitu, gau epel baterako?

Teilatu arinetik, atetik, hormako zirrikituetatik agertu jakoz mutilari egun barriaren argi-izpiak. Jagi eta hazur nekatuak zerbait atsedean egin dauala adierazoten deutsoe, ta nagiak utziaz, bide nagusiratu da. Han zehar joan doan baseritar bateri galdetu deutso, herri haundira heltzeko zenbat bide daukan oraindino.

Laster egingo ditu azkenengo hamarrek.

Beribilak, geroago ta gehiago susmauten ditu haruntz eta honuntz. Batez bere, honunzkoak. Bai; nunbait bere, hurre samar dago, honezkero huri nagusia. Aguro dabiltz Nikanorren iztarrak eta oinak. Burua erabili dau inoiz arinago, baina orain behineon,

¹ *Motzaila*: ijitu: «trasquilador».

² *anpor*: enbor.

³ *arbasta*: egur-zatiak.

ez daki jakin, han zer aurkituko dauan... eta egia esan, zetarako gehiago pentsau?

Ibileran hasten danak, ez deutso geroari lar begiratu behar. Ibiltarunak edo ibiltariak, bere oinetan daroa ibilpidea. Ez deutso txoriak zor bere igipena lurrari, bere hegoai baino. Ahal dan artean, hegan ba!

* * *

Mendiska batzuen ostean, etxeak banaka lez agertzen jakoz. Gero, tximini luzeak eta, keiaren agiri ugariak dagoz haizetan. Olak, lantegiak, olabeak, trenen arnasa baltzak...

Horixe da huri haundia. Zinean ta, ikusia. Irakurritako liburu eskasetan ezagutua.

Hurreratu da, eta bideak ugariago dagoz. Beribilentzat, burdientzat; trenentzako lerrobiko burdinari luzeak, erroak lurrean erdi sartuak, zeharka saihets amaitu ezinak bailiran.

Etxeak, banandurik lehenengo, bide ondoetan. Gero, etxadi moltzoak, kale luzeak nunbait. Hartziko basoa dirudian horren inguru batean, ibai nahikoa urtsua doa. Ibaiaren beste aldetik agiri dira etxe zapalagoak, zabalagoak, baltzagoak behar bada. Batzuek ba ditue harako tximini luze lerdanak.

Ibai horrek poza damotso mutilari, txikitxu zanean arrankaritan eta, ezkailutan eta, sarri ibilia dalako, baserrian bizi izan zanean.

Heldu da lehenengo etxe-erreskadea hasten dan tokiraino. Bidez beste aldetik, mendi motza dago, eta bizilekuentzat toki *medarra*¹ danez, han ez dago etxerik, sail luzean. Bide zabalari deusola arpegi bat az eta beste arpegia bideska bateri begira, muturreko etxea bailitzan, bere jarraian oholezko hesi luzea daukan etxe txapar bat dago. Oholezko horma horren atzean, barruan, ganezka agiri dira burdinak eta txatarrak. Hesiaren erdi aldean, ate bikotxa edegita dago. Haraxe begira jarri da Nikanor.

¹ *medar*: mehar, estu.

Gizon gizen asko ez dauana, puzka, saka horri ta tira honi dabil han lanean, burdinak txatarra zikinagoetarik banantzen. Izerditan, *arterik hartu*¹ ezinik, *lerrenak egiten*². Arpegia ez dau bapere polita, begi haundiak ditu, gautxoriaren antzera, talo palea lako arpegi biribilean. Kaiskoan, uleentzako toki galanta bai, baina arean hutsik, *burumuri*³.

Haren ahaleginak eta purrustadak geldi daukie Nikanor, begira. Gizon langilea dirudi, zuhurra ta begiratua. Lana eskatuko ete deutso? Zegaitik ez ba?

Ikusi ditu egun laburren buruan beharrizana, bakartadea, gose ta egarria, zikina, eskaleak, ijitoak, askatasuna...

—A gizon, nahi al dozu lagun daizudan?

—E?... Nor zaitut? Eskalea, bizar zakar horregaz. Ala lapurra, ala alperra. Hirurok bardin antzekoak dira-ta.

—Ez, jauna. Umezurtza naz. Aitarik ez daukat, eta ama, geisotegian dago; makalik, eta ez ondo bere. Ez naz hemengoa. Urru-netik nator, lau eguneko bidean gitxienez.

—Eta, zer gura zenduke?

Oinez ta oinez nabil. Gose naz ta ez daukat nun gelditu.

—Txarriaren bizimodua nahi al dozu?

—Lan egingo neuke.

—Inoiz egin al dozu?

—Bai.

—Zer egiten zenduan, ba?

—Egunerokoak saldu, eta txiringutsak garbitu eta konpondu. Baraurik nago, ostera.

—Tira! Jantruke geratu nahi baldin badozu...

—Noraezean eta ezinbestean, ondo dago.

Barruti horri deutsola dagoan etxean bizi da, dirudianez, gizon txatarra jabe hau. Hotsegin dau, zintzilik daukan burdina bat, beste troko bategaz jota. Kanpaia dau horixe, ausaz, norbaiti dei egi-

¹ *arteak hartu*: egoerara egokitu.

² *lerrenak egin*: gogo ahalegindu.

³ *burumuri*: burusoil.

teko, obretan langileak eguneko hasi-amaitu aldiak adierazoteko ohi dabenaren antzera.

Andra loditona bat agertu da, goialdean, leihoan. Haren ondoan, katu baltz bat, buztana tente.

—Mamer! Jatsi eizu ogi-kopau bat mutil honentzat, eta bart gelditu ziran sardina bi.

—Nor dozu ba, hori?

—*Alogerekoa*¹.

Berehalakoan, otzaratxu bat eskegi dau soka mehe batetik, andra katudunak. Gizonak, otzara-estalkia jaso, ta ogi-zatia emon deutso mutilari. Barruan daukaz sardina mardo bi. Ugazabak, jaki bardina dauka eskuetan.

Mukit baten ganean jesarri da zaharra eta hasi da jaten. Mutilak, beste hainbeste egin dau. Gosez dagoanak, gozo deritxa edo-zeri.

Ekin deutso gero, mutilaren laguntasunaz, burdina ugertu eta ez ugertuak bananduten, eta luzera bardin samarrekoak alde baten ipinten lurrean. Ezker-eskoitara, olabe bi ditu. Horrezaz gane-
ra, etxearen azpi-tokiak bere, bere tegizat daukaz. Alde batean, baskula haundi bat dago, erdi erdian. Hementxe egingo ditue pi-xau burdinak, txatarrak, *loroak*². Beste gorapean, karru luzea ta beste txikerrago bat dagoz.

Gizonak, arpegian eta hitzez agertu ez arren, pozarren hartu dauala dirudi, gaztearen laguntasuna. Erdi bete dabe burdia. Orduan ba dirautso Nikanorri:

—Hor, alde horretan dago zaldi bat lotuta. Gorristea da, ta atzeko iztarrean *izpil*³ zuriak ditu. Ekarri eidazu.

Hantxe egon da egon bere, zaldia. Burdiari lotzeko, sartu deutsoe iduneko narrua, *zildaia*⁴, begietako estalkiak eta *uga*⁵ abar-rak. Burdiaren pertikak zertu deutsoez eta han doaz gizona ta mutila huri haundirantz, euren burdina txatarrak eroateko ustean.

¹ *Alogerako*: lana aldika egiten dauena, emuts; «jornalero».

² *loro*: burdinezko haria.

³ *izpil*: piztietan narruaren koloreko ez diran uneak.

⁴ *zildai*: «estrovvo», «collar».

⁵ *uga*: piztiak lotzeko erabiltzen diran narru atalak; «correa».

Joan-etorria egin ostean, bazkaria emon deutsoe olabe bazte-
rrean, ohol legorrez eraturiko mahai antzekoan. Senar-emazteak
bizi diran harako etxe txikerraren azpi-lekuan dago kortea, zal-
dientzat. Esaniko gorrasteaz ganera, beste zaldi balzagoa bere ba
dago han. Ukuilu horren beste aldean, oholak, kupelak eta lasto
garbiagoak dagoz. Hementxe lo egingo dau mutilak, orain behi-
neon. Emazteak zirikatuta, utzi deutsoz bizarra egiteko tresnak,
txaboe idorra, labain eta ipizki txikia.

Beste bat dirudi gazteak, arpegiko sasi antzerako bizarra ebagi
ostean.

—Ez dirudi morroe txarra —dirautso Mamer andra lodito-
neak bere senarrari.

—Langilea izatea, horixe da nik behar dodan zer bakarra.

Logela baldar haretan egonik, ez dago behintzat etxe bage.
Jan bere egin dau, emakume batek gertauriko jateko ez lar ugaria.

Huri haundiko gauzen barriak bere, txit harriturik jarri dau:
hango aguro ibili-beharra, hango zaratea, hango kale ugari ta lu-
zeak. Lagunak haruntz, lagunak honuntz; zaldi-burdiak, beribilak,
tranbiak, oinezkoak, txirringutsak... Haize, aro, durundu, *iradua*¹.
Horra mundu barria Nikanorrentzat.

Ez dago kale gorrian, eta tira! Lo egingo dau nasai, eta egu-
nak joan, egunak etorri...

Bizimoduak berak erakutsiko deutso biziten.

¹ *iradua*: prisaz ibiltzea.



III

Hurrengo goizean, ugazabak esaniko arazoetan diharduala, handik igaroaz doazan gizonezko bik, mutilari begira egon, eta bat-tak besteari ba dirautso:

—Horra! Gabontza, morroiaren jabe egin dala dirudi.

—Mutil gaztea hartu izango eban horrek, merkeago ibiltear-ren.

Eta horretarik konturatu da Nikanor, morroe gaztea berbera dala, ta «Gabontza» ugazaba izango dalakoa.

Gabontza! Izan bere, ba dirudi nagusiaren arpegiak; musu biritil, begiak bera betekoak, betozkoz edo betilun, irribarrerik egiten bere ez dakiala.

Nikanor, «Gabontza»-ren menpeko morroia! Barruak zarrada haundia egin deutso, ta luzarorako ez dala horko egoerea izango, zin egiten deutso bere buruari.

Halan bere, «Gabontza»-ren emazteak, *maratz*¹ eta *mazala*² emoten dau. Goizean katilukada esnea emon deutso, senarra agertu baino lehen, eta gero ogi-erregutada ederra ta *ikomelau*³ batzuk.

Seme-alabarik ez da etxe honetan izan, eta gizona, bere ondatsunen ardureak darabil gehienbat; inoiz etxe ondoan, sarri han eta hemen, bere zaldiaz, burdiaz ala tilburiaz. «Asto» burdinazkoak jagoten ohitua egon da Nikanor, bere lehengo txirringustegian. Eta orain, zaldi jatorraren zaintzaile bere, izan beharko dau. Gal-

¹ *maratz*: langile, gogatsu.

² *mazal*: zintzo, jator.

³ *ikomelau*: ikopasa.

tzu-piloa dago zaldiaren janari izateko, ta bitartean, mutilaren inaurria lez da, ohe garbiaren ordezkoa.

Etzekandreak, bere bakarraldiak arinduteko lagungarritzat, harako katu baltz lodia izan ohi dau. Egundoko kontuak izaten ditue; hobeto, andreak esan eta katuak entzun, lo ez dagoanean, nunbait bere. Berbaroa susmauten dau sari Nikanorrek etxaldean, eta adi adi jarten baldin bada, betiko jardun luze ta deadarrak bere bai, entzun leiz; katu-jagolearenak hain zuzen.

Eguberdirarte guztian ez da agertu «Gabontza». Halakoren batean, ba dator etorri, bere zalpurditxuan, eta atzekaldean ba dakar bertan, txatarra gehiago bere tegirako; burdina zaharrak, baserritarrai baturiko laia, atxur, golde-zati, uztaiak eta edozer, burdinazkoa edo izan ezkeru. Ugerra ta zikina izan arren, txanpon garbi dizdizariak ekarriko ditu etxalderantz geroago.

Arlo horretan hasi zanean, txabola batean bizi zan, oraintxe dagoan lekuan bertan. Geroago lurralde hori esparru jarri eban, ta berak izerdiaren izerdiz irabaziriko diruz erosi eban lur-zatian bere barrutia sortu, ta apurka apurka hormak jaso eta etxea osoro iragi¹. Ta harrezkeru, ez da langile *lander*² eta emuts behartsua soilik. Ugazaba da, etxe ta lur jabea; emaztearen senar izanik etxe-ko jaun, eta oraindanik, bere morroiaren nagusia.

Apurka ta astiro dirautsaz barruko geiok etzekandre mazalak Nikanorri, katuari hainbeste bidar esanak; eta oraingotuaz mutilari berari beste zerok bere bai: soinean daukanaz bakarrik hara agertu izan dan arren, gizon egiteko aukerea ta eretia, nahi izan ezkeru, edonok izan ohi dituala-ta, lan egiteko nekerik ez daiala inoiz izan.

Nikanor burugina da izan, eta ez da orain behineon, ugazabandreaki ezezka ta zerean ibiliko. Esaten deutson guztia entzun eta hor-konpon, barruan zer pentsauten dauan besteri agertu ez. Aterpea ba dauka, janaria bere bai, eta aurrera, mutilak!

Bere amari bialdu nahi leuskio albistaren bat, eta horretarako

¹ iragi: eraiki, altxatu.

² lander: txiro, pobre.

papera, *axota*¹ eta lumea eskatuko deutoz «Gabontza»-ri. Ta zegaitik, ez ba? Baita zigarrotxu bat edo beste bere. Inoiz erabili izan dau ke ugariago, bedar horri tenga ta tenga eginaz, aspaldion baino.

Kartaginen diharduala, begira dagokio ugazaba, ta mutilak, idazteko bizkortasuna dauala susmau. Baita! Morroiak, lanean ezezik, eskola kontuan bere ba daki. Labur esan, eskolea dauka. Eta «Gabontza» ez da tentela. Bere paperak bete eragingo deutoz, eta horra! *zadorlaria*² izango dau etxean bertan, ta letra ez itsusiaz hatan bere; auzoko inorengana mesede eske joan beharrik bage.

Gaueko orduak aurrera doaz. Amaitu dau karte. Seilua ipinteko dirurik ez dauka mutilak; *eukantxua*³, tabakutan eralgi izan ebalako. Egun latzak pasau ditu oster, hori dala ta ez dala. Hain jako atsegin, ahotik eta sudur-ziloetatik keia gozaro kanporatzea!

Gabontzak, oster, ez dau erreten; ez gero gustauten ez jakolako, dirua alperrean ez *iraztearren*⁴ baino.

Hain errez irabazten al dira ezkur banakak, keia ta besterik ez dan tabakuaren su-garretan ondatuteko?

—Izan bere —dirautso ugazabak—. Amari karte egiteko ez daukazu dirurik, eta erreteko bai, izan dozu oraintsu?

Barre muxina egin deutso mutilak. Emon beio «Gabontza»-k *zorko*⁵ bada bere, geroko irabazkizunetatik.

* * *

Hirugarren gauan, afal-ostean, bere etxazpiko tegira lotara joan baino lehen, huri haundiko kaleetarantz hurreratu da Nikanor.

Hegaletako kaleetan, kanpo aldeetakoetan, ez dau aparteko-

¹ *axota*: tinta.

² *zadorlari*: idazkari.

³ *eukantxua*: eukan apurtxua.

⁴ *irazi*: gastatu, jalgi.

⁵ *zorko*: zorretan, zor.

rik ezer nabari. Etxe banakak; gero, bata bestearen hurrengo, le-
rrokada luzeetan. Dendak itxiak, edaritegi ta ardandegiak soil soi-
lik edegita. Eurotan, langile itxurako lagun ugari samar, inoiz; eta
beste batzuetan, erdi hutsik, txiribogina nor sartuko danaren begi-
ra, daukana eskeintzeko gertu.

Huriaren barruko alderantz joan da gero. Eta barruragotu ala,
beste bizitasun eta joan-etorria susmau daroa Nikanorrek. Ha-
runtz-honuntz, ibili dabiltz tranbiak, euren errailetan zehar, karras-
kada latzak eta errebideetan intziri zoliagoak eginaz. Noizean be-
hin, glan, glan! joten ditue kanpai nagiak.

Kale nagusietan argi ugariago dago, besteetan baino. Letra
haundiak agiri dira etxe batzuetan, teilatutik lehenengo oineraino,
letra zuri, gorri, urdin, berdeak. Denda haundien iragarki apainak
dira. Toki batzuetan, letrak, ibili dabiltz, mustur batean agertu, bes-
tean *ostu*¹; teilatu ganeko hegaletan zehar, antzez ta egokitasunez
ibili ohi diran katu azkarren taiura.

Dendetako erakus-lehioak gauzaz beterik dagoz tontor, argiz
josita; herrietakoen ikusian guztiz dotore, ta atsegingarri begien-
tzat.

Aurkitu dauan norbaiti zigarrotxu bat eskatu deutso, ta ibil-
taun lez dihardu hara honaka, jantruke biziten hasi dan honek.
Jatekoak diran zerak bere, agiri dira eskaparate zabaletan, eta
edariak orobat.

Zinetxe bikainak dagoz lekuan lekuan; sarrera-txartelak sal-
tzen, neskatila lirainak, koloretez beteak. Eta atezainak, sekulako
jake luzangak ditue, lebita urdin, nabar ta orlegiak.

Kaleburu batzuetan, bere herrian inoiz ikusi eza, txinelak da-
goz zutunik, besoak gora, besoak behera ta gurutzetara, urdin ilu-
nez jantziak, eta buruan gela-poto antzeko zuriak, eta bardin zu-
riak, eskuturretako gogorak bere.

Aldean osasuna besterik ez dauka-ta, barriro doa mutila etxe-
rantz, ikusgarriok begiztau ostean. Bere etzangu behartsuan, gal-
tutzan, gaua emoteko asmoz.

¹ *ostu*: izkutatu, ostendu.

Egun guztiak ez dira bardinak, halanbeharrez ta zorionez. Ola haundi batera daroaz Nikanorrek bigarrenez burdina-txatarrak, ugazaba lagun dauala. Hango gazte batek, begitarte ona egin deuto, ta horra hor, nundik nora egin dauan ezagupidea, lantegi haretake gazte haregaz.

Ezekiel deritxa mutil honi. Arpegi zurbila, sudur kakoa, begi zuriak, belarriak motxak. Ez da ezer ez dakiana. Baina bai *buru eretxia*¹ bere. Munduko problema barri, sakon ei daki. Langilea da, esku-langilea; lanbide hori izteko gogoz bizi dana, ostera. Hauxe izango da, agian, Nikanorren maisua herri haundian. Bizimoduaren barri ondotxu daki, ta adiskide barriari munduko jakituria- ren albista zehatza emon daikio.

Ba dago mundu zabalean, eta huri honetan hain zuzen, harako liberal eta *edu*² askotako elizazaleak baino gehiagorik bere. Gizar- te-auzia gero ta beroago dator. Ezekielek ba dauka horren ezaguerarik nahikoa; aurretikoengandik, belaunik belaur, gizase- meak euren barruan daroen zuzentasun-egarria, askatasun-joera ta bakotxaren norberatasunaren alde, adoretzu jarduteko gogo ta egokitasuna ernamin ditu beragan. Beti ez da zilegi eta zuzen, amore emotea. «Erriko Etxe» sozialistara daroa Nikanor, beste egun batean.

Ezekielek arakatu dau zerbait baino gehiago Marx-ek irakatsi eban arloan. Giza-talde ugariak ez dira, seguru bere, beste *mortxa- ka*³ urri batzuen menpe, hertsu ta eutsi, esan ezin alak jasateko. Bardintasuna lortu gura da gizonen artean, antzeko samarrak izate- a, ondasunetan guztiak esku izatea, zelanbaitean; baina artean baino sakabanatuago ezarririk, ondasuna sortzeko gai diran iza- kiak. Horretarako, ostera, bardintasun horretarantz bideak egite- ko, burruka-taldeak sortu behar dira, eukitsuen aurkez aurke, abe- ratsen kaltean, haundikien ala era guztietan jarduteko. Gizon mueten burruka hasarrekoia, besteen aurre, *morroko*⁴ ta gorroto- pe jarriaz.

¹ *buru eretxia*: harroputz.

² *edu*: maila; «categoria».

³ *mortxaka*: atal, zati, hondakin.

⁴ *morroko*: laztasun, zakarkeria.

Ahoa zabalik dagokio Nikanor. Dotrina barriak beretzat, begi-belarri gozartu nahi ditu. Ezekiel mutil azkarra da nunbait, buru argia eta mingain bizkorra. *Erpizia*¹ da, huri haundiko semea. Nikanorren barruan eta buruan laburkiro ta errotso jarri nahi ditu *ustari*² indartsuok, lur barri samurrean landara susterrak ohi diran antzera.

Ez daukie behartsu ta emutsak gehiago dirutsuen apetapean zetan egon orain artean lez, isil eta apal apal hareen esanera ta gogara. Haundikien hitza onartzea, horixe da *joputzea*³. Buztarri zikina da, ta besterik ez, aberats eta ahaltsuen onurea zuzentzat izatea. Elizaren irakatsi bigun eta errukitsuak, beti eroapenaren magal makalean kulunkatuak, ez dira emakumeentzakoak baino. Ikurin urdinak eta, zuriak eta...? Bai zera! Haundikien seme-alabak ugaritasunean murgil, igari gurian ibili daitezcan euren bizitza osoan, emutsak eta alogerekoak seme-alabatsuak izan daitezcala, hareentzako lanak eta arazoak egin daiezan... Ikurri gorria izango dabe behartsuak, lauburu gorria, odola ta sua ainakoa, maite-tasuna hainbatean gorroto hitz erraibagea adierazoten dauana.

Bapatean, Olarratz datorkio gogora Nikanorri. Haundiki arroa, jauntxu madarikatua... ta haren menpeko adurti ta koipatsuak, bizkar-hazur manuak. Gero..., bere herrira bihurtuko zan, hango jente laua ta erdi baseritarra, gizarte atzeratu ta buru nagia iratzartuteko; menpeko bizimodua, egoera ta jarduera bakartzat harturik, hainbestean bizi ziran tentel eta buru ilunak, gizon barri bihurturik jarteko.

Askatasunak, beste ikuskera, alderdi ta isurkera barri erakar-kor ta zoragarriak izan, arranotan! Eta artean, edonok ez jakin.

Eta Nikanorrek berberak, hartubarri dauan biziera narrats eta guztia beharrekoaz, zer uste ete dau orain behinean?

¹ *Erpizi*: burutsu, adimentsu, zuhur.

² *ustari*: teoria.

³ *jopu*: otsein, morroi.



IV

«Gabontza»k irabazten dau dirua. Ordaindu bere, egin behar-ko dau. Gaur berton, erabagirik dauka Nikanorrek; edegi erazoko deutsoz begiak «Gabontza»-ri. Honek, aspaldi ditu begiak zabalik, beretzat. Eta Nikanorrek bere, oraindixerik edegiko ditu bereak, eta adimeneko zentzun gazteak, bihotzaren grineaz batean.

Etxe ta olabe ondotik igaroten da trenan. Han ba ditu, ganera, bitarte hilak, orga eta bagoiak egoten diran lekuak. Hantxe ikusten ditu sarri neska-mutil gazteak, atso-agurak bere bai, hauts eta sutauts artean, *harrikatz*¹ apurrak batu gurarik. Beharizana, gabezia iluna!

Inoiz ikusi ditu Nikanorrek, bere herrian ez ikusitakoak. Esate-rako, zarama-kankarruetan eta oholezko kaixetan, zikin artean ahal dana bananduten: janariak, ogi-zatiak, eta abar. Txarrientzat eroateko gero; ala, bilatzaileak eurak jateko, inoiz baino sarriago.

Hala ta bere, oherik bageko gizasemerik ez eban ezagutu Nikanorrek bere herrialdean; eta orain, barriz, hor dago biziten, lasto, bedar eta galtzu artean, mandazainen morroe pobreena bailitzan; Errioxatikako mandazain otsein apalena lez, soilik.

—Ezin nei nik, honelan jarraitu.

—Zer ba? —dirautso «Gabontza»-k.

—Irabazi bage, ez dau inortxuk lanik egin behar. Ta ganera, lastategietan, alperrak lo egin leie. Bainan ez, lan egiten dauanak.

—Orduan...

—Ohea behar dot, lo egiteko.

¹ *harrikatz*: harri-ikatz.

—Ohea?

—Bai, zeuk lez, eta edonok lez. Hala sasiko umea banintz al naukazu? Ohe garbirik izan bakotzat? Eta are gehiago. Alogera, dirutan izango dot, eta ez jantruke soilik. Dirua preminazko jat, edonori lez, jazteko, eskuartea izateko.

—Jantruke ez al zindudazan hartu?

—Egia. Baina egunerik egunera nik, geroago ta lan gehiago egiten deutsut.

—Orduan... goiko zerean lo egin zinei.

—Eta alogera?

—Jaiegunean zerbait emongo deutsut.

—Emon, ez. Ordaindu egin behar deustazuz nire izerdi-nekeak. Bihar arte, ba dozu epe nahikoa, erantzuna emon daidazun. Eta kontuan izan eizu, ba dakidala hemen baino gehiago nun irabazi neian.

Nikanorrek egia biribilak jaurti deutsoz arpegira. Mando ta zaldia zaindu, burdinak ekarri, txatarrak eroan, kontuak egin garbi, paperetan... Horra hor zenbat arlotan ekiten deutson mutilak, bere nagusi esku-idor ta zekenaren onerako.

«Gabontza»-k, oster, gogoan izan, nunbait, harako esana: «emonak, urritzea dauka».

Lan onuragarria egiten, barriz, mutilak. Eta beragaz ohitu danik hona, asti ugariago dauka ugazabak hara ta hona, zetan edo hatan jarduteko. Egia esan, mesedegarri izan jako, mutil hori agertua. Zer *aloger*¹ jarriko ete deutso? Negoizio kontuak emazteari adierazotea, gehienetan, ez da bapere egoki, gonadunen arloa hori ez dalako.

—Nikanorrek, eskabidea egin deust.

—...?

—Kristinauaren antzera, ohean lo egin nahi leukeala-ta.

—Ez da txarto esana. Behin baino sarriago erabili dot nik hori gogoan. Zuri, behar bada, holakorik otu bere ez, baina...

—Hori, ez da ezer. Alogera bere, eskatu deust.

¹ *aloger*: soldata.

—Izan bere, hamasei urte aspaldi egindako mutilak, zerbait behar leuke pozgarria, esku artean.

—Hori, neure sakelaren kaltean da.

—Bai, ta zer egingo, ba?

—Bestela, joan egingo dala; aldegingo dauala hemendik.

Emaztea, penaz beterik gelditu da hori entzunaz. Andra lodi-toneari «Mautsa» deritza Nikanorrek, bere taiuari dagokiola. Zeruak ez deutso seme-alabarik bialdu, eta emakume askok bihotzaren sakonean izan ohi daben ama-grinea, amatasun-lera sakona, *emaro*¹, *baratze baratze*² *azkortuten*³ hasia dauka andratxu honek bere *erraietan*⁴. Eta mutila begiko jakona, zer esan bakoa da. Guz-tientzako jatekoa egin arren, inoiz eskeini deutso zeozer gehiago mutilari senarragandik aparte, ta inoiz baita eskupekoren bat emon bere.

Haren katu baltzak, *inartziz*⁵ eta zinu txarrez ikusi daroa, uga-zabandreak mutil heldubarriari egiten deutsozan *adiguri*⁶ ta *txera*⁷ berarizkoak. Behin baten, katuak, ohearen ganekoa urratu deutso erpe zorrotzak hantxe lauskituaz, mutilarentzat jarribarri daben ganbarako ohean.

«Gabontza» sarri askotan kanpoan ibiltan dan ezkerero, «Mautsa»-k ba dauka euki nogaz berba egin, nok erantzun; berba batean, nogaz banandu bere bakartadea, katuaz osterantzean, mutilari esker. Zegaitik ez ba, ordaindu, lanaren saria?

Emakume honek, ordea, pixua gizenetan daukana, *ariurrian*⁸ falta dau, jenioan dau hutsa, *peitua*⁹. Mana-barea, erabagi urrikoa izan ba. Bere egoera erdi unatuak, *erba*¹⁰-joera makurrak, menpe-

¹ *emaro*: astiro, poliki.

² *baratze baratze*: apurka apurka.

³ *azkortu*: emotu, sustraitu.

⁴ *errai*: barru, barne.

⁵ *inartzi*: bekaizkeria, inbiri.

⁶ *adiguri*: opari, erregali.

⁷ *txera*: laztan, fereka.

⁸ *ariurri*: aiurri, izakera.

⁹ *peitu*: falta, eza.

¹⁰ *erba*: elbarri, ahul.

raturik daukatsoz gorputza ta barruko sua. Ez eukan bildurrik zetan izan «Gabontza»-k, emaztea mutil gazteaz bakarrean utzi arren.

* * *

«Gabontza» ez da *txaldana*¹. Bizigilea da, behargina ainean.

Baietz esan deutso mutilari, alogera izentauko deutsola. Honenbesteko bat. Hamasei urteko mutil batek, opiziua oraindino ez dakian batek, zenbat irabazi lei? Askorik ez. Baina dana dala; alogera, izentaua izan bedi. Beste aldetik, «Gabontza» ugazaba da, ta ostatu jabea, mutilari buruz. Ostatariak, beharko dau ordaindu janaria, ohea, etxean egotea, etxeko ta soineko jantzien garbitasuna.

Ba daki «Gabontza»-k, Ezekiel nor dan. Ondotxu jakin bere. Argitasunak eta zehaztasunak batu ditualako. Bere menpekoak huri haundian eginbarri dituan ezagupideak artez *zelatau*² ditualako.

—Zenbat irabazten dau Ezekielek? Eta, hok emoten deutso jaten? Etxeaz ta garbitasunaz, zelan konponduten da? Bere dirutik egin beharko ditu gorabehera guztiok, ezeukien semeak serbitzari dubakorik ez daukielako.

Isilik itxi dau Nikanor. Zer erantzun jakiteke. Ugazaba, lehenengo lehenengoan zelan zirikatu, jakin izan dau; haren erantzun mingotsarentzako osterakorik ez dau, alabaina, gertau.

Gogoragarria da mutilari ohe garbia eskeini deutsoenekoa.

Gau honetan, mutila etxera afalduteko heldu danean, etxekandre biribilak esan deutso:

—Nikanor! Zatoz neugaz gora. Gaurtik hortxe, goian izango dozu zeure gelatxua. Beste aldean, ganbaran bertan, ba dakizu gure gizonaren gauza asko dagozana, tegi haretan utzita.

Nagi ta bagi igon dau gora, neke ta arnastetuka andra gize-

¹ *txaldan*: lelo, inozo, kokolo.

² *zelatau*: espiatu.

nak; mutila atzetik. Izan bere, gelatxu polita gertu, gazteari. Ohe estu bat, aulki maiztua, leiho bat.

Etxearen lurreko oinean, ate bakarra dago kanporako. Atadia zabala da, ta ezker-eskui ateak dagoz; bata, sukalderako bidea da, ta horrezaz ganera, hortik barrura dagoz etxeko logelarik onenak eta jantokia eta abar. Beste aldeko atea da gorakoa, mailadi estuaren bitartez, mutilaren gelara ta abar, doana.

Atadiaren inguruan, eta honen erdian, goiko sapaia tranpa-zuloa dauka; ta zulo horretan zehar igoten ditu gora «Gabontza»-k, bere txatarra finagoak, beste metalezko zatiak eta apurrak, tupiki, berun, estainu ta abarreraia.

Harro dago bere buruaz Nikanor, aspaldiko partez, bere loge-la txukun apala ta ohe biguna daukazala ikusirik. «Gabontza»-ren emazte «Mauts» andereak, ez dirudi txarra. Baina Ezekiel izan da, gehienbat, begiak argitu deutsozana.

Lo gozoaren ostean itzartu da, eta jaun deritxa bere buruari. Ba dauka nun lan egin, nun jan, nun irabazi, eta lo egiteko ohe txukuna. Amari idatziko deutso, barriren barri, ta argazkia atara, ta bialdu egingo deutso.

Halabeharreko egun goibelez argitua! Herriko bat ikusi dau, ta amaren hilbarria *damotso*¹. Egun pozgarrizkoa, hits eta ilun bihurtu dana, zeharo! Bihotzean zauri zitara edegi jako mutil ume-zurtz osokoari. Argi ta ilun, poz ta neke, atsegin eta negar, irribarre ta malkoak: munduko bizitzearen irudi bete bete!

* * *

Jai-bezperea heldu da. Zazpiretan itxarongo deutso Ezekielek Nikanorri, huri haundiko toki jakin batean. Jantzi garbia soinean, langileak zapatu gabaz hasten dau jai-aurrekoa, jaia bera baino gustagarriagoa, agian.

¹ *damotso*: emoten deutso.

Ba daukie *zarpan*¹, txanpon bat edo beste, euren lanaren ordainari dagokion zati haundiago ala txikerragoa. Ezekielek, amari emon ez deusontxua; Nikanorrek, ugazabak eskeini deutson guztia.

Goialdeko edantokietan ibilaldia egiteko dago hau, lehenengo aldiz. Ardau ta beste edari artean, kanta-soinu ta dantzariak bere, ikusiko ditue. Dantzari azkarrak, ez dira mutilak izango, hain zuzen, neskatala gazte lirainak eta hain gazte eta hain lirain ez diran emakume *hezeberak*² baino.

Langile ta alogerekoak mordoka heltzen dira edaritegiotara, eta etengabeko sartu-urtenean ikusgarri dira Bako-ren tenplu zir-zzilok. Kaleak betean dabiltz ordu batzuetan gizaseme ta gizalabak; gero, aldraka; geroago banaka. Geldi bere bai ateta ondoetan, kafetxe ta ardandegietako ate eta lehioetan, kale-ertzetan, kantaltarrenetan; autu isil, barriketa ozen, barre zoro, irri gangar, hitz gozo, berbeta heze, mozkor-deadar... Edarizale ta haragi-grinea, jasangatz, igarian dabil emakume ta gizonetzko honeen gorputzetan.

Gizarte-arluko eztabaidak, amurruzko jardunak. Txiroen artean bere, nagitasunik ez daukien lapur eskubihurriak, bai ar, bai eme *lingirdak*³. Gorrotozko asmoak, odol-eske dagozan begiak eta iskilu zorrotz ala tirogileak, gogo baldarren agindura...

Ikusi ditu Nikanorrek hainbat eta hainbat arpegi barri. Arpegi ilun, gazte tximurtu, mingain nabarmen, biloizkeri limurituak. Neskatala orraztu bageak, ezpain gorri ta kolore zuriak, lotsagalduko talde jausia; etxebazter behartsuak, eskilara baltzak, gela usaintsuak, ohe zikinak, izara garbi izandakoak...

Gau baltzean, etxera bihurtzerakoan, egundoko eztabaidea daroa bere barruan. Beste bizitza-sail bat agertu deutso Ezekielek begien bistara. Munduko ibilaldi laburrean aurkitu barri dauan *egongu*⁴ *erdiragarri*⁵. Mila pentsamentu datorkioz burura, oheratzean. Etxekandreak gozaro ta maitaro jarri deutson ohe zurian

¹ *zarpa*: sakela, poltsiko.

² *heze*: lizun.

³ *lingirda*: lohi.

⁴ *egondu*: egoitza.

⁵ *erdiragarri*: urragari, lazgarri.

etzun danaz batera, edan dituan txetxuak emon deutsoen zorabio antza uxatuaz doakio, ta adimenean argiaren izpiak ba darabiltz hara-hona.

Aurtemein arte, aurreragoko asteetan, lastategi zakarrean egiten izan dau lo. Ez izan konforme horrezaz, eta zorionen batean, lazkiro berba egin daualako, *jadetsi*¹ dau bere ohe txiker baina garbia.

Egia izan bere, ohe txiker garbia! Ume ta gaztetxutan bere ama zanak, enasa ta utzi zabarra izan arren, maitakiro gertau ohi eutsana. Ohetxu bakartia, berarentzakoak soilik. Eta orain, ikusi barri ditu ohe baltzak, ohe zikinak, edonorenak, haragi-tratuan jarduteko tresna madarikatuak, ostatari denpora laburrekoen zain dagozan ohe lizunak.

Eta batez bere...

Ezagutu izan ditu Nikanorrek, asko ez baina, barrukotasunez ez baina, harako neskabila polit eta atsegingarriak, alaiak, irribarre zindoa egiten ekienak, arpegi legunak, guriak..., garbiak.

Bihotzean halako zarradatxua, zirkin edo zotin kilikaria egin eutsoenak: baserriko neskato haxe, txahalagaz herrira etorri zana... Garbiñe ederra, Olarratz jauntxu azeriaren loba txairoa... Tutuluren alaba Mari-Asun bera bere...

Gau honetan ikusi barri dituanen ikusian, bestelako alde! Gaurkoak, gizonen haragi-mirabetzarakoak dira soilik; eurekin jolastuteko; garramura zolituia asetzeko; zorra ordaindu ostean, agur esan eta bertanbehera ta betiko ahaztuteko...!

Ez izan emakumeak, danak bardinak, esanak gorabehera.

Lekutan egozan bere herrian ezaguturiko neskak *gurbil** orbanbakoak eta ikutu-bageak, eta huri haundiko emakume merkeak!

Gaztearen bihotzean burrukan dirauen zuzentasun-egarria, eta adinak sortzen dauan haragi-gar gunekoa, indarrez bete!

Eztabaida, ausarkeria, lotsa-joeratxua ta samurraldia, danak batean dituan mutila loak hartu dau, buruan mundu nahastauaren irudi lauskitua jira-bira zorapenezkoan dauala.

¹ *jadetsi*: iritsi, lortu.



V

Auzune bateko edanetxe ezagunean batzen dira langile gazteak. Ezekiel ta, Nikanor ta. Iluntzetan izan ohi da euren bigira edo batzartxua. Lanaren nekea, ugazaben nausikeria ta zekenkeria, ordain urria, behartsuen eskubideak eta beharginen eskabi-deak, kirolak, neskatila gazteen autuak... horra eguneroko jardunak mutilen artean.

Ba dago edanetxe horretan, salmahai luzeaz handik, neskatila polita. Irune da haren izena. Politasunaren araura ez dauka, behar bada, bere gurbiltasuna eta *gogojabetasuna*¹. Aurki, *daldaxa* da, arina.

Atseginez begiratzen deutso Nikanorrek, eta haregaz, baka-rean, gurari biziz berba egingo leuke. Haren begietan, ohi eza dan zerbait susmauten dau. Beronen ames-ernaminak besterik ez ete dira? Izan bere, Irune dalako horrek, mutil guztiai bardin samar hitz egiten deutse; berba ta begiramen antzekoa eskeintzen deutse gizonezko gazteai. Zahartxuai ez, hainbeste.

Gabontzaren irabaziak handitzen doaz, negutean ibaiak lez. Eroskaiak, noizean behin izaten daben goraldi ala beheraldia, izan dabe orain bere. Urruneko laterri batzuetan gudu-hotsak entzun dira, ta hara ta hona dabiltz itxasuntzi haundiak.

Txatarra kontua ondo jarri da, daukanarentzat. Saltzai mantsuak egin ditu ta diru gozoak beragandu. Aukera gizona izan

¹ *gurbil*: zuhur.

² *gogojabetasuna*: nor bere buruaren jabe izatea.

³ *daldaxa*: baldar, zahar.

dau, ta ez da lo egon, begi erne baino. Diruaren eina edo egoerea *lokaberea*¹ da izan, erreka sakonean harri biribiltxua egonezina dan antzera.

Lur-saila erosi dau, trenbideari deutsola dagoana, sail *jasekoa*², luze bai zabal. Diru ederrak emon ditu haren orde, baina ez jako damutuko, seguru asko. Lurraldeak erosteko eretia ta hara bere dirua aukeran daukienak, *ziskua*³ *gilbortuteko*⁴ bidean jarri ohi dira, hainbat eta areago, lurraldeok toki *eratsuan*⁵, huri haundiko etxebarrutian edota alboko alderrietan baldin badagoz.

Ta Gabontzak horixe egin dau. Diru-etxean dana gordeta eukiteke, zati mardoa lurretan ezarri.

Aren emazteak ez ekian inoiz senarraren atzera-aurrera guztien barri. Jateko lain ataraten eutsan, bai, eta hiru baino ez izan ba, jeteke. Senarra, Nikanor eta bera.

Jazteak ez eutsan ardura haundirik emoten Mautsari. Izan bere, etxean sartuta egon ohi zan ia beti, bere loditasuna zala-ta edo. Auzoko dendatxuetan lortzen eban janaria ta ortuaria, ta senarrak, aparteko jataldi bikainik ez eutsan eskatuko. Ba ekian honek, inoiz edo behin jateko *ahozuri*⁶ ta *milingen*⁷ gogorik izan ezkerro, nun zuzendu ta aurkitu, haragi hilen antzean biziak bere...

Zahartzarohan, *nafarrerria*⁸. Holantxe dino erdal-esaera batek. Gabontzaren emazteak, bere katu baltza eta etxean daukan mutila ditu begiko ta ardura gailen, bere senarraz ganera, jakina.

Senar honek, bere aldiko ohitura nabarmen baten entzutea dauka, euki. Ta nundik eta nora ez dakiala, haundien edo haundinahien usainaz jabeturiko gogoia ez jako, ba, sortu?

¹ *lokabera*: aldakor, mugikor.

² *jas*: txairotasun.

³ *zizku*: poltsa.

⁴ *gilbortu*: loditu, handitu.

⁵ *eratsu*: egoki, apropos.

⁶ *ahozuri*: mizkin, jakan.

⁷ *milinga*: ahozuri, gitxi jaten dauena.

⁸ *nafarrerria*: «viruela».

Labur esan, agurabidean dagoan honi, bigarren lorako maitakeria erne jako bihotzean. Bigarren lorako haragi-zirikaldia¹. Maitetasunarena ez, hain zuzen; diruaren ahalmenak eta kili-kiliak gizonagan eratzen dauan nahikeria ta harrokeria baino. Emaztearen ondotik aguro ta bizkor iges egiteko dagoanak, gehienbat, erakutsi ohi dau horrelako jita ta joerea. Auzoko larrera nahi solora joan guraz dagoan zekorraren gisa.

Diruaren soinua gozoa danez, ate asko edegiteko giltz pareba-koa da. Ez daukanak ez daki asko, zelako mundu barria sortzen jakon, ezerez ala gitxi eukirik, goizetik gabea ondasun gizenen jabe egiten danari. Aldakuntza zoragarria, zorri hil-biztuarena! Zer gura, ta haxe lortzeko aukera bardinbagea.

Ta Gabontzak bere, gaztetako urteetan izan eban gorputzaldia sentidu gura eban barriren barri, Fausto berraldataua bailitzan. Gorputzean, zirkin biziagoa. Zanetako odolean, berotasun jaso-goa. Haragiaren bigarren loraldia.

Katu baltzaren lagun zan haren emaztea, lo egoan horrezaz. Honi, bestera jazo jakon urte hareetan. Zimeldu jako haragia; bizi-iturria agortu. Ta bare-aldi urdina dauka bere inguru, odolaren gorriaz ahazturik.

Huri haundiko kaleetan zehar doa Nikanor. Domeka eguerdia da, ta etxerantz doa honezkero, hamabiak ondo jota dagoz-ta. *Egurastegi*² apainean zehar, bera ezezik beste lagun asko bere, ba doa. Ene! Ta bai ikuskari adigarria dakusala han jente artean. Aspaldian haren begiak ikusi ez daben irudi atsegina agiri da hantxe. Ta etorri dator. Ama izango da nunbait, Garbiñeren besondorik datorrena. Bai neskatila maitagarri ta liraina, Garbiñe. Ta zelán jantzita, gero! Txairo baino txairoago.

Txapeltxu zuria dauka buruan, ta soineko berdez estaldua bere gorputz polita. Gizonak eta mutil gazteak, dotoreak honeek bere, hurrengorik hurrengo, agur txeratsua egiten deutsoe kapelea erantziak.

¹ zirikaldi; tentaldi.

² *Egurastegi*: pasealeku.

Ez daki zer egin mutilak. Iges egin, aldendu, lagun artean ostendu, bazterretik iragan ala harek ikusteko moduan, haren aurretik igaro.

Bai, aurretik begiratuko deutso, ta agur esango. Hor dator, berbetan, neskatxi gustagarria.

Ta Nikanorrek, burua *txut*¹, soina lerden, agur! motela dirautso hagin artean.

Neskatileak, unadatxu txit laburrean begirakune bat egin deutso, baina... besterik ez. Ta aurrera doaz, baktxa bere bidean.

Ez ete dau ezagutu Garbiñek? Bihurtuko ete da Nikanor atzerantz, eta urrats batzuk arrapaladan egin ostean, esan hari, argi ta garbi, bera nor dan, harako herrixuko txirringuts-erakuslea?...

Atzetik begiraka dagokio Nikanor, neskatileak burua birauko ete dauanentz. Baina, bai zera! Ez dau harek ezer galtzekorik utzi atzean, nunbait. Begiratu, baina nori? Izan bere, ezeuki bati?

Ta Nikanor, beste behin legetxe, bere buruari begira hasi da.

Zer dauka soinean? Jantzi *maskildu*² bat, dana maiztua. Alkondara nahikoa erabilia, *idun*³ bizartsuaz. Oinetako ez barriak; txapela, inoiz barria izandakoa, buruan.

Han agurka *dihardutsoen*⁴ gazteak, barriz, dotore ta kapela-dunak izan, arloteri bakoak. Haxe da inbidial! Zer amets egin daieke, guraso landerren seme behartsuak, menpeko otseinen artean hazitako andereño bategaz?

Lotsatu egingo ete da Nikanor, behinola lez? Horixe ez; mindu bai, benetan bere, mingarri jakolako. Hasarratu egin jako; amurruak jo dau Nikanor. Daukanaren kontrako gorrotoa nabari dau bere erraietan. Ezekielen esanak, egiaren indar betea daukie. Ez dago munduan gizonak neurtzeko *bahe*⁵ edo galbahe bat baino: daukana eta ez daukana, uruna ta algotza, emoia eta zikin-hautsa. Azkenengoetarikoak ez dabe inun begiramenik. Beste ha-

¹ *txut*: zut, tente.

² *maskildu*: zabar, arrunt.

³ *idun*: sama inguratzen dauan jantzi atala; «cuello».

⁴ *dihardutsoe*: jarduten deutsoe, dabikiroz.

⁵ *bahe*: «tamiz».

reek, ostera, edonorako daukie sarpidea, ta jendaki goienekoaren txera ta adiguria.

Urduitasunak jo dau, eta eskuartean egiten diharduan zigarrotxua ez jako itxurazkoa moldau. Arterik hartu ezinik dago, ta etxerazkoan aurkitzen dituan tasketan ardauri drungada itzelak edaten ditu. Erdi zerbeldurik heldu da herri-hegaleko bere etxe urrunekora. Zarpan ez dauka txanponik; hutsik daukaz sakelak. *Putxik*¹ dago. Urdaila bete dau, horraitino, lauzuriko urri haren lainean.

Etxera heldu, ta buruko minez dagoala-ta, ezer bazkaldu bage, bere tegira doa, goiko gela txikerreko ohetxura. Gabontzak ez deutso jaramon haundirik egin. Gizonezkoak, barru gogorrakoak dira, inoren ondoezetan. Haren emaztea, barriz, arduratu da harezaz. Ta zer daukan, eta ezer nahi ete leukean itandu deutso; mutila ohean sartu dala susmau dauanean joan jako, bere katu baltz potoloa ondorik izanik. Mutilaren berbetatik, lo egiteko gogo a besterik ez daukala, igarri dau. Baina, barru-mina, hasarrea, mukertasuna ta iguina da haren gaurko makalaldia. Bai behin!

Orduak ordu iragan dira, nunbait, eta Nikanorrek loak lo egin ditu, behar bada, amesez beteak, oraindikarren. Itzartu danean, ez da argitasunik nabari, leiho ertzedegiaren zirrikituan zehar. Gautu dau, nunbait. Han hurrean, ez da isiltasuna besterik susmauten.

Honetan, etxekandreak, bere irribareta dakartso arpegian. Jago eite da mutila afaltzeko? Gorputzaldi txarra ei dauka; ezer bere ez egiteko gogo, ez jateko ez jazteko. Gogoaren makalaldia, ala alperraren grina baldarraren ernamina ta ikutua?

Baso bete esne edango leukeala, ba...

Ta baita etxekandreak ekarri bere.

Gerogarrenean, ez lo bai lo dagoala, halako *berbotsa*² entzun dau mutilak beheko bizitzan. Berbaro ezezaguna. Etxekandreak

¹ *putxik*: dirurik barik.

² *berbotsa*: berbaro, mürmurio.

ahotsa ta Gabontzarena ba dantzu, *doi doi*¹. Baina, beste ahots garratzagoak eta zakarragoak dira, hurrean. Gizonezkoen berbak. Haundia da, domekan, gaueko orduetan, euren etxean inor erbestekorik egotea, eta autu gogorrez ta erremuskada antzean!...

Nortzuk ete dagoz behean, egon?

Ta egon ezinik zapart egin dau mutilak ohetik. Izan bere, ez dira etxekoen ahotsak bakarrik. Nikanorrek, harako tranpa-ohola jaso dau isil isilik, eta zeozer ikusi ta erdi-susmau egin dau. Erbestekoak, etxera sartu diranak, ez dira ain zuzen eskekoak, bila datozanak baino; txarrean ala onean bila datozanak, lapurrak berba baten. Atadian dago gizonezko bat, kanpoaldean, zelatean eta zaindari, nunbait. Zapia dauka arpegia estaltzeko eran, begiak agiri eta bisera urdina buruan. Han, sukaldekoen autua aitu nahirik dago.

—Ez daukat etxean dirurik —dirautsa estu ta larri Gabontzak norbaiti.

—Gu behargin behartsuak baino ez gara —gehitu dau Mau-tsak.

—Dirurik ez etxean? Horixe bere! —dino beste gizonezko bat, esakera garratzez—. Nun daukazuek, ba? Aguro esaidazue, bestela tiro bana sartuko deusuet epel epel, gibelean zear.

Nikanorri dart-egin deutso gorputz osoak. Bertatik berotu jako odola. Gaizkinak daukaz teilape haretan; lapurrak, behartsu bizi dan etxean bere, nahiz-eta Gabontza bera, lauko ugarien jabe eginbarria izan.

Ugazaba, ta honen emazte manatsu ta baratza, arriskuan daukusaz. Hobeto esan, etxeko guztiak dagoz arriskupe, Nikanor berbera *halaber*².

Zer egingo? Lapurren alde? Ez, etxe honetan *bizi dedino*³. Lo egin nasai, ohera sartu oiloa lez? Ezin ba, bere burua koldartzat jo, edonoren aurrean bere. Zer egingo?

A!... Izan bere! Ba eban Gabontzak han nunbait *zer egokia* ere-

¹ *doi doi*: ozta ozta.

² *halaber*: era berean, ere bai.

³ *bizi dedino*: bizi dan arte.

ti haretarako. Inoiz erbitan joan ohi zan Gabontza, ta Nikanorrek ba daki, gitxi gorabehera nun dagokean haren *iskilua*¹.

Ortozik, dagoan lez, isilean dabil Nikanor eskopetearen bila. Eskopetea *hodi*² bikoa. Nun?, eta erloiu zahar luzearen kaixa zutirenen barruan gordeta. Hementxe dago! Tabaita su-hornia bere. Hementxe ditu nagusiak, kartutxuak bere, atabaka batean, batzuk hutsik, besteak perdigoiez beterik.

Aufal.. Kartutxuak sartu ditu pratetako sakeletan, eta bi, kamaran bertan ipini ditu, su egiteko gertu.

Zer egingo dau? Eskilaretan behera jatsi, ta eskilara-burutik eupadea bota? Baina, zenbat ete dira arerioak? Ala, tranpa-zulotik bertatik tiro egin, huts ala bete?

Bai, horixe egingo dau, zuhurrago jokatuaz. Berak besteen bari ziurrik ez dauan arren, besteak ezusteko zerbait aurkituko dabe. Jaungoikoaren egia!

Eta gehiagoko bage...

Braun!!...

Atadian egundoko takarradea egin dabe perdigoiak, eta han egon dan argi-bonbilea zazpi zati eginik, ilunpean geratu da etxaleku hau.

—Hik egin al dok tiru hori, kirten horrek? —dirautso suetean dagoan lapurrak, atadikoari.

Baina, honek, erantzuna esateko adorea baino izu ikarea izan lehenago ta behinago, ta kalera hanka egin dau, antza. Iretargi zuria dago zeruan, eta kanpoko atea zabalik dagoalarik, argitasun *hitsa*³ dator atadira. Nikanor gertu dago bigarren tirua jaurtiduteko, ta barruko lapurrari burutik behera, ganera, horrelan gertau ezkerero. Beste kartutxu bat gehitu deutso mutilak, bere iskilu azkarrari.

—Nok egin dau su? Nor dago besterik etxe honetan? —deadar egin dau sukaldean dagoan morroe zatarrak.

Eta orduantxe, zoro antzean, bere senetik erdi urtenik, barre

¹ *iskilu*: arma.

² *hodi*: kañoi.

³ *hitsa*: zurbil, triste.

karkaixa ozen eta gangarra eginaz, oihu zakarra egiten deutso Nikanorrek:

—Urten eik oilo horrek sukalde horretatik, osterantzean ikusiko dok heure narrua, ta laster ikusi bere, sator bideak baino zulo gehiagoz!...

Ta hori esanaz, bigarren tirua jaurti dau Nikanorrek, lehenengoak baino zarata haundiagoa egin dauana.

Barruko lapurra, *dardaganean*¹ jarri da, nunbait. Bere laguna ez da agiri atadian. Hil egin ete deutsoe? Lauko batzuen bila etorri, eta narrua bertan utzi beharko ete dabe? Ta egia izan leiteke, euren pistola tiro bakarrekoaren kontra, han norbaitek perdigioez zipli-zapla dihardu-ta.

Gehiago murtik bere egin bage, han doa arin kanpora sutean egon dan lapurra bere, tximistearen antzera.

Orduan Nikanor leihoratu da, ta iskilua eskuetan, han bide ertzean aurrera, iretargi zuripean doazan *morroe*² bien gerize ingururantz idanba! hirugarren zartakoa erantsi dau, kanpoko isiltasunean halako durundu artegatsua sortuaz.

—Nikanor zaitugu? —dirautsa Gabontzak, *lauorria*³ astinduaz ta arnasea bakanago ta nasaiago eginaz, atadi erdian.

—Bai, ugazaba neurea. Hertsu bei nasai, kanpoko atea, barrutik langa sendoa ezarriaz. Bidean behera joan dira morroe bi.

—Eskerrik asko, Nikanor —esan deutso intzirika ta negar tzean, etxekandreak—. Bestelako ikarea emon deutsee geure bihotzai morroe zantarrok!

Auzokoak, egundoko barreak egingo ditue ganeko egunetan, domeka gabean lapurrak aho bete haginez geratu ziralako.

—Horraitiok, o!... Gabontzaren etxera gautxoriak heldu lapurretan, eta haren otseina egundoko ehiztaria izan, barriz!...

¹ *dardaganean*: dardaraka, dardakadan.

² *morroe*: morrosko, mutil.

³ *lauorria*: haridura, ikara.



VI

Egun gitxi barru dira hauteskunde barriak. *Laterri-burura*¹ joango diran ahaldunak izentauteko. Gaur, erakusmeneko mitina izango da. Pelotatokian izan da bart, liberalen hitzaldi mordoa. Langileen alkartasunak, jai egitea erabagi dau arratsaldean, zezen plazan egingo daben bilera zaratatsura lagunak eurrez joan daitezcan.

Nikanorrek bere, jai egingo dau, ugazabak gura ez arren. Harako lapurrak heldu ziranetik, aloger itxurazkotxuagoa eskeintzen deutso Gabontzak. Baina ez dau mutilak, ezkur horregaz, praka barri askorik egingo. Gabontzaren gogoia, orduan, bero berotan, eskuzabal agertzekoa izan zan. Baina, sarri askotan, bihotzetik eskuetaraino bide luzeegia edo...

Zezentoki inguruan, ba da laguna ugari. Aldrak eta aldrak dartz, kanta soinuak, deadarka ta zarataka; oihal zuriak letra baltzez beteak, makila artean buruen gain zut eta lerdin dakarrezala.

«Langile ta umeen gurasoak! Batu guztiak!». Edota: «Onean ala txarrean, lanari bere ordaina emon beharko deutsoe». «Gora *Laterriz-ganekoa*²».

Ikurrin gorri haundiak haizetan zabal erakusten ditue, eta «Marselletarra» ta «International» -en doinuak entzun erazo.

Konkortuta dago Nikanor. Bere begientzako edertasun jatorra dan ikuskari horrek, odola berotzen deutso; ta ames-zorabioz beteten deutsoez buruko garunak, han tribuna luzean, hurrengorik hurrengo hitz egiten daben gizonak.

¹ *Laterri-buru*: estaduko hurburua.

² *Laterriz-ganekoa*: naziõartekotasuna; «internacionalismo».

Hango entzuleak, herriko semeak, jende apala dira gehienbat, beharginak, ogipekoak, emakumeak bere bai. Haundirikik bat bere ez, egin eginean. Aberatsik ez da hurretan bere. Behartsuen batzarra da, ezeukien bilera grinatsua.

Eukitsuen gain joango dira lepokadarik mamintsuenak. Honeek, txiroen odola edanaz bizi dira. Landerraren izerdiak gizenzen ditu hareen gerrontzeak eta hareen seme-alaba guri ta alpe-renak. Langileak eskubiderik ez daukie, betekizunak baino, ta euron osasuna ta indarra ezezik, izaten dituen seme ta alabak bere, ondasunez *hatsiturikoen*¹ serbitzurako izango dira, ogi gogoraren apurrekin biziteko soilik. Antzinako jokuak barriren barri sortu ditue gizartean; eta gizonak, gizona dauka menpeko ta otsein garbi, abere bailitzan. Sinismenik ez dau behar gizon askeak. Sinismena aho-mihinetan harturik, goikoak, behekoak lo jarteko baino ez darabile. Gizartean gudu ikaragarria eratu behar da, noraezean, buztarri lotsagarria behin betiko birrinduteko...

Handik urteeran, Nikanorren burua, liluraz gonburu dago. «Laster dator eguna...». Hamaika bidar amesturiko egun helduezin antzekoa!

Ezekielen ondotik urten dau, jente-arte izerditsuan. Bapatean, emakume gazteak oratu deutsoe besondotik, eta sailak eta aldrak hasi dira kaleetan zehar oihuka ta deadarrez, piloka ta piloka; uriolaren antzean doa kaleak betean gizon-ibaia.

Agintarienganantz, nunbait, batzarreko asmo ta erabagiak eza-gutu erazoteko ustez. Zabalkundea egiteko ahalegina ta erakusketea, langile makal eta bildurtiai deia, alkartasun osoko indarra lortu nahirik. Txinelak eta laterri-jagolak hor dabiltz inguruetan, *zizpa*² motzak sorbaldetan zintzilik dituela. Harik lasterrean, zaldi ganekoak bere agertu dira, ta kale ertzetan dagoz seinan seinan, erne, artega, urduri.

Kale estuagoak iragan, eta zabalagoetara heldu da jente sail gero ta mordoagoa. Ikurrin gorri gorriak eurrez agiri dira euren eskuetan. Kanta zoliak ta deadar entzungarriak haizetan.

¹ *hatsitu*: hatsa bota; «heder».

² *zizpa*: fusil, eskupeta.

Bapatean, erdi geratu egin da uiol bizia. Norbaitzuek, etxe haundi bateko mailadiak gora hasi dira. Ahaltsuen biltokia da, liberalen leku guri ta eroso. Balkoira agertu dira ta han ikurrin gorria ezarri dabe. Barruan, tirotsak entzun dira. Eta berehalakoan, kalean bertan bere, su ta danba.

Zaldiganeko ertzainak hemen datoz lauazka. Batzuk *mauserrak*¹ gertu, besteak sable sendoak aidean, zirti zarta hasi dira, jentea burutik behera joten. Gorantz tiruak, beso zartadak beherantz, horko aienea ta hango biraoa!

Lagun metea bakanduten hasi da; mehaztu dira gizonezkoak eta emakumeak igesari emon deutsoe. Txinel gehiago dator, oinez eta zaldiz. Txingurriak lez egoan taldea, hara hona sakabanutu da *aguro*². Tranbia zatar bat, eperdiz gora irauli dabe ta hiru edo lau automobil sutan jarri, gasolinaz igurtzirik.

Lurrean, lagun bi datzaz hilik. Hainbat, zauriturik daroetz osatexera. Asko ta asko, *atxiloturik*³.

Ahal dauanak ahal dauana, Nikanorrek bere, ospa egin dau, erdi bildur, erdi durduri, ilunpean dagoan kale estu zahar batean zehar.

Hurian, itsaso asaldauaren marru hasarrearen antzekoa senti du da, ta haizea burruka-*sundaz*⁴ ta oihartzunez bete da.

Nikanorren amesaren birlora-atal lehenengoa, laburra izan da, ta damurik. Langile-saila ez da, argi asko, oraindaino behintzat, munduko ardatz eta nagusi.

Hala ta bere, biharamonerako aholku mingotsak, agindu bariak zabalduaz zabalduaz doaz hurian. *Oporketa*⁵ nagusia egingo da. Langile guztiak —horixe da guraria, behinipehin— ezer ez dabe egingo, kaleetan ibili baino. Agintari liberalak ikusi beharko dabe, azpikoen indarra ta batasuna.

¹ *mauser*: fusil mota bat.

² *aguro*: behingoan, laster.

³ *atxilotu*: detenitu.

⁴ *sunda*: hats, kirats.

⁵ *Oporketa*: greba, huelga.

Oporqueta nagusi hori, ostera, laburra izan da. Ta baketsua; horrelan nahi izanik, ala bildurrak hesitua? Egun bakarra laster da joana. Hurrengo egunean, ogia erosteko ta behar dan diruaren eske antzean, joango dira beharginak, etxeko preminak bultzera-ginik.

Eta Nikanorrek, ikusten dituanak ikusirik, bere herritxuan mutiko bardingoa zanean eukan egote nasai baketsuaz gomutak gomuta egin ditu oheratzean.

Adinak eta bizitzeak, ezkutuan egon ohi diran zerik asko azaleratzen ditue. Ezina da gizona atzerantz joatea; ez adinean, ez barruko beste izakai askotan. Astiaren halabeharra, ankerra ta errukibagea izan.

Askatasun-egarria asetzeko, burujabetasuna gero ta beteagoa izango da. Esker onaren agiritzat, Gabontzak, egia, aloger mengine-
la gehitu eutsana Nikanorri.

Baina, gizona, ogiaz bakarrik bizi ez, eta... Nikanorrek haren menpeko, lanean jardun arren, aurrerantzean, ez dau bizilekutzat Gabontzaren etxea bera izango. Hurira doa, adiskide ta lagunengandik hurreago egoteko, etxerako erretiru orduetan askatasuntsuago izateko, eta, egia hau bere, Gabontzari *matorduetan*¹ eta, ezetz esan behar deutesonean, *makaleriz*² baitetz ez esateko.

Ez da Nikanor, Gabontzaren etxera sartu zanekoa. Ez. Hori, ondotxu daki honek. Eta harako mutiko zintzo ta esaneko zirudiana, ez da orain eztabaidazalea baino. Ez dau ahalegin larregirik egiteko gogorik agertzen aspaldion. Zetan gehiegi lanik egin, ugazaba aberastuteko, ala?

Ganera, ba daki Nikanorrek, ugazabandreak ez dakiana. Ala, behintzat, erakusten emoten ez dauana. Zera... Gabontzaren atesteko emakumea, Iruke neska zuntzuna dana.

Neskatila hauxe, begiko jakon, bai Ezekieli, eta baita Nikanorri bere. Zaharraren diruak, horraitio, errez erosi dau, antza, arrain merke hori. Horregaitik bere, ezin ikusia gero ta sakonagoa, txatareru *zikotxari*³.

¹ *Falta nota.*

² *makaleri*: koldarkeri, «cobardía».

³ *zikotx*: zikoitz, zeken, diruzale.

Irune gaztea, ostera, udako hodeiaren irudikoa izan da agurrearentzat, eta gozotasun lar eskeini orduko, hegialak bizkortu ei ditu. Beste morroe bat aurkitu ei dau, ta haregaz hegan joan ei da aguro ta pozik, Gabontzaren garramura hasibarriari, barau-egun opaturik.

Hau jakinik, baretu da zerbait Nikanorren gorroto isilekoa, ta ba dihardu, ba dihardu... Ganera, oraingo aldian, goraldi ezaguna egin dau Gabontzaren *garatzak*¹. Beste mutil bi hartu ditu menpean eta lanik astunenak, honeek egiten ditue; eta horra nundik nora, Nikanor ogipekorik zaharrena etxean. Ez hori bakarrik; etxekandrea, umoreak edo *ubileriak*² jota dago, ta neskato surmotz bat etxeratu dau, lagungari.

Liberal egin da, gizona, Gabontza bera! Ta zelan ez ba, garatza ta dirubidea egunean baino egunean mardoago ta emonkorrago jadetsi ezkeror? Eta garaitzaileen burdira igotea, gizon gehienentzat munduko zerua izan...

Bidebagakeriak dirala-ta, agintari nagusiak neurri estu gogorak ezarri ditue politika-bizitzan, gizarte-arazoan.

Lan egitea dagokio behartsuari, ta Nikanorri bere bai, beraz. Buruko asmoak, ostera, umotuaz ta egosiaz daroaz. Beharginaren eskubidea gehienbat aintzat hartu bakoa...

Ezekielez ganera, beste adiskide batzuk bere ba ditu Alkartasunekoen artean. Bere lanbidez, barriz, aspertuten hasita dago. Burdinak gora, txatarrak atzera-aurrera; honenbeste ekarri, horenbeste eroan; hainbeste pixuan jarri, neurri ta eretxi batean —norentzat dan—, salneurri bereziak izaten ditu nagusi jaunak. Eta Nikanorrek, gaiok eta zertzelada guztiak, apuntau ta idatzi. Egia esan, aspaldion ez dau izerdirik ataraten, eta Ezekielek bai sarritan esan bere:

—Errefinau egin zara, Nikanor, eta moduetan gero! Zuk bere, aldi honetan, langile zakarraren eskuak baino legunagoak daukuz, laguntzarra, kaillu ta azal gogorrik bage!

¹ *garatz*: negozio.

² *ubileria*: «reumatismo».

Baina Nikanorrek, barre egiten deutso, ta gozaro ta lotsabaga egin bere. Izerdiaz gorputza bustiten dabenak soilik egiten al dabe lan? Esku, beso, gerri ta bizkar-lanak ba dira, abere indarrez egin beharrekoak. Baina, buruz, adimen-argitasunaz jokatuaz eta... paperak erabiliaz, ez al da arazorik goitarrena egiten? Inoren menpe ta aloger orde jardutea, beti da aberatsaren eta nagusiaren onerako.

Ez deutso, ostera, gizarte-auziak beti galdu erazoten baretasuna Nikanorri. Egiten ditu bai dantzaldi luzeak bere, domeka ta jai egonetan, gaberantz arda edaten ibili orduko. Auzoko herri txiki batean, erromeri guztizkoak izan dira, ta hantxe, dantza ta barriketa, eta barriketa ta dantza, ezagupidetxua egin dau neskatala morroskana bategaz. Trenean bere, alkarregaz etorri dira. Ezekiel eta, beste neskatala batzukaz autuan; baina, Nikanor, bere potolo begihaundiagaz.

Langilea da Nikanor gura dauanean, behargin lan astuneko jopua, bere izerdiz, ugazaba gerrieder ta okitu bihurtzen dauana.

Morroskaneari, ostera, ez deutso holakorik esan. Ofizinistea dala esan deutso.

Neskatala gaisoak, edegi deutso bere barrua, eta nahikoan, hain zuzen. Hau, kozinaria da; jateko onak egin eta jaten ei ditu, serbiduten dagoan etxean. Zizili deritxa, ta herri koskor bateko alabea da. Dagoan etxea, oso ona da; han egunero batzen ditue kankarrukada gizenak, txarrientzako ta, hondakintzat; haragia dala, ortuariak, nahi ogi-zati itzelak dirala...

Hurrengo jai egunerarte egin deutsoe alkarri agur, neskatilea *mirabe*¹ dagoan etxeko kale-ertzean.

Kozinari gaztea, emakumea ha bere, amesaren birlora bigunak ikuturik dago ta mutilagaz pozarren hasi da maitetasun hartuemonetan. Adiskideak igarri deutsoe Nikanorri, ta bai Ezekielek irri gaizto bihurritz aitatu bere:

¹ *mirabe*: otseln, zerbitzari.

—Ez al dozu Zizili hori, harako kanta zaharrekoaren antzekoa izango?

—Zer, gero?

—Zuk entzun eizu, ta orduan...

«Etxebarriko Zizili,
arek emoten dau isi-isillik...».

Nikanorren hezerako *seta*¹ barrukoa, gero ta biloizago dago agirian. Gogaikarri jako bizimodua; argi esan, lan egin baino ez egin, gurago leuke. Ai, berbetan ondo baleki, berbera bere, ibiliko litzateke «Langileen Alkartasunezko» buruekin eta hizlariekin. Buru eritxia da, ez da bazterrean egoteko zale, lan eta lan isilean. Ola haundietako beharginak baino hobeto bizi dira euren artezkari agertzen diran hizlariak, burukideak, jauntxu-usainekoak honen artean bere. Nikanorrek damurik, ezin dau hainbeste. Baina, ai, ahal baleu, ahal!

Ziziligaz amultsuki dihardu, loraketan. Emakume hau alperusain bakoa da, behargin suarra, ekina, berakatz atala baino finagoa. Zegaitik hartu ez ba, laguntzat, honek etxera irabazia ekarteko aukera ta jasa ta gogoa dauala susmau dau-ta? Ba dira senarrak emaztearen lepotik bizi diranak.

—Zuk egindako jatekoak, gozoak izango dira ba, Zizili?

—Etxeko jaun-andrak behintzat, pozarren daukadaz.

—Urrengo domekan, ezin urten zinei-ta, zer deritxazu halako meriendatxu bat ipiniko bazeunst?

Mutilaren ausarkuntzea haundia da, ta kozinari neskameak ez daki zer erantzun, baietz ala ezetz.

—Ugazabak etxean egoten al dira beti? —dirautso mutilak.

—Gehienetan bai. Beste batzuetan, joan egiten dira euren seme-alaben etxeetara-ta; euren batzoki apainetara-ta.

—Orduan, urrutizkinez hots egingo deusut eta zuk...

¹ *seta*: tema.



VII

Gabontzarenean bizi zanean, Nikanor, behartsuago izan zan, jantruke ta egon zalako lehenengoan. Gerorantz, ostera, edozein langile edo alogereko aina egin danean, eukiitsuago da, itxura batean. Jateko ta jazteko irabazten ei dau. Asteak joan, asteak etorri, ez dau, horraitio, diru ganezkakorik izaten beragan. Ostatua ordainduteko, narras ta guztia beharrean ibiltan da. Txanponak nekez datorkioz; joan, barriz, errez. Edan bere egin behar da, ta egunero; erre bere bai, ta sarri ganera egun bakotxean; zine-teatruak ikusi, *ostiko-jokoetara*¹ heldu, eta baita *ukabilkarien burruketa*² ankerretara bere. Eta jaiegun inguruetakoa gau-txoriketak, eta abar.

Ostatuko etxekandreari priesa bage ordainduko deutso, ta ez osoro, bere zorra. Atzeratuak ditu zorrok, eta metatuaz metatuaz doazan ezkeroko, emakume arduratsu harek ezin ba gogo onez jasan, horrelako ostatari nagirik.

Izaten dau, bere aldetik Nikanorrek, atxaki ta akiakula ederrik, luzapideak lortzeko. Gitxi irabazten dauala; laster jasoko ete deutson lan-saria ugazabak; zapi, alkondara, kaltzerdi eta barrukoak ez dirala astero agertzen garbitu ostean, eta barri barriak erosi beharra izaten dauala txitean-pitean... Beste ostatu batzuetan, merkeagoan dagozala, gitxiago kentzen deutseela, hobeto maneua izaten direala hareetako jatekoak, eta are, ugariagoak. Hemen barriz..., gosearen musturrak noizean behin agertzen dirala ta etxetik

¹ *ostiko-joko*: futbol.

² *ukabilkarien burruketa*: boxeo.

kanpora jan behar izaten dauala *askari iskia*¹, baldin barruko harra apur bat zertuko bada.

Étxekandra moinoluzeak ez deutsoz aintzat hartzen atxakiok, eta haren zorrak harturik nahi litukeala izan, Nikanorri despatxua emoteko...

Urteen kateak ba ditu bere maila ta guneak. Muga berezi ta ohargarria, ostera, hoguei urte ingurukoa. Gizasemeak, gizaldiz *gizaldi*² ta belaunik *belaun*³, jator ta egokitza etsi dau lotsea. Muga horretan *dendunez*⁴ ta zentzun ikutuz beteko dau. Ala, joera makur ta esan ezinekoaren menpe jarriko dau, gazteak, bere bizitzako haria, jarduna.

Antzinatik ezaguna izan arren, ez leuke gaur edonok ezagutuko Nikanor. Harako gazte ausart haxe, orduan inoiz ta inori atsegingarri izana, orain ausardia ganezturik, lotsabaga sailean sartu dala adierazi leiteke. Zintzotasun-ikututxua ba eukan euki lehena-go; baina orain ez da lehena. Argi ta garbi.

Berberak bere, ba daki hori, ta edonok entzun leio hari arrokeriaz agertu ohi dauana:

—Hogei urtera hurreratu arte edo, egon naz ni erdi lo; baina, hori amaitu da, jaunak. Egin daiela lan tentelak, eta lotsadunak edo lotsatiak. Lan egin bage biziteko, adorea behar da, motzailak esan ohi dabenez. Adorea ta arpegia, arpegi haundia.

Mundukoak irakatsi deutsoe dotrina hori. Aspaldion entzun dituanak entzun eta ikusi dituanak ikusita gero, horra Nikanor azkar ta oilar barriak, bere burubidea azaldu.

«Behartsuak lan egin daiela... gure gurasoak egin eben legetxe»...

Eta lanaren igesi hasirik, inorena maiteago dau orain. Sozial irakatsiak mamurtu ditu eta ausnartu, ta horrezkero, egiteko baino bestek egina batzeko, gertuago dago. Ezagun ezagunean al-

¹ *askari iski*: kopau, meriendatxu.

² *gizaldi*: mende, siglo.

³ *belaun*: belaualdi; «generación».

⁴ *dendun*: oreka.

pertu da, ta ahalegina ta nekea auzokoarentzat egokiagoak dirala, norberentzat baino.

Jagiteko ordua aguroegi heltzen jako goizean, eta ostatu sosterreko oheko izarak, haren berbetatik zikin samarrak diran arren, ederto asko inkauten jakoz egunaren etorreran. Eta era horretan, zelan jagi? Ta zetarako, ganera, gorputza nekatu, jateko lain ozta irabazteko?

Gabontzak beste modutan aituten dau bizimodua. Burdina zaharrak eta metal-txatarrak han hartu, hona ekarri ta geroago hara sakabanatu edota pilatu, nasai asko gizendu dau bere zarpa lehen zimela izana.

Eta zegaitik beste hainbeste ez egin norberak? Hori esan ba!

Goizetan, Nikanorrek, gauzak argiago dakusaz; baina gauera ezkerro, sakelean txanponik badauka, ala ardaua nok pagaua izan balei, lausopean jarten jakoz buru ta begiak; eta orduan, atsegina-gotu ditu irri zoroa ta ardurarik eza, buruauste ta gorabeheren artean bizitea baino.

Ardaua beraz gustauten jako, ta ez edozein arda, gero! Hoba, beti bere, halako edari indartsu ta markakoak; jakina ba. Langileak edatea merezi ez baldin badau, nok orduan, merezi izango dau? Kapitalistak, ala? *Domuak*¹ zer egingo leuke ba, langile ta emuts bulartsurik ez baldin balego, emuts otsein eta morrontzapetuak?

Erabagirikoaari egitea dagokio.

Ugazaba, egun osorako kanpora joan dala-ta, burdikada bete txatarra eroan eragin deutso Nikanorrek beste morroe gazteari, *hain lekutara*². Bete dabe burdia, ta joan da. Laster bihurtu da hutsik. Gero, beste eskari batzuk gertauten jardungo dabe Nikanorren esanera, morroe biak.

Lehenengo joan dan burkadea, landa baten itxi dabe, trenbi-dearen ondoan. Handik gerora, hartu ditu burdinakiok beste txatarreru batek eta han daroaz bere tegira. Merke samar eroan dau,

¹ *domu*: kapital, diru.

² *hain lekutara*: hainbatera, norabait.

baina horren balioa, Nikanorren sakelerako izango da. Ondotxu daki hori erosleak; baina, lapurrak lapurrari laztan.

Hortik datoz mutilaren lehenengo irabaziak. Irabazi garbiak, ezer jarri ez, eta guztia jaso... Garatz bitxia, negozio zindoa, arrano-tan! erosi bage saldu, gatxik eta galtzairik jasateke.

Zer egin ete eban Gabontzak berak, hasieran?

Eta orain, beti dabilkio hasarreka, lanera berandu heltzen dala, kontuak atzeratu egiten jakozala, Nikanorrek ez dakiala nahikoa, kontuak gero ta ugariagoak jasean eta artez erabilteko, eta alogera erdi ostu egiten ete deutson, baldankeria hori dala-ta. Ta azkenen buruan, ondasunak —dino Gabontzak— ez dira guztienak, mutilak azaltzen dauanez, sortu eta eratuten dituanarenak baino. Lanari, honenbesteko bat emon ezkerro, egoki ordainduta dago ordu eskas batzuetako lana ta jarduna...

Ugazaba tinki-minki egon arren, bost ardura deutso Nikanorri. Honen zerak, beronen ustez, jo ta kea dabiltz, egunean baino egunean erosoago.

Jai arratsalde honetan, bere asmo bat bete erazo nahi dau. Handikien etxean, askari on bat egitea, jan eta edan dezente, inoren lepo. Zizili morroskana zintzoari, maite dauala adierazoko deutso barriro bere, eta...

Urrutizkinez deitu deutesonean, Zizili ezetz esateko gauza ez da izan, eta ugazaba jaun-andrak kanpoan dirala-ta hortik hemendik, Nikanor bere *uzia*¹ ta apeta zitara, bete-hurren dago.

Ezkongeiak ete diranentz? Oraindaino ez edo; baina emakumeak, azkenean sarriegi buru izan ohi diran arren, maitakuntza hasieran, lehenengo urratsetan, andrazkoa bigunago izaten da gehienbat, aurkitu barri dauan printze urdina galtzeko *lazturaz*² edo.

Ta ordu jakinean, hemen dator Nikanor. Neskamearen etxe ondorantz. Arratsalde erdia da. Garaitiko neskameak ez dagoz

¹ *uzi*: apeta, antsia.

² *laztura*: bildur, «terror».

etxean, *aldeta*¹ baino. Jai-arratsaldeko ordu laburretan, hamabostean behin, askatasun apurra alai antzean gozartu nahirik.

Etxe aurrean lorategi txikerra dago ta sartzailerako ate nagusia, burdinazkoa, dotore egina, zabalik. Etxearen *saihats*² aldera, beste ate bat, *mirabetzen*³ diharduenak sartu-urten egin daien.

Zizili artega dago, ta gurago izango eban mutila hara behintzat, agertu ez balitzakio.

Edegi deutso atea, lehenengo oinian, otseinen atea, Zizilik; eta barrura da Nikanor.

Isilik berba egiteko dirautso kozinari mardoak. Barre-karkaiak egiteko gogoa dauka, ostera, mutilak. Lotsabagea! Mesedez isil samar ibilteko esan neskameak, eta *etxaramon*⁴ egin maitari-geiak. Inoren aurrean ez dagozala-ta, ba doakio hau hari laztan egin gurarik. Beso ta eskuak luzatu deutsoz Zizilik, eta erdi hasarez, geldi ta behar dan lez egoteko, dirautso.

—Ardau usain haundia dozu, Nikanor, ta dagoaneko ez da hori ondo!

—Zer daukazu ba niri eskeintzeko, laztanik ez dozun ezkeror?

—Zerbait jan guraz ez al zara ba, egon?

—Jan bakarrik, ala?

*Arrautzore*⁵ ederra gertu deutso, arin arina, ta ogi zuria ipini mahai ganean, haren lagungarri. Ezagutzen dogunez, markako ardaua eskatu deutso hurrengo, mutilak.

Edariak, giltzpean dagoz haundiki-etxean, eta Nikanorrek, gainera, nahikoa dauka euki aldean, neskatilearen eretxiz. Gerogarenean zerbait emon behar izan deutso, ardaun arrunta, zaragiti-koa. Ez dago kontentu mutila. Ez ardaun markakorik, ez laztan gozorik.

Neskameak daukan eskuturreko erloiua, polita da gero! Hori xe dino prakadunak eta ikusi nahi leuke eta ikutu. Urregorri apu-

¹ *aldeta*: alde eginik, aldentuta.

² *saihats*: albo.

³ *mirabetu*: zerbitzatu.

⁴ *etxaramon*: ez jaramón.

⁵ *Arrautzore*: arrautzopil, tortilla.

rra ete dauka ganekaldean? Eskuratu dau Nikanorrek, eta berari begira ta begira diardu.

—Honelako metalik ez dago gure Gabontzaren tegian. Baina hauxe da metalik guriena, mardoena, meheena izan arren. Hauxe da munduko giltza!

Askaria jan dau eta edan bere dezente egin dau, neskame mazararen gogoaz kontra. Barriren barri estutu dau neskatilea beso artean, ta gura ta gura ez mosuka jardun izan dau. Alperrik gonadunaren eskari makalak. Bakartadean, gizona aberekoia go bihurtu dala dirudi, ta aldia aurretiko zor-eskubidea aitatu nahi dau. Indarka antzean doaz arrats leheneko orduak, neska-mutil artean. Ez dago gertu Zizili horren errez amore emoteko, orduaz aurretiko egiuneari buruz. Orain arte lortu dau garaipena, baina...

Zer? Leihopeko kale-zatian, zarata ezaguna zertu dau Zizilik. Aguro doa leihorantz. Mutila, ondorik.

Kalean, ate aurrean, etxeko jaunaren beribila geratu da. Txoperra bakarrean al dago barruan, ala ugazaba jaun-andrak ete datoz etorri, euren jauregitxura?

Ene bada-ta! Batera nahi bestera izan, neskamea estura gorrian jarri da. Ugazabandrea bildurgarria da, ta ez leuke *laketuko*¹, seguru asko, bere etxean neskamea gizona kanpotar bategaz bakarrean egon dala jakiterik. Eta txoperra bera, ez da asko hobe, lapiko-txikia dalako, ikusi-alean azaltzeko, berebiziko *txiritolea*² izan bere-ta!

—Aguro kanpora, Nikanor! Hurrengo domekan alkar ikusiko dogu. Bildur nintzan, eta horra!... Ai, ene!

Bultzadaka eroan dau mutila serbitzuko ateraino, eta han egotzi dau mailadiko unadan, eta atea arrapaladan itxi.

Saltari dabilkio bihotza bularrean neskame gaisoari, sekulako taupadak eginaz. Haxe izan da ikarea! Nikanor joan da, zorionen batean. Oraintxe konturatu da Zizili, harek eskuturreko erloiu urrezkoa daroatsona. Hurrengo jaiegunean beraganatuko dau neskameak. Bai behin!

* * *

¹ *laketu*: itxi, permititu.

² *txiritola*: berbalapiko, barritsu, «tarabilla».

Barri ez atsegina jakinerazo deutso ugazabak Nikanorri.

Izan bere, aspaldion eztabaida garratzak izan ditu Gabontzagaz. Honen emazte Mautsa, katu baltzaren jabea, ha bere ez dago orain lehen hainbatean Nikanorren alde. Senarraren esanera dago, eta kale gorrian behinola hartu eben mutil umezurtza esker txarrekoa dala autortu dau.

Albistea ez da besterik hauxe baino, orain behineon: Gabontzak laster, garazkidea edo sozioa izango dauala.

Nikanor, ausaz? Bai zera Nikanor! Ba jagok hobarik!

Beste txatarreru bategaz bat egingo dau, ta bien diru zatia ta beste zerak batu ezkerero, haundiagoak izango dira euren jardunak, arlo zabalagoak, sail hedatsuagoak, eta horrezkerero, mamintsua-goak irabaziak, oinarrien laingotasuna lortzea baldin egingarri babiliz. Langileak, indarra alkartasunean dagoala esan *daroe-ta*¹, Gabontzak bere, dotrina bardinaren onurea eskuratu gura leuke. Ta Gabontza, ez da tentela. Gabontza ibiliko da, Nikanorrek horrenbeste uste izan ez dauan arren.

Argi dakus gaur mutilak, lehenago susmau bere egin ez dauana. Inoren lepo, *mantxunga*² jorian igari ibilteko txakur-amesak, bapatean izotzak joko deutsoz, hurrean. Hortik hemendik nagusiari «*hiru zaku*»³ egiten hasi zanik hona, hain polito isilean diru *mortxakak*⁴ eskuratzen eta...

Emoi gozagarria dakartson iturburua, agortu egingo ete jako lasterrean?

Legeak sortutako zera, legepe ta legetsua izan bere-ta, late-riak ba ditu, jakina, bereak eta bost. Aspaldian gogoan izaniko eguna, egun iguin ta gorrotagarria, heldu jako Nikanorri. Esan deutso esan, Ezekiel laguntzarrak, gorabehera *zipotea*⁵.

Zera, soldautzarako garbitasunak, zertzeladak, hazi-orraziak

¹ *esan daroe*: esan ohi dabe, esaten dabe.

² *mantxunga*: arduragabetasun, nasaitasun.

³ «*hiru zaku*»: lapurtu, ostu.

⁴ *mortxaka*: pilo, sorta.

⁵ *zipote*: zaputuz, muker.

konpontzen, udaletxera joan behar dauala harek. Eta Nikanor, jaiotze urtebarru bardinekoa izanik, nonbait honek bere, dagoan hurian agertu beharko dauala bere burua, nahi ta dei berezirik ez jaso, erbestean jaio zan-ta. Osterantzean, ohi dan lez, itzuri edo igesletzat joko leukie-ta bildurrari bere jaramon egin behar ba, Ezekielen berbetaz.

Urte-adin latz eta bapere ez pozgarria mutilarentzat. Gau hare-tako orduak, hordikeria bage emon ditu, apal, mandoak hilda lez. Buruko garunak urtu ainean dabil, jo ta su gogoetan, pentsamentuan.

Goiz batean, ba doa Udaletxera. Hemen hartu deutsoez argitasunak. Beste egun jakin batean bihurtu beharko dau barriro, lagun talde ugariaren gehigarri. Neurriak bere izentau deutsoez, luzera, bular-ingurua edo saihets-uztaia, abelgorriak neurri-kordelaz egiten deutseen antzera. Etenik bere, ez dauka, sarri askotan Gabontzak horrelako destainak arpegira jaurti arren.

Gaisorik ez dago, gatxik ez dauka, dirudianez; arduaz edan-sarri izatea eritzat joten ez dabelako, adin horretan. Sendi gorabeherarik bere ez, umezurtz gordina; jarei ta bere esku gelditzeko, ez dau agertu ezer indardunik.

Olarratz jaunaren irudi dotorea ikusi dau egunkarietan. Ahal-duna izanaz ganera, kargu haundi bat emon deutsoe laterri-ara-zoetan. Begira dagokio Nikanor, ta lehen baizen zaldun eta jaun-txu deritxa.

Halan bere, oraingoan harenganik urrun dago, baina hona hemen nundik nora dagoan liberal-kume baten menpean. Gabontza, zorri hil-biztua, liberalen sailean sarturik!

Gizartea, lur eta sorkari diran zer guztien jabe egitea, horixe da mutilaren arau-burua. Gizarte-zaletasuna behar dau langileak, gitxiren menpe dagoana, askoren esku geldi dedin. Baina esanak esan, liberal izatea dirua izatea baldin bada, ez leuke, ziur asko, beste ezer izatea gura izango Nikanorrek, horixe baino: liberal. Zer esan bako!

Bertan behera gelditu zan Ziziligazkoa. Honek, behin eta barri-ro adiskide ta ezagun batzuen bitartez, eskatu deutso eskuturreko

erloiuia bihurtu daiola, aspaldion Nikanor haren begien bistara bere, agertu ez dalako.

—Ankerra ta guzurtia! —dino Zizilik mutilagaitik. Erloiuia ostu deust zantar horrek. Nire begira ebilelakoan nengoan ni, ta horral Nahiago izan dau, arean, nire orduari urrezkoa. Herrizainari jakin erazoko ete deusat? Baina, nor daukat lekukorik?

Eta horretan geratu da erloiuaren auzia, eta Zizili, hain barik. Ez orduari apainik, ez senargei zatarrik, hainbestean bere, tira!

Dakianak ba daki jakin, eta baita Nikanorrek bere, ba dau eza-guerea Gabontzari bere ondasunetan atximurkada txiki bat zelan egin leion.

Asmo bikotxa agergarri da. Diruaren preminaz dago mutila: edan, erre, hara hona ibili, neska biloiz arteratu ahalik sarrien... Eta diru hori, nun aurkitu leian bere, ba daki.

Inor konturatu bage, egin nahi leuke azpijoko hori. Ta egingo dau, okerrik ez bada.

Bankuetxean, Gabontzaren kontuan zenbat dagoan ba daki. Hor dago aska ona, jan-edanaren jabe egiteko; hortxe, eskuarte ugaria, hartu ahal izan ezkerro. Lehenengo eretiaz baliuako dala, zin egin deutso bere buruari. Jaungoikoaren egia!

Heldu barri dan korreutik hartu dau, handik sei hilebetero bialdu ohi deutsoen kontu-zehetasuna. Ta hantxe, zerbaki bat aldatu dau; ta hogeit mila erreal beherago utzi, Gabontzaren alde azken lerroan agertzen dan oinarri barria. Etxean bertan daukan liburutzuan bere, aldaketa bardina egin dau, ardura haundiz, ta eginikoa polito batean *erabiauta*¹ utzi dau. Gabontzak ez dau ezer igarriko. Ez da agiri ezer ohargarri.

Ugazaba agertu danean, *ezarian*², beste kontu batzuekaz nahaste, ikusi eragin deutso hari mutilak, heldu barri dan *kontu-bil-bea*³. Eta Gabontzak ustekabean, iraisez begiratu eta beste askok

¹ *erabiauta*: aldatu.

² *ezarian*: igarri barik.

³ *kontu-bilbe*: kontu-laburpen; «extracto».

lez, Bankuetxeak inoiz ez dabela okerrik egiten-ta, hainbestean onetsi dau ikusirikoa. Bai ba, meta haundian galburu batzuk gora-behera, igarri bere ez. Bai, horraitio, orain hogei urte izan balitz! Orduan, Gabontzak lurrezko lapikotxuan gordeten bere lau-koak!...

Ta egunak aurrera... Burdina-txatarrak ba dakarrez, eta ba da-roez urtuteko, laba haundietara-ta; honeek saldu harako; hortik ekarri erosiak, hurrengoari eskeintzeko. Sal-erosketa jatorra, eta bitartekoz gehitu dana, eralgi-beharrak kendu ezkeru, horra hor irabazia; herdoiez ta ugerrez bete ia izan arren, garbia amaieran.

Kanpoan ei dabil, baina laster etorriko ete dan Gabontzaren herkide barria, sozioa. Urrunetan dituan ondasunak diru bihurtu ta haregaz batean, biak bietara egundoko garatzak egiteko. Eta norbait hori, dana dalakoa izan, Nikanorrenzat eragozpen itzela izango dana, begien bistakoa argiago ezin.

—Sasoia dok zeozer egiteko, Nikanor— dirautso bere buruari.

Ez dago lo. Soldautza-paperak, zapokeriz *emendiauko*¹ deutoz norbaitek; brigada bat hartu bitarteko, ta beronegaz *itundu*² da. Honek atzendu ta erabiauiko dau aurtengo soldauegien lerrokadatik Nikanorren izena; baina zerbaiten truke, ez gehiagoko bari-

Gabontzaren txeke-txortatik erauzirik, txeke berdeska bat bete dau, lerro-une hutsak horniduz. Hogeia mila erreala izango ditu kobrau-gei. Harako brigada maltzurari emongo deutoz mila erreala edo. Sari polita horren errez irabazteko, arean bere!

Oinaldean, txeke horrek, Gabontzaren firmearen antz-antzekoa dauka, Nikanorrek arretaz ta ikarabage, esku *artetsuz*^{*} egina. Aspaldian, zenbat ekinaldi ta aproba, haren taiuko idatz-aztarren berregina zertu arte! Bardina dala esan leiteke firma hori. Zelako

¹ *emendiau*: konpondu, burutu.

² *itundu*: konpondu.

³ *arte*: sosegu, pazientzia.

harrera egingo ete deutso Bankuko lehiatilan dagoan ogipeko zu-hurrak?

«Aitearen» egin dau Nikanorrek, aspaldion horrelako gauza santu-usainekoetatik urrun erabili arren bere bizimodua. Sartu da Bankura. Oraindino lagun gitxi dago, bezeruetarikorik. Gabontza bere tegira goizetik ager baledi, esango deutso hango beste morroiak, Nikanor soldautza-paperak egiten joan dala, horretarako dei egin deutsoelako.

Bankuetxean jesarri da, ta hango joan-etorriai adi dagokie. Norbaiti itxaroten bailegoan, egunkari bat mahai ganean zabaldu ta irakurten dihardu, nasai asko. Goiz erdia iraganaz, ba dator laguna gero ta ugariago, gero ta sarriago.

—Oraintxe da eretia —dino bere kolkorako.

Ta ba doa jente-lerroaren musturrera. Bat, bigarrena, hurrengoak, enparaukoak... Eta horra, Nikanor lehiatila aurrez aurre.

Hango gizonak, *antiparrakaz*¹ begiratu deutso txekeari. Hartu eta ba doa barrurantz.

—Ene! Igarri egingo ete deutso, agiri hori egiazkoa ez dana? Sasikoa dana?

Beste ogipeko gazte bat hurreratu jako leihotxura. Arranoa! Zerbait esango deutso. Zaharragoa, joan doa eta hari begira dago kio Nikanor. Joan doa, baina ofizinako tokian zehar, ingurubira datorrela dirudi. Bizkarretik oratuko ete deutso? Ala, belarritik, nagusiak mutikoari zigor antzean ohi deutsonez?

Ate batetik urten dau, ta ba dator honantz. Bai. Oker dabilenaren oinak, beti makur...

Ez, horraitio. Ba doa gizona beste ate batetik, eta honetan lehiatilako gazteak ba dirautso otoz otoan:

—Zelan nahi ditu berorrek, bost mila pesetak?

Zabaldu jako bularra mutilari eta arnasea nasaitu. Lotsagaldukoak bere, izaten ditue, antza, euren esturak.

—Hogeikotan.

Eta taka-taka, emon deutsoz, hamarreko mortxakadetan, bost liburutxu. Liburu eder maitagarriak, harako eskolan, Etxabelar

¹ *antiparrak*: betaurrekoak.

jaunagaz ibili zanean baino gehiago irakatsi ez, baina nunbait bere, Nikanor azariari atsegin haundiagoa eskeintzen deutsoenak!...

Handik urten, eta behingoan hartu ditu zuriko batzuk, estularriaren hondar mingotsa albait lehenen gozatuteko.

Eta orduan, azkar doa lanera, pozik, bekokitik darion izerdiaz arduratu bage. Ez dau ikusi Gabontza une haretan, eta nahi bere ez, jakina.

Arratsaldean, bila dabil errekluta-etxean, harako brigada amarruaren bizilekua non ete danentz jakin gurarik. Haraxe doa aguro. Berba labanak eta azalpen zehatzak emon deutsoz gudu-gizonak. Egoki geratuko dira zer guztiak. Zer esan bakoa!

—Zenbat?

—Esanikoa. Mila errealtxugaz, hainbatean.

Sakeletik atarau, eta ba damotsoz aitaturiko diruak. Hogeiko bi ta erdi. Eta alderdi biak pozarren, irabazia bientzat dan ezker.

Nikanorrek ez dauka orain astirik galtzerik. Ba doa beste iluntzetan lez, Ezekiel adiskidearengana. Azken agurra egingo deutso. Huri honetatik alde egingo dau. Ez dau nahi ez soldau joan, ez beragandu barri dituan txanponak, diru gozoak, arriskuan jarri.

Tamalez dago Ezekiel, aspaldion lagun eta adiskide izan daualako. Ez dabe lanik alkarregaz egin, baina ibilaldi atseginik bai, arean. Irakatsi deutsozan dotrinak, berberak baino hobeto mamurtu, iruntsi ta eio ditualako. Nikanorrek bere, ba dau penatxa baina... Orain hori, mutil umezurtza, egia esan, lehena ez dana! Honen bihotza, gogor samarra bazan izan; orain, oster, la-tza, idorra, samurtasun bagea dala esan beharko. *Ahierra*¹, etxeramon zalea, minkorra...

Gabontzari bere, zerbait adierazi behar deutso, ezer esateke aldegingo baleu, susmo txarra hartzea izan leitekela-ta.

—Jauna, ba noa ni hemendik, eta huri honetatik.

—Nora? Erbestera zetan?

—Nire anaia nagusia, anaia bakarra, huriburu gorenean ikusi

¹ *Ahier*: arrenkuratsu, gorrototsu.

dabela, esan deust ezagun batek. Eta haren bila noa, ganora barik dagoala entzun dot-eta.

Guzur biribila da hori izan, baina Gabontzari ziri ederra sartu nahi deutso.

—Laster bihurtuko zara, ostera.

—Baietz uste dot. Bada ezpadan, gauzak euren zerean utzi nahi ditut. Hemen dagoz paperak eta zer guztiak. Zor dagoana; ordaindua; harturenak. Eskabideen erreskadak; eskeintza zahar ta barriak. Eta Bankuan zenbat dagoan, lehengo egunean ikusi genduan biok.

—A, bai. Artz egoala esan genduan, ezta?

—Bai, jauna.

—Asteko saria eskuratuko deustut oraintxe berton. Eta nahi ba dozu, etorkizunaren aurreztua... biderako ta?

—Tira, ba. Eskerrik asko. Zera... etxekandreaki adierazo mese-dez...

—Jakina ba. Eta zatozan arte. Ba dakizu datorren astetik beste ugazaba bat gehiago izango dozuna.

Urrundu da Nikanor, munduan zehar hasi zanean, lehenengo *abetaldu*¹ eben etxe apaletik. Hamaika gomuta ba datorkioz gogora, baina ezina honezkero, urratsak atzerantz egiterik.

—Ugazaba bat gehiago, lantoki berberean? Horixe txarra —dirautso Nikanorrek bere buruari—. Ez naiok ni gehiago harra-pauko ez Gabontzak, ez haren sozio barri, dana dalako Mozolo horrek!...

Diru preskuaren jabe egin dan zorri hil-biztuak, lehenengo egi-tekoa, soineko dotoreak erostea izan ohi dau. Ez dago astirik, baina, orain horretarako. Bihar goizeko trenean, hanka! Bien bitartean okerrik ez baldin bada, behintzat.

Agur, Ezekiel laguntzarra! Agur, Zizili martzala,erloiu jabe izan, eta hain barik geratu dana, Nikanorrek diru-truke saldu daualako!

Gabontza ta Mozoloa alkarregaz atondu daitezala, gura bada-be. Hor-konpon! Katu balzdun andreari ez deutso arpegirik ager-

¹ *abetaldu*: abegi egin, hartu.

tu. Txatarradunen menpean egoteko morrontza apala amaitu da, behin eta betiko. Soldata mamintsua beragandu dau, ugazabaren borondatearen kaltez izan arren.

Ostatuko etxekandreari ez deutso ezer adierazoko, ez gaur ta ez bihar. Dagoala, noizbaitean Nikanorren zorrak *kitutuko*¹ dituaneko itxaropen gozoan....!

¹ *kitutu*: ordaindu.



VIII

Lanerako jagi behar ez danean, ez dauka gorputzak hainbeste nagirik. Atzoko egunaren ondorena, gaur, ez da horraitio, biharamona. Goizetik dabil norbait. Nikanorrek, lehenengo trenean alde dau huritik. Handiagoaren bila doa. Ez doa hutsik; ba dau eskuartekoa. Zorrak bere bai, baina hor-konpon esanaz, errez laga ditu garbitutzakotzat.

Langileak dakusaz, soineko maizturikoz, txapelak buruan, eskuetan zimeratxuak, ola haundietarantz... Egun osoan, liberalen azpian. Emuts errukarriak, behargin dohakabeak!

Beste modutan bizi dira ugazabak eta... lapurrak. Eta ugazabak ta eukitsuak, zelan eratu dabe hainbeste diru ta ondasun? Lapurretan eginda, gehienbat.

Eguzkia guztientzat agertzen ei da egunero. Nikanor *amarrutsuak*¹, ez deritxa horri zuzen esana danik. Gaurko eguzkia ez dau atzokoa, honek. Munduko gauza asko ez dira zer diranez, nori-ka baino.

Ordu batzuk egin ditu trenean, herriska batzuk iraganaz. Handiagoak bere bai. Begien aurrean dituan lurraldeak, apurka apurka aldatuak dira, *bardingak*², bestelakoak. Haren herriko hezetasuna urrituaz doakio lurrari. Bedar orlegi, landa gizenak gero ta urriago agiri dira. Beste antz bat, beste kuntza ta arpegikerea ta jantzia *darakuse*³ zugatzak, mendiak, etxeak, gizaseme ta gizalabak.

¹ *amarrutsu*: maliziati, maltzur.

² *bardinga*: «rancio».

³ *darakuse*: erakusten dabe.

Ibai zabalaren ertz gizenetan zehar doa tren, gero ta aguroa-go. Hona hemen eguerdi-aldea, ta bultzia geratu egin da. Geltoki hazi ta zabala dago begi aurrean. Lagun asko jatsi dira. Baita Nikanor bere. Han dago kantina txiker bat; alborago jantoki *hedatsuagoa*¹. Mahaitxuak han hor hemen, erdi gertu. Ederto. Aldean dirua daukanak, ez dau zetan goserik ikusi. Bazkari mamina eskatu dau Nikanorrek: salda, lebatz, saihets-okela zati biribila; arda ona, ogi zuria. Ta akeita, txola ta txokorra...

Trenaren txilinak oles-egin dau. Ez da, ostera, mutila bere je-sarlekutik *lokatu*². Doala. Beste ibilpideren bat lortuko dau.

Kalean zehar doala, saltzaile ibiltaun bat ikusi dau, bere gauzak eskeintzen. Automobil soster bat dauka honek. Joan egingo ete da huri horretatik?

—Zera... tren huts egin dot eta, mesedez, norantz joan behar dozu, iparralderantz ala ibaiaren urak hainbatean?

—Bai, ibaibeherantz joango naz, ta laster ganera.

Han doa gerotxuago, saltzailearen beribil tartainean Nikanor bere. Bidean alkarri ez deutsoe jaramon handirik egiten. Orduak ordu, gau lehena baino ez danean, beste huri haundi batera jo dabe. Eskatu deutsona ordaindu deutso mutilak. Eta banandu dira.

Txiologa edo ostatu-etxe batean sartu da. Ez dago lagun askorik hemen. Gela polita eskeini deutsoe ta afari atsegina, piparmi-na larregi, arean. Egon leiteke hemen, dino bere kolkorako; baina oraindino Gabontzagandik hurreegi dagoala deritxa.

Gabaz, ostera, lotarakoan, ez daki dirua nun gorde. Mordoa eukiten ohitu eza. Ta galtzeko bildurra, kenduko ete deutsoeneko kezka urduria, Burkopean sartu dau, sudur-zapian bilduta.

Barriro trenera biharamonean, ta ba doa urrunduz urrunduz. Bidean jango dau, jan-*organ*³. Baina hurrengo huri haundi-

¹ *hedatsu*: zabal.

² *lokatu*: mugitu.

³ *orga*: «vagón».

ra heltzeaz dagoala, geltoki koskor batean jatsi da. Barruko harrak darabil artega ta geraka.

Geroago, kamioiren bat topau dau, berak nahi dauan bidean zehar *doakena*¹. Ta barriren barri, trenera hurrengo herriska batean. Katu-emea horrelantxe ibili ohi da bere kumakaz, Nikanor bere poltsa ostuaz dabilen araura.

Lur biloiz murrizten ostean, barriro dakus mutilak, lurralde gizenagoa. Zeruan zehar, txori-sail galantak ikusten ditu. Trenbideak luze ta luze egin dira, mendi txikerren *isurki*² maminean. Hango zugatzak, lerroz lerro jarriak dira, bai luze bai zabal. Arbola ezezagunak mutilarentzat. Bere jaioterria ikusi bageak.

Olivadi hedatsuak, mahasti ta ardantza zabalak; mahasti-ondo motzak, lurretik eskas jagiak. Trenean harantz honantz bihurgu-neak bide-lerroa aldatukeran, ikusgarri agiri dira arbola erreskadak, *marratsaren*³ ariak *zuta-zeharrak*⁴ ohi dituan antzera.

Iluntzean, zeru aldean zuri-gorri zoragarriak. Almendra-ondoak, iko zabalak, ur *erreten*⁵ bereziak hormatxu estuetan urbi-deak dituela, gizonaren eskuz sorturiko errekastoak.

Laster, iluntasun baketsua. Izarrak dirbiz zidarrezkoak egiten ditue. Geldiune honetan jatsi da Nikanor. Handik ordu bi ala hirura dago huri haundi bikaina. Herri sosterora, etxe apalak edonun, *oinbizitza*⁶ bakarrekoak gehienbat. Hango lagunak baltzez jantzita dagoz, emakume ta gizonetakoak: alkondarak, prakak, biserak; gonak, jantziak, oinetakoak. Etxeak, ostera, zuri zuriak dira, ta lurak gorri antzekoak. Usain berezia dago etxe-arteetan. Algarroba usaina. Nikanorrek atzetasuna erakusten dau. Begiak zabal ibili da egun zatian, inguruok ikusiaz. *Ortze*⁷ aldea kolore garbiaz dago. Urdin gardena dauka jantzizat eta eguzkiak halako urre-izuria dau, jarraipena ta epelaro gozoa eskeinirik.

¹ *doakena*: joango dana.

² *isurki*: hegi, magal, hegal.

³ *marrats*: zaku-oihal; «arpillera».

⁴ *zuta-zeharrak*: «vertical-horizotal»-ak.

⁵ *erreten*: ubide; «acequia».

⁶ *oinbizitza*: etxebizitza, pisu.

⁷ *Ortze*: zeru.

Aurrera egin behar dau oraindino, herri txikietan ikusia ta ezagutua izan leitekela uste daualako. Bera lehenengo egon zan inguruetan agirian dagoan hormako armari bateko esana, nunbait, gomutan: «Kalte dagianak, bizarra lepoan».

Eta huri haundian sartu ta honelantxe ezkutauko dau bere burua, lehenari agur mukerra eginaz.



IX

Zerua ta itsasoa urdin urdinak diran huri haundiraino heldu da Nikanor. Mediterraneo ertzeko huri haundi, eder, bikaina! Hementxe bizi nahi leuke mutilak, jaun eukitsuaren antzean. Ez da asmo ta burubide txarra; baina ezta erreza bere.

Txiologa apal batean topau dau beretzat habiatxua. Jan ta lo egiteko *alogua*¹. Berrogei ostatari ba dagoz han horretarako. Esan deutsoe bere gelearen numerua. Hango arduradunak, oster, goitik behera begiratu deutso. Ez al dakar mutil gazte honek maletarik ez pardel txikienik bere? Ostatuko nagusia ez dago gutiz erara.

—Nundik zatoz? Eta, ba al dituzu zeure buruazko agiri ta paperak? Loturarik ala pardelik bapere ez?

Euki ez dauka, harako *zedulea*² baino. Orduan, barriro laster bihurtuko dala, ta maleta bila doala dirautso. Kalera danean, pentsino-etxe hari begirakune errea egin deutso. Utikan! Ba doa besteren baten bila, huri zabaleko kale medarragoetan zehar. Aldean nahikoa diru dauan gazteari, izan bere, nok eta txiologa bateko arduradunak egin behar ete deutsoz hainbeste itaune? Bere bizialdikoan, lehenengoz daki Nikanorrek horrelango konturik. Lapur-usaina ete dario ba?

Bila dabilenak idoro ohi dau-ta, aurkitu dau nahi leukeana. Etxe apala, lo egiteko bakarrik. Senar-emazte nahikoa zaharrak dagoz bertan eta seme bat, langilea berau, bizi dira han. Beste gela

¹ *alogu*: erosotasun.

² *zedula*: garai bateko gaurko karnetaren ordezkia.

bi ditue inori eskeiniak; besteak, gizon gazte bat eta emakume ez gaztea dira. Etxe horretan lo egingo dau soilik. Hemen ez deutsoe ezer galdetu, ez nora doanik ez zer dakarrenik bere. Horixe nahi eban Nikanorrek.

Jan, edonun egingo dau. Jan eta edan. Huri erakusmeneko hori ezagutzeko, aukerarik zoragarriena izango dau. Ba dauka patrikeran diru beroa, ta indianuen erara bizi izango da, jan ta ibili, laukoak amaitu arte. *Amaitu daitezanean*¹, ez dago zetan ardurarik izan, zelan zaindu, zelan banandu. Dagonean, bon-bon; ez da-nean, egon.

Jentearen azkar ibili beharra ikusgarri jako. Lehenago bere oharturikoa, bere herritxutik aldeginik, Gabontzarenera jo eba-nean.

Gabontza! Zelan ete dabil txatarradun zeken hau? Hartu ete dau erkidea, sozioa? Konturatuko ete da inoiz, hogei mila erreal gitxiago dituanik Bankuetxean? Ez beste urte-erdian, gauzak artez ta euren senean badabiltz. Hala ta bere...

Huriaren edertasunak amaibakoak dirudie. Halako giro, epel-aro, nasaitasun, lur naro eta jendaki erne ta eraginak edonon ondasuna harrotu ta barreatzen dauala esan leiteke. Alderdi liluragari ta gogokoa!

Kale luze luzeak, etxe zabal jasoak, zugazti ikusgarriak, lorategi polit eta txukunak, inguru aberats *aitorak*²; kai ontziz betea, joan-etorritzko tren ta beribil sailak, tranbien zaparradak, gau-argi doto-reak kale ertzetan. Janaritegiak, kafetxe izugarri hedatsuak, antzoki ta zine-aretoak nunnahi; emakumeen toki erosoak...

Guztiok bere hurrean, alboan, eskuar, aukeran, asa-asa.

Indianu jatorren bizimoduaz jarduteko, etorria behar, osteria. Ta Nikanorrek etorririk ez euki, ekarria baino. Gabontzari egin eutsan atximurkadea, besterik ez. Eta kendu bai, ta ez ipini, ez dauka orain burko azpian bere diru-mordoa zetan³ gordeten ibili.

¹ *amaitu daitezanean*: amaitzen diranean.

² *aitor*: emankor.

Zarpa hori ezagunean zimeldu da, zaragi emonkorren antzean, bere barrukoa muturretik txitean pitean *mozkindu*¹ ezkeru.

Ozkarbi ederrak urdin urdin dirau, ta itsaso gardenak, zoragarri. Edari finak, tabaku gorria, emakume lirainak izan ditu auke-ran. Burpilik ez dabil ondo koipeztu ezik, eta zati baterako zeru gozora heldu zala uste ebanak, haizeetako amesak erreta, gorana-hiko hegoak hausita, jo dau legor idorra, ontzi gobernubakoak hatx gogorra legetxe.

Bizibeharra, barriz, eguneroko zera izan-ta, azkenengo lau-koak *iraungi*² orduko, erabagiren bat gogartu dau Nikanorrek, ha-rako «aberats» uste izanikoak. Besteren menpe jartea, azkena iza-nik, bere kontura hasiko da zer edo ha egiten. Ta zegaitik ez saltzaile, kalean, ibiltaun? Bai; inoren azpian egiten dana, ugazaba gizenduteko baino ez da. Aspaldion, egia esan, erdi ala oso ahaz-turik izan ditu Ezekielegandik ikasiriko gizarte-dotrinak. Izan bere, ziskuan txanponak bolbol irakinean diharduenean ez dauka, dau-kanak, gizarte-auzirik, bakotxa bere ona ta onura leguna baino.

Usain gozoa, urrin ta *likurta*³ zorabiogarrizkoa bere, erabilten izan dau, ta hangoen erara, urrezko erastuna jarri bere hatzamar makalean. Hortxe dauka orain ondasun apur bat, ondo ordain-dua lehen, geroago galduaz salgei jarteko. Gabontzaren diruak emoniko jabetasun ta jauntasuna apaldu ta ezereztu bidean dago. Ahaltzuak bere, behea joten al dabe? Dirutsuak inoiz erre kara joan al dira, *amilagan*⁴ behera?

Egunaren lehenengo lan-orduetan, lo egiten izan dau. Eguer-diko argi urretsupean kaleratu, ta leku apainetan jan-edanak egin. Iluntzean, ikusgarrietan atsegindu; gaupean, neska *julis*⁵ alai ta *daldaxekin*⁶ jolastu, soinu eme ta leratsuak entzunaz. Bere logela merkea sarritan hutsik egon ohi zan egunsentirarte.

¹ *mozkindu*: urrupatu, kendu.

² *iraungi*: amaitu, gastatu.

³ *likurta*: usain gozoa.

⁴ *amilaga*: amildegi, troka.

⁵ *julis*: emagaldu.

⁶ *daldaxa*: suster gitxiko andra.

Beste askoren artean, neskatila bategaz egin dau ezagupide sakonagoa. Haragizko ta hitzezko ezagupidea. Emakume gautxoria, gorputza salgei izatekoa dala uste dabenetarikoa. Beronike deritxa, ta dan baino zaharrago emoten dau. Andrakume txaparra da, bete. Nikanorrek «Bero-Bero» deritxa, ta ba daki honek zegaitik. Gau batean ezagutu eban akeitetxean, alkarregaz afaldu eben, eta baita luzaro bata bestearen ondoan egon bere. Adiskidetasunak iraun dau, bata alde batetik eta bestea bestetik sarri askotan joan arren. Mutilak, harengan, hartu ta utzi, bizilagun aldarte-tsua besterik ez dakus. Bero-Berok, oster, mutil honenganako joera ta nahia agertu dau. Mutilaren garramuraz hasi zan *lera*¹ gori bezau ezina, alkarrenganako gurari ta lokarri zintzoa, ziur ta ez aldakorra izatea nahi leuke neskeak. Arinkeriaz hasiriko joko eroa ta hezea, gizon-emakume zindotuen alkartasun bihurtu gura dau Berok. Nikanor, haren ustez, erdi hordi ta nahikoa lizun izan arren, ez da edozelako mutila. Ba dago zerbait haren bihotz hondarrea jasogari litzatekeanik. Barre egiten deutso mutilak, hola-ko esaera zentzuzkoak entzunik... emagaldu batenganik. Dirurik ez dan tokian, emakume dubakorik izan ezin leitekealako, agur egin gura deutso Nikanorrek. Azkenengo txanponak kendu nahi deutsoz honi, berak gorde ta ganoraz zainduko deutsozala-ta.

Zelan? Bere diru apurrak emakume lizun bateri utzi, maite-hitzak esan deutsozala-ta beste barik? Ezin horrelakorik sinistu bere. Gero, diru ta guzti, beste gizonezkoren bategaz joan daiten?

Emakumeak samurkiro berba egiten deutso. Nikanorren bihotza, barriz, ez da horren erreztu *beratuko*². Andren *erostak*³, beldarri batetik sartu, ta bestetik urten... Ta ganera, buruauste barririk gura al dau orain, hain zuzen, beretzako lain euki ez, eta emakume baten ardurarik hartzeko? Maitetasuna zer dan ez dakianak, ez dau emazteren preminarik.

Sakel biribila izan bitartean, toki dotoreetan ibili izan da. Orain hasi da beste herri-zati apalagoak ezagutzen. Kale estu ta meda-

¹ *lera*: grina, garramura.

² *beratu*: bigundu.

³ *erosta*: aiene, kexa.

rretan gauero, jentea ugari ibilten da. Mutil eta gizon gazteen esan-
nak entzuten ditu barriren barri. Harako gizarte-auziak bizirik di-
rau, lehen ainean. Laster gomutara ditu Ezekielen eretxiak; baina
hareek baino gordinagoak, zorrotzagoak dira entzun barri ditua-
nak. Gizartearenak, ez bakarrik lurak eta aberaskizun gaiak ta on-
dasun-erroak; gizartearenak, gauza guztiak izan behar dabe. Gi-
zartean buru diranak bananduko ditue ondasunak; eta ez
jauntxuak eta haundikiak. Are gehiago, gizon guztiak bardinak
izango dira, bizitza bat, jateko gogoa, jantzia ta lo egin beharraz
ganera, heriotzaren zain dagozanak, guztiak izanik. Azkenen bu-
ruan, agintaririk bere, ez dala ezetarako behar, jakin dau. Bakotxa
da nagusi ta menpeko; inor ez goian, edota guztiak. Ez goiko ez
beheko; ez aberats ez agintari; guztiak bardin, anarkia zoragarritzko
gizarte askatuan.

Horra hor Nikanorrek, azkenengo ikasle izanik, ikasi barri
dauana. Eta izan bere, zer ekian Ezekiel gizaisoak hemengoan
ikusian? Gizarte-ustariaren guna makala zan, jauntxuak eta agin-
tariak han bere, ba egozalako, Ezekielek berak behin baino sarria-
go adierazo eutsanez. Baina orain, ez. Ez dago buruzagien premi-
narik, eta dagozanak bere, sobera dagoz. Beraz, hil agintariak, hil
aberatsak, hil abadeak eta, erre komentu ta elizak... Nun egon da
orainarte Nikanor, horrelako aurrerakizun ustari gordinak jakin
bage?

Bero-Berok egiten ditu ahaleginak Nikanor zurututeko. Ez dai-
tela anarkisten saileratu, ez daitela aldra horretakoekin adiskide
izan. Nikanorri argi ta garbi dirautso, lan egin behar leukeala. Ho-
nelako gazte bat, zintzotu ezkerero, senar maitagarria izan leiteke-
la, eta Bero emazte ber-jasoa, bizimodu errukarri ta likinaz ahaztu-
rik. Mutil ona dago Nikanor, horrelako esanai jaramon egiteko.

Lan egin berak? Egin daiala Txitxi-k ala Txamorro-k!¹...

¹ Txamorro: Perico el de los palotes.



X

Lo egiten dauan etxetxuan, astero ordaintzen dau. Jantzi bariak erosi zituan lehendabizi, baina betiko erabilian, maiztu ta maskildu jakoz. *Zozkon*¹ oneko mutila izan arren, aldikada honetan gero ta eskasagoak ditu matorduetako janariak, ta jan zahar dagoala bere, edateko beti gertu dabilen ezkerero, *maskartu*² ta *txatxartu*³ da errime, Nikanor mutil gaztea. Dan baino zaharrago emoten dau.

Zerbait egin behar jango bada, ta korbata sail bat erosi dau bazar batean merke samar, ta maleta zahar baten sarturik, ba doa *txiñu-auzora*⁴, ta hurrengo kai aldera. Kale ertzetan jarten da, ta honi eta hari, han zehar doazanai eskeintzen deutse bere salkaia.

—Erdiok *saldu banengiz*⁵, nahi ta hain ezerezean emon, ez neuke galduko, ta tira! Neure txanpon hondakinak, eurok eskuratzeko utzi ditut-eta...

Lagunak, euren bidean, geldialdi egiten dabe, ta saltzaile ibil-taunaren arrazoiak entzuten geratu, batzuk *txakada*⁶ baten, beste batzuk luzarotxuago. Ikusi, ikutu, hatzamar artean igurtzi, burua atzerantz eginaz barriro begiratu, eta ba dirudi maleta zaharrean eta Nikanorrek besoetan, hasibarritan baino korbata gixiango dituala.

¹ *zozkon*: gorputz, itxura.

² *maskartu*: erkindu.

³ *txatxartu*: txikitu.

⁴ *txiñu-auzoa*: «barrio chino».

⁵ *saldu banengiz*: salduko banitu.

⁶ *txakada*: aldi labur.

Batzuk ba doaz, hutsik ala erostun, eta erosle barri izan leitezanak hurrera datorkioz. Ontzietako langileak, itsas-gizonak eta. Kolon-en irudi jasoari begiratzen deutso noizean behin Nikanorrek. Topau harek, noizbait, bila ebilen bidea. Zer egin beharko ete eban berak, bizimodu erazko baten jabe egiteko?

Hainbeste hitz eta barriketa, halako batean eztlak eraso deutso ta Nikanorren biriak nekea daukiela dirudi. Hamar hamabi lagun dagokioz begira ta entzuten; salgai daukazanen gorapenak egin nahi ditu baina berezko etorri ugaririk ez-ta, gogaitu egin dala dirudi, beti berba antzeko ta bardinak esan ta esan. Barritsua izateko bere, balio egin behar ba!...

Eguzkia goiskoan dago ta tranbiak urduri doaz batera ta bestera, bete beterik. Saltzen dihardu tratulari hasibarriak, eta dirua itzelean sakeleratuten. *Ataza*¹ barriztuaz dihardu orain. Zorioneko dirua! Aurtemein, hiru hilabete lehenago zaldunkume antza bere buruari harrokiro emon nahirik, esku zabalez txiri-mara eralgiten eban!...

Entzuleen arpegietara begirakunak egiten ditu, bere esanak zelako ondorena daben jakin nahirik. Huri haundietako begitar-teak, une oro jente barria, inor ez ezagunik gehienez, hainbeste taiuko gizon, emakume... Honetan, erosleen artean, zerbaitez ohartu da. Ene! Gazte hori... bera ete da? Bai, antza. Haren belarri luzeak, haren ezpanak, eta samea...

Gazte honi eskeintzen deutso, beren berengiz:

—Merkea dozu, ta mueta onekoa. Nahi al dozu erosi, Matxin?

Mutil gazte ezpan lodia konkorturik geratu da, bere izena entzun dauanean. Eta harritasuna zerbait *ausitu*² jakonean, erantzun bere bai, saltzaileari:

—Niri esan al deust, nahi dodanentz?

—Bai. Ezagutu egiten zaitut. Apurtxu baten itxaron al zinei?

—Itxaron? Bai, itxarongo deustat.

Korbata batzuk gehiago saldu ditu, ta entzuleak ba doaz euren bidean, bazkaritan. Begira begira jarri jako Nikanor beste gazteari.

¹ *ataza*: lan egiteko gogoia.

² *ausitu*: epeldu, baretu.

- Matxin zara zu; Matxin Zaputz.
 —Eta zu?
 —Ez ezagutzen? Sei urte luze edo iragan dira-ta, ez dogu harrezkero alkar ikusi behin bere. Ba dakit argalago nagoana, bai-na...
 —Nikanor!
 —Berbera.
 —Bibote horregaz, holako bisera motza buruan, eta kolore hori-baltz horregaz...
 —Zeu bere baltza zagoz, baltz-gorria edo.
 —Bai, itsasoko haizeak eta eguzkiak, ba dakizu ba. Untzian nabil aspaldion. Pilotu eginbarria nozu. Gaur sartu gara hemengo portuan. Itsaso barea hau, gurearen aldean. Hala ta bere, ekaitz gogorra iragan genduan harainegun. Ta zu? Noiztik zagoz huri haundi honetan?
 —Bost hilabete eskas.
 —Ta horrelan, kaleko saltzaile?
 Hamaika gauza ba daukie alkarri adierazoteko, zintzo jokatu nahi izan ezker. Euren ibilerak, ezagunenak, herriko jentearen gorabeherak. Matxinek barkuan jan dau, goiz-erdian ohi dabon bazkaria; eta huria ikusten urten dau.
 Ba doaz jantoki batera; bazkari on bat eskeintzen deutso Matxinek, eta ordaindu, jakina, gosekil antzean aurkitu dauan txikita-ko bere adiskide ta laguntzarrari. Mundua txikia da inoizka!...
 Noizean behin eztul-aldia izaten dau Nikanorrek. Jateko gogo haundirik bere, ez dau agertzen. Edan bai, gogozago.
 —Eztul egiten dozu.
 —Bai. Eta ez jat kentzen eztulgura zital hau. Gauetan gehiago egiten dot.
 —Jan eizu areago.
 —Ezin.
 —Ta arrastian zer egin behar dozu? Saldu, toki horretan ala beste lekuren batean?
 —Ez dakit.
 —Nun daukazu zeure etxea edo...?
 —Lo egiteko, etxe luze batean, gela soster bat.
 —Beste ondasunik?

—Ezer bere ez.

—Ta soldautzea? Nik itsasotik egin dot. Ba dakizu, gu lakoak, beti askozaz laburrago.

—Nik horretan, zoria izan dot, halanbeharrez. Libre urten dot —dinotso, guzur polita dotore azalduaz.

—Nor daukazu hemen laguntzaile, ezagun edo zeezer?

—Lagunik asko ezagutzen dot, arpegiz.

—Gauaz edota goizaldean sartuko gara barrero itsasora. Gaur arratsaldean zenbat irabazi zinei?

—Irabazi?

Nikanorren berbetatik azkar igarri dau Matxinek, harek bizi-modua irabazteko dauan ganorea, haundia ez dana. Ez dauka, antza, irabazi ziurrik. Galdu-gordean dabil, beraz; nun zer izango.

—Zegaitik ez zatorz herrirantz? Han ez dozu horrelako gose itxuraz inor bizi, Nikanor.

—Herrirantz? Zer daukat ba nik, han, zer galdurik?

Bazkaria amaitu dau Nikanorrek, zelan edo halan. Ez dau betekadarik egin, aukera mamina izan arren. Lagunak, akeita edan dau, ta *txolkadatuak*¹.

Ontzira doa Matxin; han jango dau arratsaldeko lauretan. Besteak korbata saltzen jardungo dau, ta gero zortzirak aldean alkar ikusiko dabe. Nun? Leku jakin batean: Montseny Bar dala-koan, *hain kaletan*².

Nikanorren arazoa, bardina izan da arratsaldean; baina lehen-go bestean dago; gehienak *saltzeke*³ daukaz. Etxera daroaz, biharamonen eskeintzeko han kalean zehar dabilzanai, bere *idun-lokarriak*⁴.

Beronike negar-zotinka datorkio Montseny *edangura*⁵. Zer gertatu ete jako neska garbi izandakoari?

¹ *txolkada*: «copa».

² *hain kaletan*: esandako kalean.

³ *saltzeke*: saltzeko, saldu barik.

⁴ *idun-lokarri*: korbata.

⁵ *edangu*: edaritegi, taberna.

- Niri ez. Nire adiskide maite bat hil da. Margari!
- Beste urdanga bat? —itandu deutso mutilak.
- Nahi dozuna, Nikanor. Baina heriotza hunkigarria, ederra izan dau; halako bihotz-eragina sortzen dauana.
- Noiztik da ederra, heriotzea?
- Haren arimea, garbitua izan da.
- Zelan?
- Autorkuntza sakona egin dau. Negar malkoak isuri ditugu han egon gareanok. Andra aberats batzuk bere, hantxe egon dira, samurtasunez *gonburu*¹.
- Aberatsen andra haundiak, langileari, bizitza ona izan daian lagundu behar leuskioe, ez heriotza ona. Heriotzea, berez etorri ohi da, errez etorri bere.
- Doneen*² antzean hil da.
- Kontxo! Behar bada, beste Santa Margari bat egingo dozue beragaz.
- Santa Madalenarik ez al da, ba, izan?
- Berok, bizitza arina aldatu gura dau. Margariren azken-hitzak ez ditu ahaztuko. Nikanor, barriz, barru gogorrekoa da. Honen ez-tul *sekereak*³ ez deutso usain onik emoten Berori. Mutila lanean *hasi baledi*⁴, eta ha bera, bizimodu zikinari agur eginaz, izen onaren jabe egin barriro, eta noizbait, senar-emazte bihurtu... Zer ete deutse Nikanorri ta berari, munduko gauza goren ta ameslarien jardunak? Idealismuak begoz, biziteko, lanaren izerdiaren behar izanik ez dabenetzat. Txiroa da Nikanor, txiroa Bero. Lotsagarria, ala *ezaina*⁵ al da inorentzat lan egitea?
- Abaderen batek esan al deutsu horrelako ipuin zaharrik?
- Zuri zer deutsu nok esan deustan?
- Langileen esanak nahi ditut jakin.

¹ *gonburu*: gainezka.

² *done*: santu.

³ *sekera*: sukar, kalentura.

⁴ *hasi baledi*: hasiko balitz.

⁵ *ezain*: motz, itsusi.

—Dirua euki zenduan bitartean, ez zenduan, txotxo, behargin gizarajoen erruki haundirik izan.

—Elizarik ez dot aspaldion zapaldu, ta ezta egingo bere.

—Errukarri hori!

Eztabaida honetan diharduela, heldu da Montseny Bar-era Matxin. Nikanorrek, harrokeriz lez erakutsi nahi deutso, antxinako laguntzarrari, ba daukala bere menean, neskatila zer bat.

—Txikitako adiskide ta laguna— dirautso neskeari, Matxini buruz.

—Emaztegeia, ala?

Nikanorrek ez deutso behingoan erantzun. Gonadunak, irri-barre larria agertu dau arpegian. Honek, mutil zintzoaren usmoa hartu deutso itsas-gizonari, ta ba dinotso:

—Zuk ba al dozu emaztegeirik, itaune txarra ez baldin bada?

—Bai, ba. Hain zuzen, parkatu Nikanor, ez deusut lehen adierazo-ta. Mari-Asun dot bidelaguntzat aukeratu.

—E... Tutuluren alabea?

—Berbera.

—Ezagutzen al dozu? —gehitu dau neskeak.

—Haren aitari saltzen neutsazan nik egunkariak. Zenbat eta gehiago saldu, gehiago irabazi gura eban harek berak; eta nik, bardin samar. Ez daukazu begia makala, Matxin. Harek ez deus bertanbeherako dotea ekarriko.

—Alkarren gura izatea dala behinena, deritxat nik.

—Hori esan ba. Alkar maite izatea —jalki dau gonadunak. Nikanor ezagutu nebala asteak aste joanak dira, eta alkarregaz sarri egon arren, —ta ze modutan— ez dau gizon honek gogorik nire senargai izateko.

—Mari-Asun beste era bateko emakumea da —dino Nikanorrek.

—Ulertzen dot —erantzun dau apal ta *itzal*¹, neskeak—. Bai-na horretan nigaitik atzerapiderik baldin badozu, esan eidazu le-

¹ *itzal*: ilun, triste.

henbailen behin betiko, Nikanor. Zeure izakerea ta bizikerea bere, ondotxu dakidaz nik neuk, zorionez ala zoritxarrez.

—Ez dakit akar ta hasarreok zegaitik agertzen dituzun inoren aurrean, nahi ta berau zer haundikoa izan —amaitu dau Nikanorrek.

Auzune apal bateko azoka txikerraren alboan dihardu Nikanorrek azkenengo bere korbatak saltzen. Eralgi eban dirua atarua-ko dau aurki, neke ta ahalegin ostean. Lortu dauan irabazi motxa ta urria, ez jako pozeragile, beharleku horretan jarduteko gogo haundirik izan daian, dirudianez.

Bitartean, tabaku ta jan-edanean amaitu-hurren dau bere *txin-txiña*¹.

—Bestelako kapitalista itzela! —esanaz, burla egiten deutso, han gabero egiten dituen bilkuretan, anarkista gazte batek. Lan egin orduko, diruz izan, eta gero, lan egin ostean, ezer bage gelditu...!

Egoan ostatu haretatik alde egiteko eskatu deutsoe. Lau-bost aste dira, bere gelearn *eraen-saria*¹ ordaindu ez deutsele. Bere maleta zaharra eskuan, kalean zehar doala, norbaitek hitzegin deutso, ta ea maleterua dan galdetu. Harrokeriaz beterik, ezetz esateko dago Nikanor; baina berba hori hagin artean gorde dau, ta honelan erantzuna emon:

—Bai, jauna. Ezer nahi al dau?

—Lotura hauxe tren-geltokira eroan, eta hantxe itxaron, ordu erdi edo, neu joango natxatzu-ta.

—Berehala, jauna. Ta, zein geltokitara?

—Sortaldekorra.

—Ondo dago. Gero arte, jauna.

Loturea Nikanorren kontura utzi, ta han doa kristinau uste oneko haxe. Ez daki mutilak zer egin maleta horregaz. Ta zintzo bete ezkeru, eskupeko politen bat ez ete leuke jasoko, lan handi-

¹ *txin-txiñ*: diru.

² *eraen*: aloger; «alquiler».

rik бага? Zegaitik ez maletterutzakoan jardun, lan errez ta domurik *jartek*¹, ta eguneroko alogera biribildu? Buruera horri ez deritxa txarto ez zorakeria danik, Nikanorrek.

Montseny Bar alaian utzi dau berbere pardela, gero jasoteko. Ta bestea hartu ta joan doa geltokirantz. Hemen, ba dabil hara hona lagun mordo. Nikanorrek ez ditu begiak lo izango. Zain eta zain, azaldu da noizbaitean harako gizona. Pozik datorrela dirudi, ta mutilari, honek uste izan dauan baino sari hazitxuagoa utzi deutso eskupean.

Diruari begiratu, ta ba dino esan ere:

—Aspaldion ez joat nik dirurik honen errez irabazi.

¹ *jartek*: jarri barik, inbertitu barik.



XI

Bizimodu barri horretan hasi, ta ba dihardu egun batzuetan zintzo-gogoz edo. Egunez jaso ahal daiana, gaberako *zehatu daroa*¹ ederto. «Etorri-ala joan, Mari-Joan» —antzinakoak. Jan, edan, erre, gonartean ibili: gizonaren egitamu bikaina hogeï urte inguruan. Beste lotoki zirtzil bat idoro dau, etxe narras batean.

Beronikek egiz ta benetan aldatu dau bere bizikerea. Burubide zehatza hartu dau. Bere haragiaz ez da, gaurdanik, inor atsegin-berotuko, txanpon ugerdo batzukaitik. Ezta Nikanor bera bere! Maitasarrera deutso mutil honi, barruan eder jako honen irudia, eta haragikeriaz gain dagoan gizabihotzaren alkar-eragina dauka. Maite-txertu samurrez dago honengana Beronike. Edariak gertuten dituen lantegi batean dihardu lanean, ta gurbil antzean jardun bere. Lehengo izateaz ahaztu, ta *mendu*² barriz horniduko dau bere aiurria ta izakera guztia. Nikanorrek ez daki orain neskea nun dabilen. Harek inoizka oles egiten deutso Montseny-ra urrutizkinez; nun dagoan esan ez, baina. Ez dau gehiago ikusiko mutilak, ez Montseny-n, ez «Katu nabarra» kafetxe soinudunean.

Aukeran eta eskuar eukanean, ez eutsan bapere ardurarik izan Nikanorri, Berogaitik. Orduan ha bera, beste edozein emakume hartuerreza bailitzan esten eban, ta eskurakoi dan edozer gauraren antzera, gora eskasa emon.

—Neska barrabana! —dino berekiko. Neu itxi, ta beste prakadunen baten ondorik ez ete dabil hori? Lehen hotza ez bazan,

¹ *zehatu daroa*: ahitu, gastatzen dau.

² *mendu*: txerto.

orain bere, lehengo heinean iraungo dau ba harek berak, alajainkoa!

Ezin sinistu dau, gizalaba hutsegilea bere zeretik jagi, ta egitarau zindoagoan lotu leitekeanik. Eta gizonezkoak? Izan bere, Matxin Zaputzegaz sarriago gomutauten da orain.

Matxin Zaputz, eskola-denporan azkenengo izaten zan. *Dindirria*¹ sarri bai sarri egon ohi zan haren sudurretatik dindilizka, zintz egiteko bere, ganora haundirik ez-ta. Berbetan atzera samarra zan, eta enparauko lagunak, burla ta barre egiten eben haren lepo. Eta orain, ez dozu hor ikusten itsasgizon eginda, pilotu izentautu? Eta Mari-Asun, bertanbeherako hitz destainezkoak esaten eutsazan neskatilea, haren emaztegei izanik, Tutuluren denda politaren jabe egingo zan Matxin!

Nikanor, ezerezetik ezerezera dabilen artean, horra hor nundik nora haren menpeko izaniko mutil dindirriz berea, gizon handi egingo dan!...

Nikanorren egoera hits ta iluna! Batetik, ondamuz, bekatxez ta *behaztunez*² Matxin gogoratuaz. Eta beste aldetik, kezkatu ta zeluz beterik Beronike dala-ta. Horrelako egunak ditu, orain behineon, mutil matxur eta alperrak. Ez diru, ez maitetasun, ta ezta osasun guztizkorik bere.

Gero ta sartuago ta zerago dago bere adiskide talde barriekin. Anarkista bazkunean ezarri dau bere izena Nikanorrek. Etorkizunaren jabe egingo ei dira, ta euren esku erabiliko ditue laterriko gorabehera nagusiak...

Lana gitxitu ta urritu da lantegi batzuetan. Kalera egotzi ditue emuts-aldrak. Honeen artean dagoz Nikanorren *gogaideok*³. Ba ei dira munduan gai batzuen gorabeherak hitz onez zuzendu ta arteztuten ez diranak. Orduan, gogorkeria da *hatarakoena*⁴. Pistolak berba egin daiela. Entzumena gogortua daukienak, barbarik garratzenak baino hobeto entzungo ditue balen txistu zoliak. Eta

¹ *Dindirri*: muki.

² *behaztun*: «hiel».

³ *gogaide*: adiskide, lagun, kide.

⁴ *hatarako*: egoki, apropos.

ipuingile batek, mixinoiak *adakiz*¹ emotea egoki zala erakutsi ebanez, honeek bere, euren pistolen bitartez emongo ditue irakatsialdiak.

Ekarriak ditue huri haundira iskulu motzok. Nunbaiten daukiez gordeta heundazak pistolak, atzerritik ekarrikoak. Anarkista bakotzak izango dau berea. Ehungileak oihalen zuta-zeharra ederto baten *irazkiten*² dauan antzera, ugazaben eta olajaunen bularrak bala zuloz beteteko, gertuko dira langileen aldeztzaile urtenenok. Baina langile ta emuts sailen artean ez dago halako batasunik, eta bakotxaren asmo ta helburuak bata besteen kontra jarriak ditue.

Lanaren seme izan arren, helburu ta eretxi ezbardinetan dihardue; alkarren kalterako, ziur asko. Hori dala-ta, arerio dira, eta beraz, alkarren bildur.

Arma banatzea izango da gaur gauaz. Lurmenik apalenean, herri-alderik behartsuenean batzen dira gauero legebako izan nahi dabenok. Euren isil-aginduak ditue, isil-hitzak. Kale luze ta estu bateko gilbor aldean dagoan etxe zahar ezain haundi batean egingo dabe iskuluen banaketean.

Batu dira, ugari batu bere, jabe-geiak. Han dagoz, kutxa balzetan, zerraldoetan gordeta, arma bitxiak. Apurka apurka ekarri ditue. Etxe haundia izanik, heriotza ugari izan ezkerok... izango dabe hango biztanleak ohol-soinekoa...

Ziri ederra sartu deutsoe edonori, ustez.

Iskulu barriak eta zaharrak, bakotzak berea maitekiro gorde ta aurrerantzean asmoen aldeko mingain zorrotzagoa daukiela-ta dagoz. Gau erdirantz, etxe zatar haretarik aldraka urtetan asi diranean, bapatean, ustekabe, egundoko takarrotsa hasi da kale luze medarrean. Tirotsa handik eta hemendik. Anarkistak euren iskulu en aprobak egiteko ereti ta astirik izan baino lehen, beste begi batzuk egon dira haren zain eta beste esku batzuk hasi jakez, koldarkiro ta *ankerren*³ antzean, tiro eraso gogorrean, aurreko ta he-

¹ *adaki*: makila, zarta.

² *irazki*: bilbatu; «urdir».

³ *anker*: krudel.

galeko etxe ta teilatuetatik. Tiroketa hasibarria sarriagotu da. Jabe barriok, era bardinean erantzun behar etsaiari, euren buruen alde. Batzuk barriro sartu dira etxe zahar haundira; beste batzuk igesi. Ba dagoz banakak lurlean luze, zaurituak nunbait.

Tirotsa atertu barik, gehitu egin da. Lehengoak baino danbada sendoagoak, zaratatsuagoak dirudie. Herrizainak datoz, ta euren beribilen txaranbela entzun erazo ostean, zerurantz jaurti ditue deskarga gogorrak.

Ezagunean makaldu da sutanpa-hotsa. Tiroak, gero ta bakanago, ta azkenean, isiltasun barea dago bazterretan.



XII

Egundoko izu-ikarea sentidu ostean, bere gela zarpilean lo arina egin eta kalera da Nikanor. Gozoa, arma hartzeko gaua, bestela bere! Lan egitea, egia esan, ez da bapere atsegingarri alperrarentzat, eta inoren menpean egotea beste hainbeste anarkista batentzat. Baina tiro artean ibiltea ez da, gero, ogiaren ganeko ez-tia! Lo ez da arina izan nekatua ez dagoalako. Sukarra, beroa izan dauala dirudi, izerdi erionez egon dalako gau zati batean.

Sortaldeko tren geltokian dago Nikanor. Eztul eraso inoiz baino gogorrago dau. Ezer irabazirik lortuko baldin badau, *maleterukuntza*¹ *daragoio*². Erosi dau egunkaria. Letraz beterik aurea, letra haundiz ganera. Barrenean, bekaldean, auzune apa-lean izaniko tiroketearen aztarren ta zehaztasun batzuk daukaz. Anarkistak jaso ditue hilik, gorpu, kale bazterrean; mordo bat, zaurituta; mordo haziagoa, ertzainen menpean atxiloturik. Honeen kontra jardun ebenak sindikalistak izan ei ziran, eta batzuk gerizpean ezarri ditue. Herrizainak zital ta sendo eraso ei eben azkenean. Egundoko garbitasuna egingo dabela auzune inguru horretan, *eskeini*³ dabe agintariak.

Bazkaldu dau zeozer, baina ez bestetako lekuan. Jan dauan tokian, ezezaguna izan-ta, ez deutsoe sari beheratzerik egin. Maleta bat bakarra eroan dau goiz osoan eta amaitu jakoz aldean izan dituan txanpon apurrak. Ezin bere ohiturazko baztertxuetara hel-

¹ *maleterukuntza*: maleterutza.

² *daragolo*: «Eragon» aditzaren orain aldiko forma; darrai, dihardu.

³ *eskeini*: agindu.

du bat egiteke egon, eta han doa «Katu Nabarra» taskara. Begira dabil bere *ezpalekorik*¹ inor agiri dan. Bat ezagutu dau, ta ba joako. Honek, hitzerdika dinotso handik aldegin daiala behingoa. Poliziak ganean dabiltz, eta isilekoak edo zerak, batez bere. Kaildeko kafetxe «Alaska»-n batuko dira batzuk gaueko bederatzietan. Han jakingo ditu *egingoaren*² zehaztasunak.

Geltoki aurrean ekin deutso datozan beribil eta zalpurdien atear idigiten, eskupekoren batzuk barruna guraz. Iluntzean, ez dau adorerik izan «Alaska» kafetxean bere burua agertzeko, urrun egon ez arren.

Txirringutsen arineketak ikusten joatea otu jako. Bere burua aldendu nahi dau, nahaste baltzetatik. Tamal haundia, barriz, bere sakelean daukan bene-benetako pistola barria probau ezina, aukeraz! Harako, bere mendiko zokondoetan, gaztetxutan, euki eukan pistolatxu txakur-hiltzailea, dana ugerrak jandakoa, gogoan dau. Zenbat bidar ames egindako galdu-gordeko ibilerak egiteko gogo ta guraria, eta orain, eskuar, bere gain ta inguru izanik aukera bildurgarriok, halako lauorri ta ikara esan ezinekoa nabaitzen dau, polizi-gizonak eta susmoan bila dabilzala jakitun da goan ezkerok!

Pozarren dakusaz velodromu jasekoan, txirindulari gazte ta azkarren ekitaldi *iaioak*³. Horreek bai dakiela «zoroburdia» euren gogara erabilten! Harako ekinaldi, oinen joko, *dendu*⁴ ta gorpuzaren *zaltasuna*⁵...! Plaza-txirindulariak ikusiaz, barruko estutasuna zerbait nasaitu jako. Gerogarrenean, herrikide ziranen txirrinbiko ibilerak eta, datorkioz gomutara. Aldi haretan... amaren gerizpean, etxean, herritxuan, nasai ta alai bizi zan, burukomin haundirik bage. Egunerokoak saldu goizean; gero, «zoroburdiak» zaindu, garbitu, konpondu, ta ilunabarrean, ehiztarien kontuak eta entzuten, Ubaldoren bizartegian. Zuzen ez ete egoan Matxin

¹ *ezpaleko*: gogaide, kide.

² *egingo*: ekintza.

³ *iaio*: trebe, abil.

⁴ *dendu*: oreka.

⁵ *zaltasun*: malgutasun; «flexibilidad».

Zaputz, herritxuan bizimodu baketsuagoa ta nasaiagoa izan eikea-
la esan eutsanean?

Biharamonean, goizean goizetik joan da «Katu Nabarra» alde-
rantz eta hango otsein ezagunagaz autuan hasi.

—Kontuz ibili zaitez.

—Zer ba?

—Izen-erreskadak hartu ei ditue herrizainak. Batzar etxetik ur-
teeran hil ziranak ez eben berbarik egin, jakina. Baina beste bat-
zuei, edertotxu «kantau eragin» ei deutsee. Atzo bertan, hainbat
sartu ditue *morroilopean*¹. Eta gaur bere, hemen ibiliko dira.
Gauaz ez agertu honantz.

Hitzok entzunik, ez dau Nikanorrek gosaria nasai hartzeko asti
larregirik izan. Geltokian, han dabiltz goiztarrak, hara hona. Ema-
kume bi heldu dira, ta txartela atarauteko eskatu deutse. Jarri da
errenkadan eta bere lantxu hori egin dau. Eskupeko txikerra, bota
barruna. Bapere ez baino, gehiago da, arean.

Gizon bi dabiltz han zerbait itanduten maleteru batzuei. Ho-
neek euren txapak ditue, biseran ala paparrean. Paper batzuek
bere, ikertu deutsoez hareetariko bati. Orain, Nikanorregana da-
toz.

—Egunon. Zera... zu, hemengo maletaria al zara?

—Bai.

—Ta, txaparik ez al daukazu? Zein da zure numerua?

—Nire numerua...

—Erakutsi eiguzuz zure paper ta agiriak.

Hori esanaz batera, solapapeko euren txapa biribila agertu
deutsoe Nikanorri.

—Ete! —dino honek berekiko. Galdua nok oraintxe.

Mutilaren buruan, halako nahaste ta erdi iluntasuna sortu da.

—Hona hemen nire zedulea, ta...

—Nun bizi zara hemen? Eta noiztik?

Batak hori itandu bitartean, beste herri-jagolea Nikanorren
bizkar-aldera joan da, ta atzekaldea marruskau ta igurtzi deutso.

¹ *morroilopean*: giltzapean, kartzelan.

Madarikatua halakoa! Ta hantxe, atzeko sakelean euki, egun bi lehenago harturiko su-iskilu motxa!

Bapatean eskuturretan ipini deutsoez kataiak, eta entzun da esan mingots hau:

—*Abxiloturik*¹ zagoz oraintxe berton.

Esturaren esturaz, urduri, eztulka hasi da Nikanor. Horrek ez deutso, arranotan, askatasun pitinenik ekarriko. Eta han doa mutila, gizon bien erdian, eskuturretatik kataiez lotua. Han aurreko komisaritegian utzi dabe, gela txiki batean, lurraren azala baino beherago. Bazter ilun eta hotza, leihoetan burdina sendoak dituela. Lehenago, ostera, agiria, pistola *adelubakoa*² ta txanpon hondarrak kendu egin deutsoez, eta izen-abizenak eta beste zertzelada batzuk esan-erazo.

Handik lasterrean, deitu deutsoe ta eroan dabe komisari-jau-narengana. Hainbat itaune egin deutsoz. Barriro, bere gela ilunbezura, ta hemen zartakadak emon deutsoz morrosko batek, *idizil*³ bihur bategaz. Minduak daukaz bizkar, gerri, kuntzurrun aldeak.

—Egia esango dot osoro. Ez naizue, mesedez, gehiago jo.

Ba daroe barriren barri, ta oraingoan esan ditu esan, hatz eta behatz, bere buruazko gorabeherak, eta huri haundi honetan ikusi ta entzuniko zertzelada ta zehetasun banakak. Hare gehiago. Aztertzaile estuak, gogor eta zorrotz hartu dabe.

Bere gelara ostera bere. Hemen emon ditu orduak ordu, ta ez bazkari ez apari, gautu da egun luzea. Azken orduan, kafesnea ta ogia ekarri deutsoez. Lurrean dauka oherik zabalena, lurreko harri hotzaren ganean, soinean soinekoak eta besterik ezer ez. Etorrizuna makala, begien aurrean! Izan bere, ez ete dagoz arrazoez beterik haren azken-aldiko gogaideak, agintaririk ez menpekorik behar ez dala esaten dabenean?

Ilunpe haretara, eguna zabaltzean argitasun hitsa heldu da. Egun barria, zerbait ikusteko behintzat, gau osoan begiak izteko

¹ *Abxilotu*: detenitu.

² *Adelu*: gertakuntza, prestaketa.

³ *Idizil*: «porra», «verga».

aukerarik eskas izan daualako. Eztulak gogor jo dau Nikanor, ta dana nekatuta ta goseturik dago.

Goiz beranduan, opil txiki bat emon deutsoe.

Arrastian, nagusiaren aurrera barririk. Honen ahotik entzun dauanak, bestelako laztasuna sartu erazo deutso hazurretaraino.

—Atzo zegaitik autortu ez zenduan, zure ugazabaren kaltez txeke *aizuna*¹ egin zenduala, eta bost mila peseta jasorik aldegin?

Ez daki mutilak zer erantzun. Berak aina dakian gizon garrazari, zer esan leio esan, egia dala baino?

Beste gela batera sartu dabe. Hemen *iraula*² zikin bat dago alboan, eta egundoko usain zakarra hartzeko aukerako tokia.

Gogoeta ta pentsamentu larrietan dabil. Nok egin leike ezer bere alde? Dirua eukanean, izen oneko gizon bat ez baten ezaupiderik ez eban egin, jan ta batera bestera ibili baino. Emakume batzuk bai ezagutu zituan; ez izen onekoak, ostera, emagaldutak baino. Ta azken-aldi honetan, hartuemonan izan baldin badau, langile behartsu eta emuts beharginakaz izan dau; eurotarik, premiaz bizi diranik asko, beste batzuek ameslari ta barruko indarpean dabilzitanak, eta garaitikoak, badaezpadakoak edo, ez gitxi.

Eta Beronike? Nun ete dago, ta nogaz ete dabil? Egia da neskatila *hegalausi*³ honek sarritan argi ta garbi esana: horrelako asmoetatik aldegin eiala, huri haundi honetan egundo lanik egin ez eban ezkeron, hemen ezer *aldeztu*⁴ beharrik ez eukala-ta.

Gautu danean, atarau dabe etxe honetatik eta beste morroe bi, lagun dituala, guztiok lotuta eroan ditue kartzela haundira, espetxe itzalera. Afari arina emon deutsee ta sartu ditue gela zabal batera. Hemen dagoz lehenagotik, beste hogeitik gora bai, gizonetako guztiak. Begirakune zorrotzak egin deutsoez alkarri, han dagozanak eta heldubarriak. Isil samar dagoz, ta ba dirudi lo egiteko gogoz dagozala hango «maizterrak». Luze luze dagoz behearen ganean eta gorputzak alkar jotzen, eta oinak oinakaz bere bai. Ba-

¹ *aizun*: faltsu.

² *iraula*: zabortegi.

³ *hegalausi*: birjintasuna galduriko.

⁴ *aldeztu*: defendatu.

tzuk besteai ostikadak emoten deutseez, loa galerazoten deutsee-lako. Nikanorrek eztulka dihardu.

—Akerrandi madarikatu hori! —dirautso hareetariko batek. Zetan arraiu ekarri zaitue hona? Lorik egiten ez izteko? Ala, zeure bularren eztul horregaz geu bere, kutsuturik jarteko? Aker txarri hori! Ardiseme, emaki hori...!

Nikanorren zanetan suzko odola dabil, baina ez daki nortzuen tartean dagoan, eta bildurraren bildurrez ta sukar antzaren oina-zepean, haginak estututen ditu, amurruaren amurruz.

Hau gauaren luzea, ta iguingarriaren iguingarria!..



XIII

Nekez beterik dago goizalderantz Nikanor. Bira ta bira darabil bere burua.

—Zelan autortu erazo deustez hainbeste zehetasun, hainbeste isileko, ene morroe honeek?

Ez daki asko Nikanorrek, polizi-gizonok horretan emoten dituela euren bizitzako ordurik asko; gaizkinen izaera ta aiurria ikasten; honeen egitaden erroak eta ondorenak; barruko eragindurak eta kanpoko zirkinak; begi zorrotzez, gizaseme oso ta geisoak, sendoak eta zoroberak, eta abar, aztertu, zelatau ta bakotxaren zer ona ta ez egokia alde-erreskan jarriaz.

Ezekielegazko gomutea bere, ba dau. Dardakadea sentiduten dau gorputzean. Adiskide haregaz batean bizi zaneko gazte-hasiarako urte atseginak. Noizean behin, zaparrada ta hasarre-aldiak izaten zituan. Langileen alde egin behar ziran eztabaida ta txiripinak datorkioz burura. Gogoan ditu Gabontza ta haren emazte Mauts zabala, katu baltza ondorik beti bere. Burdin-zale honen menpean, lana izan eban egiteko lakoa, baina neketsua inoiz, lana nekea dalako. Gosea, lehenengo egunetik kendu izan eban, ta etxapea ta teilapea bere izan zituan. Ezeukia izan zan, baina zorionsua bere bai, moduen batean.

Utzi eban herritxu maitea; utzi eban huri haundia; utzi, langileen aldez neurritsuago, zuhurrago ta burutsuago jarduten eban sozialista alderdia, ta buru-belarri jarraitu asmo barriai; agintaritzarik nahi ez dauan talde ausartari.

—Zer dala-ta, jarri ete dot nik neure burua *lazka*¹ honetan?

¹ *lazka*: nahaste.

Gorputz eta arima, ondatuta dago. Gorputza, makal ta indarbage, geisorik. Gogoa *abailduta*¹, adorea galduta.

Lurraren ganean lo, hainbat gizonetzko. Guztiak, aurki ezezagunak. Behar bada, anarkistaren bat. Adi-adi dago inguruko gora-beherai. Hiru bazter dira munduan Nikanorri barru-barruan kirrisk eragiten deutsoenak, entzunaz bakarrik: soldau-etxeak, geisote-giak eta kartzelak. Lehenengotik, askatu zala uste dau. Bigarrenik ikusi behar izango ete dauan zalantzaz dago. Baina hirugarrena, ahorik eskura ezagutzeko zoritxarra izan dau; eta espetxean dago, b aruan, morroilope atxiloturik.

Soinean soinekoak, ez burusi bat gorputzaren berogarri, ez tabakurik erretoko. Edaria nun eta zelan izango ete dan, arean ez daki.

Agintarien aurrean egin ditu autorpen bi. Eta orain, kideko dituan gizarajoentzat bere, egin beharko dau azalpen luzea. Zegaitik eta zelan heldu dan egoera lotu horretaraino. Nungoa dan, zenbat bidar egon dan «gerizpetan». Barreak egin deutsoez han dagozan batzuk. Oraindino presokume bat baino ez dala, dirautsoe; atxilotu kakanarru bat; narru-gorrian dagoan txoria, *artean*² lumatu bakoa. Nikanorren entzun-beharrak! Zaharrenak, ostera —burugina berau, gorputzeko medikua, alper zuria!— hara heldu barri dan gazte honi geisokia deritxo, eta lehen esana dino barriren barri; zera: han dagozanak Nikanorrendandik izango dabela laster arin eri-kutsua sortuteko txertua, honen ez tul eta *gorroen*³ bidez.

Orduak aurrera doaz, ta lagun barrien artean, zoritxar bardintsuaren erkide ta tarteko dirala igarririk, zertxubait *azkortu*⁴ da Nikanorren adorea. Tabaku erreten dakusaz han bertan bere, norbaitzuk. Nundik nora lortu hori?

Betiko leloa. Morroilopean egonik bere, dirua euki ezkeru eskuratu leiteke tabaku-bedarra. Ta, edaria ta ardaia edan bere bai.

¹ *abaildu*: nekatu.

² *artean*: oraindik.

³ *gorro*: «flema».

⁴ *azkortu*: bizkortu.

Kanpoko haizetara doaz geroago, erreskada luzeetan. Bide estuetan geldi daukiez, ta gero, *barla*¹ zabalean, horma luzeak hesi dituelarik, han dabiltz zeru-aldearen urdina ikusi nahirik, eguzkiaren epeltasun gozoa gorputzera erakarri guraz. Kaiolan dagoan txoriaren antzeko bizimodua. Barruan ostera, gizona; eta kanpoan haren zain, gizona hortxe bere. Artegian dagoz, ta artzainak ohi dauan lez, banan banan zuhur zenbatuak, bada ezpadan batedobat faltau ez daiten.

Hainbat gizon batu dira barlan, *egutera*². Bere gelan ikusi dituanak ez dira ezer, honeen ikusian. Ikusgarritzko taldea, gizonmordo ikaragarria. Egundo holakorik ez dau jakin mutilak. Zahar eta gazte, luze ta txapar. Emakumeak beste alderdi baten ei dagoz. Espetxeratuok, batzuk ba daukie nok lagundu, diruz, jantziz, janariz eta abar. Beste asko, *deslai*³ dagoz, okerreria lagun eta besterik ez...

Bakotxak dauka bere historia. Bakotxa berak daki jazoera-muturra eta hasierako sustarra. Askok, hamaika bidar egin dabe egotaldi ederrik morroilopean. Lehenengoz heldubarrak ba dau zer ikasi bizimodu makur ta errukarri honezaz. Kirten asko, hementxe zuhurtu izan da, eta zintzoak bere, mordoka usteldu ta alperrik galdu. Bihurri diran askok, hantxe egiten ditue ezagupide sako-nak, eta alkarrengandik amarrukeri ta txarkeria barriak ikasi.

Gertakizun baltz eta itzalak. Odolez zikinduriko esku ta barru zital asko dago. Gorrotoak eta ikusi-ezinak hara eroandakoak bere, ba dira. Baina, lapurrak dira gehienbat, hara eroanak. Baita laterriak dituan mila legeen artekoren batean, huts egindakoak. Inoiz, errubakoak bere bai, zuhurtasunaren ta zuzentasunaren kontra, hantxe dagokez.

Epai onaren itxaropenak, biziteko adorea handitzen deutse batzuei. Astun-arinean ez dira bardinak hangoen erruak. Ezta urrik emon bere. Baina jagolen kontrako sentimentua, bakarra da guztiengan, gizonaren askatasun-egarria, bardinkoia dan lez.

¹ *barla*: patio.

² *egutera*: toki eguzkitsu.

³ *deslai*: bertan behera itxirik, ez zerurako ta ez lurrerako.

Batzuk ba doaz gela berezietarantz, burdina ta sare bitartee-tan, kale-jentea ikusteko eretia ta baimena daukielako. Batzuk be-rogarri ta janaria ta eskuarte bere lortuko dabe, kanpokoengan-dik. Dohakabe izanaz batean, ba dabe gizon askatuekin hartuemon bizigarria. Eta asmo ta itxaropen barria, igurtzi gozoz dabil edonoiz gizonaren bihotzean, laguntasun apurtxua izan ez-kero. Baina bakartadea ez da inoiz guragarri, *edu*¹ honetan ego-nik...

Nikanorren soin eta barrua makalaldiak jota dagoz. Geiso da-goala sinisturik bizi da. Nekea nekearen ondorik, beharrezana, *ezune*² zitala. Bazter batean lehenbailen hilgo balitz, ezer galduko ete leuke berak, eta munduak, arean?

Espetxe-jagola batek haren izena aitatu dau. Nikanorrek zigor barriaren ordua dala uste izan dau, eta hurrengo hitzak entzun baino ez entzun nahiago dau. Jagolearen aurrean, atxilotu langile batek *burusi*³ bat emon deutso, kaletik bialdurikoa. Eta baita diru apur bat bere.

—Nok emon deutsula uste dozu?

—Ez dakit.

—Emakume bat izan da.

—Beronike Fontanet, ala?

—Berbera.

Egun iluna. Euria da barlara, haizetara, joateko. Baina gaur Nikanorrek ibituta, arinduta daukala uste izan dau bere zorigatxa ta gorputzaldi txarra. Beronike berazaz gomutau da, eta ahalegin egin dau nun eta zelan dagoan jakiteko. Presondegian dagoana ba daki, eta edozeren men izango dana, edozeren beharrezana izango dauana, ta manta lodia ta txanponak eskeini deutsoz!... Emakumearen arima eder ta errukitsua!

Diru apur horregaz tabaku-orria erosi dau hainbat egunen on-

¹ *edu*: egoera.

² *ezune*: urrite, pobretasun-aldi.

³ *burusi*: manta.

doren. Eta edari pitina bere urdaileratuaz, jaso ta erne eragin deuto adorea ezagunean; harturiko laukotxuak dirala bide.

Beronike maitagarria! Zoritxarreko une gaiztoan ez dau bertan behera laga mutil gizaisoa emakume honek.

Akerraren adarrak okerrak dira. Eta epailearen bizarra ez izan hortik hemendikoa. Honegaz izan dau Nikanorrek, bere hazbegiak, azi-orraziak, joan-etorri ta okerreriak esan beharra. Hainbeste hitz eta pitz, sariaren antzekoa barik, zigorraren erakutsia irabazteko! Beti da gorrotagarri, inoren itaunei erantzun beharra. Berba bakotxean aringarri dan lumea, ala ondoragarri dan berun astuna ezarri ohi dau epaipetuak. Bai dala bestelakoa, arimeari buruz, errudunak autor-entzuleari egiten deutson agerpen sakona, zikin, hoben, hutsegite ta ugarrak guztiak zintzo zintzo azalduaz!...

Bildurraren esan ditu Nikanorrek, esan dituanak. Zer dauka zeresan haundirik, herri txiki bateko mutiko sostorrak, huri haundi bateko mutil bizar urtenbarriak eta huri zabal hedatsuan sei hilabete eskas besterik egin ez baldin baditu?

Lapurreta ez larregia, eta gero ameslarien artean buztarturik, inoiz ikusi ez dan agintaririk bageko herritaldeen egoera ta ibilpidea... Ameskeria horrek, dagoaneko, zer bat izan dau txarra. Inor hiltzeko gei diran iskilu bitartez, lagun hurkoaren bizia arriskuan ipintea. Harako soldautzatiko igespidea, norbaiten saldukeria diru ugerraren bidez, hori ez dau behintzat kontauko Nikanorrek, inok zirikatatu ta eraso eragin ez baleio! Noren kaltegarri al da ba, norbera soldau ez joana?

«Andutz Mendi» sartu da kai ederrean. Laster dabil Matxin, ontzitik legorreatuta, hango maletaria ta antzinako adiskidea idoro nahirik. Alperrik. Ezin aurkitu dau Nikanor. Joan da harako «Montseny» edangurantz. Ez dago han, ez haren antzeko tokietan. Kaleak kale ikusi ditu, aztarren bila. Saltzaile ibiltaun bakotxa, haxe bera dala uste izaten dau. Bertara, eta, ez, ez da agiri txikita lagunik.

Gero, bere ontzi haundian dagoala, Matxini zerbait adierazo deutsoe. Zera, nonor dabilela honen galdez, han kai ganean, legorrean. Emakume bat hain zuzen bere.

—Emakume bat nire galdez, hemen?

Zalantza horrek, oster, arnasa laburra izan dau. Hantxe da-
goan emakumea da, jakin erazo deutsoenez.

—Ene! Beronike, izan bere.

Haren arpegi itun eta itzalean igarri daike Matxinek, ezbeha-
rren bat izan dana. Horra, zehatz eta labur, jazorikoa: Nikanor gil-
tzapean dago, poliki poliki...

Bular barruan sua ete daukan uste dau Nikanorrek. Txinurri-
tegia bere, ba dala deritxa. Berotasuna, errea, sukarra, garraztasun
nahi minbera antza dauka. Larri dago. Eztul erasoak ez dau amai-
rik ezagutzen, bare samar baina ekin sarrian, neguko eurite *isitua-*
*ren*¹ araura.

Egusentia heldu da, nekez heldu bere. Ez darabil oraingoan
mutilak, bere askatunazko buruausterik. Gorputza dauka jausia.
Ta adorea, galdu. Ito beharraren seta hertsian loturik dago. Zer-
bait datorkio samara; eztarria *orrikak*² estutuko baleuskioe lez. Ar-
nas estua, izerdi larria, bero ta hotzikarea, dana batean.

Gorazkoa jatorko, ezin egon gehiago. Heriotza lupua ete da?
Ene, ene! Ahokadea irauli dau. Lurrean dago etzanda, ta lurrera
botau dau ahokada nardagarria. Zer da, afaritako jatekoa? Ez.
Odolo da. Odola jaurti dau ahotik. *Istil*³ iguingarria dakus begien
bistan, eta beste aldera bira egin dau.

Zaparrada izugarria sortu da gelatza ilunean. Beste presoak,
gora goraka hasi dira. Ba dino, esan bere, harako zahar harek,
lotsabaga ta erruki pitinenik barik:

—Gazte hau bularretik dago. Bularretik! Ez dago honetarako
eskubiderik. Hortxe dagoz lurrean pisti ta zomorroak. Hortxe ditu-
gu gatxaren koko guztiak!

Han dabiltz atxilotuak zarataka eta zemaika. Kartzela-jagola bi
agertu dira, ta ateko burdinetan zehar, itandu dabe.

—Hemen dagoan gazte hau, *idorberi*⁴ dago; bularretik. Aspal-

¹ *isitu*: alditsu; «caprichoso».

² *orrikak*: «tenazas».

³ *istil*: potxingo.

⁴ *idorberi*: sukarrak jota.

di esan neban, baina inok jaramonik ez egin. Odolez ondatu dau behea. Kutsutuko gaitu, eta galduko gaitu guztiok! Lotsagarria da hau!...

Halan bere, ordu batzuetan bardin iraun dau hango egoereak. *Guenean*¹, nagusiaren *baidura*² zehatza lortu ondoren, bere lagunak uzteko unea heldu jako, geisotegira daroelako. Burusiaz es-taldu, ta ba doa, oinen gain, erdi zambuluka. Beronikek bialduriko burusi barria!...

Eguerdi alderantz ikusi dau osatzaileak. Entzun deutso birien zurruka nahastaua.

Bazter batean ezarri dabe, ohe estu baten neurripe. Beste hiru dagoz gelatxuan bertan, maskar ta horiak honeek bere.

Etxe horma handi ingururantz, lagun bi datoz. Gazteak dira biok; bata, gizonezkoa; emakumea, bestea. Heldu dira ate nagusi-raino. Etxe haundi hau, kartzelea da. Ez da agiri han inguruan inor, soldau jagolak izan ezik.

*Artezkaritzan*³ hitz egin nahi leukie. Zertzelada batzuk jakin ditue, eta taxi batean sartu, ta han doaz Epaitegira, 3-garrenekora. Epaikaria ez dago bere tegian. Menpeko arduradunaz berba egin dabe. *Aldeztailerik*⁴ ordaintzeko inor gertu ezik, legezkoa izango da laguntzaile hori. Auzi-eguna noiz? Jaungoikoak daki! Nahaste horretan sarturik asko ta asko dagoz. Hortik ganera, salakuntza berezia dauka Nikanorrek, diru-etxean egindako sasifirma onuratsua... Lehengo bizierako zehaztasunak? Onak baldin balira, beti litzakez hutseginaren aringarri. Nundik hasi bila? Norengana jo agiri onak lortuteko?

—Noren galde hasi? —dino Berok. Zera, ba eukan honek nagusia, Gabontza ezizenekoa, txatarraduna bera, hona etorri baino lehenago bizi izan zan hurian. Baina, hain zuzen...

—Bai, eta hori horrenbestean utzi beharrez, han gure herri-

¹ *guenean*: azkenean.

² *baidura*: baimen.

³ *artezkaritza*: zuzendaritza.

⁴ *aldeztzaile*: abokatu, lege-gizon.

txuan, ba daukagu gizon haundia, ahalmen zabalekoa, jaun garai ta jaso, Olarratz jauna. Honen txakurra, Nikanorrek erabilten eban txikitan. Honen eragina egokia izan leiteke, jadetsi ezkerroan, jakinal

Matxinen arpegiak bizitasun joria erakutsi dau, asmo hau agertzean. Baina Beronikek ez dau horrelako poz-antzik. Bizialdian, nekea ta gorrotoa ta ondore urri ta murrizteko ezagupideak besterik izan ez ditualako kaiolan dagoan txoriak; Beronike berberaren *taiuan*¹.

Kartzelako bere gelan baino geisoen lekuan hobeto dagoana, zer esan bakoa da. Halan bere, makal eta jausi-egoeran dagoala dirautso Nikanorrek bere buruari.

—Nireak egin dau, dirudianez. Sukarrak erre beharrean nauka sarri. Ta gorputzean neukan gizen apurra, koipe gazea lez urtuten joat. Egunean eguneango izerdi likin honek, hazur eta azal bihurturik utziko nau, agiri danez.

Horraio, han jagola dituan *lekaimetxuak*² ondo baino hobeto zainduten dabena, egi biribila, nunbait bere. Amagandik alde egin ebanik hona, ez dau mutilak horrelako txera ta jagolatza gozo samurrik izan. Ba dau halako gomutatxua, ostera, harako «Mautsa» andra totolo harentzat; ez eukan, baina, emakume mokor zabal harek, monjatxu honeen jas eta eraginik.

Eztabaidan ibilten da, halan bere, goizean eta arrastian. Sukarra ibituta, gogozago dagoanean. Munduko *lipizta*³ eta arloetan ez dabe lekaimiak, aurki, larregi jakingo, baina arimearen biziaz berezko ta landuzko ezaguera ta doaia dabenak, ba dira izan.

Nikanorren barruan halako sentimentu samurra sortu erazoteko ahaleginak ahalegin egiten ditue, zori eskasez nahi itxaropen hobez, batzuetan.

Gai eder honi buruz, egundoko jardunak izaten ditue. Gorpu-

¹ *taiu*: egoera.

² *lekaim*: monja.

³ *lipizta*: eztabaida.

tzeko makaltasunaz batean, arimako gabezia ta ezunea, esker-igurtziz aberastu ta joritu nahian lez.

—Nikanor, kristau umetxu aldendua: epaileak esku-arteaz aukaz. Ba dakizu gizonen zuzentasuna ez dana beti horixe; zuzena, arteza, tamalaren haundiz. Akatsak ditu, oker-ikusteak, eris-te argalak, gogorkeria ta bihurri-sundea sarri askotan.

—Zertzuk diraustazuz, Arrebatxu?

—Ba dakit nik, ondo jakin bere, Epaile arteza nor izango litza-tekean. Haren eskuan bai ez dagoala larregikeriarik ez izterbegirik. Zuzena da izan baina, zelan esan nei. Haren artez-beharrak beti erabili ohi dau, buztarturik lez, maitetasuna, parkatu-nahia.

—Monjen kontuak dira horreek. Zu zeu, Arreba, egon al zara inoiz honelan, auzipean, epaile ta polizi ankerren eskuetan? Zerbait egin dodalako, zigor bihurria jasan beharrean! Askatasuna galduta, oinperatuta gizon gaztea. Zuk holakorik ezer iragan? Bai zera...! Monjak beti dabiliz libre.

—Bai, e? Hemen bertan, ez al dakizu lekaimen kaltez ezker-aldeko gizonak egin dituen gehiegikeriak? Lekaimen guztiak ama, haragizko semeen ama bihurtu behar ginala-ta, gure kaltean egin dituen bidebakokeriak?

—Ez nik.

—Ez ba, jakin nahi ez danik ez da jakiten.

Honetan, beste lekaimetxua dator gela zurira. Zerbait dakar eskuetan, eta berehalakoan gora jaso, ta erakusten deutso mutila-ri.

—Hona hemen zuretzat, Nikanor. Karta bat da. Igarriko al zenduke nok idatzia?

—...?

—Ez al dozu munduan inor? Horren umezurtza al zara alde guztietatik? Emakumearen letrea dirudi. Ba dozu oraindino, zera...

—Emon eidazue aguro.

—Orain arte gugaz nahikoan egon zara, baina kanpokoren bat nahiago zenduke.

—Jakina.

Hartu dau gutun-azala eskuetan ta urratu dau, urduri, gogatsu, azal hori. Ganean ez dauka bialtzailearen izenik. Edegi dau

behingoan. Eta goitik behera arrapaladan ikertu ostean, amaiian aurkitu dauan izenak, poz- antzean jarri dau.

—Beronikerena da.

—Bai izen polita bere! Horrexek garbitu eutsan arpegi zikin-
dua, bere zapi zuriaz, Kristori. Odolez ta izerdiz ta lureko hautsez
loturik joanean, kale medar latzean, gurutza aztuna bizkar sorbal-
dan.

Lekaimeak hitz *beratz*¹ amultsuok esan bitartean, Nikanorrek
hitzok entzunaz batean, irakurten dihardu. Honen begitarteak ba-
reago dirudi.

—Zera... emakume hau, hemengoa da. Aspaldion ezaguna
dot.

—Ezaguna bakarrik?

—Ez. Hori ostera, neuk aina jakitea da, Arreba.

—Ondo da. Zeuk esan gura zendukeana esan zine, soil soilik.
Ez gara hasarratuko.

Munduan bakar, zabar ta deslai ez dagoala jakinbarri dago Ni-
kanor. Berok lehen eta orain barriro, agertuten deutso maitasa-
rrea, bihotz-eragina, samurtasuna.

Amets-hutsezko maita-ikutua, behar bada. Lilura gurizko zer-
txubait, aurki. Egia ta benetea ezin izan leitekean gurari gordina.
Joandako unea, barriro bihurtu ezina. Bihotzaren amesak oso-
roan betetea gatx danean, betor, horraitino mundu *lakarreko*² bu-
ruauste ta eguneroko kezak legundutea ta biribiltzea.

—Nire alde jardungo dabela eurek, dinost.

—Nortzuk dira?

—Beronike ta Matxin. Hau, txikitako neure laguna da. He-
mentxe ikusi neban azkenengo. Itsas-gizona da. Gure herrian ba
da aberats bat, gobernuko kargu haundia daukana.

Monjak alkarri begiratu deutsoe.

Epaikariak burutu dabe azterren-lana, eta goiz ilun samar ba-
tean, auzitegira daroe Nikanor, atxilotu talde bategaz nahastean.

¹ *beratz*: bigun, samur.

² *lakar*: latz.

Neke haundia izan jako ordu-sail hauxe. Ohetik jagi ta oztan lez dabil, kartzelako mailetan gora ta behera, ta beste horrenbeste epaitetxekeotan zehar. Apurtxu bat lodiago emoten dau itxura baitean, baina behar bada, handituta ala puztuta ez ete dagoan, esan leiteke.

Azalez zurbil ta kolorga, buruko uleak bere, mehatzago ta makalago daukaz, geisokiaren eredu berbera izanaz. Ezta ez zio¹ bakoa, hain zuzen, taiu hori.

Bere okerrak ekarri deutsoe zigorra, monjatzuen esatez. Jaungoikoaren aginduen aurka, egun ta eguzki jardun lei gizonak, sarri askotan, ezetariko kalterik leporatu bage, agirian behintzat. Gizasemeen erabagiai irri ta barre egitea, horraitio, ez da txantxetako zera. Gizasemeak eskua gogorrago dauka, Egile ahaltzuak baino. Eta izaki txatxarren *setakeria*² ta zital-ikutua beti da *doilorrago*³, gizakumeetan.

Halan bere, lege egoki ta zuzenak, beitez edonun ta edonoiz betegarri, inoiz edo behin samurtasuna ta beratz-zirkina ondorengo guri izanik.

Lau urte ta egun ba izan da Nikanorrenzako zigorra. Lau urte ta egun bat, morroilopean egon beharreko. Txori okertua kaiola barruan, jagolen begi zuhurra, ta inoiz gogorkeria ta esku zolia zigortzaile dituala.

Kartzelako eritegira danean, bai Nikanorrek esan bere, lekai-me jasankorrai:

—Lau urte egingo ei ditut hemen. Ene hazurrok hainbeste iraungo ete dabe, ba?

—Sinismena galdu zenduan antzera, itxaropena bere, galdu egingo ete dozu, Nikanor?

—Ez jakin ba.

—Toki bakar bakarra dago, gizonak itxaropena galdu leiana.

¹ zio: zergaiti, arrazoi.

² setakeria: itsukeria.

³ doilor: zital, zirtzil.

—Zein toki?

—Inpernua. Atea, barrurantz joateko soil-soilik edegiten
dana.



XIV

Egunak egunakaz, gauak gauakaz bardinak jakoz Nikanorri. Eztul sekera zitala, izerdi likina, sukarra, inoiz arnastetua ta ito beharra. Goizeko argi-errainua maite dau, egunsenti barriak edonori bere, poz-atximurkadea egiten deusolako bihozpean. Arratsa heldu ala, ba dau harako guraria, argialdi osteko berotasuna ta nekea ibitu ta gozatuko jakozalakoan. Ohean gurago dau, jagita baino.

Bai egoera narrasa! Gaiso ta bakar, ezezagun inguruan, lege-jagolen menpean, burdinaz beteriko leiho zeken otzen artean. Atxilotuaren egoerea...

Zetarako izan ditu gaztetasun gordina, askatasun ederra, dirua ta laketaukera zabala? Txakur-ames berehalakoan etena, aurki.

Seniderik bako umezurtza; emazterik hartu ez dauan gizaseme gazte lorrindua; erbestean ortozik harrapau daben txakur gosekila...

Nun ziran adiskide apurrak? Nun Beronike? Ahaztu egin al da, aldegin ete dau, ala ha bere, geisorik ete dago?... Itxaropenez bizi izan da Nikanor. Emakume horren itxaropenez. Halan bere, gomuta gozoak, lehenaren hots eta usaina lez dakartso. Herrimina *ausnarrean*¹ darabil; etxeko mina guraso ta anai-arrebarik bage.

¹ *ausnarrean*: gogoan, buruan.

Gaurko egunak, albista zelakoa edo halakoa damotso. Matxinen gutuna dakartsoe; herritiko kartatxua.

«Egundoko hara-hona ta joan-etorriak egin ditugu, laguntzarrera —dirautso lerro zabaletan itxasgizon azkarrak— eta Olarratz jauna *zuritu*¹ dogu zure alde zerbait egin daian. Baiezkoan dago, ta horra hor zuretzako barri ona, oraingoz».

«Hortik laster urtengo dozu, aurki. Ta beste zerualde bat eta beste haize osasuntsuagoa izango dituzu zure lagun, ta luzaro barrik, ganera...».

Negarri emon deutso mutil *eriak*². Barruan zarrada haundia egin deutsoe Matxinen letra kankailuak.

Beste zeru bat, espetxe iluna utzirik; haize osasungarria, leiho txiker ta gela sosterreko ohe iguingarriari agur eginik, hango haize *kikilduaganik*³ urrun.

Gaztelako lur eremu laueta dagoan kartzela-eritegirako gertuko deutsoz paperak Olarratz jaunak, orain behineon.

—Arreba, ikusi eizuz lerro honeek...!

Ta lekaimetarik zaharrenak, irakurri ostean, iribarre samurra —amarena iduri— eskeiniatz, ba dirautso esan bere:

—Nikanor!... Ba al dakizu ez dala ezer ederragorik eta bikainagorik, itxaropena galtzeke, maite gaituan norbaitengan uste sendoa, sinispen bizi bizia izatea baino?

—Holantxe da, Arreba.

—Olarratz zaldunak zure alde zerbait egin baldin badau, ha eta zu eta ni bizirik gaukazan Jaungoikoak, ez al ditu gauza guztiak bide oneratuko, zeu egingo zaituan lez?

—Ba leiteke.

Bapatean odol-gorazkoa datorkio. Izara ta ohe-estalkia gorribaltzez lohitu ditu. *Argizagiaren*⁴ kolorez lotu dira haren arpegi ta eskuak. Ezpanak *amusko*⁵, begiak *hits*⁶ eta urtsu.

¹ *zuritu*: limurtu; «persuadir».

² *eri*: gaiso.

³ *kikildu*: estu, medar, itogarri.

⁴ *Argizagi*: argizari; «cera».

⁵ *amusko*: ubel, more.

⁶ *hits*: triste.

Odol-okada itzalaren ostean, monjatxuak emonik, gurutza bat besarkatu ta hitz makal baina gozatsuz dirautso Nikanorrek:

—Jesu...

—Erruki nizaz! Maite zaitut! —gehitu deutso lekaimeak samur samur.

—Maite...

Ta irudi beso zabalduari mun egin nahian gogortu da. Hortxe datza, epel-hotz, irribarre antzez, Kristori azken laztan egokia ostu hurren.

AMAIA

Aurkibidea

Sarrera.....	7	Bigarren zatia.....	149
Lehenengo zatia.....	43	Atalak: I.....	151
Atalak: I.....	45	II.....	159
II.....	51	III.....	165
III.....	60	IV.....	171
IV.....	65	V.....	178
V.....	72	VI.....	186
VI.....	80	VII.....	193
VII.....	88	VIII.....	207
VIII.....	98	IX.....	211
IX.....	107	X.....	216
X.....	111	XI.....	224
XI.....	117	XII.....	228
XII.....	123	XIII.....	234
XIII.....	128	XIV.....	246
XIV.....	134		

LABAYRU-IRASTERIA

BIBLIOTEKA - DERIO

Sarr 13.435/87

Gaia.

Tokia.

SUTONDOAN SORTA

1. EGUNEKOA
Ebaristo Bustinza «Kirikiño»
Aurkezpena: F. J. Perea y J. M. Agirre
2. JOSETXO
José Manuel Etxeita
Aurkezpena: Aitor Etxebarria - Adolfo Arejita
3. AZALPENAK
Urkiaga'tar Estepan «Lauaxeta»
Aurkezpena: Jon Kortazar.
4. BERTOLDA TA BERTOLDIN
G. C. della Croce - Otxolua
Aurkezpena: Adolfo Arejita.
5. JAIOKO DIRA
Eusebio Erkiaga
6. EDO GEUK IÑOK EZ
EUSKERAREN ALDE
Ebaristo Bustinza «Kirikiño»
Aurkezpena: Xabier Perea - Adolfo Arejita.
7. BATETIK BESTERA
Eusebio Erkiaga
Aurkezpena: Iñaki Sarriugarte.

Agertzekotan:

KRESALA
Txomin Agirre

AUÑAMENDIKO LOREA.
Txomin Agirre

IZLAUZKO BILDUMA
R. M. Azkue